



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko urriaren 27a

109. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, adingabeei arreta integrala ematekoa. Aurkeztutako osoko zuzenketak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, adingabeei arreta integrala ematekoa.

AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, adingabeei arreta integrala emateko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2005eko ekainaren 6ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 17an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Adingabeei arreta integrala emateari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Zenbait arrazoi direla-eta aurkeztu diogu osoko zuzenketa Adingabeei arreta integrala emateari buruzko Foru Lege proiektu honi; batez ere, arrazoi hauengatik:

a) Ez du aurrerapausorik ekartzen foru erkidegoan adingabeari laguntzearen arloan orain arte egin denarekin alderatuta, eta, bestetik, ez du egiazki integrala den arreta bat taxutzen, baizik eta eragin partziala duten neurri eta arauen multzo xume eta osatu gabeko bat.

b) Nafarroan adingabeentzako arretaren esparruan diharduten taldeek parte-hartze urria izan dute testuaren prestaketan.

c) Neurriak hartzeari, adingabeei laguntzeko zentzuei eta zentroetako egoiliar diren adingabeen estatutuari dagokien oro, geroago egitekoa den erregelamendu bidezko garapen baterako uzten da zurian, eta legegintza-erakundeari ez zaio hain

gai garrantzitsuetan eztabaidarik egiteko aukerarik ematen.

d) Adingabeei laguntzeko politiketara haiek bete ahal izateko beharrezkoa den dirua aurrekontuetatik bideratzeko konpromiso politikorik ez dago. Proiektua kaleratu dute aurrekontu-lehentasunari buruzko asmo-adierazpen soil bat besterik egiten ez duen xedapen gehigarri batekin.

Zioen azalpenetik bertatik, proiektua mugatzen da gaurdaino jadanik arauturikoaren bilduma bat egitera. Azken urteotan gure gizartean adingabe, haur eta nerabeen egoerak izan duen bilakaerari erantzuna emanen dion araudi aurreratu bat proposatu beharrean, orain arte dagoena finkatzearekin asebetetzen da. Zioen azalpenak ez du inolako aipamenik egiten foru erkidegoan adingabeen arretari dagokionez gaur egun bizi dugun egoerari buruz, ez eta gure ahaleginei ipini diegun jomugari buruz, eta, are garrantzitsuago, ez du esaten zein baliabide izanzen diren eskueran egoeraren eta beharrezkoen araberrako lege-tresna bat lortu eta horrela arlo honetan foru administrazioak dituen eginkizunak eta eskumenak behar bezala erabili ahal izateko.

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen 1989ko Konbentzioak zenbait printzipio biltzen ditu, babes, hornidura eta partaidetzari buruzkoak, berriazko eskubideetan gauzatzen direnak. Horiek legetan jaso behar dira, aplikatuko direla bermatzeko. Alabaina, proiektuak ildo horretan emandako urratsak eskasak dira, eta gaiari egiten dion hurbilketa ez dago inola ere oinarritua adingabengan eta haien eskubideetan; horren ordean, administrazioa bera hartzen du ardatz, bai eta harekin lankidetzan jarduten duten entitate pribatuak ere.

Bestetik, proiektuak ez du aintzat hartzen, halaber, organismo eta erakunde publikoen arteko lankidetzaren beharra. Lankidetzari hori beharrezkoa da haur eta gazteei arreta koherentea eta antolatua eman ahal izateko eta, horrela, babes-

gabetasun-egoerak antzematea ez ezik, eskuera dauden baliabideen arabera esku-hartze eraginkorrak ahalbidetzea lortzeko. Bereziki, xedatu beharko litzateke Nafarroako Gobernuak departamentuen arteko politikei bultzada eman diezaiela, eta ez dadila ohiko jaierarantz lerra, alegia, soilik departamentu batean eragiten duen lege bat ez dezala onets.

Bestetik, ez da aipamenik egiten adingabearekiko prozesuaren fase bakoitzean esku hartzen duten profesionalak edo beste edozein pertsonak prestakuntza espezializatua izan beharri buruz. Ikuspegi horretatik, hutsune handi bat izatearen sentsazioa hautematen da, eta, dauden beharriak zein diren jakinen ez bagenu, ondorioztatu ahalko litzateke prestakuntzaren ibilbidea egin dela haurtzaroan eta nerabezaroan agertzen diren beharriak eta arazo berriei egokitu beharrik izan gabe. Kezka berezia eragiten du entitate pribatuetan dihardutenek izan beharreko lanbide-eskakizunak arautu gabe uzteak.

Legebiltzar honetara igorritako lege proiektua ikusirik, adingabeen familiaratzea eta gizarteratzea ahalbidetzeko beharrezkoak diren esku-hartze soziofamiliarak nola gauzatu nahi diren ez dakigula gelditzen gara.

Haurtzaro eta nerabezaroaren behatoki baten falta nabaritu dugu proiektuan, bai eta haur eta nerabeei laguntzeko batzorde iraunkor batena ere (edozein xedapenen inguruan kontsultarako eta aholku emateko organo bat litzateke, foru gobernuak lege honekin zerikusia daukaten gaietan proposatua). Tresna horien bitartez ahalbidetuko litzateke adingabeen beharriak eta bizi-baldintzak ezagunak eta ebaluatutako izatea, foru erkidegoko administrazio publikoek haien berri izan dezaten eta urratsak eman daitezzen arrisku edo babesgabetasun-kasuetan, esku-hartzeak azkarrak eta eraginkorrak izan daitezzen ahaleginduz. Proiektuan proposatzen den balorazio batzordea neurri erabat kaskarra iruditzen zaigu. Gauza bera esan behar dugu neurria aplikatu ondoko eta jarraipenerako jarduketari dagokienez; haiei buruzko araubidea guztiz kaskarra da lortu nahi den helburua aintzat harturik.

Laguntza tekniko eta aholkua emateko lantalde psikosozial espezializaturik ez da sortzen; halaber, esku-hartze hauen xede diren pertsonen beharriak berri eta askotarikoei erantzun ahal izateko moduko profesionalen prestakuntza-programarik ere ez da jasotzen.

Amaitzeko, Nafarroako Gobernuak legebiltzar honetara bidali duen foru lege proiektuak, adingabeei arreta integrala emateari buruzkoak, ez dio

tinko ekiten adingabe eta nerabe arau-hausleen multzoekiko printzipioak eta jarduketak arautzeari –neurri judizialak aplikatu baino lehen–, eta uko egiten die adingabe eta nerabeei eragiten dieten neurriak zigor eta epai arloetatik ateratzea lortuko luketen esku-hartze profesionalari.

Lehen azaldutako arrazoiak direla-eta, eskatzen dugu adingabeei arreta integrala emateari buruzko foru lege proiektu hau Nafarroako Gobernuari itzul dakiola.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Adingabeei arreta integrala emateari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Lege proiektuaren izenak berak, “adingabe” terminoa erabiltzen duen horrek, XXI. mende honetan zaharkituta dagoen kutsua dauka. Haurrak ez dira pertsona txikiak edo maila baxuagokoak; zuzenbideko subjektu diren herritarrek dira, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak dioen bezalaxe.

Igorritako proiektuak bigarren maila batean uzten ditu haurren eskubideak; horren ordez, haurren eskubideen aitorpenean eta jarduketa guztien integritasun eta orokortasunean oinarritua egon beharko luke.

Proiektuaren planteamendua murriztailea da, ez baitie osotara heltzen haurren premiei, arazoetara mugatzen da eta esku-hartzea gizarte zerbitzuen alorrera bideratzen ditu, kontuan hartu gabe gaiarekin zerikusia duten beste arlo eta departamentu batzuk. Hezkuntza, Osasuna, Etxebizitza eta Ingurumena.

Lege proiektuan jaso diren jarduketetatik heldu den prebentzio kontzeptua arazoetan oinarriturik dago, eta ez haurren babes integralean.

Lege proiektuak oso modu lausoan ezartzen ditu xedeak eta jarduketak, zehaztasunik gabe eta prebentzio proiektu batek hezkuntzari eta alderdi sozialari dagokienez izan beharreko gutxienezko lotu gabe.

Lege proiektua ez ditu aintzat hartzen arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko planean onetsitako alderdietako asko.

Proiektuak ez dio heltzen administrazioaren elkarte lankideen babes eta zaintzapean dauden haurren eskubideak bermatzeko baliatu beharreko

tresnari. Ez du halaber arautzen zein izan behar diren zentro horietan haurrei arreta eman behar dieten profesionalen ezaugarriak.

Proiektuan ez da jaso Nafarroako Gobernuaren lehentasunak ezartzea aurrekontuetan, haurren eskubideak babesteari eta haien garapen integralerako dituzten beharrezaneri erantzuteari begira.

Lege proiektua haurrekin lan egiten duten pertsonen parte-hartzerik gabe egin da. Ez da biderik bilatu haurren parte-hartzea ere bultzatzeko.

3. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, adingabeei arreta integrala emateari buruzko foru lege proiektua Gobernuari itzul dakion eskatzen duena.

Zioak: Nafarroako Gobernuak Adingabeei arreta integrala emateari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Parlamentu honetara. Kontuan izanik autonomia erkidego gehienek gai horri buruzko legeak jadanik onetsiak dituztela, gure itxaropena zen ezen Nafarroako Gobernuak, nahiz eta berandu, analisi erkatu sakon bat egin ondoren haurrei arreta integrala emateari buruzko lege proiektu on bat egiten zuela. Izan ere, lege hauxe zen, hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko planean –2002ko irailean onetsia– jasotako helburuetako bat; hori dela-eta, gure aburuz, izan da denborarik proiektu on bat egiteko.

Zenbait elkartek eta gizarte-eragilek agerian utzi dutenez, ordea, proiektu honek beste lege batzuekin eginiko “ebaki eta itsatsi” soil baten itxura besterik ez du, eta ez du aintzat hartu haurren babes integralaren doktrina definitzen duten elementuetakoren bat.

Hain zuzen, eta adibideren bat besterik ez aipatzearen, izenean ere (adingabeei buruzko foru legea, “ley foral del menor”, gaztelaniaz) ez du arretarik ipintzen hizkera ez-sexistatik ez erabiltzeko; testu osoan zehar etengabe aipatzen dira, gaztelaniaz, “los menores y los jóvenes”, egokiago liritekeen beste espresio batzuk erabili beharrean, hala nola “personas menores de edad”, “personas jóvenes”, “niños y niñas”, “infancia”, “adolescencia” eta abar. Ildo horretatik, deigarri egiten zaigu Gizarte Ongizateko Departamentuaren Idazkaritza Nagusi Teknikoak egin eta legeari erantsi beharreko txostenean esatea proiektu horrek ez duela jasotzen “sexua dela-eta inolako eragin negatibo

ekartzen duen inolako xedapenik”. Lege horren izena irakurri besterik ez zen egin behar.

Baina hori ez da garrantzitsuena: lege honek, nahiz eta izenean hori dioen, ez du ezartzen, eta ez dirudi xede gisa ere duenik, adingabeei bideraturiko arreta integralik. Adingabeentzako egiazko arreta integrala lortzeko, haurren eskubideei buruzko kapitulua garatu beharko zatekeen, eta, eskubide horiek abiapuntu gisa harturik, Nafarroako Gobernuan adingabeentzako arreta integralarekin nolabaiteko zerikusia daukaten gainerako departamentuei ere parte harrarazi.

Lege proiektu hau aztertu ondoren, badirudi arreta integralaren auziari heldu nahi zaiola xede gisa izanik adingabeak gizartearentzat arazo bihur daitezela saihestea. Haurrez arduratzeko, haien eskubideak hartu behar dira abiapuntu, eta ahalegina egin behar da garapen integrala lortzeko dituzten beharrezaneri erantzuteko.

Baina, horrez gain, arazo sozialak dituzten gazteen gaia arautzean, ahaztu egin dira Nazio Batuek gazteen delinkuentziaren prebentziorako emandako jarraibideak, bai eta askatasun gabetuak izan diren adingabeen babeserako Nazio Batuek emandako arauak ere.

Era berean, ez da ezertxo ere esaten berariazko prebentzioari buruz, zeren eta, nahiz eta proiektuko hirugarren titulua prebentzio-jarduketetz hitz egiten duen, tratamendu erabat orokorra eta zehazgabea egiten baita, eta hori osatu beharreko zerbait da.

Gazte horientzako zentro espezializatuei dago-kienez, espresuki adierazi behar da zertan dautzan; hau da, ea eskubideen murriztapenak eragin ditzaketen euste- eta segurtasun-neurri bereziak izan ditzaketen, nolakoa izan behar duen bertako langileen prestakuntzak, bai eta ikuskapenei, neurrien jarraipenari eta abarri dagokiona ere. Gainera, neurriak aplikatzen direnerako, adingabeek errekurtsioa aurkezteko daukaten eskubidea aitortu beharko da.

Azkenik, interesgarria litzateke lege horretan jasotzea 2002an egin ziren jardunaldi batzuen ondorioak. Jardunaldi haietan autonomia erkidegoek, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak parte hartu zuten.

Hori guztia dela eta, eta batez ere proiektuaren funtsezko alderdiak berraztertu behar direlako, eta, beraz, proiektua zuzenketa partzialen bidez zuzentzerik ez dagoenez, Adingabeei arreta integrala emateari buruzko Foru Lege proiektua Gobernuari itzul dakiola eskatzen dut, zeresana

daukaten sektoreei eta elkarteei entzun ondoren beste lege proiektu bat presta dezan, adingabeen arreta integralaren gaiari egiazki helduko diona.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Adingabeei arreta integrala emateko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa, ordezeko testuarekin.

ORDEZKO TESTUA **Haurrentzako sustapenari,** **laguntzari eta babesari** **buruzko Foru Legea**

ZIOEN AZALPENEA

I

Familiaren eta umeen babesa, Espainiako 1978ko Konstituzioaren 39. artikulua ezartzen duenez, politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarietako bat da.

Gure ordenamendu juridikoak adingabeei buruz egun duen ikuskera, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak indarra hartu zuenetik bereziki, errotik aldatu da. Izan ere, gaur egun, subjektu aktibo, parte-hartzaile eta sortzailatzat hartzen dira adingabeak, eta, askatasuna eta bakoiztasuna abiapuntu hartuta, beren izatearen eta historiaren protagonista izateko, duten inguru pertsonalean eta sozialean parte hartzeko –eta aldatzeko, behar izanez gero– eta dituzten beharrak bilatzeko eta asetzeko gaitasun progresiboa duten subjektu gisa.

Zenbait autonomia erkidegok, dituzten eskumen konstituzionalen esparruan, araudi hori garatzeari ekin diote; horrela egin du, besteak beste, Gaztela eta Leongo Erkidegoak, eta bertako legea du foru lege honek inspirazio iturri.

Nafarroan, Arartekoak adingabeak artatzeari buruzko foru lege bat proposatu zuen 2003an, gure erkidegoan ez baitago horri buruzko berariazko araudirik. Halaber, arartekoen koordinazioari buruzko jardunaldietan –Nafarroan izan ziren 2002an–, lan tailerrak egin zituzten azken lege aldaketan ondoren adingabeak zuten egoera aztertzeko.

Horren ondorioz, eta arlo honetan legeak onetsi dituzten erkidegoen printzipio eta jarraibideak jasoz bai eta, halaber, arartekoek jarduteko emani-

ko gomendioak ere, foru lege honen asmoa da adingabeen eskubideen babesa eta aldeztearautzea, eta Nafarroan egun dagoen arau-sakabanaketa zuzentzea nahiz eta hori ez den eragozpen izanen Estatuak ere arlo hau arautzeko.

Honelako foru lege batek, beraz, marko juridiko zehatza, orokorra eta aski izanen dena ezartzen laguntzea du helburu, hurrengo printzipioak abiapuntu izan beharko dituzten politikak antolatzeko: adingabeen interesen lehentasuna, bestelako interes zilegiak egonda ere; adingabeek gizartean aktiboki parte hartzeko gaitasunaren aitorpena; familiaren babesa, adingabeekiko duen ardura bere gain har dezan; gizartean eta adingabeen artean tolerantziaren, elkartasunaren eta errespetuaren balioak sustatzea, eta bizikidetzako printzipio demokratikoak ere bai; administrazio publikoen jarduketan plangintza eta koordinazioa, ekintzak horrela integralak izan daitezzen; gizartearen ekimenezko erakundeen arteko elkarlanaren sustapena; adingabeen eskubideak aldezteko eta babesteko ekintzen lehentasuna; segurtasun juridikoaren bermea; jarduketan konfidentzialtasun eta diskrezioa; eta gizartearen sentsibilizazioa haurren arazoekiko.

Gaitasun horiek gauzatzean eta eskubide horiek erabiltzerakoan, adingabeen egoera, adingabe izateagatik, ahulezia, gutxiagotasun eta babesik gabeko egoera da; ez da dudarik. Horrenbestez, herritar multzo horrek erasoak jasateko arrisku gehiago du. Hori dela eta, batetik, babes juridikoa eta administratiboa eman behar zaie, eta babes horrek, eraginkorra izateko, berariazko plus bat behar du, plus bereziki indartsu bat gainerako pertsonentzat ezarritakoaren aldean; eta, bestetik, botere publikoek ziurtatu egin behar dituzte babes horren alderdi guztiak, babesaren osotasuna kon-tuan hartuta.

Babeste horren eraginkortasuna lortze aldera, adingabeak nortasuna erabat garatzea laboratuko duen egoera sortu behar da eta, halaber, adingabea familiar eta gizartean gutxika eta modu aktiboan integratzea laboratuko duen egoera.

Adingabeei, gutxika-gutxika, aitortzen ari zaie gizartean duten egitekoa, protagonismo gero eta handiagoa izan behar dutela eskatzen da, adierazten da garrantzitsua dela dagozkien eskubideen erabilpena aldezte, garatzea eta bermatzea, eta gizartea jabetua dago babes juridiko egokia behar dutela adingabeek eta horrekin kezkatuta dago: horiek denak argi erakusten eta frogatzen dute behar-beharrezkoa dela arau bat.

Autonomia erkidegoak eskumen osoak dituzte esleituta gizarte-ekintzaren eta -zerbitzuen arloan,

adingabeen babes eta zaintzaren arloan, eta haurren, gazteen eta familiaren aldeztearen eta laguntzaren arloan. Hala ageri dira horiek Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluan, eta horiek dira gure erkidegoari lege hau emateko oinarria eta bidea ematen diotenak.

II

Ekintzen eraginkortasuna helburu, izaera eta irismen mota askotako arauak eman izan dira, eta ahaleginak batuz joan dira era horretan. Batera gertatu dira nazioarteko arauak –hala unibertsalak nola eskualde jakin baterako emanikoak– eta arau estatal eta autonomikoak; denak gauzatu dute, gutxika-gutxika, batera eta elkar osatuz, haurren babesari buruzko marko juridikoa.

Horrela, lehenbizi Espainiak berretsitako nazioarteko itunak hartu behar dira kontuan, hala giza eskubideen babesari buruzko tresna juridiko orokorrak nola haurren eskubideei buruzko berariazko tresnak, eta azken horien artean, bereziki, 1989ko azaroaren 20ko Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa.

Estatuko legediaz denaz bezainbatean, bereziki hartu behar dira kontuan Espainiako 1978ko Konstituzioa, eta horrekin batera Kode Zibila –maiatzaren 13ko 11/1981 Legeak, azaroaren 11ko 21/1987 Legeak eta 1/1996 Lege Organikoak ezarritako testuaz–, gainerako lege organikoak eta adingabeak dituzten eskubideen erabilerarekin lotura zuzena duten edo adingabeei zuzenduriko ekintzekin lotura zuzena duten gaien oinarrizko baldintzak arautzen dituzten gainerako legeak.

Estatuan adingabeen arloan dagoen legediaz denaz bezainbatean, aipatu beharrekoak dira, adopzio eta adingabeentzako bestelako babes moduei dagokionez, Adingabearen babes juridikoa, Kode Zibila aldatu zuen azaroaren 11ko 21/1987 Legea eta Prozedura Zibileko Legea; aipatzekoa da, baita ere, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 5/2000 Lege Organikoa.

Esparru autonomikoari dagokionez, Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 44. artikulua ezartzen duenez, Nafarroak eskumen osoa du adingabeentzako gizarte laguntzaren, babesaren eta zaintzaren arloan; 48. artikulua, berriz, dio Nafarroak eskumen osoa duela foru zuzenbide zibilaren arloan, eta Foru Berriaren I. liburuko VI. tituluak adopzioa eta umeordetzea jasotzen ditu. Azpimarratzekoak dira, halaber, Gizarte zerbitzuak arautzen dituen

martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea, Adopzioak, familia harrera eta adingabeentzako laguntza arautzen dituen martxoaren 25eko 90/1986 Foru Dekretua eta Nazioarteko adopzioaren gaitan lankide diren entitateen kreditazioa arautzen duen uztailaren 22koa 168/2002 Foru Dekretua, ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretua aldatu baitzuen.

III

Legeak artikulua asko ditu eta xehetasunez helitzen die haurrentzako laguntza orokor eta berariazkoarekin eta haurren babesarekin zerikusia duten gai guztiei. Artikuluak joera eta edukiari begiratuta, aurreikusten dutenaren azpian eta ematen dituzten aginduen azpian zer ildo definitzaile dauden atzeman daiteke.

Atariko tituluan xedapenik orokorrenak ematen dira; hasteko, legearen xedea ezartzen da, alderdi asko dituen xedea, eta hurrengo alderdiak espresuki jasotzen dira: adingabeei aitortutako eskubideak bermatzea eta aldezte, prebentzio-ekintzak arautzea, berariazko babes-ekintzaren marko juridikoa ezartzea, adingabe arau-hausleei ezarritako neurrien betetzea gidatuko dituen irizpide orokorrak ezartzea, instantzia bakoitzari dagozkion eskumenak zehaztea, gizartearen elkarlana eta parte-hartzea gauzatzeko bideak ezartzea, eta erregistro sistemaren eta zehapen-araubidea antolatzea.

Legeak, jakina, adingabeak ditu aplikazio eremu; horretarako, adinaren irizpide pertsonala erabiltzen da batetik, eta foru erkidegoan bizitzearen lurralde-irizpidea bestetik. Bietan ere, malgutasunez jokatu ahal izatea aurreikusi da, adin-nagusitasunera helduta ere, edo Nafarroan aldi baterako edo behin-behinekoz egonda ere, legea aplikatu ahal izateko.

Legeak titulu horretan jasotzen eta aldarrikatzen dituen printzipio eta irizpide nagusien artean, batzuk funtsezko garrantzia dutela aitortu eta hala eratu dira. Horrela, lehenbizi, adingabearen interesaren lehentasuna aipatu behar da, edozein jarduketara zehatzek zuzenean edo zeharka eragin diezaiokeen etekinari lehentasuna eman behar zaiola alegia; etekin horiek zerikusia izan dezakete adingabearen behar zehatzak ase eta dituen eskubideak bermatzearekin, pertsona gisa garapen harmoniatsu osoa lortzearekin, beregainak izatea lortzearekin, eta familian eta gizartean integratzearekin.

Legeak oinarrizko printzipio gisa hartzen du, baita ere, haur eta nerabeek gizartean aktiboki parte hartzeko duten gaitasunaren aitorpena, eta iritzia talde gisa nahiz bakarka adieraztea indar-

tzen eta sustatzen du legeak bai eta iritzi horri balioa ematea eta kontuan hartzea laguntza emateari eta babesteari begira har daitezkeen erabakiak, baztertu, gidatu eta, behar izanez gero, oinarritzeko ere.

Era berean, adierazten da lehentasuna dutela adingabeen eskubideak aldezteko eta babesteko ekintzek bai eta adingabeen kaltegarri diren egoerei —esplotazioa, tratu txarrak, moldegabezia edo babesik eza— aurrea hartzeko ekintzak ere. Hain zuzen ere, aldezte-ekintza hori da haurrentzako laguntza-jarduketa guztiak biltzen dituen funtsezko kontzeptua; oraingoan ulertzen da jarduketa horiek oinarrian izan behar dituzten ideiak aldezte, aldez aurreko esku-hartzea eta politika integralak izan behar dutela eta ez horrenbeste erantzun aringarria, ondorengoa eta atalez atalekoa.

Orobat, legean araututako jarduketan azken helburutzat ezartzen dira haurren gizarte ongizatea aldezte eta Nafarroako Foru Komunitateko adingabe guztiei erraztea beregaintasuna, garapen osoa eta familian nahiz gizartean modu normalizatuan integratzea.

Adingabeentzako jarduketetan, edozein dela ere horien izaera eta irismena, enfasi bereziz aldarrikatzen dira plangintza, ekintzen osotasuna (egoeraren normalizazioa lortzeko saioan, laguntzarako eta behar guztiak asetzeko baliabide guztiak era bateratu eta koordinatuan abian jartzea), koordinazioa, eskumenen esleitzea abiapuntu hartuta, ardurakidetzaren printzipioaren adierazgarri zuzena baita, eta gizartearen parte hartzea eta elkarlana.

Babes-ekintzen esparru zehatzean, printzipio nagusietako bat da horiek gutxika-gutxika subsidiarioak izan behar dutela. Gurasoak, tutoreak eta familia-taldea dira, babes- eta laguntza-inguru gisa ulertuta, haurren garapenerako inguru normalizatuak; horrekin batera, osasun sistema publikoak, hezkuntzakoak, gizarte ekintzakoak eta justiziakoak, eta babes sistema espezializatuak, azkenik, dira hurrengo mailak, eta horiek aldi berean edo hurrenez hurren aktibatzen dira ikusten bada aurrekoak ez dutela ziurtatzen haurri laguntza emanen zaiola eta dituen eskubideak osoki erabiltzeko modua izanen duela.

Esparru berean eta printzipio horrez gain, legeak aldarrikatzen dituen beste batzuk ere azpimarratu daitezke, hala nola erabakiak teknikoak izan behar dutela eta diziplina askotako kideren artean hartutakoak, jarduketak pertsonaz pertsona ezarri eta gauzatu behar direla, segurtasun juridikoak, konfidentzialtasunak eta diskrezioak bermatua behar dutela, adingabeak gertuko inguruan jarraitu

behar dutela eta familia-nukleoan esku hartzeari eman behar zaiola lehentasuna, eta haien iritzia gutxika-gutxika aintzat hartu eta dituzten gaitasunen arabera parte hartu behar dutela.

Haurren arazoekiko gizartearen sentsibilizazioa eta bai gizartean bai haurrengan elkartasuna, errespetua, tolerantzia eta bizikidetasuna sustatzea lehen mailako erreferentziak dira eta arlo honetako jarduera orokorrenak blaitu behar dituzte.

Azkenik, bermatzeko jarduketa guztiak adingabearen interesaren lehentasunak gidatuko dituela modu egoki eta eraginkorrean, legeak horren arabera aurrekontu-lehentasuneko konpromiso bat jasotzen du.

IV

I. tituluak xehetasunez arautzen du ordenamenduak adingabeei aitortzen dizkien eskubideen aldezte, bermea eta babesia.

Hemen jasotako xedapenak Adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoko 11. artikulua modu generikoan agindutakoen adierazpen positiboa dira. Horrela, bada, irmoki eta ospez adierazi nahi da Nafarroako administrazio publikoek arduratu dutela berariazko eskubide hauen erabilera bermatzeko eta errazteko, babes eta aldezte berezikotzat hartzen baitira. Horretarako, hurrengoak egin behar ditu: eskubide horien gozamina bermatuko duten politika integralak gauzatu; aipatu eskubideen hedapenerako, informaziorako eta prestakuntzarako ekintzak abian jarri; arlo horretan edozein diskriminazio saihestu edo zuzendu eta berdintasunaren mesedegarri izan diren konpentsazio-jarduketak erabili; eskariak eta kexak bideratzeko eta defentsa-akzio egoki eta lasterra emateko sistema eraginkorrei eutsi; eta modu iraunkorrean eskura izan babes juridiko eta administratibo berezia eta indartsua ziurtatuko dituzten kontrolak, zenbait esparru edo jarduera-arlo berezitan haur eta nerabeek erasoak jasateko edo defentsa-gabeziako arrisku gehiago baitute.

Legeak arreta berezia jarri du hedapenean eta informazioan, eskubide horien aldezte eta bermearen nahitaezko euskarri baitira, eta jarduketa zehatzak proposatu ditu horri dagokionez.

Ondorioz, jarrera horren adierazgarri, eskubide guztien katalogo osoa jaso da eta berariazko aurreikuspenak egin dira ondokoei buruz: eskubideen irismena, lehentasunen adierazpena, eskubide horiek barnean hartzen dituzten zenbait alderdi egoki arduratzeko kontsiderazio bereziak, eskubideen eraginkortasuna bermatzeko agindu

zehatzak, eta, gainera –lotura zuzena du aurreko horrekin–, debekuak, mugapenak eta jarduketa zehatzak hauei buruz: jardun desegoki edo gainbegiratu gabekoaren ondorioz gertatutako eragin edo ondorio negatiboen babesgarri izan nahi duten jarduera, baliabide eta produktu jakin batzuei buruz.

Eskubide horien babesak, erabiliak izatearen bermeak eta ezarritako debeku eta mugapenen errespetuak laguntza berezia, gehigarria eta zehatza izanen dute; hain zuzen ere, horretarako, balizko ez-betetzeak eta urratzeak gaitzespena merezi duten arau-hauste gisa tipifikatutako jokaera eta egitate izanen dira, eta gaitzespen hori legeak berak administrazio, entitate eta organoei esleitzen dien zehapen-eskumenak erabiliz adierazi eta gauzatu behar da.

Eskubideen ordain eta ondorio gisa, legeak adingabeen betebeharrak ere jasotzen ditu, eta, horretarako, kontuan hartu dira, batetik, familian, eskolan eta gizartean pertsona gisa esleitzen zaien zeregina, eta, bestetik, eskubide horien subjektu aktibo direla eta eskubide horien gozamenarako baldintzak ezartzen dituela aldi berean adingabeentzat nahiz adinez nagusientzat izateak eskubide horiek.

V

Legeak prebentzio-jarduketaren lehentasuna aldarrikatzen du eta horiei buruz dihardu II. tituluan. Izan ere, administrazio eta erakunde guztiek lehenbiziko helburutzat izan behar dute babesik eza eragiten duten arrazoiak desagerraraztea, eta, dituzten eskumenak eta ardurak abiapuntu hartuta, horretan ahalegindu behar dute.

Prebentzio neurriak eraginkorrak izateko zenbait printzipio nahitaez bete behar dira, hala nola alde zuzenetik beharrak detektatzea, planak egitea eta ekintzak osoak eta osagarriak izatea, koordinazioa eta informazio-trukea.

Legeak berak, arloka eta zerrenda itxia emateko asmorik gabe, neurririk garrantzitsuenak biltzen ditu; neurri horietako bakoitzak, hain zuzen ere, hurrek gure esparruan eta gure gertuko inguruetan duten egoera kontuan harturik bereziki azpimarragarriak diren fenomeno, behar eta helburuekin du zerikusia. Haurren eskubideenganako sentsibilizazioa, hezkuntza-laguntza, osasuna, familientzako laguntza eta gizarte-harremanen eta enpleguaren arloko aurreikuspenak, denak ere, jarduketa zehatz eta berezien bidez –jarduketek osagarriak izan behar dute, duda gabe–, egoki bete beharreko eginkizunak dira.

Legeak aldi berean azpimarratzen du, prebentzioari dagokionez, garrantzitsua dela hurbiletik jardutea, hartzailleak hurbil izatea eta ezarritako neurriak talde eta lekuen egoera eta beharren arabera izatea. Horrenbestez, zeregin berezia gorde zaie toki entitateei, hori baita herritarraren hurbilen dagoen administrazioa; detekzioa, hortik, zehatzagoa eta azkarragoa da, eta erantzuna egoikiagoa eta bat-batekoa.

Azkenik, neurriak eraginkorrak izan daitezten, batetik, ekintza administratiboaren esparru guztietatik bultzatu eta garatu behar dira neurri horiek, eskumenen banaketaren arabera, eta, bestetik, sistemen, departamentuen eta entitateen arteko koordinazio eta elkarlana behar da eta horien eta laguntzarako bestelako instantzi guztien arteko koordinazio eta elkarlana.

VI

III. tituluak babestea du hizpide; izan ere, babestea, egun, adingabeen eskubideen aldezea eta garapena adierazten eta aktibatzen duen mailako bat dela jotzen da eta administrazioak arriskuan edo geriza-gabetasunean dauden haur eta nerabeen arloan esku-hartzeko sistema espezializatua da.

Legak babeste-eginkizunaren helburua zein den adierazten du, eta legearentzat hau da, hain zuzen: adingabeak babesik gabe dauden aipatutako egoerak konpontzea, eta bermatzea, horrela, osoki garatuko direla pertsona gisa eta beregainak izanen direla, eta behin betiko integratuko direla modu seguruan eta egonkorrean bizikidetasuneko talde naturaletan, bizitzako esparru guztietan parte hartzea ahalbidetuko duten oinarrizko baldintza batzuk sortuz horretarako.

Administrazioaren esku-hartzeak, halabeharrez, printzipio eta irizpide multzo bat du oinarri eta gidari. Printzipio horiek aldi berean dira agindu eta berme, esku-hartzearen doitzeta etengabearen berme, hau da, administrazioaren esku-hartzearen funtsari –gure ordenamenduak nola definitzen duen kontuan hartuta– doituko zaiola bermatzen dute eta, era berean, legeak berak adingabe babestuei aitortzen dizkien eskubide espezifikoen edukari doituko zaiola bermatzen dute. Printzipio horien adibide azpimarragarriak dira hurrengo hauek: familia inguruan egiten diren jarduketaren lehentasuna; adingabearen beregaintasunaren, askatasunaren eta duintasunaren errespetua; erabakiak hartzean adingabeak aintzat hartzea, dituzten gaitasunen arabera; indibidualizazioaren eta esku-hartze ahalik eta txikiaren printzipioak; prozedura arautuak ezarri eta horiei men egitea; diziplinartekotasuna; edo baliabide normalizatuak

eta oinarrizko zerbitzuak berariazko baliabideekin batera aritzea. Eskubide berezien artean, aldiz, balio nabarmena hartzen dute hurrengoekin zerikusia dutenak: babestua izatea, norberaren beharren asetzeari begira subjektu aktibotzat hartua izatea, informatua eta entzuna izatea, tratamendu egokia izatea bai eta behin betiko integrazio segurua eta egonkorrerako plan bat izatea ere, segurtasun juridiko eta emozionala bermatua izatea babeste-egintzak dirauen bitartean, familian jarraitzea ahal den guztietan, identitate kulturala, jatorriaren ezagupena edo konfidentzialtasun eta diskrezio osoa. Zerrenda biek, jarduketak irizpideena eta babestutako adingabeei aitorturiko eskubideena, funtsean, administrazioaren babes-jarduerak nolakoa behar duen zehazten laguntzen dute.

Legeak babes-neurriak eta babes-jarduketak ezberditzen ditu, eta hori bereziki interesgarria da. Esku-hartzearen intentsitatearen arabera bereizten dira bi kontzeptu horiek, hots, zenbatekoak diren, batetik, adingabearengan eta haren familiarengan eginiko esku-sartzea, eta zenbatekoak, bestetik, horren ondorioz galdagarriak diren berme juridikoak. Bi ekintza-maila bereiz daitezke horrenbestez.

Hauek baino ez dira neurriak: babes-izaera eta -ondorioak izan eta legeak halakoak direla esandakoak edo entitate publikoak kasu bakoitzean erabakitakoak legeak berez bi izaera horietako edozein izan dezaketela zehazten dituenen artean; azken kasu horretan, neurriak hartzeko edo jarduketak egitea erabakitzeko, entitate publiko horrek ebazpena eman beharko du eta horretarako ezarritako prozedurari jarraitu beharko dio. Jarduketak, aldiz, laguntzako, kontroleko, asistentziako, konpentsazioko, hezkuntzako edo terapiako esku-hartzeak dira; ez dute berariazko izaerarik ezta babes-izaerarik ere, baina horrelako ondorioak dituzte. Entitate publikoak berak erabaki eta gauzatu ditzake edo toki entitateek, babesaren arloan dituzten eskumen eta eginkizunen barrenean.

Azpitarragarria da, halaber, edozein arrisku egoeraren edo balizko geriza-gabetasunen berri izandakoan, legeak hori jakinarazteko eta salatze-ko beharra ezartzen duela, edozein pertsonentzat ezarri ere, nahiz eta hori bereziki galdagarria den zenbait estamenturentzat. Babesgabetasun-egoera bati lotuta ageri diren balizko ondorioak hain dira larriak, etorkizunera begira bereziki, eta hain dira garrantzitsuak kinkan gerta daitezkeen eskubideak ezen ziurtatu egin behar baita agintariak berehala izanen dutela horren berri, babes sistema ere, horrela, berehala jar dadin abian eta atzerapenak ez ditzan konponbidea zaildu edo eraginak larriagotu.

Legeak ahalik eta zehatzen ezarri nahi du zein diren babesik gabeko egoerak, txikiagoa izan dadin halakorik dagoen erabakitzeko zuhurtziarakotasuna. Horrela, geriza-gabetasuneko egoerak zehazteaz eta identifikatzeaz gain, ohikoa baita horrelako legeetan, arrisku egoeren kontzeptua ere ematen du, zeina orain arte ez baitzen horren kategoria zehatza; babesgabetasun-egoerekin gertatzen den bezala, arrisku egoerak definitu egiten ditu eta katalogo bat ere egiten du, eta horrek, zerrenda oso eta zehatza ez bada ere, egoera horiek mugatzen laguntzen du.

Arrisku egoeretan, administrazioaren esku-hartzea, zeina, detekzioa eta balorazioa bezala, toki entitateei edo erkidegoko administrazioari baitagokie kasuaren arabera, jarduketak edo neurriak abian jarritu egiten da –toki entitateek, jarduketak; erkidegoko administrazioak, neurriak–. Helburua izan behar du adingabearen eskubideentzat oztopo diren zailtasun faktoreak eta gabezia zirkuntantziak desagerraraztea, arintzea edo konpentsatzea, eta arreta egokia ematea adingabeari; horretarako, familia ingurua hobetzeko esku-hartzea jarri beharko da abian, guraso edo arduradunen parte-hartzea izaten saiatuko dena, horien jardunaren osagarri izan eta hark dituen beharrak egoki eta modu normalizatuan asetzen lagunduko duena. Ohikoena izanen da haurrak familiarekin bizitzen jarraitzea eta gurasoen laguntza izatea, eta hori, erantzun logiko eta ohiko gisa, toki entitateei esleitu zaie; toki entitateek, horretarako, behar diren jarduketak eginen dituzte, dituzten baliabideak abian jarriko dituzte, eta sistema publikoen eta jardun pribatuaren zerbitzu normalizatuaren lankidetzatza eta babesa izanen dute. Baldin eta gurasoen lankidetzarik ez badago, berariazko tresnak abian jarri beharrez gero edo berariaz eta zehatz-mehatz aurreikusiriko bestelako baldintzarik egonez gero, neurriak hartu beharko dira, hots, erkidegoko administrazioak esku hartu beharko du.

Bestalde, geriza-gabetasuneko egoeretan babes-eginkizuna formalki aldarrikatu beharra dago. Adingabeak behar duen laguntza moral eta materialik ez duela frogatuz gero, familiatik bereiztu eta entitate publikoak tutoretza hartuko du legearen aginduz, eta, horretarako, esleitutako dituen eskumenak erabiliz jardunen du.

Titulu horretako artikuluetan argi ageri da toki entitateei zeregin garrantzitsua gorde zaiela. Horri buruz ezarritakoek –toki-araubidea arautzen duten legediak zer dioten horri jarraitzen diote; hain zuzen ere, udalek orokorrean gizarte-eginkizunei begira dituzten eskumenei buruz legedi horrek dioenari, eta, bereziki, haurren babesari buruz dioenari– toki ituna gauzatzen lagundu nahi dute, ahal

bada beste eginkizun batzuk esleituz, dela transferentzia, eskuordetze edo itun bidez. Horren adibide garbia da, horrela, toki entitateek arrisku egoeretan duten esku-hartzea, erantzun arrunt gisa baitago pentsatua. Era berean, autonomia-erkidegoko administrazioak erabakitako adingabe-zaintza bere gain hartzeko aukerak erakusten du garrantzitsua dela hori, eraginkortasuna abiapuntu hartuta betiere, eta eraginkortasuna, administrazioaren jardueran, bat-batekotasunari eta herritarrekiko hurbiltasunari lotuta ageri da.

Segurtasun juridikoa ahalik eta hobekien bermatzeko ahalegina egin da, eta horrek zerikusi handia du hautatu den bidearekin, hau da, gerizagabetasuneko egoerak aldarrikatzeko prozedura eta babes neurriak hartzeko eta egikaritzeko prozedurak, osagarriak izanda ere, legean xehetasunez arautzearekin.

Gai honek izaera berezia du, zenbait eskubiderengan ere eragin handia du, eta adingabe babes-tuarengan eta bere familian ondorioak ditu edo izan ditzake; horrenbestez, komenigarria da prozedura gaiak legean jasotzea, nahiz eta, gaia beste bat izanez gero, erregelamenduz ezarri ahalko ziren. Kasua, hasiera-hasieratik, teknikari bati esleitzen zaio, eta hark koordinazio eginkizunak hartzen ditu; espresuki dago jasota kasu bat presaz tramitatu daitekeela behar izanez gero, eta horrela bat-bateko erantzuna eman ahal izanen dela; ikerketari dagokionez, zehaztasuna eskatzen da; esku-sartzea eta eragin traumatikoa ahalik eta txikiena izatearen printzipioa jasotzen da; garrantzia ematen zaio adingabeari entzuteari, hark heldutasun eta gaitasun nahikoa duenean; garrantzia ematen zaio, era berean, kasuaren planari, haren edukiari, exekuzioari eta berrikuspenari: horiek dira, besteak beste, jaso diren alderdi garrantzitsuenetako batzuk.

Neurriak eta jarduketak, eta aplikatu beharreko araubide orokorra, xehetasun handiz daude araututa. Ezin zuen bestela izan, horiek, izan ere, babes eginkizunaren adierazpide materiala baitira. Zehaztasunez ezartzen da horien denen kontzeptua, eta guztietarako baliagarriak diren aplikazio-irizpideekin batera, badira beste batzuk horietako bakoitzari buruzkoak.

Irismen orokorreko irizpideak beti hartu behar dira kontuan, kasu guztietan eta babes ekintza guztian zehar. Horien artean, familiari laguntza ematea lehentasunezko hartzea –laguntza emate horren interpretazio zabala eginen da, egungo errealitatearekin bat–; laguntza emate horri hainbesteko garrantzia ematea honako printzipio honen ondorio zuzena da: adingabeak, ahal dela, bere jatorrizko inguruan jarraitu dezan saia-

tzera premiatzen duen printzipioa –behin betikoak ez diren bereizteak ahalik eta laburrenak izan behar dute, eta, berriro elkartzea ezinezkoa denean, beste familia ordezkoi batean modu egonkorrean sartzea bilatu behar da. Legeak argi eta garbi dio, halaber, behar diren baldintzak edo egoerak frogatu bezain laster, «ex lege» tutoretza ezarri behar dela. Izaera bera dute hamabi urterik ez duten haurrentzat egoitza-harrera salbuespen gisa erabiltzeari buruzko zuhurtasunak edo adingabearen adinaren arabera gehienezko iraupena ezartzearen egokitasunak. Jarraibide horien osagarri ditugu, azkenik, zenbait kasutarako konponbide alternatibo gisa baliagarriak diren programak, helduak direnerako laguntza eta prestakuntza programak hain zuzen, eta babespean dagoen adingabearen garapena arriskuan jar dezakeen behin-behinekotasuneko edozein egoera ekiditeko agindua.

Familientzako laguntza, bereziki, honetara bideratua dago: adingabea ez dadila bereizi jatorrizko gunetik, eta, hasieran hori nahitaezkoa gertatzen bada, lehenbailehen itzul dadila saiatzera, eta horretarako inguru natural eta hurbil-hurbileko hori hobetu dadila sustatuko da, aipatutako gune hori osatzen duten kideek lagunduko dutelakoan eta jarrera irekia izanen dutelakoan. Horrela, abian jar daitezke, aldi berean nahiz hurrenez hurren, neurri eta jarduketa anitzak, eduki oso ezberdinekoak eta izaera askotakoak, hasi esku-hartze teknikitik eta laguntzarik orokorrenaraino, hala oinarriko zerbitzuek nola espezializatuek gauzatzen baitituzte.

Zaintzaren egikaritzea, bai guraso-eginkizuna dutenek eskatutako zaintza bai legearen ondorioz tutoretza eskuratzearen ondoriozkoa, zehazki arautu da. Horrela, zehazki araututa daude iraupena, familiarekiko kontaktuak, adingabearen iritzia-aren aintzat hartzea, balizko itzulera kontuan izatea ekintzaren helburu gisa, behar diren berme guztiak hartuta, betiere, nahitaez erabaki beharreko muga klase guztiei dagokienez, edo haien zaintzari eta jarraipenari dagokienez –amaituta ere luza daiteke jarraipena–. Aurrekoen osagarri, berariazko aipamenak egiten dira borondatezko zaintzaren eratze eta egikaritzeari buruz; eginkizun horiek, esan bezala, legeak dioenez, toki entitateek har ditzakete bere gain.

Famili harrerari dagokionez, legeak lehentasunez hori erabili behar dela aldarrikatzen du, haurraren adina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta gehiago; legeak dio, halaber, jatorrizko familiarekiko harremanak erraztu egin behar direla baldin eta horrek ez badio babes ekintzari kalterik eragiten, eta familia zabalak lehenbiziko aukera izan behar

duela, bermatzeko, horrela, giro berean jarraituko duela eta lehengo jarduerekin segituko duela, neurriak ez baitie eragin behar jarduera horiei. Gainera, hartzaileak sustatzeari, hautatzeari eta prestatzeari indarra emateko jarduketak zehatzak egitea garrantzitsua dela azpimarratzen da, eta, era berean, laguntza tekniko, juridiko, sozial edo ekonomikoa aurreikusten da, kontuan hartuz adingabearen beharrak, harreraren ezaugarriak eta hori gauzatzeko gertatzen diren zailtasunak; laguntza horien artean tratamendu fiskal bereziko neurriak sartu beharko dira, nahiz eta arlo horretako legedi bereziak ezarriko diren zer irismen izan den.

Egoitza-harrera, bestalde, ordezkotza adopzio-baliabide gisa ageri da bereziki, beste egokiagorik ezean edo beste baliabide horiek bideragarriak ez badira, edo adingabeak dituen beharrak asetzeko modurik hobereana denerako gordetzen da. Edonola ere, eskatzen da esparru horretako esku-hartze oro gizarte- nahiz hezkuntza-arloetako edukia duen plan individualizatuko baten barruan egin dadila, eta hautatu beharreko zentroak izan ditzala adingabe bakoitzari bizimodu ahalik eta normalean eskaintzeko beharrezkoak diren baldintzak eta bat etor dadila haurraren inguruabar eta baldintzekin, eta, halaber, familia eta gizarte ingurutik hurbil izan dadin saiaturiko da. Legeak baliabide normalizatuen erabilera aurreikusten du, bai eta berariazko zentroak, establezimendu espezializatuak eta baliabide bereziak ere; horrela, kasu bakoitzak zer eskatzen duen, erantzun hori emanen zaio, behar diren laguntza sareak erabiliz. Berariazko zentroi eta zentro berezietan eskatu beharreko baldintzak, batetik, eta egoitzetan sartu eta egoteari buruzko zenbait zehaztasunek, bestetik, osatzen dute figura honen arautzea.

Adopzioa balio handiko neurri gisa ageri da jatorrizko familian jarraitzea edo horretara itzultzea ezinezkoa den kasuetarako, ezinezkoa edo kaltegarria izateagatik, eta haurraren interesak, duen adinak eta gainerako inguruabarrek komenigarria egiten duten erabakia beste familia batean erabat baitaratzea. Legeak ohartzen du balio berezia eman behar zaiola, kasutan, heldutasun eta gaitasun nahikoa duten adingabeen iritziari eta borondateari, eta, betiere, hamabi urte beteta dituztenen iritzi eta borondateari; orobat, familia berriari egokitzeko programa bat prestatzeko aukera ere jasotzen du legeak. Administrazioaren jardunaren marko orokorra ere zehazten da legeko arauetan, eta adopzio-eskatzailen sustapen, informazio eta prestakuntzari buruzko zehaztapen berariazkoak ere jasotzen dira, eta adopzioaren egokitasunari buruzko balorazio prozesuei eta hautatze prozesuei buruzkoak ere bai; halaber, hainbat arlotan aplikatu beharreko printzipiorik orokorrenak ere jaso-

tzen dira, hala nola adopzioaren aurreko harreraren, erregistro sistemaren antolamenduan eta adopzioaren ondoko laguntza emateko ezarri beharko diren bitartekotza-zerbitzuetan –horiek beharrezkoak dira adoptaturiko pertsonen euren jatorria ezagutzeko aukerak eskubidea gauzatzeko, eta, kasu bada, adoptatuen eta familia biologikoaren arteko topaketa errazteko–. Azkenik, legeak zenbait xedapen orokor ematen ditu nazioarteko adopzioari buruz, eta arlo horretako jardunaren markoa ezartzen du.

Legeak babes-ekintzaren alderdi osagarriak ere jasotzen ditu berariaz. Horrela, adibidez, ekintza hori formalki amaitu ondoren berori luzatzea ahalbidetzen duten jarduketak eta kasuak zehazten ditu, baita adin-nagusitasunaz haratago ere, dela hasitako integrazio prozesua osatzeko, dela laguntza egokia bermatzeko behar bereziak daudenean bizimodu beregaina zailtzen edo ekiditen duten alderdiak daudenean, dela hamasei urte bete eta bizimodu hori faboratzeko zenbait kasutan, dela, azkenik, jarraipen bat egin eta bilakaera egiaztatu eta balizko arrisku egoerak ekiditeko etorkizunean.

VII

Legeak, IV. tituluan, adingabe arau-hausleen inguruko jarduketei buruz dihardu.

Adingabeen erantzukizun penal arautzen duen legedi berria orain gutxi onetsi eta sartu da indarrean, eta horrek adingabeei buruzko zuzenbide penal berria eratu du Espainian eta autonomia erkidegoei dagokien eskumenak ere zehaztu ditu, entitate publiko horiek baitute esleituta adingabeen epaileek epai irmo batean ezarritako neurriak betetze materiala.

Exekuzio horren arau orokorrak urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan bertan jasota ageri dira; irizpide orokor batzuk jasotzen ditu eta arau ezberdinak ematen ditu ingurune irekiko neurrietarako, neurriak askatasun-gabetzaileak direnatarako edo ordezkotza neurrietarako, eta laguntza-jarduketetarako eta jarraipena egiteko jarduketetarako ere bai. Kasu guztietan, adingabe arau-hauslearen interesak duen lehentasuna hartzen da abiapuntu, eta, era berean, epaiaren edukia ukitzen ez dituen eskubideen errespetua, neurri guztien hezkuntza-helburua, adingabea gizarteratzea baitute helburu, eta legedi orokorrak eta epai berariazkoak exekuzio-markoa eratzen duten iritzia. Gainera, zenbait printzipioen garrantzia azpimarratzen da, hala nola individualizazioarena, osotasunarena eta esku-hartze normalizazioarena, eta adingabearen integrazio-prozesuan

jarduketan koordinatzea eta familiaren parte-hartzea faboratu behar dela ere ezartzen da.

Arau-hausteak egiten dituzten adingabeen sozializatzeko eta gizarteratze-ekintzari garrantzia aitortzen zaio, eta, horrenbestez, nahitaezkoa da, eraginkorrak izan daitezen, esku-hartzeak intentsitate berezia izan dezala; jatorriz izaera zehatzailea badu ere eta edukia, funtsean, hezkuntzako, ekintza hori osatu beharra dago aldi bereko ekintzekin, eta, luzatu beharra, ezarritako neurriak amaitu ondoren abiaraz daitezkeen jarduketekin.

Legeak, orobat, neurri horiek exekutatzeko beste administrazio batzuekin eta entitate publiko nahiz pribatuekin hitzarmenak eta akordioak egiteko izanen den marko orokorra definitzen du eta horretan jarraituko diren printzipioak ere bai.

VIII

Ekintzak arlo honetan anitza izan nahi du (instantzia guztiei dagozkien ardurekin bat), ahaleginen bilgune (ahaleginak batzeari lotuta ageri den eraginkortasuna ziurtatuz), osoa (hori baita kasu bakoitzaren beharrei egoki erantzuteko modu bakarra) eta koordinatua (modu eraginkorrean antolatuz bai jarduketa orokorretan eta bai kasu konkretuei emaniko laguntzan bil daitezkeen ekarpenak); horrela, nahitaezkoa da eskumenen eta eginkizunen banaketari ekitea, eta, indarreko legediarekin bat, lege honek ezarritakoei egokitu beharko zaio banaketa eta legearen betetze eraginkorragoa eta osoagoa ziurtatu beharko du banaketak.

V. tituluak, hasteko, banaketa hori ezartzen duten aginduak bildu eta antolatzen ditu.

Horrela, eta entitate publikoa identifikatu ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagozkion eskumenak zerrendatzen dira; hurrengoak bereizten dira: batetik, orokorrak eta departamentuek bere gain dituztenak beraien eskumenen esparrukoak direlako, eta, bestetik, Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuari esleitutakoak, eta, horien artean ere, orokorrak eta berariazkoak bereizten dira.

Legeak toki entitateen eskumenak jasotzen ditu azkenik, eta, horien artean, hauek bereizten ditu: batetik, toki entitateek jadanik titulartasuna eskuratuta duten eginkizunak; bestetik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin sina daitezken akordioen baitan bete daitezkeen eginkizunak eta transferentzia edo eskuordetze bidez eskura daitezkeenak.

Banaketa horrek guztiak egitura bat osatzen du, eta horren goi zuzendaritza, azken koordina-

zioa eta erregelamendu-jarduera Nafarroako Gobernuaren esku daude. Departamentuek eta zuzendaritza-zentroek beraien esparruetan integrazten dituzte lege honetan jasotako jarduketak, baldin eta zerikusia badute esleituta dituzten gai eta jarduera-sektoreekin. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eginkizun orokorrak hartzen ditu bere gain, hala nola haurrei laguntzeko eta haurrak babesteko programen, zerbitzuen, zentron, prestazioen eta jarduketan antolamendua, kudeaketa, garapena, koordinazioa eta ikuskaketa; berariazko eginkizunak ere hartzen ditu bere gain. Toki entitateak, oinarrizko zerbitzuen bidez edo berariaz horretarako sortutako bidez, orokorrak diren eginkizunetara arduratzen dira beren lurraldean, hala nola sustapena, prebentzioa, errealitatearen ezagutza, gizarte-ekimenei sustapena, parte-hartzea, babesik ezaren detekzioa; bestetik, berariazko eginkizunak ere badituzte: arrisku egoeretan esku hartzea, zerbitzu espezializatuak kudeatzea –familiarri laguntza ematea edo nahitaezko eskolatzea kontrolatzea–, eta, horiekin batera, adopzio hartzaileak eta eskatzaileak bilatzea, baloratzea eta prestatzea, arlo horietako beste laguntza-eginkizun batzuek gain, eta, era berean, lankidetzako beste batzuk ere bai, kontuan hartuz tokiko kolektibitatearen interesa, zenbait zerbitzu hobetzeko aukera eta zerbitzuok jasotzen dituztenen eta, oro har, herritar guztien parte-hartzearen areagotzeko egokiera. Bidea ematen da horrela, transferentzia, eskuordetze edo itun bidez korporazio bakoitzak bere eskumenen markoa osa dezan, zenbait eginkizun hartuz, ardura propio edo banatu gisa, dagokion lurralderako, hain zuzen ere hurrengoek begira unean-unean egokitzat jotzen direnak: ekintza-gaitasuna, kudeaketaren eraginkortasuna, gizartearen eskaera, ardurakidetzaren betebeharra edo egokitasunaren balioespena.

Bestalde, VI. tituluak berariaz hartzen ditu hizpide administrazioen arteko kooperazioa eta lankidetzak, gizartearen parte-hartzea eta jarduketan koordinazioa.

Administrazio-ardurakidetzaren printzipioa argi eta garbi adierazi da. Legean haurrentzako laguntzaren eta babesaren arlo orokorren barruan jasotako jarduketei dagokienez, kooperazio koordinatua abiapuntu hartuta besterik ezin da erantzun eraginkor eta egokia ziurtatu. Administrazioen artean eskumenak erabiltzean izan beharreko lankidetzak, batetik, adingabeek aitorturiko eskubideak aldeztetan eta bermatzean eta prebentzio ekintzetan gertatu behar du, bai eta, bestetik, arrisku edo geriza-gabetasuneko egoeran nahiz egokitze edo gizarteratze arazoak dituzten adingabeen

babesari eta integrazioari begira egiten diren jarduketak berezietan.

Kooperazio behar horrek elkarri laguntzeko betebeharrak dakar, elkar trukerako informazioa prest izatea; azpimarratzekoa da administrazio-hitzarmenaren garrantzia aurrekoak aktibatzen diren gisa, eta baliabideen eskualdaketa erabakigarria, behar izanez gero, jasota dago.

Legeak, aldi berean, entitate publikoen nahiz pribatuen lankidetzak jasotzen du jarduerak horiek gauzatu eta jarraitzeko helburuak lortzeko aldera; horretarako, beharrezkoa izan da duten gaikuntza eskatuko zaie. Gizarte-ekimenari garrantzia duela aitortzen zaio, eta, horrenbestez, egin ditzaketen eginkizunak ugari dira eta legean ageri diren ekintza-erloto handi guztietan sartzen dira; horien zehaztapena administrazio publikoek kasu-batasun sinatutako hitzarmenetan egiten da.

Azkenik, gizartearen parte-hartzea sustatu behar dela esaten da; bereziki, adingabeena beraia eta familia, arlo horretan lan egiten duten entitateena eta boluntarioena, baina baita, orokorrean, herritarrena ere.

Bat egiten duten esku-hartze horien guztien koordinazioak eskualdeko plangintza izan behar du lehenbiziko adierazpide eta adierazpiderik egokiena; horrela, aurreikusitako ezaugarri plangintza horren bidez zehaztu daitezela izan beharrezko xedek eta helburuak, hor zehaztu daitezela jarduketak guztiak eta lehentasunak, plangintza ziurtatzeko mekanismo zehatzak eta egindakoak neurritzeko irizpideak, lortutako eraginkortasunaren maila ezagutzeko horrela.

Foru legeak, azkenik, administrazioen arteko koordinazioa gauzatzeko eta parte-hartze soziala bideratzeko Haurren Laguntza eta Babeserako Kontseilua sortu du, eskualderako izan daiteke. Kontseilu horrek eginkizun izan du txostenak egitea, aholkuak ematea eta proposamenak egitea; halaber, Nafarroako adingabeen ongizatea eta bizi-kalitatea bultzatu behar du eta gizartearen sentibilizazioa eta elkartzuna sustatu behar du lege honen baitan adingabeen laguntza eta babeserak zuzenduriko ekintzei begira, eta, era berean, ekintza horien kalitatea eta eraginkortasuna hobetu behar du, haur eta nerabeen ekimen eta iradokizunak bideratu, bai eta haien familienak ere, eta, oro har, herritar guztienak.

Bestalde, haurren laguntzaren eta babesaren arloan egin beharrezkoak antolatze aldera, legeak erregistroa, eginkizun osagarria bada ere, administrazioaren jarduna dela-eta segurtasun juridikoren berme gisa ezartzen du eta arlo hori antolatzeko elementu garrantzitsu gisa ere bai. Aurreko

hori abiapuntu, VII. tituluan erregistro publiko, zentral eta bakarraren alde egiten da; erregistroa atal-atal egonen da banatua, eta eskualde-bulegoak izan daiteke; erregistroan eginiko inskripzioak konfidentzialtasunaren eta isiltasunaren printzipioen pean, eta intimitate-eskubidearen bermeari pean geldituko dira.

IX

Legeak, jasotzen dituen jarduketak guztiek izan beharrezko eraginkortasunaren lagungarria, nahitaezkoa da zehapen araubide bat ezartzea; berme gehigarri gisa dago pentsatua, legearen agindutako betetzen ez direnerako, haren debekuei entzungor egiten zaienerako, legean ezarritako betebeharrak betetzen ez direnerako edo haur eta nerabeen eskubideen gauzatzea oztopatua edo mugatua gertatzen denerako.

Zehapen araubidea, VIII. tituluan ageri baita, adingabeen aldeko kontrol publikoaren isla da; hori arau-hausteen tipifikazio xehe baten bidez egiten da, eta legean jasotako jarduketak-eremu guztiak hartzen ditu, nahiz eta azken helburua, eta bakarra, adingabeei aitorturiko eskubideen alde egitea baita eta erabiltzen dituzten zerbitzuen kalitatea bermatzea.

Isunak dira zehapen nagusia, horien bidez kobratutako dirua haurrentzako laguntza eta babesaren arloko jarduketarako gordea geldituko da; isunen osagarri, beste zehapen multzo zabal bat ageri da, eta horiek ezarriko dira baldin eta erantzule deklaratuak gaitzespena adierazten duen administrazio ebazpenari zentzu eta indibidualizazio handiagoa ematen badiote.

Zehapenen maila erabakitzeke ere zerrenda luzea ematen du legeak, eta hori lagungarria da aipatutako indibidualizazioari begira, neurriak proportzionalak izan behar dutela abiapuntu hartuta; proportzionaltasun hori lortzeko aldera, hurrengoak hartuko dira kontuan: egilearen erruduntasun maila; ekintzaren izaera eta larritasuna, kalteak adingabeen kopurua eta baldintzak aintzat hartuz; gertakariak gizartearen duten eragina; eta bestelako inguruabarrak –berrerortzearen eta hura ulertzeko moduen eraikitze berezia egin da–.

Azpimarratu beharrezkoa da, azkenik, zehatzeko eskumena organo askori esleitu zaiola. Hori legearen izaera oro-hartzailearen isla eta ondorio besterik ez da; gai honetan ere, legean jasotako jarduketak gauzatzearekin zerikusia duten guztien jarduerak bat egiten dute; horrela, arau-haustek noren eginkizunen markoarekin eta gauzatzearekin duen zerikusia edo nori duen arau-haustek

ukitutako gaien edo jarduera-arloen ardura, hark balia dezake zehatzeko ahalmen hori.

X

Legeak, azkenik, bi aldarrikapen formal egiten ditu, eta horiek, berez, haurren errealitatearen aurreko jarrera hartze garbia dira.

Batetik, hasteko, legean bertan jasotako arau guztien hedapenik eta ezagutzarik ahalik eta handiena aurreikusten du legeak, eta erkidegoko administrazio guztiei egiten die dei lan hori benetan egin dezaten; lan horren hartzaile berezi izanen dira, betiere, adingabeak beraiek eta beren familiak, horiekin lan egiten duten profesionala eta arlo horretan jarduten duten entitate eta instituzioak.

Legeak berariaz adierazi nahi du, bestetik, adingabeek munduan duten egoerarekiko sentsibilitatea, eta elkartasunez jokatzeko konpromisoa ere bai beste herrialde batzuen garapenerako elkarlanaren baitan, bereziki kontuan hartuz hirugarren munduko edo garapen-bidean diren nazioetako haurren egoera hobetzera zuzenduriko proiektuetarako laguntza.

Eta, amaitzeko, lege hau garatze aldera eta jasotako printzipio eta arau guztiak aplikatze aldera, maila apalagoko xedapen guztiak prestatu eta onetsiko direla ezarri da, horretarako epe bat ezarri; maila apalagoko xedapen horiek Nafarroako haurren gizarte ongizatea sustatzera zuzendutako jarduketa multzoaren alderdi zehatzagoak arautu beharko dituzte.

ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Legearen objektua.

Lege honek, adingabeentzako laguntza integrala ziurtatzeko helburua abiapuntu duela, hauek ditu helburu:

a) Adingabeei Konstituzioan, Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko hitzarmen eta akordioetan, bereziki Nazio Batuen Hurrei buruzko Konbentzioan eta Haurren Eskubideen Europako Gutunean, eta ordenamendu juridikoko gainerako arauetan aitortzen zaizkien eskubideak bermatzea eta horien alde egitea.

b) Haurren garapen eta integrazio soziofamiliar osoa gerta dadin oztupo, muga edo eragozgarri izan daitezkeen zergatietan eta faktoreei aurrea hartzeko neurriak eta jarduketak arautzea.

c) Gizarte-babesik gabe daudenei –gerizagabetasun edo arrisku egoeran– laguntza emateko marko juridikoa ezartzea.

d) Adingabeen epaitegiek adingabe arau-hausteei ezarritako neurriak betetzeko bide praktikoak garatu.

e) Egokitze edo gizarteratze arazoak dituztenentzako hitzartu daitezkeen neurri administratiboak garatzeko irizpide orokorrak ezartzea.

f) Entitate publiko eta pribatuen eginkizunak eta eskumenak mugatzea aurreko letretan aipatzen diren gaietan, eta entitate horien arteko harremanetarako eta koordinaziorako markoa ezartzea.

g) Bideak ezartzea gizarteak jarduera guztietan laguntza eman eta parte har dezan.

h) Haurren Laguntza eta Babeserako Erregistroaren antolamendu orokorra xedatzea.

i) Haurren laguntza eta babesaren arloko arau-haustek tipifikatzea eta horiei aplikatzeko den zehapen-araubidea zehaztea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua eta hartzaileak.

1. Lege honetan jasotako laguntza eta babeserako neurriak adingabe guztiei izanen zaizkie aplikatzekoak, edozein dutela ere adina, nazionalitatea, helbidea, edota Nafarroako Foru Komunitatean badira behin-behinekoz.

2. Legea, halaber, adinez nagusi direnei ere aplikatzeko izanen da, ordenamendu juridikoan berariaz ezarritako kasuetan edota, alderdi zehatz batzuei dagokienez, pertsona horiei adinez nagusi izan aurretik legean jasotako neurri administratibo edo judicial bat ezarri zaienean.

3. Aurreko bi zenbakietan ezarritakoa, hala ere, ez da eragozpen izanen beste araudi bat aplikatzeko, baldin eta, hartzaileen jatorria eta beste lurralde bateko administrazioaren eskumenak kontuan hartuz, hala egin behar bada.

4. Lege honetan, haurtzaroa da jaiotzaren eta legeak ezarritako adin-nagusitasunaren arteko bizialdia; adingabea, berriz, adin-nagusitasun horretara heldu ez den edozein pertsona.

5. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, lege honek adingabeak modu generikoan aipatzen dituenen, hemezortzi urtez goiti daudenak ere termino horren pean daudela ulertuko da, baldin eta aplikatzekoak bazaizkie legean jasotako neurriak edo jarduketak.

3. artikulua. Hurrei laguntzeko moduak.

Haurrentzako laguntza hurrengo bidez gauzatzen da: haurren eskubideen sustapen- eta

defentsa-ekintzak; haur edo nerabeen garapen pertsonal eta sozialean oztopo diren egoerei –desberdintasuna, babesik eza, bazterkeria eta molda-kaiztasuna– aurrea hartzeko jarduketak; babes ekintzak, geriza-gabetasun eta arrisku egoeretan; eta orientabideak emateko –hezkuntza arlokoak, bereziki– esku-hartzeak eta, arau-hausteak egin dituzten adingabeekin, gizarteratzeko esku-hartzeak, mugagarri dituztela jurisdikzio-organoez ezarritako neurrien betetzea eta erabaki daitezkeen jarduketak administratiboen betetzea.

4. artikulua. Printzipio gidariak.

Haurrei laguntzeko jarduketek honako printzipioak izanen dituzte gidari, eta, halaber, lege honetan eta garapen-arauetan xedatutakoen interpretaziorako orientabide ere izanen dira.

a) Erabakiak hartzean eta jarduterakoan, adingabearen interesak izanen du lehentasuna, aldi berean egokitzen den beste edozein interesen gainetik, beste interes hori oso zilegi izanda ere.

Interes hori zehazteko, hasteko, adingabearen beharrei eta eskubideei begiratuko zaie; kontuan izanen dira haren iritziak eta zentzu nahikoz adierazi dituen nahiak, eta aintzat hartuko da adingabearen indibidualtasuna, familiaren eta gizartearen markoan.

b) Adingabeei aitorturiko eskubide indibidual eta kolektiboen sustapena, errespetua eta defentsa, ordenamendu juridikoak ezarritako berme eta baldintzekin.

c) Hurrekin, familiekin edo tutoreekin eginiko edozein bazterkeriaren ezabapena, edozein dela ere bazterkeria horren arrazoia: jaiotza, jatorri nazional, etniko edo soziala, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, ezgaitasun fisiko, sentsorial edo psikikoa, edo haien beste edozein baldintza pertsonal, sozial edo ekonomiko.

d) Hurrek izan ditzaketan egoera kaltegarriak –esplotazioa, asistentziarik eza, defentsa-gabezia, tratu txarrak, molda-kaiztasuna, bazterkeria, abandonua edo babesik eza– aurrea hartzeko jarduketak sustapena.

e) Politika integrala bultzatzea haurren laguntza eta babesaren arloan, horien oinarritzko beharrak asetze aldera zenbait arlotan –osasun, hezkuntza, etxebizitza, kultura, aisialdia eta lana– eta adingabearen garapen pertsonal eta sozial osoa eta adingabearen autonomia ekidin edo mugatu dezakeen gabezia edo defizit ororen konpentsazioa.

f) Administrazio publikoen jarduketaren gutxikako-gutxikako subsidiarotasuna, guraso-ahalaren betebeharrak eta eginkizunei dagokienez.

g) Adingabea familian eta gizartearen integratuko den bermea; adingabea bere ingurutik bereiztearena, horrenbestez, behar-beharrezkoa denean baikik ez da egiten, eta, halakoetan, familian esku-hartuko da bereizketa hori ahalik eta laburren izan dadin.

h) Adingabeei buruzko neurri eta jarduketak ororen izaera batik bat hezkuntzazkoa eta sozializazioa.

i) Objektibotasuna, inpartzialtasuna eta segurtasun juridikoa laguntzaren eta babesaren arloko jarduketetan, eta erabakiak, ahal den guztietan, diziplina askotako kideren artean hartutakoak beharko dute.

j) Indibidualizazioa, neurri eta jarduketak harterakoan, betetzerakoan eta berrikusterakoan.

k) Adingabe baten interesen alde eta hura defendatzeko egiten diren jarduketak guztien konfidentzialtasuna eta isiltasuna.

l) Herritarren sentsibilizazioa haurren arazoaren aurrean, eta gizartearen elkartasunaren, ekimenaren eta parte-hartzearen sustapena administrazio publikoek bultzatutako plan, programa eta ekintzetan.

m) Haurren laguntzaren arloan jarduten duten administrazio publikoek eta entitate pribatuek dagoenez, elkarren arteko kooperazioa lankidetzaren koordinazioa.

n) Hurrengo balioen sustapena adingabeengan: elkartasuna, errespetua, tolerantzia eta berdintasuna, eta, orokorrean, bizikidetasunaren printzipio demokratikoak.

ñ) Adingabeek justizia, elkartasun eta demokrazia gehiagoko gizartearen erakitzeko lanean aktiboki parte hartzeko duten gaitasunaren aitorpena, bai eta bizi duten errealitatea ezagutzeko, gehien eragiten dieten arazoak aurkitzeko eta konponbideak ekartzeko gaitasunena ere.

5. artikulua. Ardurakidetzaren eta lankidetzaren printzipioak.

1. Adingabeen gurasoek edo tutoreek, lehenbizi, eta aldi berean edo haien ordezkari kasuan-kasuan, botere publiko guztiek, administrazioek, entitateek eta herritarrek oro har, eta, bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, toki entitateek, gizarte zerbitzuek, osasun eta hezkuntza zerbitzuek, fiskaltzak eta organo jurisdikzionalak, lege honek helburu dituenak ahalik eta

hobekien betetzen lagundu behar dute, betez bakoitzak bere esparruan ordenamendu juridikoak ezartzen dizkien betebeharrak, eskumenak eta erantzukizunak, eta, era berean, behar bezala koordinatutako kooperazio, lankidetzeta eta parte-hartzearen bidez.

2. Haur edo nerabe baten gaineko ardua duen orok, ahal duen neurrian, eta egoeraren arabera, garapen eta integrazio osoa ahalbidetuko duen laguntza eta zaintza eman beharko dizkio hari, bizi baldintza duinak izan ditzan.

3. Herritar guztien legezko betebeharra izanen da agintariei eta haren eragileei laguntzea lege honetako helburuetara bideratutako jarduketan sustapen eta garapenean.

6. artikulua. Aurrekontuetako lehentasunak.

Nafarroako Gobernuak, aurrekontuetan, lehen-tasunen artean izanen ditu foru lege honetan jasotako jarduketak; departamentuetan bermatuta egonen da, programa horiei dagokien kontusailetan, erkidegoko aurrekontuek hurrengo ekitaldirako batez beste zenbat egiten duten gora, beste horrenbeste egin beharko dutela gora aipatu kontusailek, eta inoiz ez gutxiago. Haurtzarorako eta nerabezarorako laguntza-zentroek lan-baldintza egonkorrak dituzten langile espezializatuak izan beharko dituzte, laguntza jasotzen duten haur eta nerabeekin lotura adierazgarriak lor ditzaten; profesional horiek etengabeko prestakuntza jaso beharko dute.

7. artikulua. Jarduketan plangintza eta programazioa.

1. Ekintzetan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko, foru lege honen esparruan gauzatu beharreko haurrentzako jarduketa guztien plangintza osoa eginen da, eskualdekoa eta tokian tokikoa; plangintza hori Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta toki entitateek egin beharko dute hurrenez hurren, horietako bakoitzak zer laguntza eta babes eginkizun dituen kontuan hartuta.

2. Haurrentzako laguntza eta babes politiken plangintzak Nafarroan hurrengo printzipioak izanen ditu gidari: ardua publikoa, unibertsaltasuna, integrazioa, esku-hartze normalizatua, aniztasuna, erakundeen arteko kooperazioa, elkartasuna eta parte-hartzea.

3. Nafarroako Gobernuak behar diren mekanismoak ezarriko ditu administrazioen arteko lankidetzeta bermatzeko arlo guztietan, bereziki familian, hezkuntzan, osasunean eta gizarte zerbitzuetan, eta, batik bat, toki entitateekin eta beste erakunde publiko batzuekin.

8. artikulua. Beharren azterketa eta jarduketak.

1. Lege honetan ezarritakoaren esparruan gauzatu beharreko jarduketan plangintzak, programazioak eta betetzeak aintzat hartu beharko dute beharren azterketa eta egindakoen jarraipena eta ebaluazioa.

2. Eskualdeko plangintzaren aurretik, eta haren oinarri izan dadin, Nafarroako haurren ongizatearen egoera ebaluatu eta ezagutzera emanen da, eta, horrela, zer behar dituzten erabakiko da.

3. Hobeki ezagutze aldera haurren egoera eta beharrak, bai eta haiei laguntzeko ekintzetan gure inguruan nagusi diren joera eta erantzunak ere, ikerketa bultzatuko da bai unibertsitateen bidez, bai eta arlo horretan azterketak eta lanak egiten dituztenen bidez, eta, halaber, prestakuntza jardueretan ere parte har dezaten bultzatuko da.

4. Era berean, ebaluazio sistema bat ere ezarriko da lege honek aurreikusten dituen jarduketak garatzeko baliabideak, zerbitzuak eta berariazko prozeduren eraginkortasuna eta kalitatea ebaluatzeko.

I. TITULUA

Haurren eskubideak bultzatzea eta defendatzea

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak

9. artikulua. Berme generikoa.

1. Nafarroako administrazio publikoek, dagokien lurralde- eta eginkizun-esparruan, ordenamendu juridikoak adingabeei aitorturiko eskubide eta askatasunak errespetatzen direla eta benetan erabiltzen direla bermatuko dute.

2. Administrazio publikoek, dagozkien eskumena abiapuntu, sustapen, prebentzio, behatze eta konpentsazio politikak ezarriko dituzte, aipatutako eskubideak osoki, berdin eta bazterkeriarik gabe goza daitezen.

3. Ekintza integralaren printzipioa funtsezkotzat jotzen da eskubide horien erabilera indibiduala bermatzeko eginkizunean; hori abiapuntu hartuta, erkidegoaren baliabideak, bereziki osasun eta hezkuntza sistemetakoa, gizarte zerbitzuek berezkoak dituzten baliabideekin batera, eta indarrean dauden arauak horietako bakoitzerako helburu gisa ezarritakoak lortzeko saioaren esparruan, lege honetan jasotako ekintzetan, programetan eta jarduketetan erabiltzeko moduan jarriko dira.

10. artikulua. Hedapena eta informazioa.

1. Nafarroako administrazio publikoek haurren eskubideen hedapen ahalik eta handiena egiteko beharrezkoak diren ekintzak sustatu eta eramanen dituzte aurrera. Horrela, eskubide horien edukia eta irismena ezagutzera emanen dute, herritarrei informazioa emanen die, bereziki adingabeei eta familiei, jakin dezaten eskubide horien eraginkortasuna ziurtatzeko zer bitarteko eta baliabide dauden, eta, halaber, publikoki eskertuko da eskubide horien sustapen, errespetu eta babes eginkizunetan nabarmendu diren lana.

2. Bereziki administrazio publikoek, aurreko zenbakia garatze aldera, berariazko jarduketak gauzatuko dituzte adingabeei eskubideen defentsarako zer baliabide dituzten jakinarazteko.

3. Era berean, guraso, tutore, zaintzaile edo laguntzaile eginkizunak dituztenei edo izanen dituztenei informaziorako eta prestakuntzarako bitartekoak emanen zaizkie, hobeki bete ditzaten adingabeekin dituzten ardurak.

11. artikulua. Defentsa.

Haur eta nerabeeek, dituzten eskubideak defendatzeko, hauetakoren bat egin ahaliko dute, beren kabuz edo legezko ordezkariaren bidez:

a) Administrazio publikoetara jo, behar duten laguntzaren, babesaren edo asistentziaren eske, eta administrazio publiko horiek zer baliabide dituzten eskura horiek eskatu.

Hori horrela, bitartekoak ezarriko dira, adingabeak berak azaltzeko modua izan dezan administrazioaren edo gizarte zerbitzuen aurrean zer egoera duen, eskaera orokorrak edo zehatzak egin ahal izan ditzan, bermatuta betiere konfidentzialsuna, bat-bateko laguntza, orientabide tekniko-profesionala eta berariazko bitarteko eta baliabide zehatzen abiatzea.

b) Egoera bat haien eskubideen edo integritate fisiko nahiz psikikoaren aurkakoa bada, agintari judizialei edo fiskaltzari jakinarazi.

c) Arartekoari kexak aurkeztu, erakunde horrek adingabearen eskubideen defentsarako egin ditzakeenei begira.

12. artikulua. Haurrak Nafarroako Foru Komunitatean zer egoeratan dauden azalduko duten aldizkako txostenak.

1. 8. artikuluan jasotako helburuak lortze aldera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, bost urtean behin, txosten bat eginen du Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak duen jarraipenari buruz, haurren eskubideek gure erkidegoan

duten egoerari buruz eta eskubide horiek sustatu, hedatu eta defendatzeko ekintzei buruz.

2. Halaber, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, urtero, babesik ez duten haurrei buruzko berariazko txostena egin eta zabalduko du.

II. KAPITULUA**Bereziki babestu eta sustatu beharreko berariazko eskubideak****13. artikulua.** Berdintasun eskubidea.

1. Haurrei laguntza ematea edo haurrak babestea helburu duten programen, zerbitzuen edo instituzioen antolamenduak, bitartekoak edo ezaugarriak ezin dira izan adingabeen eskubideei eraginen dien tratu ezberdintasunen iturri.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak bereziki arduratuko dira adingabeen autonomia pertsonala nahiz haien benetako gizarteratzea muga dezaketen oztopo fisiko eta komunikaziozkoak desager daitezen, eta behar diren baliabideak jarriko dituzte horretarako.

14. artikulua. Nortasun eskubidea.

1. Jaiotzak izaten diren erietxe publiko nahiz pribatuetan, beharrezko bermeak ezarriko dira jaioberriak nor diren zalantzarik gabe jakiteko.

2. Norbaitek legez adingabe baten Erregistro Zibileko inskripzioa sustatu behar badu eta ez badu halakorik egiten, Nafarroako administrazio publikoek beharrezko neurriak hartuko dituzte inskripzio hori lortze aldera.

3. Norberaren jatorria ezagutzeko eskubideak bermatuta behar du, aintzat hartuz betiere adingabearen adina eta ulertzeko duen gaitasuna, eta bateragarria egin behar da adopziozko filiazio bat ezartzera bideratutako espedienteek izan behar duten isilpekotasunarekin.

15. artikulua. Bizitzeko eskubidea eta integritate fisikoa nahiz psikikoa izatekoa.

1. Adingabe orori babes aktiboa eman behar zaio edonolakoak direla ere indarkeria, tratu txarrak, ankerkeria, gehiegikeria, abandonua, esplotazioa, manipulazioa edo erabilera instrumentala edo zabarkeria.

2. Aurreko zenbakian aipatutako egoerei aurrea hartzeko, horiek detektatzeko eta salatzeke, eta lege honetako 46. artikuluan ezarritako betebeharrak zorrotz eta zehatz bete behar dela abiapuntu hartuta, instituzioen arteko koordinaziorako beharrezkoak diren mekanismoak jarriko dira, hurrengo arloetan bereziki: osasunean, hezkuntzan eta gizarte zerbitzuetan.

3. Nafarroako administrazio publikoek, eta ez da eragozpen izanen bat-batean lege honetan jasotako babes neurriak hartzeko, agintari judizialei edo fiskaltzari jakinaraziko dizkiete 1. zenbakiko egoerei buruzko gertakariak eta kasuan kasuko akzio zibil eta penalak abiaraziko dituzte.

16. artikulua. Nortasuna libreki eta osoki gartzeko eskubidea.

1. Nafarroako botere publikoek beharrezko baldintzak sustatuko dituzte gurasoek, tutoreek eta zaintzaileek adingabeen nortasunaren garapen libre, bete, oso, eta harmonikoa bermatzeko dagozkien ardurak egoki, osoki eta jarraian bete ditzaten, eta hori hala izan dadin arduratuko dira, baita gurasoen arteko harremana gatazkatsua denean eta haien arteko banantzea traumatikoa denean ere.

2. Aipatutako ardurak ez betetzearen ondorioz administrazio publikoek abian jarritako jarduketek subsidiarotasun progresiboaren printzipioari erantzunen dio, eta adingabe orori eman behar zaion babesa eta zaintza zuzentzeko, osatzeko edo ordeztzeko beharrezko ekintzak ere horren barrenean egonen dira.

17. artikulua. Hezkuntza eskubidea.

1. Hezkuntzaren arloan eskudun diren administrazio publikoek hezkuntza-jarduera aurrera eramateko baliaideak, bitartekoak eta instalazioak izan daitezten arduratuko dira; prestakuntza integrala sustatuko dute, zenbait balio barne hartuko dituen, hala nola askatasuna, errespetua, elkartasuna, tolerantzia, bizikidetzeta eta bazterkeria eza; eskola-absentismoari aurrea hartzeko eta horri tratamendua jartzeko bai eta nahitaezko eskolatzea betetzen dela ziurtatzeko, berariazko programak sustatuko dituzte; eta hezkuntza-behar bereziak dituzten edo gizarte- eta hezkuntza-arloan arrisku berezian dauden haur eta nerabeentzako laguntza eta prestakuntza berariazkoa bermatuko dute.

2. Ikastetxeetako arduradunek eta langileek nahiz eskola kontseiluek, lege honetako 46.2 artikuluan araututako jakinarazteko eta salatzeko betebeharrak gain, geriza-gabetasun edo arrisku egoerak saihesten edo konpontzen laguntzeko betebeharra dute.

3. Gai honi buruzko legediaren esparruan, bereziki hartuko da aintzat generoen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako jarrerak sustatzen dituzten programen gauzatzea, eta harreman afektibo-sexualek hartzen dituzten formen errespetua. Zenbait gairi ere arreta berezia jarriko zaio, hala nola aniztasunari, hezkuntza behar bereziak konpultuan hartuz batez ere; hain zuzen, hurrengoekin

zerikusia dutenean behar berezi horiek: ezgaitasuna edo supergaitasuna bezalako baldintza pertsonalak; adingabea etorkina izatea edota familiako kideak etorkinak nahiz gutxiengo etniko batekoak izatea; eskola porrota. Arreta berezia jarriko zaie, halaber, desabantaila egoeran dauden adingabeentzako konpentsazio-ekintzei, baldintza edo zailtasun bereziak dituztenak gizarteratzera bideratutako ekintzei, eta hezkuntza aukera berdinak eta teknologia berriak, landa-inguruetan batik-bat, eskura izatea bultzatzeko programa eta jarduerai.

18. artikulua. Kultura eta aisia eskubidea.

1. Nafarroako administrazio publikoek hurrengoak bultzatuko dituzte:

a) Adingabeek parte har dezatela beren inguruko kultur, arte eta kirol bizitzan, eta, halaber, sustatuko dute bizitza hori, jolasa, eta aisialdi-jarduerak eguneroko bizitzan txerta daitezela eta funtsezko elementu izan daitezela haien bilakaeraren eta sozializazio prozesuan.

b) Adingabeek eskura izan ditzatela Nafarroako Foru Komunitateko kultura, arte, kirol eta aisialdi arloko ondasun, zerbitzu eta jarduerak, eta horien balioak, historia eta tradizioak ezagutzeko faboratuko da.

c) Ezagutu ditzatela adingabeek kultura eta arteak, eta parte har dezatela horietan; horretarako, kultura eta artea adingabeen hurbiltzea eta haien bilakaeraren etapa bakoitzera egokitzea erraztuko da.

d) Eskura izan ditzatela adingabeek hainbat zerbitzu publiko, hala nola informaziokoak, dokumentaziokoak, liburutegiak eta bestelako kultura-zerbitzu publikoak.

2. Nafarroako Foru Komunitatearenak diren edo hark kudeatzen dituen museo guztiek adingabeentzako programak gauzatuko dituzte informazioa haiek ulertzeko modura egokitzeko eta adingabeen museoetako funtsen gozamina errazteko.

3. Adingabeentzako joko eta jostailuek segurtasun neurri egokiak izanen dituzte, adin bakoitzak dituen beharretara egokituko dira, eboluzio-aldi bakoitzeko garapen psikomotorraren lagungarri izanen dira eta, halaber, bateragarriak izanen dira lege honetan jasotako printzipioekin eta balioekin bai eta legean jasotako eskubideen erabilerekin eta adierazpideekin, saihestuz betiere elementu eta mezu sexistak, indarkeriazkoak edo bestelako edozein bazterkeria mota.

4. Gutxiengo etniko batekoak diren adingabeen botere publikoek bermatu eginen die beren nortasuna, kultura eta hizkuntza ezagutzeko bidea,

elkarrenganako errespetua eta kulturen arteko trukea abiapuntu hartuta.

5. Artikulu honetan jasotako jarduera guztien gauzatzea, betiere, adingabeen prestakuntza eta integrazioa faboratzera egonen da bideratua.

19. artikulua. Gizarte integrazioarako eskubidea.

1. Nafarroako botere publikoek adingabe guztiei ziurtatuko die errealizaziorik ahalik eta osoena, gizarte integrazio osoa, aktibo eta benetakoa, eta gizarte zerbitzuen sistema publikoa eskura izatea; bereziki, arrazoa edozein dela ere, horretarako zailtasuna duten adingabeei edo edozein bazterkeria mota jasaten dutenei.

2. Administrazio publikoek behar diren ekintzak eta neurriak sustatuko dituzte ezgaitasunak dituzten adingabeei gizarte integrazioa errazteko.

3. Gutxiengo kulturalen errespetua eta integrazioa sustatuko dira, aldi berean, eta, beste kultura batzuen balioen aniztasunaren aberastasunari begira nahiz kultura horien balioak onartzeari eta aintzat hartzeari begira, gizartea sentsibilizatzeo ahalegina eginen da.

4. Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren adingabe atzerritarrek baliabide publikoak eskura izateko eskubidea izanen dute, hain zuzen ere beraientzako laguntza nahiz gizarte-, hizkuntza- eta kultura-integrazioa bideratuko dituzten baliabide publikoak, eta, horri dagokionez, adingabeen nortasuna errespetatuko da betiere.

20. artikulua. Osasuna babesteko eskubidea.

1. Adingabeen osasun fisiko nahiz psikikoak lehentasuna izanen du.

2. Adingabeek osasunerako hezkuntza jasoko dutela bermatuko dute Nafarroako administrazio publikoek; osasunaren alderdi guztiak jorratuko ditu hezkuntza horrek eta egokitu eginen da adin bakoitzerako. Horren bidez, adingabeengan bizikaltatea hobetzen lagunduko duten ohitura eta jokabideak bultzatuko dira.

3. Haurren osasunaren arloan, prebentzio jarduketak bultzatuko dira eta adingabeak drogen erabilera eta trafikotik babestea sustatuko da.

4. Adingabeak beraien osasunari buruzko eta jasoko duten tratamendu medikoari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izanen dute; informazio hori duten adinaren, heldutasunaren eta egoera psikologikoaren arabera emanen zaie, eta erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

5. Ospitaleratuta dauden bitartean edo laguntza anbulatorioa ematen ari zaien bitartean, adin-

gabeek eskubidea izanen dute guraso, tutore edo zaintzaileen laguntza izateko, eskolako prestakuntzarekin jarraitzeko eta haurren beharretara egokitutako espazioak izateko, non eta hori dena ez den tratamenduarentzat kalte edo oztopo nabarmena eta frogatua.

6. Lehentasunezko eta berariazko laguntza bermatuko zaie patologia, ezgaitasun edo behar bereziak dituzten haur eta nerabeei edota gizarte- eta osasun-arloko arrisku berezian daudenei.

7. Osasun zerbitzuetako arduradunek eta langileek lege honetako 46.2 artikuluan araututako jakinarazteko eta salatzekeo betebeharrak gain, gerizagabetasun edo arrisku egoerak saihesten edo konpontzen laguntzeko betebeharra ere badute.

21. artikulua. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak babesteko dituzte, eta bereziki arduratuko dira eskubide horiek haurrengan bete daitezzen haientzako babes-jarduketaren bat edo esku-hartze administratibo bat gauzatzean edo gauzatzean doanean, eta eskubide horiek, halaber, sexu-erasoak, tratu txarrak edo bestelako egoera traumatikoren bat bizi izan duten haurrengan ere bete daitezzen ardura berezia izanen dute. Tratu txarrei edo sexu-abusuei buruzko prozesu judizialtan, adingabea honela babestu behar da:

a) Deklarazioak errepikatu beharra saihestuz.

b) Tratu txarren edo sexu-abusuen ustezko egileen aurrez aurre deklaratu dezaten saihestuz.

2. Lanbidea dela-eta adingabe batekin zerikusia duen edozein arlotako profesionali isiltasunaren betebeharra zorrotzasunez bete dezan eskatu ahalko zaio.

3. Nafarroako administrazio publikoek agintari judizialei edo fiskaltzari jakinaraziko dizkiete esku-sartzetaz jo daitezkeen gertakariak, eta kasuan kasuko akzio zibilak eta penalak abiaraziko dituzte.

22. artikulua. Ideologia- eta sinesmen-askatasunerako eskubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek behar diren jarduketak eginen dituzte ideologia-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubideak benetan erabili ahal izan daitezzen errespetu eta tolerantzia esparru batean, eta hori adingabearen garapen osoarentzat lagungarri izan dadin ahaleginduko dira; muga bakarrak zigor-arauetan ezarritakoak izanen dira eta adingabearen bizitza nahiz osasun publikoa arriskuan jar-

dezaketenak, eta, hori gertatuz gero, indarreko legediak zer dioen horren arabera jokatu da.

2. Nafarroako administrazio publikoek behar diren jarduketa zehatzak eginen dituzte adingabeei eta beraien familiei jakinarazteko eta ohartarazteko zer arrisku eta eragin kaltegarri izan ditzaketen ordenamendu juridikoak legez kanpokotzat jotako elkarte, erakunde edo taldeen jarduerak.

23. artikulua. Informazioa eta adierazpen-askatasuna izateko eskubidea.

1. Administrazio publikoek adingabeentzako informazio-materiala prestatuko dute eta material horren ekoizpena eta hedapena ere bultzatuko dute. Material horrek, adingabeei errealitatearen ikuspegi propioa eraikitzea ekiditen dieten oztopoak kentzea helburu, honako ezaugarriak izanen ditu: egiaren araberkoa izanen da, anitza, adingabearen garapen eta heldutasun baldintzetara egokitua, eta hezkuntza helburuekin bateragarria.

2. Nafarroako botere publikoek adingabeei, indarreko legedian ezarritakoak besterik ez dituztela mugagarri, dituzten iritziak argitaratzeko eta hedatzeko eskubidea bermatuko die, bai eta hedabideak argitaratzeko eta sortzekoa, eta horretarako ezarritako laguntza publikoak eskuratzeko ere.

24. artikulua. Eskubide ekonomikoak eta laneoak.

1. Nafarroako botere publikoek behar diren ekintzak bultzatuko dituzte adingabeen esplotazio ekonomikoa ekiditeko, eta, laneo legedian ezarritakoarekin bat, adingabeak babesa izanen dutela ziurtatuko dute, hau da, gutxieneko adinik gabe ez dutela lan eginen, edo ez dutela eginen lan arriskutsurik, osasunarentzat kaltegarria denik edo hezkuntza eta prestakuntza nahiz garapen integrala oztopatuko duenik.

2. Nafarroako administrazio publikoek ahalik eta modurik zorrotzenez aplikatuko dute administrazio publikoetako kontratuei buruzko legedian ezarritako debekuen araubidea baldin eta legedi horretan jasotako gertakarien ondoriozko kondenarik eta zehapenik atzeman badute eta delitu edo arau-hauste horrek adingabeen esplotazio ekonomikoa eragin badu edo horien lan eskubideen urratzea.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek edozein herrialdetako adingabeen esplotazioa ekiditen laguntzeko konpromisoa abiapuntu hartuta bideratuko dituzte beren ekintzak.

4. Lanerako gutxieneko adina lortu eta lan merkatuan sartu nahi duten adingabeek administrazio publikoen laguntza jasoko dute prestakuntzarik eta

gaikuntzarik egokienak bermatuta izan ditzaten, eta, horrenbestez, lan-munduratzetik egokiena izateko aukera izan dezaten, eta zailtasun gehituak dituztenei laguntza berezia emanen diete.

25. artikulua. Informatua eta entzuna izateko eskubidea.

1. Nafarroako botere publikoek adingabeei entzunak izateko eskubidea bermatuko die, eta legedian ezarritako bideak erabiliz iritzia libreki adieraztekoa ere bai.

2. Adingabeari laguntza edo babesa emateko ardura duten administrazio publikoek adingabeak entzuna izateko duen eskubidea familian gauzatu dadila bultzatuko dute, eta, era berean, interes gatazka egon badaiteke adingabearen eta gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen artean, edota larrialdi egoerak hala agintzen badu, aipatutako administrazio publikoek entzuna izateko eskubide hori gurasorik, tutorerik eta zaintzailerik gabe gauzatu dela ziurtatuko dute.

26. artikulua. Ingurumen osasungarria eta hiri espazio egokiak izateko eskubidea.

1. Nafarroako administrazio publikoek adingabeei ingurumen osasungarri batean eta haien ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuko dituen ingurune batean garatzeko eskubidea bermatuko die, eta adingabeek ingurumen-ondarea ezagutu, errespetatu eta goza dezaten bultzatuko dute, ingurumen-hezkuntza sustatuz, hain zuzen ere adingabeei garapen iraunkorraren esparruan ingurua babesten, zaintzen eta hobetzen parte hartuko dutela ziurtatuko dien ingurumen-hezkuntza sustatuz.

2. Nafarroako administrazio publikoek, hirigintza-planeamendutik abiatuta, lurzoru-erreserbak bultzatuko dituzte, bai eta horien ekipamendua eta, pixkanaka-pixkanaka, adingabeentzako gune bereziak sortzea eta hornitzea indarreko legediak ezarritako segurtasun eta irisgarritasun baldintzetan.

27. artikulua. Familia harremanak izateko eskubidea, belaunaldi artekoak nahiz pertsona artekoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak adingabeak familiarekin bizitzeko eta harekin harremanak izateko duen eskubidea bermatuko du, hark duen interesaren lehentasuna aintzat hartuta; administrazioak, halaber, adingabea familiara itzultzeko aukera aztertuko du hura familiatik bereizi ondoren, eta, ezinezkoa bada, lehenbailehen beste familia-nukleo batean sartzeko modua eginen du, adingabearen interesarentzat onuragarria bada hori, anaia-arrebek batera jarraitzen badute

eta adingabeak bizitzan garrantzitsuak dituen pertsonekin harremanak izaten jarraitzen badu.

2. Nafarroako administrazio publikoak belaunaldien arteko harremanak faboratu eta sustatuko dituzte, alde biezat onuragarriak izanen baitira, bultzatuz, hori helburu, adineko pertsonen gizarte-boluntariora adingabeei zuzenduriko jardueretan, eta, era berean, adingabeen parte-hartzea adineko pertsonen laguntzeko eta haien ongizatea hobetzeko ekintzetan.

3. Haurrei eta nerabeei gizarte harremanekin eta pertsonen arteko harremanekin jarraitzeko bidea emanen dien baldintzak sortzea eta horiei eustea bultzatuko dute Nafarroako administrazio publikoek, eta horretan lagunduko; adin bereko adingabeekiko harremanak bereziki eta eskolaz kanpoko eta aisialdiko jardueren esparruan, adingabearen garapen orekatua faboratzen bada horrela.

28. artikulua. Gizartean parte-hartzeko eta asoziazionismorako eskubidea.

1. Nafarroako administrazio publikoek adingabe guztiek beren inguruko gizarte, kultur, arte eta josteta bizitzan parte har dezaten bultzatuko dute; halaber, adingabeak zer gaik ukitzen dituzten gai horietan esku har dezaten ere bultzatuko dute, duten garapenaren eta gaitasunaren arabera betiere. Horretarako, batetik, hurrenez hurren berariazko jarduketak eta zerbitzuak jarriko dira, eta, bestetik, adingabeei formulak, bitartekoak eta laguntzak jarriko zaizkie eskura, adieraz ditzaten, horien bidez, dituzten interes eta iritziak, haien eskariak jasotzeko bidea izan daitezen eta egiten dituzten proposamenak bideratzeko ere balia ditzaten.

2. Adingabeek, beren eskubideen sustapen eta defentsa jardueri dagokienez nahiz haiei bideratutako laguntza eta babes jarduketei dagokienez, eskubidea dute ekimen eta proposamen jardueretan parte hartzeko.

3. Haur eta gazte elkarteak, fundazioak eta adingabeentzako beste antolamendu mota batzuk izan daitezten sustatuko dute administrazio publikoek, horietako kide izateko eta horien jardueretan parte hartzeko bideak erraztuko dituzte, nahiz eta ezinen diren behartu edo baldintzatu horrelako batean sartzera edo jarraitzera, eta funtzionatzeko eran legedia eta gizarte demokratiko bateko printzipio eta balioak errespetatu ditzaten arduratuko dira administrazio publikoak.

4. Adingabeek boluntariora-jardueretan parte har dezatela sustatuko dute administrazio publikoek.

III. KAPITULUA

Jarduera, komunikabide eta produktu jakin batzuen arloko debekuak, mugak eta jarduketak

29. artikulua. Xedea eta irismen orokorra.

1. Kapitulu honetan jasotako debeku eta mugak, eta hemen jasotako berariazko jarduketak babes-ekintza orokorrak dira, debekatutako edo mugatutako jarduerak, komunikabideek eta produktuek adingabeen garapen osorako izan ditzaketan eragin kaltegarriak ekiditera bideratuak.

2. Hurrengo artikuluetan jasotako debeku eta mugak adingabeak ukitzen dituztenean, debeku eta muga horiek denentzat izanen dira, nahiz eta gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen baimena izan; salbuespen bakarra legeak berariaz jasotako kasuak izanen dira.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bereziki eta Nafarroako botere publiko guztiak, neurri horiek bete daitezten eta eraginkorrak izan daitezten arduratuko dira.

30. artikulua. Establezimenduak eta ikuskizun publikoak.

1. Adingabeak debekatua izanen dute hurrengo establezimendu, lokal edo aretoetan sartzera:

a) Bertako jarduerak edo ikuskizunak indarkeriazkoak, pornografikoak edo adingabearen nortasunaren garapen zuzenarentzat kaltegarri izan daitezkeenetan.

b) Kasinoetan, bingo-aretoetan, zorizko jokoak, ausazkoak edo apustuak egiten dituzten lokaletan eta sariak eskudirutan ematen dituzten joko-makinak ustiatzen dituzten aretoetan, horien erabilera, non dauden gorabehera, debekatuta baitute adingabeek.

c) Berziki edari alkoholduak saltzen eta horiez hornitzen lan egiten dutenetan, betiere gai hori arautzen duen berariazko legedian ezarritako kasuetan eta moduan.

d) Kirol lehiaketak edo ikuskizunak egiten dituztenetan, baldin eta horien erregelamenduan parte-hartzaileetako edozeini kalte fisikoak eragin dakizkiokeela jasotzen badu; halaber, lehiaketa edo ikuskizun horietan aritzea debekatuta dago adingabeentzat.

e) Berariazko legeen edo erregelamenduen bidez hala erabakitzen den beste edozeinetan.

2. Adingabeei ikuskizun eta festa publiko arrisgarrietan modu aktiboan parte hartzea debekatu zaie, baldin eta horietan parte hartzen dute-

nek jabetuta eta beren borondatez onartuta parte hartzen badute.

31. artikulua. Argitalpenak.

Debekatuta dago adingabeei eduki pornografiko argitalpenak saltzea, erakustea eta eskaintzea, bai eta edukietan edozein delinkuentzia formaren apologia, indarkeriaren goraipamena egiten dutenak edo hartara bultzatzen dutenak, edukietan indarrean dugun ordenamendu juridikoan aitorturiko eskubideen aurka egiten dutenak edo adingabearen nortasunaren garapenerako kaltegarriak direnak.

32. artikulua. Bitartekoak: ikus-entzunezkoak, telekomunikaziozkoak eta telematikoak.

1. Debekatuta dago adingabeei eduki pornografiko bideo, bideojoko edo bestelako ikus-entzunezko materiala saltzea, bai eta edukietan edozein delinkuentzia formaren apologia, indarkeriaren goraipamena egiten dutenak edo hartara bultzatzen dutenak, edukietan indarrean dugun ordenamendu juridikoan aitorturiko eskubideen aurka egiten dutenak edo adingabearen nortasunaren garapenerako kaltegarriak direnak; debekatuta dago, halaber, horrelakoak emititzea edo proiektatzea adingabeek sartzeko baimena duten lokaletan edo ikuskizunetan, eta debekatuta dago horrelakoak edozein bitarteko erabiliz haurrei eta nerabeei erakustea.

2. Nafarroako Foru Komunitatea titular den irrati eta telebistetako programazioak edo hark gaitasun-titulua eman behar dien irrati eta telebistetako programazioak, eta irrati eta telebista horien promozio-saioek hurrengo arauari jarraituko beharko die:

a) Haurrentzako programak adingabeen ohituraren arabera orduetaz emanen dira.

b) Debekatuta dago zeharkako publizitatea, ez bereiztua edo ezkutukoa erabiltzea haurrentzat eta nerabeentzat diren programetan.

c) Haurrak telebista ikusten edo irrati entzuten aritzen diren orduetan, programen edukiak eta adierazpideak adingabeen garapeneraren eta prestakuntzaren beharretara egokitu eta haiekin bateragarriak izan beharko dute; halaber, lege honetako 4 n) artikuluan ezarritako hezkuntza-helburuak faboratuko dituzte.

d) Aurreko letran aipatutako orduetan ez da adingabeen garapen fisikoarentzat edo psikikoarentzat kaltegarriak izan daitezkeen programarik, eszenarik edo mezurik emanen, ez eta arrazoi pertsonalengatik, familiarrengatik nahiz sozialen-

gatik gorrotoa, mespretxua edo diskriminazioa sustatzeko modukorik ere.

e) Adingabeen garapen fisikoarentzat edo psikikoarentzat oso kaltegarriak izan daitezkeen programak eta, betiere, pornografiako edo arrazoirik gabeko indarkeriako elementuak edo eszenak dituztenak erregelamenduz horretarako ezarritako orduetan soilik eman ahalko dira, eta edukiari buruzko ohartarazpena egin beharko da soinuaren baten bidez, edo, beharrezkoa izanez gero, ikusteko moduko zerbaiten bidez.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua laguntzaile eta ikuskatzaile duela, arlo hauetan diharduten erakunde, elkarte eta industriek, adingabeen babesgarri, sailkapen sistemak ezar ditzaten eta kode deontologikoak presta ditzaten sustatuko du; halaber, erakunde elkarte eta industri horien autoerregulazioa, adingabeak babestea helburu betiere, bultzatuko du, eta ohartarazpen sistemak ezartzea sustatuko du, azkenik, ekiditeko adingabeek telekomunikazioen eta telematikaren bidez eskura izan ditzaten lege kanpokoak edo beren garapen fisikoarentzat nahiz psikikoarentzat kaltegarriak izan daitezkeen bitartekoak edo zerbitzuak.

33. artikulua. Publizitatea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoa, eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua bereziki, lege honetako 29. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, publizitateak adingabeei kalte moral edo fisikorik eragin ez diezaien arduratuko da, eta, hori helburu, gai horri buruzko berarizko legedia errespetatu dadin ere arduratuko da.

Nafarroako Foru Komunitatean baizik hedatzen ez den adingabeentzako publizitateak, bai eta hedapen geografiko handiagokoa izanda Nafarroara mugatu daitekeenak, honako printzipio hauek errespetatu beharko ditu:

a) Publizitate horren edukiak, irudiek edo mezuak ez dute indarkeriara, delituak egitera ezta inongo bazterkeria mota erabiltzera bultzatuko, ez dira ordenamendu juridikoan aitorturiko eskubideen aurkakoak izanen ezta kaltegarriak ere adingabearen nortasunaren garapen integralerako.

b) Ez du sustatuko adingabeentzat debekatuta dauden jarduerarik edo horientzat debekatuta dauden produktuen, ondasunen edo zerbitzuen kontsumoa.

c) Ez da onartuko edozein sexuren nagusitasuna edo gutxiagotasuna aldarrikatzen duen ideien hedapena, ezta sexuen duintasunaren aurkakoak diren ideien hedapena ere.

d) Iragarritako objektuaren kontsumoan oinarritutako diferentziarik edo bazterkeriarik ezartzen duen mezurik ez da onartuko.

e) Publizitatearen hizkuntza eta mezuak, betiere, helburu dituzten haurren garapen mailara egokituko dira.

f) Objektuen irudikapenek errealitatea islatu beharko dute, objektuaren ezaugarri fisikoak, zer egiteko gauza den, erabilera, mugimendua eta bestelako ezaugarriak.

g) Iragarkiek iragarritako produktuaren edo zerbitzuaren salneurriaren berri eman beharko dute, indarreko araudiak ezarritakoaren arabera.

h) Publizitateak ez ditu adingabeak haien eskarmentu faltaz edo sinesberatasunaz baliatuz zuzenean bultzatuko produktu edo zerbitzu bat erostera, eta ez adingabeak bultzatuko ere beren guraso edo tutoreei, nahiz hirugarren baten guraso edo tutoreei, zerbitzu edo produktu hori erosaraztera.

i) Ezinen da, inondik ere, adingabeek beren gurasoengan, irakasleengan edo beste pertsona batzuegan duten konfiantza bereziaz baliatu.

j) Ezin izanen da ondasunak edo zerbitzuak emanen direla agindu, hitz emate hori esplizituak ez diren baldintzen pean jarri.

k) Publizitateak, behar adinako arrazoirik ez dela, ezin izanen ditu haurrak edo nerabeak egoera arriskutsuetan aurkeztu.

2. Oro har, adingabeak publizitatean erabiltzean, honako printzipio hauei ere jarraitu beharko zaie publizitatea Nafarroako Foru Komunitatean hedatzen denean:

a) Ez da adingabeak erabiltzerik izanen baldin eta beraientzat debekatuta dauden produktuak, ondasunak, zerbitzuak edo jarduerak iragartzeko bada.

b) Adingabeen irudiaren erabilpena ez da pertsona gisa duten duintasunaren aurkakoa izanen, ez ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubideen kontrakoa ere.

c) Adingabeek parte hartzen duten publizitate-eszenifikazioek ezin izanen dute kontsumo konpulsibora bultzatzen duen mezurik helarazi.

34. artikulua. Kontsumoa eta merkataritza.

1. Adingabeek ezin izanen dituzte ez kontsumitu ez erosi osasunarentzat kaltegarri izan daitezkeen gaiak, Nafarroako Foru Komunitatean drogei, farmazia produktuei edo produktu toxikoei buruz

indarrean den legediaren arabera adingabeentzako erabilera mugatukoak diren gaiak.

2. Debekatuta dago aurreko idatz-zatian adierazitako gai guzti horiek kontsumitzea, saltzea edo hornitzea goi mailakoak ez diren ikastetxeetan, haurrentzat eta nerabeentzat diren instalazioetan eta gai honi buruzko berariazko legedian ezarritako lekuetan.

3. Haurrentzat eta nerabeentzat diren produktuek eta zerbitzuek erregelamenduz ezarrita dagoen informazioa agertu beharko dute.

4. Produktu edo zerbitzu horiek ezinen dute inola ere engainua, okerra edo nahasmendua sorrarazi jatorriari, ezaugarri fisikoei, egiteko gauza direnari, erabilerari, mugimenduari eta gainerako ezaugarriari eta erabiltzeko moduei buruz.

5. Adingabeentzat diren salmenta promozioei mugak ezarri ahalko zaizkie.

6. Haurrentzat diren produktuek eta zerbitzuek ez dute haien osasunerako eta segurtasunerako arriskurik eraginen, salbu eta aplikatzekoa den araudi orokorrak edo bereziak baldintza normaletan eta aurrez ikusgarrietan onargarriztat jotakoak.

7. Nafarroako administrazio publikoek adingabeak kontsumo-gaien ezkutuko edo iruzurrezko salmentarako manipulatzeko dituzten merkataritza-jardunbideak kontrolatuko dituzte.

8. Nafarroako administrazio publikoek, adingabeei begira, kontsumorako informazio eta hezkuntza sustatuko dute, eta horiek kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideak bermatuko dituzte.

IV. KAPITULUA

Adingabeen betebeharrak

35. artikulua. Adingabeen betebeharrak.

Legedi zibilak gurasoekiko, tutoreekiko edo zaintzaileekiko nahiz familia bizitzako parte-hartzearekiko ezartzen dizkien betebeharez gain, adingabeek hurrengo hauek ere badituzte, besteak beste:

a) Ikastea, derrigorrezko irakaskuntzak irauten duten bitartean, lagungarri izan dadin bere prestakuntzarako eta nortasunaren garapen osorako; ikastetxera joan beharko dute eta, bertan, bizikidetasun arauak errespetatu beharko dituzte.

b) Aitortuak dituen eskubideen titulartasunari eta erabilerari atxikitako edo horien ondorio diren betebeharrak eta ardurak onartzea eta betetzea, halako moduz non horrek eskubide horien gozamen eragingarriagoa ahalbidetuko baitu eta, aldi

berean, gainerako adingabeek eskubide horien erabilera osoa egin dezaten erraztuko.

c) Gizartearen bizikidetasun eskaerarekin bat datorren gizalegezko jokabidea izatea, tolerantzia eta gainerako pertsonen eskubideen errespetua oinarri.

d) Ingurumena errespetatzea, eta hori zaintzen eta hobetzen laguntzea.

II. TITULUA

Prebentzio jarduketak

36. artikulua. Prebentzioaren lehentasuna.

Lege honetako edukiek ukitzen dituzten jardue-
ra sektoreetako prebentzio jarduketek lehentasuna
izanen dute, eta haien ardurua esleitzen zaien
administrazio publikoek eta erakundeek aurrekon-
tuetan jarduketa horiek gauzatzeko nahikoa bali-
bide ezarri beharko dituzte.

37. artikulua. Jarduketaren definizioa. Honakoak
dira prebentzio jarduketak:

a) Haurren bazterketa edo modakaiztasun pro-
zesuak eragiten dituzten edo horien lagungarri
diren sorburuak desagerraraztera edo murriztera
zuzendutakoak, adingabeen garapen libre eta
osoa zailtzen edo urritzen duten gabeziak edo
babesik gabeko egoerak desagerraraztera edo
murriztera zuzendutakoak eta inguru soziofamilia-
rraren hondatzea eragiten duten faktoreak desage-
rraraztera edo murriztera zuzendutakoak.

b) Aurreko idatz-zatian aipatutako sorburuek,
inguruabarrek eta faktoreek ondorio dituzten eragi-
nak murriztea edo arintzea helburu dutenak.

c) Arrisku edo geriza-gabetasuneko egoera
indibidualak ekiditea helburu dutenak.

38. artikulua. Ekintza eta neurri nagusiak:

Prebentzioa egiteko plan eta programa oroko-
rrak gauzatu dira, integralak edo arlokakoak,
oro-hartzaileak edo berariazkoak, iraunkorrek edo
denbora batekoak; halaber, honako neurri zehatz
hauen bidez ere bai, adierazitako ekintza-arloaren
barruan.

1. Haurren eskubideei buruzko sentsibilizazioa:

a) Haur eta familiei informazioa helarazi behar
zaie dituzten eskubideei buruz eta laguntzarako
eta babeserako dauden baliabideei buruz, eta
horiek eskuratzeko bidea ere erraztu behar zaie.

b) Komunikazio bide zuzenak jarri behar dira
adingabeen eskura, horien bitartez zerbitzu publi-
koei egoera, eskariak edo galderak jakinarazi die-
zazkien.

c) Haur eta nerabeen beharrei buruz sentsibili-
zatu behar da gizartea, eta horiei laguntzeko
moduei buruz.

d) Haur eskaletasunaren prebentzioa eta kon-
trolla.

2. Hezkuntza laguntza:

a) Lehen haurtzarorako laguntza-zerbitzuak
sustatu behar dira hezkuntza derrigorrezkoa ez
den adinetan, eta horiek eskuratzekoan lehenta-
suna emanen zaie ezgaitasunak dituzten adinga-
beei eta apalenak direnei ikuspegi soziokultural
eta ekonomikotik.

b) Derrigorrezko eskolatzea gauzatu dela
bermatuko da, eta eskola-absentismoa kontrolatu-
ko dela ere bai.

c) Eskola-prebentzioaren porrota.

d) Gizarte-bermeko prestakuntza-programak
gauzatu dira eskola sistema arrunta onartzen ez
duten adingabeentzat edo eskola-porrota nahiz
-absentismoa dutenentzat.

e) Zailtasun bereziak dituzten adingabeen
gizarte-integrazio programak gauzatu dira.

f) Jatorri behartsua duten adingabeentzako
konpentsazio-neurri zehatzak ezarriko dira.

g) Haur etorkinentzat berariazko neurriak har-
tuko dira, eta zeharkako programak sartuko dira
honakoei aurrea hartzeko:

a) Genero-indarkeria; berdintasuna bultzatuko
da.

b) Jokabide xenofoboak; ezberdintasunaren
errespetua eta integrazioa faboratuko dira.

3. Osasuna:

a) Osasunerako hezkuntza emanen da, herritar
ahulenei zuzenduriko txertatze-kanpainak egiten
dira, haurren gaixotasunei eta ezgaitasunei aurrea
hartzeko berariazko jarduketak egiten dira eta
laguntza goiztiarreko programak ere gauzatu
dira.

b) Adingabearen eboluzio-aldi bakoitzera ego-
kitutako hezkuntza afektibo-sexuala emanen da.

c) Alkoholaren, tabakoaren eta bestelako dro-
gen kontsumoari aurrea hartuko zaio.

d) Nork bere buruari kalte egiteko jokabideei
aurrea hartuko zaie adingabeen artean.

e) Istripuei aurrea hartuko zaie, etxekoei bere-
ziki.

4. Familia laguntza:

a) Guraso-arduratsu izateko hezkuntza sustatuko da, eta hauei zuzenduko zaie bereziki: guraso bakarreko familiei, banatutako aitei edo amei, ilobekin halako ardurak hartzen dituzten aitona-aminei, familia-nukleo gazteei eta indarkeria dutenei, gizarte-zailtasunak dituzten familiei edo ezgaitasunak dituzten seme-alabak dituztenei, eta arrisku egoeran dagoen beste edozein familiari.

b) Familietan zigor fisikoa erabat desagerrarazteko programak.

c) Esku-hartze sozial edo terapeutikoen bidez laguntza emanen zaie familiei, egoki bete ditzaten guraso eginkizunak, familia-dinamika egokia gauzatu dezaten eta deserrotzerik gerta ez dadin. Guraso izanen direnei zuzenduriko jarduketa-politikak sustatuko dira, arrazoizko gurasotasunaren alderdi psikologikoak barne direla.

d) Laguntza ekonomikoak emanen dira gabezia ekonomikoak nahiz materialak konpentsatzeko eta oinarrizko beharrei aurre egiteko.

e) Aholkularitzako eta bitartekaritzako programak prestatuko dira eta banatutako gurasoen eta beren seme-alaben arteko elkartzeari errazteko baliabideak ere jarriko dira.

f) Etxez etxeko laguntza emanen da.

5. Gizarte-harremanak, aisialdia eta susperzteza:

a) Haurrek beren burua babesteko programak prestatuko dira arrisku egoerei aurre egin diezaien.

b) Aurrea hartuko zaie haurrak jasaten duten indarkeriari eta sexu-abusuei.

c) Jokabide asozialen eta delinkuentziaren prebentzio orokorrerako edo berezarako jarduketak gauzatuko dira eta gizarte-desorekan dauden adingabeen gizarte-integrazioa erraztera bideratuta egonen dira.

d) elkarlanaren, elkartasunaren, gizalegearen eta indarkeriarik ezaren balioak eta trebetasunak sustatuko dira.

e) Aisialdia egoki erabiltzeko orientabideak emanen dira.

f) Heldutasunerako prestakuntza emanen da.

6. Prestakuntza eta enplegua:

a) Lana izateko prestakuntza eta orientabideak emanen dira.

b) Gazteen enplegua sustatuko da eta laguntza berezia emanen zaie inguruabar pertsonalak edo

sozialak direla-eta lana aurkitzeko zailtasun handiagoak dituztenei.

c) Lan esplotazioko egoerak kontrolatuko dira.

39. artikulua. Foru eta toki plangintza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentuek ekinen diote, bakoitzak dagozkion eskumenen esparruan, prebentzio-jarduketan plangintzari, departamentuok 7. artikuluan ezarritako markoari eta printzipioei jarraituko die eta bereziki hurrengoak izanen dituzte irizpide: ekintzaren integritasuna, neurrien osagarritasuna, kooperazioa eta koordinazioa.

2. Haurrentzako jarduketan foru plangintzaren bidez, eta toki entitateekin lankidetzan, lehentasuna duten talde eta eremuak erabakiko dira, behar eta bazterketa-adierazleak kontuan hartuz, horietan egin beharko baita prebentzio-programak ezartzeko eta betetzeko ahalegin handiagoa.

3. Foru plangintza gorabehera, eskumena duten toki entitateek beren planak eta programak prestatu eta gauzatuko dituzte, berariazko beharretara egokituta eta foru plangintzarekin behar bezala koordinatuta, ekiditeko norik bere lurralde esparruan haurrak babesik gabeko egoeretan egotea.

40. artikulua. Informazio trukea eta hedapena.

Prebentzio-jarduketan plangintzak, programazioak eta betetzeak eraginkortasun eta efizientzia ahalik eta handiena izan dezan, administrazio publikoek eta ardura duten entitateek gai hauei buruzko jakintza partekatzeko ekintzak eta sistemak bultzatuko dituzte, eta, horrela eskura duten informazioa trukatzeko dute eta praktika onak hedatuko dituzte.

41. artikulua. Entitateen parte-hartzea.

1. Prebentzio-programetan, entitate pribatuek, erakundeek, elkarteek eta fundazioek parte hartu ahaliko dute.

2. Nafarroako administrazio publikoek laguntza-mekanismoak ezarriko dituzte entitate-laguntzaile aitortuek babes eta laguntza teknikoko zerbitzuak eman ditzaten, prebentzio-jarduketak egoki betetzeko beharrezkoak direnak hain zuzen.

42. artikulua. Jarduketan sustapena eta koordinazioa..

1. Nafarroako administrazio publikoek, dagozkien lurraldearen eta eskumenen esparruan, 39.1 artikuluan aipatutako printzipio eta irizpideen arabera gauzatu eta sustatuko dituzte prebentzio-jarduketak.

2. Prebentzio-ekintzak betetzeko, parte hartzen duten instantzien arteko koordinazio mekanismoak ezarriko dira tokian-tokian, bereziki kontuan hartuz toki entitateak, gizarte-ekintzako zentroak, hezkuntza- eta osasun-erakundeak ea gainerako babes-sistemak.

III. TITULUA Babes-ekintza

I. KAPITULUA Alderdi orokorrak

43. artikulua. Babes kontzeptua.

1. Adingabeen babesak hurrengoak hartzen ditu: babesik gabeko egoeretan horiek lehenbailehen zuzentzeko gauzatzen diren jarduketan eta neurrien multzoa, bermatzeko, horrela, bizikidetzatalde naturaletan integratuko direla behin betikoz, modu seguru eta egonkorrean eta gutxieneko oinarritzko baldintzetan, halako moduz non bizitza familiarrean, sozialean, ekonomikoan eta kulturean modu normalizatuan parte-hartzea ahalbidetuko baitzaie.

2. Babesik gabeko egoerak dira bai arrisku egoerak, lege honetako 47. eta 48. artikuluetan ageri baitira, eta geriza-gabetasunekoak, legeko 55. eta 56. artikuluetan arautzen baitira.

44. artikulua. Jarduketa-irizpideak.

Adingabearen babestearen arloko administrazio-jarduketak hurrengo irizpideei jarraituko die, gidari duela, betiere, adingabearen interesak, aldi berean egokitzen den beste edozein interesen gaitetik, lehentasuna izatearen printzipioa, eta errespetatuz Adingabearen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoko 1.1 artikuluan jasotako printzipio gidariak. Hona jarraitu beharreko irizpideak:

a) Adingabeen autonomia pertsonala errespetatu behar da, eta, era berean, haien askatasuna eta duintasuna eta haien nortasun-ezaugarri indibidual nahiz kolektiboak.

b) Adingabearen familia inguruan esku-hartzeak izanen du lehentasuna, eta gurasoen nahiz nukleo horretako gainerako kideen parte-hartzea lortzen saiatu beharko da integrazio eta normalizazio prozesuan; prozesu horrek, ahal dela, adingabeak familia-inguru horretan jarraitzeko bidea eman behar du.

c) Adingabea familiarik bereizi behar denean, ordezkoko baliabideak jarriko dira, kontuan hartuz adingabeak familiarekin itzuli beharko duela hori posible izan bezain laster. Banatzea behin betikoa

bada, dituen behar eta ezaugarrietara hobekien egokitzen den eta ahalik eta egonkorrena den familia-nukleo batean sartzeko kudeaketak eginen dira lehenbailehen; kasu horretan, anaia-arrebak elkarrekin jarrai dezaten ahalegindu beharko da, haientzat kaltegarria ez bada behintzat, eta, halaber, adingabeak jatorrizko taldearekin eta esanguratsua diren beste pertsona batzuekin kontaktua izan dezan ere ahalegindu beharko da. Bi kasu horietan, bere familian izanen zituenak baino bizikaltate eta hezkuntza hobek bermatuko zaizkio adingabeari.

d) Babesik ezaren ondorioak egoki tratatzeko hartu beharreko neurriak hartzerakoan, zenbait alderdi hartu beharko dira kontuan.

e) Administrazioaren esku-hartzea ahalik eta txikiena izanen da, babes egokia ziurtatzeko horrela; adingabearen eta bere familiarren bizitzan ahalik eta gutxiena nahasiko da administrazioa bai eta titular den eskubideen erabilera ere, eta jarduteko gaitasunaren mugatzeak modu murriztailean interpretatuko dira betiere.

f) Adingabeek, dituzten gaitasunen arabera, eta beren gurasoek, adingabearen interesentzat komenigarria bada, egoerari buruzko erabakiak hartzean parte hartuko dute eta aplikatu daitezkeen neurri eta jarduketetan eta horien gauzatzean ere bai.

g) Kasuen diagnostikoa egitean, erabakiak hartzean eta esku hartzean, diziplinartekotasunez jokatu beharko da.

h) Administrazioaren jardunak, segurtasun juridikoa bermatze aldera, prozedura arautuei jarraituko die.

i) Abian jarritako neurri eta jarduketan betetzea jarraitu eta kontrolatu eginen da eta, aldi aldi, berrikusi, erabakitzeko horrela kasu bakoitzean ea mantendu, aldatu edo eten egin behar diren.

j) Administrazio publikoek elkarrekin parte hartuko dute programa eta ekintza orokorretan eta kasuko jarduketetan dagozkien eskumenen eta arduren esparruan; betiere, oinarritzko behar nagusiei aurre egiteko adingabeak baliabide publiko normalizatuak eskura izatea ziurtatu beharko da.

45. artikulua. Adingabe babestuen eskubide bereziak.

Adingabeak, administrazioaren babes jarduerari dagokionez eta ordenamendu juridikoak eta lege honek haur eta nerabe guztiei aitortzen dizkien eskubideekin batera, hurrengo eskubideen berarizko titularrak izanen dira:

a) Babestua izateko eskubidea, baita gurasoak aurka izanda ere, haurra arrisku egoeran edo geriza-gabetasuneko egoeran dagoela frogatuz gero, eta, hamasei urte bete dituenean, bizitza beregainerako prestakuntzari dagokionez, bere boronda-tea bereziki kontuan hartzeko eskubidea.

b) Administrazioaren berriak jasotzeko eskubidea, eta ezagutzekoa beren egoera pertsonala, hartuko diren neurriak eta gauzatuko diren jarduketak, eta horien iraupena eta edukia ere bai, eta ezagutzekoa, halaber, dagozkien eta babesgarri dituzten eskubideak, artikulu honetan jasotakoak bereziki. Horretarako, esku-hartze prozesu guztian zehar, benetako informazioa helaraziko zaie, ulergarria, haien baldintzetara egokitua, jarraitua eta ahalik eta osoena.

c) Administrazioaren aldetik entzuna izateko eskubidea, eta, kasua bada, entitate kolaboratzaileen aldetik, adingabeek adieraz dezaten zer iritzi duten, eta, hamabi urte beteta izanez gero edo heldutasun eta gaitasun nahikoa, beren kasuaren gaineko erabakiak hartzean parte hartzeko eskubidea. Hori dena alde batera utzita Kode Zibilean edo Prozedura Zibileko Legean ezarritakoaren arabera adingabeek adostasuna eman beharreko kasuak. Eskubide hori erabiltzeko debekua arazoitutako ebazpen bidez eman beharko da.

d) Dituen beharren bilaketan eta asetzean subjektu pasibotzat hartua izateko eskubidea; administrazio guztiek sozial eta juridikoki sustatu eta bermatu beharko dute adingabearen autonomia pertsonala.

e) Babesgabetasunaren ondorioen tratamendu egokia izateko eskubidea, zeina administrazio bakoitzak bere esparrutik eman beharko baitu.

f) Integrazioa behin betiko, eta modu seguru eta egonkorrean lortzeko plan bat izateko eskubidea, eta baliabide publikoak lehentasunez eskuratzeko eskubidea, horrela, aipatutako plana oinarri hartuz, egoki erantzuteko adingabearen behar fisiko, emozionalei, kognitibo, hezkuntzakoei eta sozialei.

g) Formalki araututako tramitazio batek emandako segurtasun juridiko eta emozionala izateko eskubidea, behar gabeko atzerapenik gabea, behin-behineko neurriak ez daitezen luza, intimitatean sartzeak ez daitezen behar-beharrezko puntura baino haratago hel eta jarduteko gaitasunaren murriztea eta adingabearen zein bere familiarren bizimoduan izaten diren interferentzien murriztea ere ez dadin izan behar-beharrezkoa baina handiagoa. Adingabeek, halaber, ziurtatuta izanen dute beren oinarritzko eskubideei eragiten dieten neurriek epaileen baimena eta kontrola izanen dutela.

h) Familian jarraitzeko eskubidea, horretarako modurik izanez gero, eta, familiaratik berezia bada, inguruabarrek horretarako aukera ematen duten bezain laster familiara itzultzeko aukera kontuan hartua izateko eskubidea, eta hori ezinezkoa bada, beste familia-nukleo batean sartzeko eskubidea eta, era berean, jatorrizko taldearekin eta adingabearentzat esanguratsuak diren beste pertsona batzuekin kontaktua izatekoa, baldin eta hori ez bada oztopo edo kaltegarri babesteko helburuari begira.

i) Adingabearen gizarte-integrazioarako beharrezkoak diren bitartekoak eskura izateko eskubidea, duen nortasun kulturalaren eta hizkuntzaren errespetua abiapuntu hartuta.

j) Bere familiak behar adinako laguntza eta babesa jasotzeko eskubidea, adingabeek baldintza egoki gutxieneko batzuetan arduratu ahal izan dadin familia.

k) Duen adinaren eta gaitasunaren arabera, bere historia pertsonala eta familiarra ezagutzeko eskubidea, eta jakitekoa ea jatorrizko familiaratik behin betikoz berezia izan den bai eta zein dituen jatorri kulturalak eta sozialak, betiere errespetatuak izanen baitira. Adinez nagusia denean, bere espedientea eskuratzeko eskubidea, eta jatorria zein duen jakitekoa, ama biologikoa zein duen jakiteko eskubidea barne dela; babesik gabeko egoera salatu zutenen nortasuna isilpean gordetzeko beharra eta hirugarrenen eskubide zilegiak izanen dira muga bakarrak.

l) Inguruabar pertsonalei eta familiarrei dagokien ez konfidentzialtasun eta isiltasun erabatekoz jokatzeko eskubidea, salbu eta esku-hartzea eraginkorra izateko behar-beharrezkoak direnei buruz, adingabearen interesa helburu betiere.

m) fiskaltzarekin harreman zuzena izateko eskubidea, eta beren babesaren arduradun teknikoekin eta administratiboekin.

46. artikulua. Jakinarazteko eta salatzekeo betebeharra..

1. Norbaitek adingabe bat arrisku egoeran dagoela edo geriza-gabetasuneko egoeran egon daitekeela atzematen badu, eta bereziki horren berri lanbideagatik, dituen eginkizunengatik edo arduragatik izaten badu, alde batera utzita adingabeari berehala emanen diola behar duen laguntza eta delitua izan daitezkeen gertakari horien salaketa formala egin beharko duela, lehenbailehen jakinaraziko die agintari eskudunei edo haren eragile hurbilenekei, behar diren neurriak har ditzaten horiek eta lege honetan ezarritakoaren arabera neurriak eta jarduketak abian jar ditzaten.

2. Jakinarazteko eta salatzeke betebeharrak hori gizarte, osasun eta hezkuntza zentroi eta zerbitzuei dagokie bereziki, eta erakunde eta entitate publiko nahiz pribatuei ere bai, baldin eta, adingabeekin duten harremanaren ondorioz, aipatutako egoeraren baten berri badute; kasu horretan, pre-saz jakinarazi beharko dituzte gertakari horiek.

3. Lanbide elkargoek beren kideen artean bereziki bultzatuko dute sensibilizazioa, ikusarazteko garrantzitsua dela atzematea, beren jarduna dela-eta, adingabeak arrisku egoeran daudela edo geriza-gabetasuneko egoeran egon daitezkeela, eta garrantzitsua dela horiek berehala eta egoki jakinaraztea.

4. Komunikazioei, jakinarazpenei edo salaketei dagokienez, konfidentzialtasunaren eta isiltasunaren printzipioak izanen dira administrazioaren jardunaren gidari.

II. KAPITULUA Arrisku egoerak

47. artikulua. Arriskuaren kontzeptua.

Arrisku egoeratzat hartzen da adingabearen egoera pertsonal edo familiarak direla eta, edo duen inguruaren eraginez, haren garapen pertsonal edo soziala kaltetzen duen egoera, halako moduz non, geriza-gabetasuneko egoeraren deklarazioa oinarrituko lukeen garrantzia, indarra edo iraunkortasuna izan gabe, administrazio eskudunen esku-hartzea beharrezkoa baita; hain zuzen ere, familiaren laguntzan espezializatutako zerbitzuen bidez, eta behar izanez gero haren zaintza bere gain hartuz, gurasoek edo tutoreek hala eskatu dutelako, zailtasunak desagerrarazteko, arintzeko edo konpentsatzeko eta babesgabetasuna ekiditeko.

48. artikulua. Arrisku-egoerak.

Honako hauek dira arrisku-egoerak:

a) Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak adingabearen egoera fisikoaz edo psikikoaz ez arduratzea eta horrek adingabearen osasun fisikoan edo emozionalean kalte arina eragitea, adingabearen behar nagusiekiko axolagabekeria arina edo dituen eskubideen gauzatzearen oztopatzea, baldin eta irizten bada, gertakari horien izaeratik edo errepikapenagatik, iraun dezaketela edo eraginak larriagoak izan daitezkeela.

b) Aurreko letran aipatutako pertsonen zailtasun larriak izatea adingabeari arreta fisikoa eta psikikoa egoki emateko, nahiz eta horretarako borondatea izan, eta horrek aurreko letran adierazitako eraginak izatea.

c) Adingabeari zigor fisikoa edo emozionala ezartzea eta, gertakari zorrotza izan gabe edo indarkeriazko ohiko jokabidea izan gabe, haren garapenari kalte egitea.

d) Adingabeak mota guztietako gabeziak izatea, familiak ezin dituen horiek egoki konpentsatu ezta zerbitzu eta baliabide normalizatuen bidez tratatuak izan daitezen bultzatu ere, baldin eta gabezia horiek, nahiz eta hasten besterik ez aritu edo arinak izan, prodromo-eragina badute eta, ondorioz, adingabearen bazterketa, molda-kaiztasuna edo babesik eza sortu eta faboratzen badute.

e) Bananduriko edo banandu gabeko gurasoen arteko gatazka ageriko eta iraunkorra, beraien beharrak haurren beharren aurretik jartzen dituztenean.

f) Aurreko artikuluan jasotako beste edozein, baldin eta iraun eta adingabearen geriza-gabetasuna eragin eta sorrazi badezakete.

49. artikulua. Administrazioaren jarduketaren helburua.

Arrisku-egoeretan izan beharreko administrazio-jarduketak –jarduketa horren barruan izanen dira, baita ere, kasuaren ebaluazioa eta adingabeak familian duen bilakaeraren jarraipena–, adingabearen eskubideak bermatuko ditu eta hurrengoak lortzera egonen da bideratua:

a) Familia-ingurunea hobetzea, eta horretan lagunduko dute gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek eta adingabeak berak.

b) Arriskuko eta gizarte-zailtasuneko faktoreak desagerraraztea, indargabetzea edo gutxitzea, gurasoak adingabearen beharrei egoki erantzuteko gaituz; horretarako baliabide teknikoak nahiz ekonomikoak emanen zaizkie gurasoei eta behar duten laguntza, adingabeak etxean jarrai dezan.

c) Zerbitzu eta baliabide normalizatuek egoki ase ditzatela adingabearen behar nagusiak, eta konpentsazio-ekintza osagarriei bidea emanen zaie baldin eta beharrezkoak badira adingabeak benetan erabil ditzan dituen eskubideak.

d) Gurasoen jarduna osatzea behar den neurri-raino, adingabearen zaintza eskuratu denean haren itzulera faboratuz.

50. artikulua. Arrisku egoeraren balorazioa.

1. Adingabearen garapen pertsonalarentzat edo sozialarentzat kaltegarri den edozein arrisku egoeretan, eta legeak ez badu haien tutoretza hartzea agintzen, toki entitateei dagokie, estatuko nahiz Nafarroako legediak, Gizarte zerbitzuei

buruzko Foru Legeak eta lege honek ezarritako esparruan, arrisku horiek atzeman eta baloratzea. Toki entitateei dagokie, halaber, beharrezko lankidetzaren abiapuntu hartuta eta dituzten baliabideak abian jarriz edo gainerako administrazioekin eta zerbitzu publiko nahiz pribatuekin lankidetzan, adingabeari dagozkion eskubideak bermatzea, kaltegarri suerta dakizkiokoen arriskuko eta gizarte-zailtasuneko faktoreak gutxitzea eta adingabearen nahiz bere familiaren babeserako faktoreak sustatzea.

2. Hurrengo kasuetan hartu beharko ditu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak neurriak:

a) Arrisku-egoeraren ebaluazioa egin eta ondorio denean gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek eskatzen dutela adingabea familiarik bereizi eta norbaitek hartu behar duela haren zaintza.

b) Familiaren banatzea saihestera bideratutako esku-hartzeak familiaren gaineko jarduketak dakartzanean berekin eta jarduketa horiek gurasoen edo tutoreen laguntzarik edo adostasunik gabe egin behar direnean.

c) Toki entitate batek ez badu jarduketaren egiaztatzea eta balorazioa egiten –artikulu horretako, 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, toki entitateei dagokie–, nahiz eta hori egiteko eskatu; hala bada, zer ebazpen hartu den jakinaraziko zaio toki entitate horri, erregelamenduz ezarritako neurrien artetik hautatutakoak betearazteko zer ebazpen hartu den hain zuzen.

d) Famili harrera amaitu eta beharrezkotzat jotzen denean epe horretan izaniko laguntzak luzatzea edo neurri berriak abian jartzea; hori berehala erabakiko da eta erregelamenduz ezarritako den gehieneko eperako.

e) Nafarroako Foru Komunitatearen menpeko berriazko bitartekoak edo beste administrazio batzuen baliabideak abian jartzea beharrezkoa izanda, lege honen garapen-arauetan horrela erabakitzen denean.

f) Kasu multzo jakinetarako jarduketaren programazio berezietan edo plangintza orokorrean ezarritako berriazko jarduketa-irizpideei jarraikiz, horrela erabakitzen denean.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagokio, entitate publiko eskuduna baita, arlo honetako koordinazio orokorra, eta, horretarako, aldika-aldika toki entitateek informazioa emanen diote erabakitako jarduketei eta horien garapenari buruz.

51. artikulua. Arriskua baloratzeko prozedurarako arau orokorrak.

1. Toki entitateetako gizarte zerbitzuek, beren kabuz edo hirugarrenek jakinarazi dietelako, adingabe bat arrisku egoeran egon daitekeela jakiten dutenean, jarduketa egokiak jarriko dituzte abian hori egiaztatzeke eta ebaluatzeke, eta emaitzak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari jakinaraziko dizkiete, hark aurreko artikuluan ezarritako arauen arabera neurriak har ditzan, halakorik egin behar bada.

2. Jakinarazpen hori protokolizatutako txosten baten bidez egingen da, betiere familiaren eta adingabearen iritzia jasoko ditu azaldutako egoerari buruz, eta esku hartzeko proposamen batekin amaituko da.

3. Ikusita txosten hori eta egoki iritzi daitezkeen adierazpen gehigarriak, eta neurriak hartzea beharrezkoa ez denean betiere, toki entitateek, behin arrisku egoera baloratuta, esku-hartzearen programa ezarriko dute.

52. artikulua. Administrazioaren esku-hartzea.

1. Administrazioak, arrisku-egoeretan, lehentasunez erabiliko duen baliabidea familiar zuzenduriko laguntza izanen da, 77. artikuluan eta hurrengoetan baitako arautua; laguntza hori, familiaren inguruan emanen baita, administrazio eskudunetako zerbitzu tekniko espezializatuek emanen dute, eta oinarritzko zerbitzuek kasua bada.

2. 50.2 artikuluan ezarritakoari begira, arrisku-egoeran hartu daitezkeen neurriak dira –horretarako ezarritako prozedura arruntaren arabera hartuko dira– gurasoek edo tutoreek eskatu eta adingabearen zaintza aldi baterako hartzea eta familiar zuzenduriko laguntzak, 78. artikuluan jasotakoan artean izaera hori dutela ebatzitakoak hain zuzen.

53. artikulua. Laguntzeko betebeharra.

1. Arrisku-egoeraren ebaluazioa egin eta ondorio denean administrazioaren jarduketa behar dela, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek aktiboki lagundu beharko dute neurri eta jarduketa horiek gauzatzeko.

2. Pertsona horiek lankidetzaren ukatu eta horrek arrisku-egoeraren iraupena, kronikotasuna edo larritzea eragiten badu edo horrelakoak sortzen laguntzen badu, geriza-gabetasuneko deklarazioa eman ahal da; aipatutako deklarazioa, betiere, lankidetzaren ukatze hori adingabearen banatzea –familiar eskatutako banatzea– gertatu ondoren suertatuko balitz erabakiko da.

54. artikulua. Arrisku-egoeraren amaiera.

1. Arrisku-egoera kasu hauetan amaituko da:

a) Hori eragin zuten inguruabarrak desagertzen direnean edo behar bezala konpentsatuak daudela irizten denean.

b) Lege honetako 75 artikuluan aurreikusitako ez gain beste babes neurri batzuk hartzen direnean.

2. Arrisku-egoera hasi zenean hori jakinarazi zitzaizen pertsona eta entitateei jakinaraziko zaie arrisku-egoeraren amaiera.

III. KAPITULUA**Geriza-gabetasuneko egoerak****55. artikulua.** Geriza-gabetasun kontzeptua.

Geriza-gabetasuneko egoera da Kode Zibileko 172.1 artikuluko bigarren lerrokadan halakotzat jotzen dena.

56. artikulua. Geriza-gabetasuneko egoerak.

Geriza-gabetasuneko egoerak balioesterakoan aintzat hartuko diren inguruabarrak dira Kode Zibileko 172.1 artikuluko bigarren lerrokadan ezarritako kausetan sorburua izan eta, haien izaera, intentsitate, iraunkortasun edo errepikapenarengatik, adingabeek behar den laguntza moral eta materialik ez izatea eragiten dutenak. Bereziki, honakoak:

a) Legearen arabera adingabea zaintzeko eginkizunak betetzea dagokion pertsonarik ez izatea.

b) Adingabearen filiazioa, bai aitaren aldetik eta bai amaren aldetik, aitorturik ez egotea, eta bi gurasoek haren gain edozein eskubide izateari uko egin izana.

c) Babes-eginkizunak betetzeko ezintasuna, horren zergatia edozein dela ere.

d) Adingabea nahita edo zabarkeria larria dela medio abandonatzea.

e) Tratu txar fisiko nahiz psikikoak eta sexu-abusuak, adingabearen familiartekoek edo arduradunek eginikoak, edo bestek eginikoak, familiarteko edo arduradun haiek horrelakoak egiten uzten badiete edo halako egintzak eragozteko eskura dituzten bitartekoak ez badituzte erabiltzen.

f) Delituak egitera edo jokabide antisozial edo desbideratueta indusitzea, bai eta adingabeari horrelakoak egiten uztea.

g) Adingabearen arduradunek babes-eginkizunak behar ez bezala betetzea, adingabea arrisku larrian utzirik.

h) Adingabearen drogadikzioa edo alkoholismoa, adingabea zaintzeko ardura daukatenez hura indusitu, utzi edo onartuta.

i) Babesgabetasun-egoerak ikertu edo egiaztatzeke erabakitzen diren ekintzei adingabearen arduradunek oztopoak jartzea, adingabearen segurtasuna arriskuan ipintzen denean, edo arrisku-egoeretan erabakitako neurriak betetzen ez laguntzea, halako moldez non egoera horien iraunkortasuna, kronifikazioa edo larriagotzea eragiten den.

j) Adingabea ekonomikoki ustiatzea, bai eta ustiapen hori egiten uztea ere.

k) Gurasoek edo tutoreek adingabearen zaintza berreskuratzeari uko egitea, zaintza hori administrazioak bere gain har zezala eragin zuten inguruabarrak desagertu ondoren.

l) Adingabea fisikoki edo psikikoki ez zaintzea, jokabide hori larria edo kronifikatua bada.

m) Adingabearen etxean edo inguru soziofamiliarrean bere garapenari edo eskubide-egikaritzari kalte larria eragiten dioten inguruabarrak egotea.

n) Arrisku-egoerak, baldin eta, haien iraupenaren edo larriagotzearen ondorioz, adingabeak beharrezkoa zaion laguntza moral edo materiala ez jasotzea eragiten badute.

ñ) Beste edonolako babesgabetasun-egoera, baldin eta adingabeak beharrezkoa duen laguntza ez jasotzea badakar eta bere sorburua gurasoboterea edo zaintza-eginkizunak ez betetzea edo behar ez bezala betetzea bada, edo gurasoek edo tutoreek adingabearen segurtasuna bermatzeko gutxienezkoa den lankidetza ez ematean badatza.

IV. KAPITULUA**Babesgabetasun-egoerak foru erkidegoak deklaratzeko eta geriza-gabetasuneko egoeretan neurriak erabaki eta betetzeko prozedura****57. artikulua.** Prozeduraren beharra.

Bai geriza-gabetasuneko egoera deklaratzeko bai edozein babes-neurri hartzea ere, arrazoituriko ebazpen baten bidez erabaki beharko dira. Ebazpen hori idatzizkoa izanen da, balorazio batzordeak proposamena edo txostena egin ondoren, eta, 62. artikuluko larrialdietarako xedaturikoa izan ezik, hurrengo artikuluetan arauturiko prozedurari jarraituko zaio.

58. artikulua. Prozedura hastea.

1. Prozedura ofizioz hasiko du entitate publikoak, epaileak horretarako agindua eman ondoren, fiskaltzaren ekimenez, adingabeak eskatuta, gura-

soek edo tutoreek eskatuta, edo hark, bere kabuz, bere zerbitzuen bitartez, edo agintarien edo beraien agenteen, funtzionarioen, profesionalen edo herritarren bitartez, adingabe bat arrisku- edo giza-gabetasuneko egoeran egon ahal izatearen berri badu.

2. Agintarien edo beraien agenteen jakinarazpenak eta funtzionario eta profesionalen txostenak idatzizkoak izan beharko dira, eta adingabearen eskabidea, guraso eta tutoreen eskabidea eta beste edozein pertsonak herritar soil gisa eginiko jakinarazpena izan ahalko dira idatzizkoak, ahozkoak edo haiek ulertu eta egiaztatzea ahalbidetzen duen beste edozein modutan eginikoak. Haiek jaso izana modu fede-emailean adierazi beharko da.

3. Prozedura hasi aurretik egin beharko dira 60. artikulua aipaturiko hasierako egiaztapenak eta aurretiazko ikerketa.

59. artikulua. Kasua teknikari bati esleitzea.

Betiere, kasu bakoitzari, hasieratik, teknikari bat esleituko zaio, eta hark ikerketa eta ebaluazioa koordinatuko ditu, kasuaren planerako proposamena eginen du, esku-hartzea bultzatuko du, neurri eta ekintzen gauzatzea, haien jarraipena eta haien balizko berrikuspena kontrolatuko ditu, eta behar diren txostenak emanen ditu. Bere jarduera gauzatzeko, beste zenbait profesionalen laguntza izan dezake.

60. artikulua. Hasierako egiaztatzeak eta aurretiazko ikerketa.

1. Eskueran dauden datuen edo jasotako jakinarazpenaren arabera, eta erregelamenduz xedatuari jarraikiz, zehaztu eginen da zein kasutan eta epetan egin behar diren, batetik, gertakizunei buruzko hasierako egiaztapena egitera bideraturiko lehen bilatze-lanak, eta, bestetik, kasuari buruz jadanik bil daitekeen informazio guztia lortzeko aurretiazko ikerketa. Horren guztiaren xedea da balizko babesgabetasun-egoerarik ba al dagoen ziurtatzea, egoera horren izaerari, norainokoari eta ondorioei buruzko lehen irizpen bat aurreratzea, eta, kasua bada, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera jarduteko beharrik ba ote dagoen ondorioztatzea.

2. Esku-hartzea premiazkoa dela adierazten duen arrastorik agertuko balitz, hasierako egiaztapen horiek, zeinek kasuaren lehendabiziko ikerketa ere barnean hartuko baitute, ahalik eta epe laburrenean eginen dira.

3. Ahal den guztietan, hasierako egiaztapenak egitean teknikari profesional batek bilera eginen du adingabearekin, eta harremana izanen du guraso,

tutore edo zaintzaileekin. Betiere ahaleginduko da intimitatearen esparruan beharrik gabeko esku-sartzeak saihesten, bai eta abian dauden beste ikerketa edo prozesu batzuen bilakaeran ez eragiten edo horiek ez oztopatzen.

4. Aurreko lerrokadetan adierazitako hasierako ekintza horiek guztiak idatziz jasoko dira, osoki eta bere garaian. Ezartzen den gehieneko epearen barruan eta ahalik eta denborarik laburrenean burutu beharko dira, eta behar adinakotzat eta osatutzat joko dira adingabearen egoera kritikoa dela, presako esku-hartzea beharrezkoa duela edo haren integritate fisiko edo psikikorako arrisku larria eta berehalakoa eragiten duela ondorioztatu bezain laster. Kasu horretan, 62. artikulua xedaturikoari jarraikiz jokatu da. Baldin eta, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera, ondorioztatzen bada kasua presakoa ez dela, adingabearentzat une horretan arriskurik ez dagoela eta epe laburrean egoerak okerrera eginen ez duela, orduan, aurretiazko fase hori behar adina luzatu ahalko da, ezartzen den gehieneko epearen barruan betiere, kasuaren ebaluazioari ekin ahal izateko.

61. artikulua. Eginbideak artxibatzea edo jarraitzea.

1. Hasierako egiaztapenen eta aurretiazko ikerketaren fasea amaitu ondoren, babesgabetasun-egoera ez bada berresten, eginbideak amaitzea erabakiko da, eta, ebazpen arrazoitu baten bidez, artxiba daitezen aginduko da. Agindu hori interesdunei jakinaraziko zaie, eta jurisdikzio zibilean inpugnatu ahal izanen da administrazio-bidetik aurretiaz erreklamaziorik aurkeztu beharrik gabe.

2. Babesgabetasunaren existentzia edo balizkotasuna berresten bada, prozedura hastea eta eginbideek jarraitzea erabakiko da, eta kasuaren ebaluazioa osatzeko behar dena xedatuko da.

62. artikulua. Presako neurriak eta prozedura sumarioa.

1. Baldin eta, eskueran dagoen lehen informazioaren arabera edo hasierako egiaztapen eta aurretiazko ikerketan ondorioztatua dela medio, adingabea egoera kritikoa dagoela frogatzen bada, haren integritate fisiko edo psikikorako arrisku larri eta berehalakoa dagoela jotzen bada, edo berandutu gabe esku hartzea beharrezkoa dela ebazten bada, presako plan bat taxutuko da berehala, behar diren zuhertasun-neurri guztiak bilduko dituen; horretarako, prozedura laburtu sumario bat izapida dadila xedatuko da.

2. Baldin eta adingabearen arduradunek lehendabiziko bilaketa- edo egiaztapen-ekintza horiek

oztopatzen badituzte, edo laguntzarik ematen ez badute, eta horrela jokatzek arriskuan jartzen badu adingabearen segurtasuna, bai eta babesgabatasun-egoerarako erabakitako neurriak betetzeko parte hartzeari ezetza ematen bazaio, noiz eta horrek egoera haien iraupena, kronifikazioa edo larriagotzea eragiten duenean, horrek oinarria eman ahalko du aipatu den prozedura laburtu sumarioaren bidez egiteko geriza-gabetasuneko egoeraren deklarazio formalak.

3. Aurreko bi zenbakietan azalduerik inguruabarretakoren bat badela eta haren izaera zein den edo berandutzarik gabeko esku-hartzea behar dela egiaztatu ondoren, idatzizko ebazpen arrazoi-tua emanen da, zeinaren bidez, kasua bada, geriza-gabetasuneko egoera deklaratu baita, eta legearen indarrez tutoretza ezar dadila erabakiko baita.

4. Jarraian, izapidetzeak hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera aurrera segituko du, instrukzioa amaitzeko eta geriza-gabetasuneko egoera berretsi edo hasieran ezarritako tutoretzaren iraungipena deklaratzeko.

63. artikulua. Ebaluazio-fasea.

1. Prozedura sumarioaren bidez presako neurriak, kasua bada, hartu ondoren, eta prozedura 58. artikuluan xedatuari jarraikiz hasi ondoren, baldin eta lehen ikerketak egin ondoren presako ekintza horiek ez badira beharrezkotzat jotzen, eta, zantzuaren arabera, balizko babesgabatasun-egoera bat dagoela egiaztatzen bada, ebaluazio-fase bati ekinen zaio, eta, horretan, adingabearen eta bere familiaren inguruabarrak ezagutzen dituzten pertsonen eta erakundeek jakinaraz ditzaketen datu muntadun guztiak bilduko dira.

2. Aurrekoa gorabehera, fase hori ez da bete beharko, baldin eta lege honetako 60. artikuluko 4. zenbakiko bigarren atalak aipatzen dituen egoeretan kasuaren ebaluazioa aurretiaz egin bada.

3. Betetzen duten jarduerarengatik kasuarekin zerikusia daukaten profesional guztiek babes-zerbitzuei lagundu beharko diete, eta fase honetarako muntadun izan daitekeen informazio guztia eman beharko diete.

4. Ebaluazioaren helburua izanen da adingabearen egoeraren, beharrezan eta inguruabar soziofamiliarren berri ahalik eta zehatzena izatea.

5. Profesional espezializatuek eginen dute adingabeari buruzko azterketa, eta haren egoera pertsonalari buruzko egiaztapenak hari traumarik txikiena eraginen dioten moduan eta baldintzetan eginen dira.

6. Ebaluazio fasea amaitu beharko da erregelamendu bidez ezartzen diren epeetan, eta haren emaitzak jasoko dituen txostenaren gutxieneko edukia, halaber, araudi garatzailean finkatuko da.

64. artikulua. Elkarrizketak eta bestelako probak.

1. Prozeduran entzuten zaio hamabi urte beteak dituen adingabeari eta, adin horretara iritsi gabe, behar adinako heldutasun eta gaitasuna dituenari; eskubide hori bere kabuz edo hark izendaturiko ordezkariaren bitartez egikaritu ahalko du.

2. Halaber, adingabearen guraso, tutore edo zaintzaileei entzuten zaie. Egoki deritzeten alegazioak egin ahalko dituzte.

3. Aurreko bi zenbakietan aipaturiko pertsonen entzutea ezinezkoa izan denean, horren zergatien berri emanen da espedientean.

4. Fase honetan, egokitzen jotzen diren probak egiten dira; bereziki, artikuluko honetako 1. eta 2. zenbakietan aipaturikoen gain, peritu, dokumentu eta lekukoen bidezkoak. Lege honetako 60.3 artikuluan adierazitako oharrak bete beharko dira.

65. artikulua. Balorazio batzordeak.

1. Gizarte Ongizate Departamentuan, haurrak babesteko eginkizunak esleituak dituen organoaren ardurapean, gutxienez ere balorazio batzorde bat izanen da. Diziplina arteko organo kolegiatua da hori, eta haren osaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

2. Batzorde horretan parte hartu ahalko dute, zehaztuko diren modu eta baldintzetan, adingabeek, bere familiek, haien zaintzaren arduradunek eta babes-neurriak betetzen ari diren edo kasuaren berri daukaten zentro eta zerbitzuetako profesionalak.

3. Batzorde horren eginkizunak izanen dira adingabearentzat egokien diren neurriak, zeinak kasuaren planean jasoko baitira, baloratzea, neurri horiek hartzeko proposamenak prestatzea eta ebazpena hartu behar duen organoari igortzea, eta erregelamendu bitartez ezartzen zaizkion beste guztiak.

66. artikulua. Kasuaren plana.

1. Ebaluazioaren ondorio gisa, eta babes-neurriren bat hartu beharra ezartzen den kasuetarako, kasuaren plan bat prestatuko da, adingabea babestu eta hari behin betiko integrazio seguru eta egonkorra emate aldera hartutako erabaki nagusiak jasoko dituena.

2. Horretarako, dokumentu hark, zeina bat bakarra izanen baina, gutxienez ere honakoak

jasoko ditu: adingabearen behin betiko integrazioa lortzen den bitartean hura babesteari begira harturiko erabaki tekniko eta administratiboak eta neurriak, bai eta erabili beharreko irizpideak eta aurrera eraman beharreko ekintza teknikoak ere. Halaber, aipaturiko dokumentuan adieraziko dira babes-ekintzaren zergatiak eta helburuak, modalitatea, edukiak, programazioa eta horretarako behar diren baliabideak eta eman beharreko urratsak.

3. Kasuaren plana prestatzean, familiaren eta adingabearen partaidetza eta lankidetzak lortzeko ahalegina eginen da, eta aintzat hartuko da adingabeak adierazitako borondatea; batez ere, hama sei urteko adina jadanik beterik badauka.

67. artikulua. Ebazpena.

1. Babesgabetasun-egoerarik ba ote dagoen eta geriza-gabetasuneko egoerarako neurriak hartzea ebazpen arrazoitu baten bitartez erabakiko da, eta bertan adieraziko dira kasu bakoitza osatzen duten egitatezko baldintzak eta babeserako erabakitako neurriak eta ekintzak.

2. Ebazpen bat eman eta hura jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, lege honetako 58.1 artikuluan jasotako bitartekoetako edozeinen bidez kasuaren berri izaten denetik aurrera. Salbuespen modura, kasuaren konplexutasun berezia edo funtsezkoak diren ekintza edo tramiteetakoren bat egiteko ezintasun frogatua aintzat harturik, eta, betiere, adingabearen egoerak ahalbidetzen badu, iraupen bereko luzapena erabaki ahalko da.

68. artikulua. Ebazpena jakinaraztea.

1. Fiskaltzari 62 eta 67. artikuluek aipatzen dituzten ebazpenen berri eman beharko zaio eta, halaber, ebazpen horiek adingabearen guraso, tutore edo zaintzaileei eperik laburrenean jakinarazi beharko zaizkie; betiere, berrogeita zortzi orduko epean, baldin eta adingabearen geriza-gabetasuneko egoera deklaratu eta tutoretza-eginkizuna ezartzen bada.

2. Ahal den guztietan, adingabearen arduradunei egin beharreko jakinarazpenak aurrez aurre eginen zaizkie, haiei modu argi eta ulergarrian azaldu ahal izateko administrazioaren esku-hartzea eragin duten arrazoiak, esku-hartzearen balizko ondorioak, harturiko neurriak eta bidezkoak diren errekursoak. Jakinarazpena aurrez aurre egitea ezinezkoa denean, zuzenbidean onarturiko edozein bitartekoren bidez eginen da.

69. artikulua. Errekurtsoak.

Emandako ebazpenen aurka errekurtoa aurkeztu ahalko da jurisdikzio zibilean, indarreko legediak ezarritakoari jarraikiz.

70. artikulua. Neurriak eta ekintzak exekutaztea.

1. Aurreko artikuluetan xedatuari jarraikiz erabakitako neurri eta ekintzak, onetsiriko kasuaren planean ezarritakoaren arabera eta plan horren ardura duen teknikariaren koordinaziopean, zerbitzu tekniko espezializatuek eta erkidego-zerbitzuek exekutatu dituzte, bakoitzak bere eskumenen esparruan.

2. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak beste organismo, erakunde eta entitate publiko edo pribatuei eskatu ahalko die egokiak diren neurriak har ditzaten edo legez eman behar dituzten zerbitzuak eman ditzaten, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen beharrezko behar bezain erantzun zabala emateko.

71. artikulua. Exekuzioaren jarraipena eta kasuaren planaren berrikuspena.

1. Behar den guztia xedatuko da kasuaren planean ezarritako neurri eta ekintzen exekuzioaren etengabeko jarraipena egiteko eta exekuzio hori eragin zuen egoeraren bilakaera eta babesturiko adingabearen eboluzioa aldiro kontrolatzeko.

2. Gutxienez ere sei hilabetez behin berrikusiko da kasuaren plana; alabaina, berrikuspenak mairago egitea erabaki ahalko da adingabearen interesa edo haren inguruabar zehatzak direla-eta hala jokatzeko komeni denean.

3. Berrikuspen guztiak eginen dira planaren exekuzioan laguntzen eta parte hartzen duten entitateek eta pertsonak emandako informazioa nahitaez aintzat hartuz.

4. Berrikuspen-txostenaren arabera, hasiera batean erabakitako neurriak eta ekintzak mantenduko dira edo haiek aldatu, ordeztu edo indargabetzea erabakiko da.

5. Lege honetako 64. artikulutik 66.era bitartekoetan araturiko prozedura-tramiteak errespetatuz aldatuko da kasuaren plana.

72. artikulua. Babes-jardueraren amaiera.

Babes-ekintza honako arrazoiengatik amaituko da:

a) Gizarte Ongizatearen Institutuak hartutako erabakiaren ondorioz, baldin eta ekintza hori erabakitzera bultzatu zuten inguruabarrak desagertu direla jotzen bada, edo adingabearen beharri-

nak behar bezala aseak edo orekatuak daudela jotzen bada; halaber, adingabearen interesa aintzat harturik hala jokatzeko komeni bada.

b) Hasiera batean ezarritako termino edo epea edo, kasua bada, erabakitako luzapena mugaeguneratu izanaren ondorioz.

c) Ebazpen judizial irmo baten ondorioz, lege ezarritako kasuetan.

d) Babesturiko adingabea adin-nagusitasunera iristean edo emanzipatzearen ondorioz.

e) Adingabe babestua hiltzearen, desagertzearen edo haren helbidea Foru Komunitatetik kanpo toki batera modu iraunkorrean aldatzearen ondorioz.

73. artikulua. Ekintza osagarriak.

1. Baldin eta, babes-neurria amaitu ondoren, ondorioztatzen bada ordura arte babesturiko pertsonak laguntza edo orientazioa behar dituela bere integrazio-prozesuari ekiteko edo prozesu hori burutzeko, edo, bere ezgaitasun-baldintzek hura inorekiko mendekotasunik gabe bizitzea oztopatu edo guztiz ezintzearen kasuan (bereziki, haren jarduteko gaitasuna kalteturik balego; hain zuzen ere, kasu horretan, haren gaitasungabetzea lortzera eta, adin-nagusitasunera iristean, tutorea izendatzera bideraturiko urratsak emanen dira) hark behar duen zaintza bermatzeko, orduan, foru administrazioak, lege hau garatzeko araudiak ezartzen dituen kasu eta epeetan, zilegi izanen du neurri hark biltzen zituen ekintzak luzatzea edo beste batzuei ekitea.

2. Halaber, babes-neurria bukatu ondoren, Foru Komunitateko administrazioak jarraipen bat egiten du, lege hau garatzeko arauak zehazten dituzten kasuetan eta haiek ezartzen duten edukia izanen duena, integrazio-prozesuaren bilakaera aztertu eta, kasua bada, etorkizunean gerta litezkeen arrisku-egoerei aurrea hartzeko.

3. Aurreko zenbakietan aipaturiko ekintzen iraupena adin-nagusitasunera iritsi eta gerora ere luzatu ahalko da, lanean eta gizartearen integrazeari eta administrazioaren zaintzapean egon direnen bizitza mendekotasunik gabeari laguntzeko, hala behar denean. Kasu horretan, ekintzen ardatz nagusia izanen da lan-arloko prestakuntza eta orientazioa, batetik, eta laguntzen nahiz berariazko bitartekoen bidezko babes pertsonala, bestetik; horretarako, ezgaitasunak dauzkaten pertsonentzat antolaturiko baliabide sozialak egoera horretan daudenek lehentasunez eskuratzen dituztela ziurtatzeko modua ezarriko da.

4. Hamasei urteko adina bete duten adingabeei 45. artikuluko a) letrak ezagutzen dien eskubidea, haien nahia bereziki aintzat hartzearena, alegia, gauzatzeari begira, eta haien interesa gogoan izanik, adingabe haiek bere familiarekin bizi ezin izatearen, behar adinako autonomia edukitzearen eta ohikoak diren berariazko babes-baliabideei uko egitearen kasuan, zilegi izanen da haien heldutasun-prozesuari eta mendekotasunik gabeko bizitzari laguntzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak, ekintzak eta laguntzak erabakitzea.

74. artikulua. Botere judizialaren eta polizia laguntza.

1. Baldin eta, adingabearen gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak aurka egoteagatik, edo bestelako oztopo larri bat izateagatik, kasuaren ikerketa edo jadanik erabakitako babes-neurrien exekuzioa oztopatu edo ezinezko egiten bada, botere judizialari eskatuko zaio haiek gauzatzeko beharrezkoa den guztia xeda dezan. Horrek ez ditu galaraziko adingabearen bizitza edo integritatearentzako berehalako arriskuak saihestearren eta hark bere funtsezko eskubideak erabili ahal izatea bermatzearen erabaki behar diren berehalako esku-hartzeak.

2. Halaber, foruzainen eta segurtasun indar eta kidegoen laguntza eta lankidetzak eskatu ahalko da baldin eta administrazioak dituen bitartekoekin soilik ezin bada ikerketa-jarduerarik egin edo neurririk exekutatu.

V. KAPITULUA

Babeserako neurrien eta ekintzen araubidea

1. ATALA

Babeserako neurrien eta ekintzen araubidea

75. artikulua. Babeserako neurri eta ekintzak.

1. Babes-ekintzari dagokionez, honako hauek jotzen dira babes-neurritzat:

a) Familiari laguntzea, baldin eta horretarako ebazpenean neurri-izaera duela zehazten bada.

b) Adingabearen zaintza famili harreraren bitartez eskuratzea, Kode Zibilak jasotako modalitate guztietan, bai eta egoitza-harreraren bitartez ere.

c) Tutoretza.

d) Adopzioa.

2. Jarduera babes-emailatzat jotzen dira honako hauek:

a) Familiari laguntzea, artikuluko honetako 1.a) letran jasorik ez dauden kasuetan.

b) Bidezko diren akzio zibil edo penalak erabil-tzea.

c) Komenigarritzat jotzen den, adingabearen interesen aldekoa den eta haren beharrizan per-sonal, familiar eta sozialak behar bezala asetzea errazten duen beste edozein jarduera, konpentsa-zio, kontrol, laguntza, hezkuntza edo terapia arlo-koa.

76. artikulua. Babeserako neurriak eta ekin-tzak aplikatzeko irizpide orokorrak.

1. Familiari laguntzeko neurri eta ekintzei lehen-tasuna emanen zaie, baldin eta haien helburua bada adingabearen ongizatea eta hura bere jato-rrizko famili ingurunean gara dadin sustatzea, familiaren batasuna babestu eta bereizketa sai-hestea, edo, bereizketarik izan bada, horretara bultzatu zuten inguruabarrak gainditu, orekatu edo gutxitutakoan berriro batzeko ahalegina egitea.

2. Familia biologikoarengandik aldentuta igaro-tako epeak ahalik eta laburrenak izanzen dira, bal-din eta behin-betiko aldentzeak ez badira.

3. Etorkizunean berriro elkartzea ezinezkoa dela ondorioztatzen denean, ahalegina eginen da adingabearen integrazio egonkorra lortzeko, haren adopzioaren bitartez edo epaitegian tutoretza arrunta eskatuz. Bestela, famili harrera iraunkorra formalizatuko da; ahal dela, familia hedatuko kide-ekin, edo adingabearekin alde zuzenetik harreman egokia zeukaten pertsonekin. Epaileari eskatuko zaio hartzaileei eman diezazkien haiei beren eran-tzukizunetan jardutea erraztuko dieten tutoretza-ahalmenak.

4. Ahalegin berezia eginen da hamabi urtetik beherakoak egoitzetara eramatea ekiditeko, eta hori lortzen ez denean, erregelamenduz oro har eta adinaren arabera zehazten den epea baino luzeagorik bertan igaro ez dezaten, salbu eta haien beharrizanei erantzuteko modurik onena baliabide-mota zehatz hori erabiltzea denean.

5. Helduarorako lagundu eta prestatzeko pro-grama bereziak antolatuko dira. Programa horiek zuzenduko zaizkie beren familiarengana itzultzea edo famili integrazioko bestelako neurri iraunkorrik aplikatzea posible edo komenigarri ez zaien nera-beei.

6. Edozein kasutan ere, ziurtasunik eza, egon-kortasunik eza edo behin-behinekotasuna eragiten duten egoerak luzatzea saihestuko da, baldin eta adingabearen garapenari kalte egin ahal badiote.

2. ATALA

Familiari laguntzea

77. artikulua. Kontzeptua eta edukia.

1. Funtsean, familiari zuzenduriko laguntza bideraturik dago aldentzea saihestera eta, alden-tzerik izan bada, familia berriro elkartzeko saioa egitera. Bere helburua da familiari laguntza ekono-miko, material, sozial, hezkuntzako eta terapiako-ak helaraztea, halako moldez non laguntza horiek hein eta epe egokian aktibaturik, famili ingurunea-ren hobekuntza eta adingabearen beharrizanei gutxieneko egokitasun-baldintzetan erantzutea ahalbidetuko baita.

2. Toki entitateen menpekoak diren oinarrizko eta espezializaturiko zerbitzuen esku-hartze tekni-koaren bitartez eta Foru Komunitateko administra-zioarenak diren edo hark xedatzen ahal dituen zer-bitzu berezien bitartez bideratu ahalko da laguntza, eta bere barnean hartu ahalko ditu, nagusi edo osagarri gisa, hurrengo artikuluan zerrendaturiko neurri eta ekintzetako bat edo batzuk.

78. artikulua. Familiari laguntzeko neurriak eta ekintzak.

1. Familiari laguntzeko ekintzak honako hauek dira:

a) Guraso-eginkizunak behar bezala betetzea eta familiaren dinamika normalizatua errazteko aholku-emate eta orientazio teknikoa.

b) Famili hezkuntza, gurasoei prestakuntza emateko beren seme-alaben laguntza, hezkuntza eta zaintza eginkizunak bete ahal izan ditzaten.

c) Famili arloan esku hartzeko programak, familia babestu edo batzekoak, eta familiaren bai-tako bizikidetzaren normalizatzekoak.

d) Adingabeak familiaren baitan duen bilakae-raren jarraipena egitea.

e) Eguneko zentroetan eta lehen haurtzarorako laguntza-zentroetan emandako laguntza.

f) Aldi baterako laguntza eta prestazio ekono-mikoak.

g) Etxez etxeko laguntza, adingabeak etxean egon ahal izatea eta haiek zaindu ahal izatea xede duena.

h) Adingabeari eta bere familiari laguntzeko eta lankidetzan aritzeko eginkizunetan boluntarioek esku hartzea.

i) Aurreko artikuluan aipaturiko helburuak lor-tzen laguntzen duen beste edozein.

2. Lege honetako 50.2 eta 86.6 artikuluetan aipaturikoei buruz 75.1.a) eta 77.2 artikuluek xedatutakoari dagokionez, neurri gisa hartuak izan ahalko dira aurreko idatz-zatian jasotako laguntza-ekintzetatik erregelamendu bidez erabakitzen direnak.

79. artikulua. Familia onuradunaren lankidetzatza.

1. Laguntza neurrien eta ekintzen onuradun suertatzen den familia behartuta egonen da esku-hartzea dela-eta zehazturiko helburuak erdiesteko lankidetzan aritzera.

2. Familia onuradunak gutxieneko lankidetzarik ere ez badu eskaintzen, edo neurri eta ekintzei oztopoak jartzen badizkie, neurri eta ekintza horiek amaierazi ahalko dira, eta aintzat hartu ahalko da balizko beste urrats batzuk ematea, gerizagabetasuneko egoeraren deklarazioa barne.

80. artikulua. Aplikazio-irizpideak.

1. Hasiera batean erabaki daitekeen edozein ekintza, familiaren egoera zehatza eta familiaren nahiz adingabearen beharrianak aztertze beharrezkoa den epea iraunen duena, esku-hartzerik txikienaren printzipioaren arabera izan da. Behin betiko neurri edo ekintzak geroago erabakiko dira.

2. Adingabe bat bere familiarengandik behin betiko aldentzea erabaki aurretik, familiak aurkako jarrera baldin badauka, ahalegina egiten da lehen esku-hartze moduko bat egiteko, eta horretarako, 78. artikuluan zerrendaturiko baliabideen artean eskuragarri daudenak hein eta epe egokian aktibatuko dira, halako moldez non hori amaitutakoan adingabearen beharrianen bere jatorrizko famili ingurunean erantzun ahal zaien edo ezin zaien ondorioztatu ahalko baita.

3. ATALA Tutoretza

81. artikulua. Legearen aginduz tutoretza hartzea.

1. Baldin eta Nafarroako erkidegoak egiazta-tzen badu adingabe bat geriza-gabetasuneko egoeran dagoela, egoera hori deklaratu du, arrazoi-tuz eta titulu honetako IV. kapituluaren ezarritako prozedura errespetatuz, eta bere gain hartuko du haren tutoretza, legearen aginduz, Kode Zibileko 172.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta bertan xedatuaren arabera.

2. Legearen aginduz tutoretza hartzeak izanen ditu lege zibilek zehazten dituzten ondorioak.

3. Tutoretza hartu ondoren, berehalakoan ekinen zaio lege honetan 63. artikulua arauturiko azterketa egiteari.

82. artikulua. Adingabearen ondasun eta eskubideen inbentarioa.

1. Adingabeen babesaren arloan eskudun diren Nafarroako Foru Komunitateko organoek indarreko legediak jasotako jarduketak egiten dituzte adingabearen ondasun eta eskubideen inbentarioari eta haiek kontserbatu eta administratzeko egoki diren xedapenak hartzeari dagokienez.

2. Fiskaltzari erabaki horiek hartu izanaren berri eman beharko zaio, bai eta adingabearen guraso, tutore edo zaintzaileei ere.

83. artikulua. Tutorearen izendapen judiziala eskatzea.

Adingabeak babestearen arloan eskudun diren Nafarroako Foru Komunitateko organoek aginte judizialari eskatuko diote tutorea izendatzeko espedientea abiaraz dezan, Kode Zibileko arauak jarraikiz eta bertako 234. artikuluan eta hurrengoetan jasotako kasuetan.

4. ATALA Zaintza eta harrerari aplikatzekoak diren xedapenak

84. artikulua. Edukia.

Zaintzaren ardura hartzeak Kode Zibilean jasotako betebeharrak ekarriko ditu.

85. artikulua. Babes-modalitate gisa zaintzaren ardura egikaritzea.

Hurrengo kasuetan, Nafarroako Foru Komunitateak adingabearen zaintza egikaritzea erabakiko du babes-neurri gisa:

a) Legearen aginduz haren tutoretza bere gain hartzen duenean.

b) Guraso-boterearen titularrek, tutoreek edo zaintzaileek hala eskatzen dutenean, baldin eta, inguruabar larriak direla medio, adingabea behar bezala ezin dutela zaindu frogatzen badute, eta ezintasun hori egiaztatu ondoren.

c) Epailak, legeak horretarako bidea ematen duenean, hala erabakitzen duen kasuetan.

86. artikulua. Egikaritzea, iraupena eta helburuak.

1. Atal honetan arauturik dagoen adingabearen zaintza egikaritzea da indarreko legeak ezartzen duten moduan eta zehazten dituzten figuren bitartez.

2. Zaintza egikaritzeak adingabe bakoitzari zuzenduriko esku-hartze indibidualizatua ekarriko du. Esku-hartze hori gauzatuko da foru erkidegoko administrazioeko teknikariek lankidetzan aktiboan eta dagokion kasuaren planean ezarritakoaren esparruan.

3. Zaintzaren lehen helburua izanen da adingabeari helaraztea babesgabetasunaren ondorioei aurre egiteko behar bezalako tratamendua eta aldentzearen ondorioak arintzeko modua. Halaber, zaintzaren zereginen artean egonen da, batetik, adingabearen beharrezko fisikoak, hezkuntzakoak, psikologikoak eta sozialak zaintzea, eta, bestetik, bere ahalmenak, autonomia eta gizarteratzeko gaitasuna gara ditzan lortzen saiatzea.

4. Adingabe baten zaintzaren iraunaldia ahalik eta laburrena izanen da; hain zuzen ere, zaintzaren ardura hartzera bultzatu zuten inguruabarrek irauten duten bitartekoa.

5. Bitarte horretan, eta adingabearen mesedetan baldin bada, ahalegina egiten da bere famili eta gizarte harremanek aldaketarik txikiak izan ditzaten. Horretarako, adingabea bere inguruetik ahalik eta hurbilen egonen da, eta betiere jatorrizkoa duen familiaren baitaratzea izanen da helburu. Kasuaren planaren arabera harreman horiei ezar lekiekeen muga oro fiskaltzari jakinarazi beharko zaio, eta baita epaileari ere, horrelako mugak onets ditzan.

6. Kasuaren planean adingabea bere familiarengana itzultzea aurreikusten denetan, hasierahasieratik helburu hori lortze aldera lan egiten da, eta familiarari beharrezkoak diren laguntzak emanen zaizkio, 78. artikuluan jasotako neurrien eta jarduketaren bitartez.

7. Adingabearentzat edo besterentzat kaltegarriak izan daitezkeen egoera, jarduera edo jokabideak direla-eta, adingabeari zenbait muga ezartzea erabaki ahalko da; muga horiek, betiere, neurri pedagogikoekin uztartu beharko dira, eta begiratu beharko da horiekin ez kaltetzea adingabearen oinarrizko beharrezko eta eskubideekiko arreta, ez eta bere integritate fisiko edo psikikoa mehatxatzea ere.

8. Behar diren bideak ezarriko dira zaintza egitatez egikaritzen duten pertsonen lankidetzan estua jorra dezaten neurriari buruzko erabakia hartu eta egin beharreko esku-hartzea zehaztea dagokien organoekin. Pertsona haien iritzia aintzat hartu eta balioetsiko direla bermatuko da.

9. Zaintza egikaritzeko moduaren aldaketa orori buruzko erabakia, baita zentrotik lekualdatzeari buruzkoa ere, arrazoiak adieraziz hartuko da, eta

aldeztatik entzun beharko zaio adingabeari eta, kasu bada, familiarari, eta haren jakinarazpena eman beharko zaie guraso edo tutoreei. Halaber, fiskaltzari haren berri eman beharko zaio, eta aginte judizialari ere bai, berak hartutako erabakia izan bazen.

10. Fiskaltzari dagozkion goi mailako ikuskapeneko eskumenak ezertan kaltetu gabe, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagokio hartu den zaintza-neurriaren jarraipena eta ikuskapena egitea; horretarako, behar den informazio guztia aldiro eskatuko da.

11. Fiskaltzari dagokion goi mailako ikuskapeneko eskumenak ezertan kaltetu gabe, Foru Komunitateko administrazioak harrera bakoitzari buruzko jarraipena egiten du. Jarraipen horren esparruan, adingabearen eta bere familia biologikoaren egoera eta bilakaerari nahiz neurriaren funtzionamenduari buruzko ebaluazioa egin eta dokumentazioa bilduko da.

12. Harrera amaitutakoan, aztertu ahalko da komenigarria edo unearen arabera egokia ote den artikulua honetako 6. idatz-zatian aipatutako laguntzak luzatzea edo adingabearen integrazio-prozesua erraztu edo sendotzeko neurri edo jarduketa zehatz berriei ekitea.

87. artikulua. Borondatezko zaintza.

1. Guraso-erantzukizuna egikaritzen ari diren pertsonen eskabide formal bat aurkezten badute entitate publikoak adingabearen zaintza bere gain hartzeko, eta 63. artikuluan adierazitakoari jarraikiz, entitate horrek aginduko du alegaturiko arrazoiak egiazta eta azter daitezela. Arrazoi horiek larriak izan behar dute eta adingabea zaintzea eragotzi behar dute, noiz eta adingabea bestelako bitartekoen bidez zaindu ezin denean; halaber, arrazoi iragankorrak izan behar dute. Horrez gain, egoerak, iraunez edo errepikatuz gero, gerizagabetasuna sortu behar du.

2. Kasu horietan, zaintza egikaritzeaz toki entitateak arduratu ahalko dira, lege honetako 125.2.a) artikuluan ezarritako moduan.

3. Adingabea zaintzea onartu eta gero, idatziz formalizatu beharko da adingabea zaintzailearen eskuetan uztea. Zaintza zer baldintza orokorretan ezartzen den eta nola egikaritzeko den adieraziko da eta, bestalde, adingabearen guraso edo tutorek haren gain izaten segituko duten erantzukizun orokor eta berariazkoak zehaztuko dira. Berariaz adieraziko da guraso edo tutore horiek neurria onartzen dutela eta aurrerago aipaturiko ezaugarrien berri eman zaiela.

4. Betiere, guraso edo tutoreek adingabearen gain eskubide hauek izanen dituzte: ordezkari izatekoa, ondasunak administratzekoa eta bisitak egitekoa.

5. Ahalegina eginen da gurasoek beren seme-alabei laguntzeko eginkizunaz arduratu daitezen eta, horretarako, bitartekoak dauzkatenean haien zaintzaren ondoriozko gastuak ordaintzen lagundu beharko dute; halatan, administrazioari ordaindu beharko dizkiote, beren ahalmenaren arabera, administrazioak zehazten dituen kopuruak, edo, bestela, zuzenean beren gain hartu beharko dituzte gastuak.

6. Lege honetako 72. artikulua xedatzen duena ezertan galarazi gabe, zaintza amaituko da hura eskatu zuten pertsonak bere eskatuta, zaintza ezar zedila eragin zuten arrazoiak desagertu izana egiaztatu ondoren.

88. artikulua. Legearen aginduz edo epailearen erabakiz ezarritako tutoretzaren ondoriozko zaintza.

Foru Komunitateko administrazioak begiratu du ezen adingabearen geriza-gabetasunari buruzko deklarazioaren eta legearen aginduz haren gaineko tutoretza ezartzearen ondoriozko zaintzak, bai eta legearen arabera hala behar denean epaileak erabakitako zaintzak ere, izan ditzaten deklarazio hark edo epailearen ebazpenak, hurrenez hurren, ezartzen dituzten edukia, baldintzak eta eraginak.

89. artikulua. Zaintzaren amaiera.

Adingabe baten zaintza amaituko da hari babes emateko jarduera amaitzen denean. Horrez gain, honako kasu hauetan:

a) Kode Zibileko 173.4 artikuluan aipatzen diren arrazoiak direla-eta.

b) Hasiera batean ezarritako termino edo epea edo, kasua bada, erabakitako luzapena mugaeguneratu izanaren ondorioz.

c) Aurreikusitako helburuak neurri horren bitartez jadanik erdietsi direla, edo neurria desegoki izatera iritsi dela edo lehentasunez aplikatzekoa den beste batekin ordeztu daitekeela jotzen denean.

5. ATALA Famili harrera

90. artikulua. Famili harrera: kontzeptua eta edukia.

1. Famili harrera da babes-neurri gisa zaintza egikaritzeko modu bat, zeinaren bitartez adingabe

batekiko zaintza eta laguntza eginkizunaren erantzukizuna ematen baitzaio pertsona edo familia bati. Era horretan, Kode Zibileko 173. artikuluan berariaz adierazitako betebeharrak bere gain hartzen ditu pertsona edo familia horrek.

2. Famili harreraren helburua da bere familiarengandik aldendutako adingabeari behar bezalako familia- edo bizikidetasun-giroko laguntza helaraztea, behin-behineko moduan, edo aldi baterako, edo modu iraunkorrean, edo adopzioarako aurretiazko urrats gisa.

3. Hartzailerak diren pertsonak behartuta egonen dira adingabearen behin betiko integrazioa lortzeko xedez kasuaren planean jasota dauden jarduketetan administrazioarekin lankidetzan aritzera.

91. artikulua. Famili harrera aplikatzeko irizpideak.

Famili harrera ondoko irizpideen arabera izanen da:

a) Lehentasunez aplikatzekoa izanen da beren familiarengandik aldenduriko adingabearen kasuan; zenbat eta adin txikiagokoa izan adingabea, orduan eta lehentasun handiagoz. Halaber, gurasoek baimenik eman ez dutenean, ahalegina eginen da famili harrera behin-behinekoa izan dadin.

b) Adingabearen eta bere jatorrizko familiaren arteko harremanetarako erraztasunak emanen dira, baldin eta, betiere, horien bidez babes-jarduerak oztokatzen ez bada edo adingabearen garpenera eta integrazioarako kaltegarriak ez bada.

c) Adingabea bere giroan egon dadin erraztuko da, eta ahalegina eginen da familia hedatuan egin dadin harrera, bai eta adingabeak aurretik zituen jarduerak egiten segi ahal izan dezan, salbu eta, bi kasu horietan, halakorik komeni ez bada, hark duen oinarrizko interesa dela-eta.

d) Ahalegina eginen da pertsona edo familia berari esleitzeko anai-arreba guztien zaintza, baldin eta hala jokatzeko beren interesaren kontrako ez bada.

92. artikulua. Famili harreraren motak eta modalitateak.

1. Famili harrera ezartzea erabakiko da Kode Zibilean ezarritako dauden kasuetan, modalitateekin eta prozedurari jarraikiz.

2. Adingabearen interesaren alde jokatzearren harreraren modalitatea aldatzea komeni denean, aldi berean eskatu beharko da aurretik zegoen modalitatearen amaiera eta modalitate berriaren ezarpena, lege honetako 64. artikulutik 66.era bitartekoek araututako prozedura-tramiteak betez.

93. artikulua. Familia eta pertsona hartzaileak sustatu, hautatu eta prestatzea.

1. Foru Komunitateko administrazioak gizartea sentsibilizatu eta informazioa jendearenganatzeko kanpainak eginen ditu, adingabeei harrera emateko langintzan lagunduko duten pertsonak eta familiak bilatzeko. Batez ere, adingabeek ezaugarri eta beharrian bereziak dituzten kasuetarako.

2. Hartzaileak hautatuko dira adingabearen oinarriko interesaren arabera, eta aintzat hartuko dira heziketaren arloan dituzten jarrerak eta gaitasunak, bai eta adingabeak agertzen dituen edonolako beharriari behar bezala erantzuteko daukaten ahalmena ere. Azkenik, harreraren modalitate eta eduki ezberdinen arabera ezar daitezkeen berriazko irizpideak kontuan hartuko dira.

3. Helburu gisa adopzioa ez daukaten harreretan, lehenasuna emanen zaie familiartekoei, edo adingabearekin aurreiazko harreman positiboa izan duten pertsonen, baldin eta, betiere, adingabearen laguntza eta bilakaeraz arduratzeko moduko ahalmena daukatela frogatzen badute.

4. Harreraren edozein modalitatetan, adingabe bat lehenengo aldiz hartzera doazen pertsonak, baldin eta adingabearekin aurreiazko harreman berezi eta berriazkorik ez badaukate, prestakuntza zehatza lortu beharko dute alde aurretik.

94. artikulua. Famili harrerarako laguntza.

Foru Komunitateko administrazioak laguntza emanen die pertsona hartzaileei eta, kasua bada, baita jatorrizko familiari ere, neurriaren helburuak bete ahal izateko, eta baita laguntza tekniko, juridiko, sozial edo, kasua bada, ekonomikoa ere, adingabeak dituen beharriaren, harreraren ezaugarrien eta harreraren langintza jorrazteko zailtasunen arabera.

6. ATALA Egoitza-harrera

95. artikulua. Egoitza harrera: kontzeptua eta bere edukia.

1. Egoitza-harrera da babes-neurri gisa zaintza egikartzeko modu bat, eta adingabeari zentro batean ostaturia eta laguntza ematean datza.

2. Egoitza-harreraren helburua da beharrezkoak diren baldintzak sortzen laguntzea adingabearen beharrian fisiko, psikiko, emozional eta sozialak behar bezala asetzen direla eta bere eskubideak egiazki egikaritzen direla bermatzeko, adingabeari familian eta gizartean integratzen laguntzeko eta bere garapen egokia ahalbidetzeko. Hori guztia, kasuaren planaren eta gizarte-

nahiz hezkuntza-arloetako esku-hartze indibidualizatuko plan baten esparruan.

96. artikulua. Egoitza-harrera aplikatzeko irizpideak.

1. Egoitza-harrera ezartzea erabakiko da beste-lako baliabiderik ez dagoenean, baliabide horiek bideraezinak, urriak edo ezegokiak direnean, edo adingabearen beharriari asetzeko modurik onena denean.

2. Ahalegina eginen da adingabea neurri horren aplikaziopean ahalik eta denbora gutxien egoteko, eta saihestu eginen da neurriaren aplikazioa derrigorrezkoa den epeaz haratago luzatzea edo haren iraupenak lege honetako 76.4 artikulua aipatzen dituen mugak gainditzea.

3. Adingabearen harrera gauzatuko da bizitza-estilori normalizatuena eta bere beharrian nahiz inguruabarretara egokituen dagoena eman ahal dion zentroan, eta, adingabeak lehenagotik zituen harreman eta jarduerak ez aldatzeko eta haietan eskurik ez sartzeko xedez, ahalegina eginen da adingabea bere familia- eta gizarte-inguruntetik hurbil egon dadin, baldin eta hori lortzerik badago eta kasuaren planean ezarritakoaren arabera bada.

4. Babes-espeditenteak dituzten adingabeei zuzenduriko egoitza-harrera arrunta egin ahal da bai haiei zuzenduriko berriazko zentroetan, bai oro har haurrentzat eskueran dauden bitarteko normalizatueta ere, horretarako ezarritako diren baldintzetan.

5. Ezgaitasun, toxikomania, nahasmen psikiatriko edo eritasun kroniko larriak edo antzeko izatera eta norainokoa duten bestelako arazoak izateagatik beharrian bereziak dituzten adingabeen egoitza-harrerari begira, kasuko sareetan baliabide espezializatuak izanen dira, eta bermatu beharko da ezen laguntzaren, hezkuntzaren eta terapiaren arloetako prestazioen kalitatea eta maila adingabe haiek dituzten beharriari egokiturikoak direla.

6. Sozializazio, egokitze edo gizarteratze arazo larriak dauzkaten adingabeentzat, baliabide bereziak izanen dira, eta horien bitartez, babes-ekin-tzaren esparruan, gizarte/hezkuntza eta/edo terapia arloetako esku-hartze intentsiboa gauzatuko da, integrala, adingabearen arlo pertsonala ardatz gisa izanen duena eta adingabearen jarrerak aldatzera nahiz bere sozializazio-prozesuari laguntzera bideratua. Xede gisa izanen du adingabeak bitarteko normalizatueta ahalik eta denbora laburrenean txertatzea.

7. Erregelamendu bidez zehaztuko diren aurreko idatz-zatiko kasuei dagokienez, baldin eta adingabeak idatz-zati horretan aipatzen diren arazoak halako heinean jasaten baditu non berari edo hirurgarrenei kalte larriak eragiteko begi-bistako arriskua baitago, baliabide bereziak antolatuko dira prebentziorako esku-hartze hezitzailea, intentsiboa, berehalakoa eta iraupen laburrekoa ahalbidetzeko, modu egituratu eta segurtasunekoan. Baliabide horien bitartez, adingabeak zentro batean barneratu ahalko dira, eta horren berri eman beharko zaio fiskaltzari ahalik eta epe laburrenean. Horrek guztiak ez du ezertan galaraziko adimen-osasuneko establezimendu batean edo hezkuntza nahiz prestakuntza bereziko zentro batean epailearen aginduz barnera dezaten eskatzeko aukera, bidezkoa denean eta Kode Zibilean ezarritakoari jarraikiz.

8. Inguruabarrengatik eta adingabearen interesarengatik beharrezkoa denean, beste autonomia erkidego batzuetan kokaturiko zentroak erabili ahalko dira aurreko idatz-zatietan adierazitako kasuetan laguntza emateko.

9. Ahalegina eginen da anai-arreba guztiak zentro berean har dezaten ostatua eta laguntza; betiere, horrela jokatzeko ez bada haien interesaren aurkakoa.

97. artikulua. Zentroen motak, betekizunak eta ezaugarri orokorrak.

1. Adingabeei babes-neurrien bidez laguntza bideratzeko zentroak mota ezberdinetakoak izan ahalko dira, haiek hartzen dituzten pertsonen ezaugarrien eta betetzen dituzten eginkizunen arabera.

2. Nafarroako Gobernuak arautu eginen ditu zentroen betekizunak, ezaugarriak eta funtzionamendua.

3. Adingabeei ostatu ematea eta babes-neurrien bidez laguntzea berariazko helburu gisa daukaten zentro guztiak, Foru Komunitatean kokaturikoak, Komunitateko administrazioarenak nahiz legezko ezagutza duen entitate baten menpekoak, indarreko araudiari jarraikiz baimendurikoak izan beharko dira. Horretarako, bete behar dituzten betekizunak arautuko dira, honako baldintzei dagokienez: arkitekturakoak, segurtasunekoak, osasunekoak, ekipamendukoak, langile-arlokoak, antolamendukoak, barne-funtzionamendukoak, gizarte- eta hezkuntza-esparruetako programazioaren eta esku-hartzearen arlokoak, laguntza eta partaidetzakoak, eta interesekotzat jotzen diren bestelako guztiak.

4. Zentro guztiak plan orokor bat izanen dute, horren bidez erraztu ahal izateko beren helburuak betetzea eta harturiko adingabeen bizikidetzeta eta partaidetzeta. Halaber, funtzionamendurako erregelamendu bat izanen dute. Bai bata bai bestea Foru Komunitateko administrazioak haien homologaziorako ematen dituen xedapen orokorren araberrakoa izan beharko dira.

5. Zentroak bizikidetasun-unitate txikietan antolatuko dira, halako eran non adingabearen beharriazanei eta garapenari erantzun integrala ematea erraztuko baita, bere intimitatea eta identitatea errespetatuko baita, eta maitasunezko tratua bai eta eguneroko bizitza pertsonalizatua ahalbidetuko baita.

6. Adingabe guztiak, beren esku-hartze indibidualizatuko planari jarraikiz, dituzten beharriazanen araberrako laguntza pertsonalizatua emanen zaie. Halaber, erreferentziarako ahalik eta figura egonkorrenak ipiniko zaizkie.

7. Zentroetako langileek behar bezalako gaitasuna eta prestakuntza izan beharko dute, eta horretarako, haien etengabeko prestakuntza ziurtatuko da.

8. Fiskaltzari dagozkion goi mailako ikuskapeneko eskumenak ezertan galarazi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagokio babes-neurrien bidez adingabeei laguntzekoak diren zentro guztiak baimentzea, haietan aldiroko ikuskapen- eta gainbegiraketa-lanak egitea eta kontrol-eginkizuna betetzea.

98. artikulua. Ituntzea.

1. Egoitza-harrera behar bezala egiteko, plazak itundu ahal izanen dira entitate publikoekin eta pribatuekin.

2. Horretarako, plaza horien jarduera itunduaren esparrua, irizpideak, baldintzak eta finantzaketa zehaztuko dituen araudi bat izanen da.

99. artikulua. Zentroetan barneratzeko prozedura.

1. Egoitza-harrera ezarriko da epailearen erabakiz edo administrazio-ebazpen baten bidez. Haietan aginduko da adingabea kasuko zentroan barneratua izan dadila.

2. Salbuespen modura, administrazio- edo epai-agintearengana jotzea ezinezkoa den larrialdietan, adingabea hala eta guztiz ere barneratua izanen da, eta ondoren, ahalik eta azkarren, organo eskudunari horren berri emanen zaio, adingabearen egoera aztertu eta behin-betiko erabakia hartu ahal izateko.

3. Adingabe bat zentro batean barneratzen dutenean bertan hartua izateko, hori idatziz eta berehalakoan jakinaraziko zaie guraso-boterea kendu ez zaien gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei, eta, era berean, fiskaltzari horren berri emanen zaio.

7. ATALA Adopzioa

100. artikulua. Edukia.

1. Adopzio proposamenaren bitartez, Foru Komunitateko administrazioak adingabea familia berri batean osoki integratzea sustatzen du, bere jatorrizko familiaren baitaratzea edo familia horrekin behin betiko egotea ezinezkoa dela egiaztatu ondoren.

2. Epailearen ebazpenaren bitartez adopzioa ezarri ondoren, lege zibiletan zehazturiko ondorioak izanen ditu.

101. artikulua. Aplikazio-irizpideak.

1. Adingabearen adopzioa sustatuko da baldin eta, bere egoeraren eta inguruabarren azterketa sakona egin eta hura bere jatorrizko familiaren baitaratzea edo familia horrekin behin betiko egotea ezinezkoa dela egiaztatu ondoren, bere interesari komeni bazaio eta bere beharrezan erantzuteko neurri egokia bada.

2. Epailearenean egin behar diren jarduketak zein diren ere, foru administrazioak aurretiaz egiaztatuko du adopzio bidean dagoen hamabi urte baino gehiagoko adingabearen borondatea zein den, eta adin horretara iristen ez den arren behar adinako heldutasuna eta gaitasuna dituen adingabearen iritzia aintzat hartuko du.

3. Adopzio bidean dagoen adingabearen inguruabarren arabera beharrezkotzat jotzen den bakoitzean, familia berriari egokitzeko programa bat prestatu eta ezarriko zaio.

102. artikulua. Administrazio-jarduketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagokio adopzioa eskatu dutenen egokitasuna deklaratzeko, adoptatzaileak hautatzeko eta eskudun den organo judizialari adopzio proposamena egiteko prozedurak kudeatzea.

2. Eskatzaileen egokitasunari buruzko deklarazioak eta adoptatzaileen hautaketak gai honi buruzko arauak eta betekizunak beteko dituzte.

3. Adopzio-proposamena eginen da lege zibiletan xedatuaren arabera.

4. Administrazio-jarduketa guztiak behar den erreserba eta konfidentzaltasunaz eginen dira, eta

berariaz saihestuko da jatorrizko familiak adopzio-ko edo adopzio aurreko familia ezagutzea.

5. Foru Komunitateko administrazioak, adingabearen interesaren mesedetan eta lege honetako 45.k artikuluan aitorturiko eskubidearen egikaritzea errazteko xedez, adingabeari eta jatorrizko familiari buruz eskueran dagoen informazio guztia, bereziki babestuta ez dagoena, emanen die adoptatzaileei.

103. artikulua. Adopzioak sustatu eta adopzio-eskatzaileei informazioa eta prestakuntza ematea.

1. Foru Komunitateko administrazioak gizarte-sentsibilizazioko kanpainak eginen ditu adoptatzaileak lortzeko, eta baliabide aktibo eta iraunkorrak erabiliko ditu ezaugarri, inguruabar edo beharrezan bereziak dituzten adingabeen adopzioa sustatzeko.

2. Adingabe baten adopzioa eskatzen dutenek eskubidea daukate aurretiazko informazio orokorra jasotzeko prozedura, adingabeen ezaugarri eta adoptatzaileak hautatu nahiz haien egokitasuna balioesteko irizpideen gainean, bai eta etengabeko informazioa eman diezaieten jarduketei ekin dietenetik aurrera.

3. Egokitasun-deklarazioa lortu ahal izateko aurretiazko betekizun gisa, eskatzaile guztiek prestakuntza-prozesu bat burutu beharko dute, honakoak landuko dituenak: gurasoen erantzukizunak, adopzioaren edukia eta inplikazioak eta guraso izateko bestelako modu batzuekin aldatuta adopzioak dituen ezaugarri bereizgarriak.

104. artikulua. Adopzio-eskatzaileen balioespena eta hautaketa.

1. Balioespen-prozesuari ofiziosz ekinen dio Komunitateko administrazioak, eta horretarako, aintzat hartuko du adoptatu ahal izateko zenbat haur inskribaturik dauden kasuko erregistroan, eta zenbat familia dauden adopzioa esle diezaieten zain.

2. Eskatzaileen (edo eskatzailearen, guraso bakarreko familia denean) egokitasuna balioesteko irizpideek, zeinak erregelamendu bidez arautuko baitira, aintzat hartuko dituzte, gutxienez ere, adopzio bidean dagoen adingabearekin zer-nolako adin-aldea dagoen; haien osasun fisiko eta psikikoko baldintzak, gizarte-integrazioa eta egoera sozioekonomikoa; etxebizitzak zer baldintza dituen bertan bizi ahal izateko eta egoitza kokaturik dagoen eremuaren azpiegitura; behar bezalako motibazioa, jarrera eta igurikimenak izatea adopzioari dagokionez; heziketa-lanetan aritzeko gaitasunak eta gertutasuna, adopzio bidezko aita edo ama izatearen bereizgarriak ulertu eta onartzea

eta haiei modu egokian aurre egiteko ahalmena; bikotekideen artean harreman egonkor eta positiboa egotea, eta adopzioarako nahia biena izatea, eta prest egotea adingabeari adoptatua dela jakinarazteko, bere aurrekari pertsonalak eta familia-koak errespetatzeko eta, adingabearen interesarentzat beharrezkoa dela jotzen denean, familia biologikoarekin edo adingabearen bizitzan esanguratsuak diren pertsonekin harremanak izatea onartzeko.

3. Balioespen-prozesuak gehienez ere sei hilabete iraunen du, artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritako hasiera-unetik kontatze hasita, eta egokitasunari buruzko ebazpenaren bitartez amaituko da. Baldin eta epe hori bukatzen bada aipaturiko ebazpena jakinarazi gabe, balioespena negatiboa izan dela ulertuko da.

4. Balioespen-hurrenkera ezarriko da eskabide-aurkezpenaren antzinatasuna aintzat hartuz, eta eskatzaileek eskatzen dituzten haurren ezaugarrien arabera; salbuestirik egonen dira ezaugarri, inguruabar edo beharizan bereziak dituzten adingabeak onartzen diren kasuak.

5. Egokitasunari buruzko ebazpenak ez du berez eskubiderik ematen adingabe bat hartu edo adoptatzeko, eta berrikusi ahal izanen da eskatzaileen inguruabarrak aldatzen badira. Ebazpenak egokitasuna zehaztuko du, eta, egokitasuna aitortzen bada, gaitasuna ere zehaztuko du, adopzio bidean dagoen adingabearen adinaren, bere ezaugarri eta inguruabarren eta, bereziki, haien artean, bere egoera juridikoaren eta anai-arreben kopuruaren arabera.

6. Adoptatzaileen hautaketa bideratuko da egoki direla deklaraturakoen artetik egokiena zein den erabakitzen; horretarako, betiere, adingabearen interesa eta erregelamendu bidez ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat.

105. artikulua. Adopzioaren aurreko harrera.

Adingabea familia berriari egokitzea errazteko, adopzioaren aurreko harrera bat formalizatu ahal da, erregelamenduz ezarriko den denbora iraunen duena. Harrera hori profesionalek ikuskaturikoa izanen da. Profesional horiek egiaztatuko dituzte adingabea familia horretan egokiro lagundua eta integratua egoteari buruzko puntuak.

106. artikulua. Adopzio-eskatzaileak eta adoptatuak izan daitezkeen adingabeak erregistratzeko sistema.

1. Adopzio-eskatzaileentzat erregistro bakarreko sistema izanen da, foru erkidegoaren esparrukoa. Haiek inskribatuko dira eskabideak aurkezten diren hurrenkeran.

2. Era berean, adoptatuak izan daitezkeen adingabeentzat erregistro bakarreko sistema izanen da, eta haiek inskribatuko dira beren ezaugarri, inguruabar eta beharizanak aintzat hartuz.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak sistema horien antolaketa eta funtzionamendua arautuko ditu.

107. artikulua. Adopzioaren ondorengo laguntza.

Foru Komunitateko administrazioak sustatu egingen ditu adoptatzaile, adoptatu eta familia biologikoei zuzenduriko laguntza-jarduketak, eta arreta bereziz behatuko ditu ezaugarri edo beharizan bereziak dituzten adingabeak adoptatu dituzten pertsonak.

108. artikulua. Bitartekotza-zerbitzuak.

Adoptaturiko pertsonen euren jatorria ezagutzeko daukaten eskubidea, lege honetako 45.k) artikuluan arautua, egikaritu ahal izateko, haiei horretarako behar duten laguntza emateko eta, kasua bada, adoptatuen eta familia biologikoaren arteko topaketan bitartekotza-lana errazteko helburuz, xede hori lortze aldera egin daitezkeen lanbide-jarduerak arautuko dira, eta bermatu beharrekoko printzipioak izanen dira aldean borondatezkotasuna, bi aldeek intimitaterako daukaten eskubidearekiko begirunea, eta jarduketaren kualifikazio eta inpartzialtasuna. Halaber, eginkizun horiek gauzaten dituzten entitateek bete beharrekoko betekizunak ezarriko dira.

VI. KAPITULUA

Nazioarteko adopzioa

109. artikulua. Jarduketa-irizpide orokorrak eta aplikatzekoa den araudia.

1. Nazioarteko adopzioaren arloko jarduketan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak betiere bilatuko du adingabearen interesa eta bere eskubideak osoki errespetatzea, eta gai hori gobernatzen duten arau eta printzipioak bete daitezzen zainduko du; ildo horretatik, kasuko administrazio- eta epai-erakundeek bidezko denean esku har dezaten eskatuko du.

2. Nazioarteko adopzioari aplikatzekoak izanen dira, gai hau arautzen duten nazioarteko arauak eta izaera orokorreko gainerakoez gain, lege honetako xedapen hauek: 102. artikuluko 1, 2 eta 3. idatz-zatietakoak, 103. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatietakoak, 104. artikuluko 2. idatz-zatietakoak eta 107. artikulukoak, bai eta Nafarroako Foru Zuzenbide Zibil edo Nafarroako Foru Berriak dituen xedapen berriazkoak ere.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak nazioarteko adopzioaren prozesuetarako laguntza emanen du, informazioaren, aholkularitza teknikoaren eta lana bateragarri egiteko neurrien bitartez. Gainera, baliabide ekonomikorik ez dadin eskatzaileentzat egitatezko diskriminaziorako bidea gerta, zenbait sistema ezarriko ditu prozesu horien tramitazio-gastuak murrizteko, edo gastu horiei aurre egiteko laguntzak.

110. artikulua. Adopzioaren jarraipena.

Adingabe atzerritar bat adoptatzen dutenak behartuta egonen dira entitate publikoari jakinaraztera adingabe hori Espainian sartu dela, eta adoptatuaren jatorrizko herrialdeko araudiak ezartzen dituen jarraipen-jarduketan arabera jokatu beharko dute.

111. artikulua. Entitate laguntzaileak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dagokio nazioarteko adopzioaren arloan bitarteko-tza-eginkizunak betetzen dituzten entitate laguntzaileei gaikuntza ematea, beren eginkizunak eta jarduera arautzea, eta beren betebeharrak, ikuskapen eta kontrola zehaztea, horretarako funtzionamendu-adierazleak ezarri, zeinen publizitatea erabiltzaileentzat erreferentzia izanen baita.

IV. TITULUA

Adingabe arau-hausleen arloko jarduketak

I. KAPITULUA

Alderdi orokorrak

112. artikulua. Eskumenak.

1. Adingabeen erantzukizun penala arautzen duten legeak aplikatuz adingabeen epaitegiek ezarritako neurrien exekuzio materiala Nafarroako Foru Komunitateari dagokio.

2. Halaber, bere eskumena da fiskaltzak edo adingabeen epaileek bidaltzen dizkioten arau-hausleen kasuen balioespena egitea, jurisdikzio horretan espedientea hastea bidezkoa ez denean, largespena erabakitzen denean edo gai hau arautzen duten legeetan jasotako gainerako kasuetan. Orduan, aplikatzekoak diren administrazio-izaerako neurriak eta jarduketak zehaztuko ditu eta baita exekutatu ere.

3. Xede horretarako, aurreko bi idatz-zatietan jasotako eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren zerbitzu, erakunde eta programak eratu, zuzendu, antolatu, kudeatu, ikuskatu eta kontrolatzea ere dagokio.

113. artikulua. Exekuzioaren helburua eta esparrua.

Adingabeen epaitegiek ezarritako neurriak, zeinak nagusiki heziketa-arlokoak baitira, exekutatzearen esparruan gauzatuko den esku-hartzea zuzenduko da adingabe arau-hauslearen garapen integrala eta txertatze sozial eta familiarra lortzen saiatzera. Adingabe arau-hausletzat hartuko da, halaber, indarreko legediari jarraikiz neurri horiek aplikatzen zaizkion hemezortzi urtetik gorako adina duena.

114. artikulua. Jarduketa-irizpideak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak arlo honetan jardutean gai hau arautzen duen legedi orokorrean ezarritako printzipioak eta honako irizpide hauek bete beharko ditu:

a) Neurriak exekutatzean, adingabe arau-hauslearen interesa izanen da nagusi, bai eta aitortzen zaizkion eskubideekiko errespetua, salbu eta neurri haien zentzuak eta ebazpen judizialaren edukiak baldintzatzen duten neurrian.

b) Exekuzioan, hezkuntzaren arloko edukiak eta helburuak izanen dira nagusi.

c) Esku-hartzea indibidualizatua izanen da, eta ikuspegi integral batetik erantzunen die adingabe arau-hausle bakoitzaren beharrezko eta inguruabarreri, eta bateragarria izanen da haren intimitate eta identitatearekiko errespetuarekin. Era berean, arian-arian adingabearen iritzia eta borondatea aintzat hartuak izanen dira, bere adinaren eta heldutasunaren arabera.

d) Adingabe arau-hausleen garapen pertsonalerako pizgarriak erabiliko dira, eta bere autonomia lortzea nahiz bere buruaren gaineko erantzukizuna har dezan sustatuko da.

e) Esku-hartze normalizatuaren printzipioa aintzat hartuz, adingabe arau-hausleei zerbitzu orokorren bidezko laguntza emanen zaie, ahal bada, eta ahalegina egingen da behar bezalako familia- eta gizarte-ingurunean egon daitezen; horretarako, haien ingurune berekia lehenetsiko da.

Printzipio horri jarraikiz, Nafarroako Gobernuak titulu honetan jasota dauden neurrien exekuziorako ezarritako programetara bideratuko ditu honako baliabide hauek: osasun- eta hezkuntza-sistemetako eta gizarte-zerbitzuetako sare arruntetakoak, adimen-osasuneko laguntza-sarekoak, eta droga-zaleen laguntza eta gizarteratzeko sistemakoak.

f) Gai honetan eskumena daukaten organismo eta erakunde publiko guztien jarduketa koordinaturako laguntza emanen da.

g) Adingabe arau-hausleen gizarteratze-prozesuan honako hauen partaidetza eta lankidetzaren sustatuko da: familiarena, adingabearen ingurune hurbileko pertsonena eta horrelako jardueretan aritzea helburuen artean daukaten erakunde eta entitate publiko eta pribatuena. Erregelamendu bidez bitartekoak ipiniko dira partaidetza eta lankidetzaren horiek gauzatzeko.

115. artikulua. Neurria amaitu osteko laguntza-jarduketak eta jarraipena egiteko jarduketak.

1. Baldin eta, adingabeen epaitegiak ezarritako neurria edo, kasua bada, erabaki den administrazio-neurria amaitu ondoren, adingabe arau-hausleak laguntza behar badu bere integrazioa guztiz erdiesteko, Foru Komunitateko administrazioak orientazioa edo laguntza emateko jarduketak gauzatu ditu, adingabeari gizarteratzea eta gizaratean txertatzea errazteko ekintzak luzatzeko; betiere, legea garatzen duen araudiak ezartzen dituen kasuak eta iraupena aintzat harturik. Zerbitzu espezializatuak egokituko zaie jarduketa horien exekuzioa edo jarraipena.

2. Halaber, Foru Komunitateko administrazioak jarraipen-jarduketak egin ahalko ditu, lege hau garatzeko arauak zehazten dituzten kasuetan eta haiek ezartzen duten edukia izanen dutenak, integrazio-prozesuaren bilakaera aztertzeke eta, kasua bada, etorkizunean gerta litezkeen arau-hausteei edo gizarte-desegokitzapeneko egoerei aurrea hartzeko.

116. artikulua. Exekuzioaren esparrua.

1. Adingabeen epaitegiek ezarritako neurrien exekuzio materiala gauzatu da kasuko ebazpen judizialak neurri horien edukiarik, iraupenari eta helburuei buruz xedatzen duenari jarraikiz, eta indarreko legeek agindutako moduan.

2. Neurrien exekuzio materialaren osagarri gisa, familiaren baitan esku hartzeko jarduerak egin ahalko dira, adingabearen mesedetan, familian behar bezala txertatzen dela ziurtatze aldera.

117. artikulua. Exekuziorako lankidetzaren.

Foru Komunitateko administrazioak lankidetzarako hitzarmen edo akordioak egin ahalko ditu gainerako administrazioekin, bai eta irabazi asmorik gabeko bestelako entitate publiko edo pribatuekin ere, haien eskumenekoak diren neurriak exekutatzeke, haien zuzeneko ikuskaritzapean, eta kooperazio, lankidetzaren eta eraginkortasun printzipioei jarraikiz. Horrek ez du inolako titulartasun- edo erantzukizun-lagapenik ekarriko.

II. KAPITULUA

Ingurune irekiko neurriak

118. artikulua. Ingurune irekiko neurriak exekutatzeke irizpide orokorrak.

1. Foru Komunitateko administrazioak zerbitzu espezializatuak izanen ditu ebazpen judizialaren bitartez erabakitako ingurune irekiko neurriak betetzeko.

2. Ingurune irekiko neurriak exekutatzeke dira ebazpen judizialean zehazturikoaren arabera, eta esku-hartzerako xede horrekin egin den programazioan oinarriturik.

3. Kasu bakoitza teknikari bati esleituko zaio, eta teknikariak kasuaren gaineko erantzukizuna hartu eta esku-hartze guztia koordinatuko du.

4. Esku-hartzeak, nagusiki, hezkuntzaren eta integrazioaren arloetako xedeak izanen ditu, eta esku-hartzean zehar ahalegina eginen da talde-lana egiteko, diziplina anitzeko orientazioa izateko, bitarteko eta baliabide normalizatuaren partaidetza koordinatzeko, bai eta oinarritako gizarte-zerbitzuena eta sektoreetako gizarte-zerbitzuena ere, eta, beharrezkoa denean, espezializaturiko profesionalen lankidetzaren lortzeko.

5. Jarduketa zehatzen izaerak eta edukiak ahalbidetzen duten guztietan, jarduketak adingabe arau-hauslearen familia- eta gizarte-ingurunean gauzatu dira.

6. Neurriak ingurune irekian exekutatzeke jarduketa-prozedura orokorrak eta zehatzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

7. Exekuzioan zehar, kasu bakoitzeko jarraipen, ebaluazio eta berrikuspen txostenak prestatuko dira, erregelamendu bidez ezartzen den aldizkotasuna izanen dutenak, bai eta indarreko legediak ezartzen dituenak edo botere judizialak edo fiskaltzak eskatzen dituenak ere.

III. KAPITULUA

Neurri askatasun-gabetzaileak

119. artikulua. Neurri askatasun-gabetzaileak exekutatzeke irizpide orokorrak.

1. Foru Komunitateko administrazioak berariazko zentroak izanen ditu, bereak edo beste entitate batzuenak, araubide ireki, erdi-ireki edo itxiko barneratze-neurriak eta asteburua zentroan igarotze-koak exekutatzeke.

2. Zentroan barneratzeak oinarri gisa duen irizpidea da askatasun-gabetua ez dagoela gizartetik at utzia, eta esku-hartzeak hezkuntzaren arloko izaera eta edukia dituela; bestetik, zentroan barne-

ratzearen helburua izanen da askatasun-gabetua gizartean eta familian integratzeari mesede egitea, eta, ezarritako neurriaren edukiarekin bateragarria den heinean, sustaturiko jarduerak izanen dira bere parte-hartze sozial aktiboa ahalbidetzen dutenak, bai eta bere familiarekin eta bere ingurune pertsona edo erakundeekin harremanak mantentzea, erkidegoaren baliabide normalizatuak erabiltzea, eta kanpoko erakundeek, entitateek eta elkarteek establezimenduaren bizitzan parte hartzea ahalbidetzen dutenak ere.

IV. KAPITULUA Ordezko neurriak

120. artikulua. Beren exekuziorako esparru orokorra.

1. Adingabe arau-hauslearen eta biktimaren arteko adiskidetzea eta, kasua bada, azken horri edo kaltetuari kaltea ordaintzea lortzeko bitartekotza-neurriak, espedienteak aurrera egitea saihesteko xedez adingabeen jurisdikzio penaleko prozeduran zehar erabaki daitezkeenak, Foru Komunitateko administrazioak exekutatu edo ikuskatuko ditu honako kasuan soilik: fiskaltzak edo epaileak eskatu ondoren, administrazio hark erabaki hori berariaz hartzen duenean. Kasu horretan, erregelamendu bidez zehazten diren baliabide eta prozedurak erabiliko dira.

2. Epaia irmoa denean edo berak ezarritako neurriak exekutatzen ari diren bitartean, exekuzioaren gaineko ardurak daukaten Foru Komunitateko administrazio profesionalak, esku-hartzearen estrategiaren esparruan, adingabe arau-hauslearen eta biktimaren arteko adiskidetzea premiatu, erraztu edo gauzatu ahalko dute, exekuzio horren gaineko kontrolaren eskumena duen adingabeen epaileari proposatuz edo jakinaraziz, legeak jasotzen dituen kasuen arabera eta ezartzen dituen ondorioetarako.

V. KAPITULUA Neurrien jarraipena

121. artikulua. Neurrien jarraipena.

Foru Komunitateko administrazioak etengabeko jarraipena egingen du epaileak erabakitako neurrien exekuzioaren gainean, exekuzio materiala edozein zentro, erakunde, zerbitzu edo profesionalen ardurapean jartzen dela ere.

122. artikulua. Neurriak aldatzeko proposamena.

Indarreko legediari jarraikiz, eta adingabeen epaileak gai horri buruz erabaki dezakeena ezertan galarazi gabe, aurreko artikulua aipatzen

duen jarraipenaren bitartez egiaztatzen baldin bada ezen neurria ezarri eta exekutatzeke oinarri edo justifikazio gisa ebazpen judizialak adierazitako baldintzak aldatu edo desagertu direla, edo jotzen bada neurri horri ezarritako helburuak erdietsi direla, edo neurri horren bidez erdietsi ezinak direla, Foru Komunitateko administrazioak berehala prestatuko du, adingabe arau-hauslearen interesari lehentasuna emanez, txosten arrazoitu bat, zein egoki deritzona proposatuko baitu betetzen ari den neurria aldatu, ordeztu edo indargabetzeari buruz, adingabeen epaileak bidezko dena ebatz dezan.

V. TITULUA Eskumenen eta funtzioen banaketa

I. KAPITULUA Foru Komunitatearen eskumenak

123. artikulua. Babes eta erreforma gaietan eskudun den entitate publikoa.

Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 44. artikuluan xedatuari jarraikiz, eta ezertan galarazi gabe toki araubidea arautzen duen estatu- eta foru-izaerako legedian xedaturikoa, Nafarroako Komunitatea da eskudun, bere lurralde-esparruan, adingabeen laguntza, babes eta tutoretzaren arloan, bai eta adingabeen epaitegiek hartutako neurrien exekuzioari dagokionez ere, eta bere eginkizunak beteko ditu lege zibil orokor eta foru-esparrukoek eta adingabeen erantzukizun penala arautzen dutenek ezarritako moduan.

124. artikulua. Nafarroako Gobernuaren eskumenak.

1. Haurrei laguntzeko langintzari buruz lege honetako 3. artikulua arauturiko ekintzei dagokionez Foru Komunitateko administrazioak gauzatzen dituen jarduketak zuzentzen eta antolatzen ditu Nafarroako Gobernuak, eta koordinatu egiten du administrazio horri dagozkion eskumenen nahiz toki entitateei esleitzen zaizkien eskumenen erabilerak.

2. Nafarroako Gobernuari berariaz dagokio:

a) Lege honetan arauturiko gaietan, legezko arauak garatu eta exekutatzeke xedapen orokorrak onestea.

b) Adingabeen laguntza integralaren arloan foru plangintza onestea eta, arlo horretan bertan, toki entitateek zeinek bere esparrurako prestatu behar dituen planen helburuak, lehentasunak eta gutxieneko edukia zehaztea.

c) Zonifikazio iraunkorra, eta haurren arloko politikak planifikatu eta gauzatu dituen departamentuen arteko organo bat sortzea Osasun, Hezkuntza eta Justizia departamentuen artean.

125. artikulua. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eskumenak.

1. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagozkio haurren eskubideak sustatu eta defendatzeko eginkizun orokorrak, bai eta lege honetan bildutako prebentzio-jarduketak, bereziki honako hauek, planifikatu eta exekutatzekoak:

a) Foru-lurraldearen esparruko kanpainak egitea, haurren eskubideei buruzko sentsibilizazio soziala eragiteko adingabe, profesional eta, oro har, biztanleengan.

b) Lege honetako I. tituluko III. kapituluaren bildutako xedapenak doitasunez bete daitezzen zain-tzea.

c) Haurren bazterketa, moldagabezia edo babesgabetasunari aurrea hartzeko jarduketan planifikazioa, exekuzioa, jarraipena eta ebaluazioa egitea, zeinek bere esparruan.

d) Foru-funts publikoak banatzeko irizpide objektiboak zehaztea, plangintzan ezarritako lehentasunak garatzeko.

e) Beste administrazio publiko batzuek eta edozein entitate, erakunde eta elkarteek zeini bere esparruan plangintzak ezartzen dizkion ekintzak edo programak gauzatzeko egin ditzaketen jarduketan jarraipena eta ebaluazioa egitea.

f) Haurren laguntza eta babesaren arloan, programak, zerbitzuak, zentroak, prestazioak eta jarduketak antolatu, kudeatu, garatu, kontrolatu, koordinatu eta ikuskatzea.

g) Laguntza eta diru-laguntzetarako deia egitea eta haiek ematea, aurrekontuetan jasotako kopuruaren arabera.

h) Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako eta adingabe arau-hausleentzako zerbitzu eta zentro guztientzako baimenak ematea eta haiek ikuskatu eta kontrolatzea.

i) Zenbait zerbitzu emateko eta adopzioaren bitartekotzan aritzeko entitate laguntzaileak kreditatzea, gaitzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

j) Lege honetako VII. tituluaren aipaturiko erregistroa kudeatzea.

k) Adingabeei laguntzeko langileen eginkizunak eta erantzukizunak zehaztea, eginkizun eta erantzukizun horiek betetzeko beharrezkoak diren betekizunak ezartzea, eta profesional eta lagun-

tzaileei zuzenduriko prestakuntza- eta espezializazio-ekintzak taxutu, ikuskatu eta, kasua bada, exekutzea.

l) Gizarte-ekimena, herritarren parte-hartzea, adingabeen arloko boluntario-lana, eta oro har biztanle guztien boluntario-lana, lege honetan arauturiko jarduketara guztiei dagokienez, foru-lurraldean sustatzea.

m) Lege honen xede diren gaiei buruz azterketa- eta ikerketa-programak, legeko 8 eta 12. artikuluetan aipatuak, antolatu eta garatzea.

n) Lege honetako 50.2 artikuluan jasotako kasuetan arrisku-egoerei buruzko antzemate formala egitea.

o) Geriza-gabetasuneko egoerak deklaratu eta tutoretza ezartzeko beharrezkoak diren ebazpenak ematea, bai eta babes-neurriak hartu eta amaiazteko beharrezkoak direnak ere, ezertan galarazi gabe fiskaltzari eta adingabeen arloan eskudun diren jurisdikzio-organoei esleituriko eginkizunak.

p) Toki entitateekin lankidetzan aritzea familiari laguntzeko oinarritzko eta espezializaturiko zerbitzuak garatze aldera.

q) Harrera-programak garatu, exekutatu eta haien jarraipena egitea, eta pertsona hartzaileak hautatzea, ezertan galarazi gabe 126.h) artikuluan xedaturikoa.

r) Etorkizunean hartzaile izanen direnak eta adopzio-eskatzaileak lortu eta balioestea, eta haiei informazioa eta prestakuntza ematea, pertsona hartzaileen jarraipena egin eta haiei laguntza ematea, eta adopzio osteko garaian laguntza eman eta bitartekotzan jardutea.

s) Egokitasun-adierazpena eta adopzio nazionalaren eskatzaileen hautaketa, bai eta adopzio horren eraketarako proposamena ere, lege zibiletan ezarritako kasuetan.

t) Nazioarteko adopzioaren eskatzaileen egokitasunari buruzko adierazpena eta, kasua bada, aurre-esleipenak onartzea, bai eta jarraipen-jarduketan bermea ere.

u) Moldagabezia edo desegokitzapen sozialeko kasuetan jarduteko beharra ote dagoen erabakitzea, bai eta lege honetako 73, 96.6 eta 115. artikuluetan jasotako neurriak hartzea ere.

v) Haurrak Babesteko Kontseiluaren lehendarikaritzea.

y) Adingabe eta gazte arau-hausleak direla-eta jurisdikzio-organoei erabakitako neurriak exekutatzeko beharrezkoak diren administrazio-ebazpenak ematea, ezertan galarazi gabe exekuzio hori

beste administrazio publiko batzuek edo entitate laguntzaileek egitea eta exekuzio horretan toki entitateen mendekoak diren gizarte-zerbitzuek laguntza orokorra ematea.

z) Jarduketa-irizpide teknikoak ezartzea haurren laguntza eta babeserako sistema publikoko baliabideetako bakoitzerako, barnean hartuz honako gai hauek: antolakea funtzionala, metodologia, espedienteen protokolizazioa, kasu-deribazioaren antolamendua eta zerbitzu ezberdinen ardurapeko jarduketa-multzo bat biltzen duten esku-hartzeak koordinatzea.

aa) Haurrak eta adingabe arau-hausleak babesteko zentro eta zerbitzu bereziak eratzea, eta toki entitateekin lankidetzan aritzea gai honetan eskura ditzaketen eskumenak garatzeko.

ab) Lege honetako 3. artikuluan adingabeen laguntzarako jasotako ekintza eta jarduketan osagai gisa jotzen diren gainerakoak, bai eta lege honetan edo ordenamendu juridikoan ezarritako beste edozein.

II. KAPITULUA

Toki entitateen eskumenak

126. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

1. Toki araubidea ezartzen duten estatu- eta foru-legeetan xedaturikoa ezertan galarazi gabe, arau horiek edo lege-mailako beste batzuek arlo horretako eskumenak esleitzen dizkieten toki entitateen ardura da oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta berariaz eraturiko administrazio-unitate edo zerbitzu berezien bitartez egikaritzea haurren laguntza eta babesari dagozkien honako eginkizun hauek:

a) Adingabearen prestakuntzara bideraturiko jarduerak egitea, adingabeek jakin dezaten zer eskubide aitortzen eta bermatzen dizkieten ordenamendu juridikoak eta, zehazki, lege honek, bai eta horiek nola egikaritu; halaber, ekintzak burutzea haien sustapen eta defentsarako.

b) Prebentzio-jarduerak eta haurrak beren lurralde-esparruan babesteko jarduketak planifikatu eta garatzea, foru-plangintzan ezarritakoaren mugapean eta bertako edukiei jarraikiz, eta, bestalde, aipaturiko foru-plangintzaren prestaketan parte hartzea, indarreko legeek ezarritako moduan.

c) Datuak biltzea eta azterlan eta estatistikak lantzea adingabeen eta beren lurralde-esparruko familien beharriaz buruz, ezertan galarazi gabe beste administrazio publiko batzuen eskumenak.

d) Adingabeen eta beren familien beharriaz aurre egiteko laguntzari modurik zuzenekoenean

baliagarri zaizkion oinarrizko gizarte-zerbitzuak eratu eta kudeatzea.

e) Adingabeen babesgabetasun-egoerak detektatzea, beren lurralde-esparruko ikastetxeekin eta eskola- nahiz osasun-unitateekin koordinatuz, batez ere.

f) Arrisku-egoeretako jarduketak, lege honetako 50. artikuluan ezarritako moduan.

g) Lege honetako 78. artikuluan arautzen diren familiari laguntzeko zerbitzu espezializatuak eratu eta kudeatzea, salbu eta, batetik, Foru Komunitateko administrazioak eraturiko bereziak eta, bestetik, guraso-eginkizunak betetzen dituzten edo bete ahal dituzten informazio eta prestakuntzarakoak.

h) Nahitaezko eskolatzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, hezkuntza arloko administrazioarekin lankidetzan.

i) Gizarte-ekimena, herritarren parte-hartzea, adingabeen arloko boluntario-lana, eta oro har biztanle guztien boluntario-lana sustatzea, zeinek bere esparruan, lege honetan araturiko jarduketa guztiei dagokienez.

j) Lege honek esleitzen dizkien gainerakoak, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkienak.

2. Horrez gain, aurreko idatz-zatian aipaturiko toki entitateek honako eginkizun hauek bete ahal dituzte, Foru Komunitateko administrazioarekin xede horretarako izenpetzen dituzten akordioen esparruan:

a) Autonomia-erkidegoko organo eskudunak erabakitako adingabe-zaintza egikaritzea.

b) Etorrizunean hartzaile izanen direnak eta adopzio-eskatzaileak lortu eta balioestea, eta haiei informazioa eta prestakuntza ematea, pertsona hartzaileen jarraipena egin eta haiei laguntza ematea, eta adopzio osteko garaian laguntza eman eta bitartekotzan jardutea.

c) Foru Komunitateko administrazioarekin lankidetzan aritzea adingabeak familian eta gizartean integratzeari buruzko ikerketan, ebaluazioan, erabaki-hartzean, esku-hartzean eta jarraipenean, lege honek jasotzen dituen laguntza- eta babes-jarduketan mugapean.

d) Foru Komunitateko administrazioarekin lankidetzan aritzea adingabe arau-hausleei ezarritako neurrien exekuzio materialean, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, eta adingabeak familian eta gizartean integra daitezten laguntzeko jarraipen-jarduketetan lankidetzan aritzea.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipaturiko toki entitateek hartu ahalko dituzte, halaber, Nafarroako Toki administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko arauak jarraikiz lege bidez transferitu ahal zaizkien edo Nafarroako Gobernuak eskuordetuz pasa ahal dizkien eskumen eta eginkizunak.

VI. TITULUA

Kooperazioa, lankidetzak, parte-hartzea eta koordinazioa

I. KAPITULUA

Administrazio kooperazio eta lankidetzak

127. artikulua. Administrazio-ardurakidetzak.

1. Administrazio guztiei dagokie, zeini bere eskumenen esparruan, ordenamendu juridikoak eta zehazki lege honek adingabeei aitortzen dizkieten eskubide guztien errespetu eta sustapenaren bermea.

2. Administrazio guztiei dagokie, era berean, toki entitateekin prebentzio-jarduketetan kooperazio koordinatua aritzea.

3. Halaber, administrazio guztiek kooperazioan jardunen dute arrisku, geriza-gabetasun edo moldagabezia egoeren eta gizarteratze arazoan antzematean, haien ikerketan eta ukituriko adingabeei dagokienez erabakitako esku-hartzean. Horretara bideraturiko laguntza eta jarraipenerako ziurtatu beharko dute lehentasuneko jarduketak, puntuala, osoa, eta bakoitzaren programa, zerbitzu eta baliabideekin koordinatua, bai lege honetan jasotako neurrien exekuzioan zehar, haien eraginkortasunari lagunduz, bai haiek bukatu ondoren ere. Haien familia- eta gizarte-integratioko prozesua burutu edo sendotzen lagundu beharko dute era horretan.

128. artikulua. Administrazio-kooperazioaren esparrua.

Kooperazio-betebeharra betetzeko, Nafarroako administrazio publikoak, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legeak haien arteko harremanetarako ezartzen dituen printzipioen errespetutik abiatuta, honakoetara behartuta egonen dira:

a) Norbere eskumenak erabili ahal izateko beharrezkoa denean, adingabeei buruzko informazioa eta eskueran dauden datuak elkarri helaraztea, behar bezalako isilpeketasuna bermatuz eta erregelamendu bidez zehaztuko diren maiztasunaz eta adieraziko diren prozeduren bitartez.

b) Beste administrazioenak diren eskumenen erabilera erraztea, kooperatzea eta eskumenak

erabiltzeko beharrezkoa duten laguntza haiei ematea, baita beren ebazpenak exekutatzeko aldera ere.

129. artikulua. Administrazioen arteko lankidetzak eta baliabideak toki entitateei helaraztea.

1. Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legean xedatuaren arabera, foru plangintza-aren esparruan, eta lege horretan araturiko jardueri dagokienez zerbitzu hobek emari daitezkeen laguntzeko xedez, Komunitateko administrazioaren eta toki entitateen arteko lankidetzak sustatuko da, egokiak diren administrazio-hitzarmenak eginez.

2. Administrazio bakoitzak bereak dituen eskumenei dagozkien gai guztietan lankidetzan aritzeko jarduketak ezertan galarazi gabe, toki entitateek behar bezala gara ditzaten indarreko legediaren arabera edo lege honetako 126. artikulua ezarritakoaren ondorioz beraiek exekutatu behar dituzten neurriak, Nafarroako Gobernuak entitate horiei pasako dizkie edo, kasu bada, haien eskueran jarriko ditu, eskuordetze bidez, bereak diren baliabideetatik zeregin horietara loturik daudenak, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintza eta mugekin.

II. KAPITULUA

Gizarte-ekimena eta parte-hartzea

130. artikulua. Gizarte-ekimena sustatzea.

1. Nafarroako administrazio publikoek ekimen pribatuak sustatuko dituzte, bideratuta daudenak haurren eskubideak indartzera, prebentzio-ekintzak egitera, adingabeentzako laguntzan lankidetzan aritzera eta foru lege honen esparruan boluntario-jarduketetan aritzera.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-oko administrazio organo eta zerbitzuek laguntza emanen diete jarduerak jakin batzuk egiteko gaituak izan diren eta haietan kreditatuak dauden entitate lankidetzak-emailei.

131. artikulua. Lankidetzak-entitate pribatuak.

1. Adingabeei laguntzeko lankidetzak-entitateak joko dira, eta lege honetako 3. artikuluan jasotako ekintzen esparruko eginkizun eta jarduerak egin ahalko dituzte, helburuen artean adingabeei laguntzeko izan eta behar bezala erregistratuta dauden elkarte, fundazio edo bestelako pertsona juridikoak.

2. Entitate horien betebeharrak izanen dira:

a) Ordenamendu juridikoak adingabeei aitortzen dizkien eskubideak errespetatzea.

b) Foru Komunitateko administrazio-oko organo eskudunek emandako arau, jarraibide eta gidale-

roen arabera egitea beren jarduera eta gaikuntza daukateneko eginkizunak.

c) Behar adina langile izatea, eta haien titulazio-betekizunak edo esperientzia-baldintzak sektore publikoko zentro eta zerbitzuetan eskatzen direnekin parekatzeko modukoak izatea.

d) Gaikuntza daukateneko jarduera eta eginkizunak betetzeko behar diren baliabide materialak izatea.

e) Foru Komunitateko administrazioak egin beharreko ikuskapen eta kontrola jasatea eta jarduketa horiek erraztea.

f) Erregelamendu bidez ezartzen diren edo kasuko gaikuntzan espresuki zehazten diren gainerako betebeharrak behar bezala betetzea.

g) Lankidetzaren entitateek ezin izanen dute inola ere baloraziorik eta diagnostikorik egin, hori Nafarroako Gobernuaren diziplinarteko organoen esku men osoa izanen baita.

132. artikulua. Lankidetzaren entitate pribatuen eginkizunak.

1. Lege honen ondorioetarako, lankidetzaren entitateek, alde zuzenetik berariazko gaikuntza izanda eta lege honetan nahiz aplikatzekoak diren beste arauetan ezarritakoaren mugapean eta haietan xedaturikoa betez, honako eginkizun hauek eskuratu ahalko dituzte:

a) Haurren eskubideak hedatu eta sustatzera zuzenduriko jarduerak egitea.

b) Haur eta nerabeen bazterketa, moldagabezia edo babesgabetasunari aurrea hartzeko jarduketak egitea.

c) Familiari laguntzeko berariazko zerbitzuak sortu eta kudeatzea.

d) Foru Komunitateko administrazioarekin lankidetzaren aritzea babesgabetasun-egoeren ikerketan eta balioespenean.

e) Etorkizunean hartzaile izanen direnak eta adopzio-eskatzaileak lortu eta balioestea, eta haiei informazioa eta prestakuntza ematea, pertsona hartzaileen jarraipena egin eta haiei laguntza ematea, eta adopzio osteko garaian laguntza eman eta bitartekotzan jardutea, horretarako eginen diren akordioaren esparruan.

f) Nazioarteko adopzioari dagokionez, bitartekotza-lana egiteko esku-hartzea.

g) Egoitza-harrera egitea.

h) Laguntza-eginkizunetan lankidetzaren aritzea, administrazioak betetzen duen babes-eginkizunaren esparruan.

i) Adingabeen epaitegiek adingabe eta gazte arau-hausleei ezarritako neurriak exekutatzeko, eta haien gizarteratzea errazteko jarduerak egitea.

j) Foru Komunitateko administrazioak edo toki entitateek zuzenean eta modu eskusiboan bete beharrekoa ez den beste edozein.

2. Administrazio publikoek, entitate horiekin, hitzarmenak, kontzertuak, kontratuak eta gainerako lankidetzaren hitzarmenak egin ahalko dituzte, eta laguntzak eta diru-laguntzak ezarri ahalko dituzte aurreko idatz-zatian adierazitako zerbitzu eta jardueretako edozein egiteko.

3. Foru lege honetan tipifikaturiko arau-hauste larri edo oso larrien ondorioz entitate bati zehapen irmoa ezartzea arrazoiak izanen da aurreko idatz-zatian aipaturiko akordio jadanik sinatuak suntsiarazteko, eta aurreko bost urteen epean zehapena jaso izanak ezinezko bihurtuko du haiek sinatzea.

133. artikulua. Gizartearen parte-hartzea sustatzea.

1. Foru Komunitateko administrazioak sustatu du haurrei laguntza ematea helburu duten entitateek, gizarte-boluntarioek, herritarrek eta adingabeek beraiek parte har dezaten lege honetan araututako gai eta jarduketari buruzko koordinazio, azterlan, kontsulta, ekimen eta proposamen jardueretan.

2. Nafarroako administrazio publikoek erraztuko dute haurren laguntza eta babesari buruzko galetan lankidetzaren entitateek parte har dezatela aholku emateko kontsulta-organotan.

III. KAPITULUA Koordinazioa

134. artikulua. Administrazioen arteko koordinazioa.

Nafarroako Foru Komunitateak toki entitateen jarduera koordinatuko du haurren laguntza eta babesari dagokionez, foru-plangintzaren esparruan eta indarreko foru araudian nahiz arau honetan gizarte-zerbitzuei eta toki-araubideari buruz ezarritako arau, prozedura eta moduen arabera jokatzeko.

135. artikulua. Haurren Laguntza eta Babesarako Kontseilua.

1. Administrazioen arteko koordinazioa eta parte-hartze soziala lege honetan arauturiko jarduketan esparru zehatzean uztartzeko xedez, Hau-

rren Laguntza eta Babeserako Foru Kontseilua eratuko da, Nafarroako Gizarte Ongizateari atxikia.

2. Kontseilu horren xede orokorra da Nafarroako adingabeen bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea bermatzea. Bestetik, Kontseilu honen jarduketahelburu oinarritzkoak izanen dira adingabeen eskubideak errespetatu eta defenda daitezen zaintzea, bai eta adingabeen laguntza eta babeserako egin behar diren ekintza guztiak behar bezala gauzatzaren direla begiratzea; adingabeen eta beren familien parte-hartzea sustatzea, eta haiei zuzenduriko jarduketaren eraginkortasun eta efizientziarik handiena ziurtatzeko ekimen, lankidetzak eta koordinazioari laguntzea.

3. Kontseiluaren behin betiko osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira, eta bertan parte hartuko dute Nafarroan adingabeen babes eta erreformarako entitate publikoari esleituriko eskumenak espresuki atxikiak dituen organoko ordezkariak, Foru Komunitateko administrazioko departamentuetako ordezkariak eta, kasu bada, lege honetan arauturiko gaietan berriazko jarduketak dagokien gainerako administrazioetako ordezkariak; gai honetan eskudun diren toki entitateetakoek, haurren laguntza eta babesaren sektoreko lankidetzak-entitateetakoek, eta adingabeek osaturiko elkarte eta erakundeetakoek.

4. Kontseiluari eginkizun hauek dagozkio:

a) Lege honetako 3. artikulua aipatzen dituen ekintzen bultzada eta garapenari buruzko eztabaidak edo proposamenak egitea.

b) Haurren laguntza eta babesaren arloan aurreiazko informazioa ematea eta foru-plangintza egiazki betetzen ote den ebaluatzea eta hala izan dadin zaintzea, baita egin daitezkeen toki-planei dagokienez ere.

c) Zerbitzu publikoen sare ezberdinen arteko jarduera koordinatua, bai eta haien eta gizarte-ekimenaren artekoa ere, ahalbidetzeko neurri orokorrak proposatzea, haurren laguntza eta babesaren arloan, eta ahalegina egitea dauden baliabideak modurik onenean erabiltzeko eta ekintza nahiz prozesuak errepikatzea saihesteko.

d) Haurren arazoei dagozkien arlo guztietako jarduketaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko proposamen edo gomendio zehatzak egitea.

e) Prozeduren bilakaera, programen exekuzioa eta baliabideen funtzionamendua ezagutzeko, eta horien bidez adingabeen ongizateari eginiko ekarpena balioestea, bai eta indarreko araudiaren araberakoak ote diren iriztea ere.

f) Nafarroako haur eta nerabeen, beren familien eta, oro har, herritarren parte-hartzea eta iradokizunak bideratzea.

g) Nafarroako haurren egoerari, beharrezko eta laguntzari buruz txostenak, azterlanak eta beste edozein ikerketa- eta hedapen-jarduerari egin dadin bultzatzea.

h) Ekarpene gitea biztanleak sentsibilizatzeko, beren solidaritatea sustatzeko eta haiek adingabeen laguntza eta babeserako zuzenduriko ekintzetan parte hartzeko.

i) Helburu gisa adingabeak dauzkaten zerbitzu, programa edo jardueretan diharduten profesionalen prestakuntza sustatzea.

j) Aholkua ematea iritzia eskatzen zaion guztietan.

k) Erregelamenduz esleitzen zaion beste edozein.

5. Berriazko arazoak izateagatik jarduketaren koordinaziorako ahalegin handiagoa edo gizartearen parte-hartzeari bultzada tinkoagoa ematea beharrezkoa duten herri edo eremuetan, probintzia baino esparru txikiagoko kontseiluak eratu ahalko dira.

VII. TITULUA

Haurren laguntza eta babeserako erregistroa

136. artikulua. Erregistroaren xedea.

Haurren laguntza eta babeserako administrazio-ekintza dela-eta segurtasun juridikoa eta ekintza hori behar bezala bideratzea bermatzeko xedez, lege honetan arauturiko jarduketak edo neurrien ondorioz adingabe batek bizi ahal dituen egoerak erregistroan idatzi eta jasoko dira, bai eta jarduketak edo neurri horiek erabakitzeke baldintza gisa hartzen diren egoerak ere.

137. artikulua. Haurren Laguntza eta Babeserako Erregistroa.

Haurren Laguntza eta Babeserako Erregistroa bakarra izanen da Foru Komunitate guztirako, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zainduko du. Erregistroak honako atal hauek izanen ditu, gutxienez ere:

a) Lehen atala: babes-neurriak ezarri zaizkien adingabeak.

b) Bigarren atala: adoptatzeko helbururik izan gabe adingabeak hartzeko eskaintza egiten duten pertsonak.

c) Hirugarren atala: adopzioak. Atal honetan inskribituko dira, bereizirik azpiataletan, adoptatu-

ak izateko moduan dauden adingabeak, nazioko eta nazioarteko adopzioa eskatu duten pertsonak, eta egin diren adopzioak.

d) Laugarren atala: egoitza-harreran barneraturiko adingabeak.

e) Bosgarren atala: hemen inskribatuko dira, bereizirik azpiataletan, hori aplikatuz ezarritako neurri judizialak betetzen ari diren adingabe arauhausleak, eta lege honetako 11 2.2 artikuluan xedaturikoaren babesean erabakitako administrazio neurri edo jarduketak aplikatzen zaizkienak.

138. artikulua. Kokalekua, antolaketa eta funtzionamendua.

1. Haurren Laguntza eta Babeserako Erregistroaren egoitza Gizarte Ongizatearen Institutuan egonen da.

2. Haurren Laguntza eta Babeserako Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira, eta honako printzipio hauek errespetatuko dituzte: intimitate-eskubidearen bermea, inskripzioei buruzko konfidentzialtasun eta erreserba betebeharra, eta fiskaltzak informazio guztia eskuratu ahal izana, legez esleiturik dituen eginkizunak betetzen ari denean. Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren horren garapenerako arauetan ezarritakoa bete beharko da.

VIII. TITULUA Zehapen arabidea

139. artikulua. Haurren laguntza eta babesaren arloko administrazio-izaerako arau-haustekak.

Haurren laguntza eta babesaren arloko administrazio-izaerako arau-haustekak dira arduradun diren pertsona fisiko edo juridikoen egite edo ez-egiteak, baldin eta lege honetan tipifikatuta badaude.

140. artikulua. Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak dira:

a) Haurren laguntza eta babeserako zentro edo zerbitzuetako titular, arduradun edo kudeatzaileek ez ematea adingabeen beharriaz erantzuteko beharrezkoak diren tratamendu eta laguntza, baldin eta, horren ondorioz, adingabeei ez bazaie kalte larrikeria eragin.

b) Foru lege honetan adingabeei aitortzen zaizkien eskubideak ez errespetatzea edo urratzea, edo haiei buruzko araudia ez betetzea, kalte larrikeria eragiten ez bada.

c) Beste edozein irregulartasun formal, betebeharren ez-betetze, eta foru lege honetan ezarritako printzipio eta arauen aurkako egite edo ez-egite, baldin eta ez badago larri edo oso larri gisa tipifikatuta.

141. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Bi urteko epean hiru arau-hauste arin edo gehiago egiteagatik zehapena jaso izana.

b) Aurreko artikuluan tipifikatutako egite edo ez-egiteak, baldin eta haien ondorioz arrisku edo kalte larrikeria sortu edo eragin badira.

c) Adingabe baten balizko arrisku- edo gerizagabetasuneko egoeraren berri ez ematea agintari eskudunei.

d) Haurren laguntza eta babesaren arloan emandako administrazio-ebazpenak ez betetzea.

e) Lagundutako eta babestutako haurren eta beren familien datu pertsonalei buruzko konfidentzialtasun eta erreserba betebeharra ez errespetatzea, eta haiei buruzko txostenak eta erregistrodatzoharrak behar ez bezala erabiltzea.

f) Epailearen ebazpenean adierazitakoa baino neurri handiagoan mugatzea adingabeen eskubideak.

g) Erreforma-neurri judizialak aplikatzen zaizkien adingabeak zentzatzeko langintzan neurri gain jardutea, edo haien eskubideak mugatzea epailearen ebazpenetan adierazitakoa baino neurri handiagoan, edo ebazpen horien exekuzioaz arduratzen diren zentro edo zerbitzuen funtzionamenduari buruzko arauetan adierazitakoa baino neurri handiagoan.

h) Nahitaez eskolatzeko adinean dagoen adingabearentzako eskola-plazarik ez kudeatzea guraso, tutore edo zaintzaileek, eta, bestetik, eta adingabea ikastetxera joan dadin ez saiatzea edo behin eta berriro eragozte, horretarako justifikaziorik izan gabe.

i) Administrazioaren babes edo laguntza daukaten adingabeen irudiak edo datu pertsonalak hedatzea komunikabideen bitartez.

j) Komunikabideek adingabeen irudia edo identitatea erabiltzea, baldin eta horrela jokatzeko haien ohore, intimitate edo ospean modu ez-zilegian esku hartzea baldin bada.

k) Adingabeak hartu edo adoptatzeko bitarteko-tza-eginkizunetan esku hartzea, baldin eta aldezturik ez bada lortu horretarako gaikuntzarik edo administrazioaren agindurik.

l) Nazioarteko adopzioaren arloko lankidetzarentitateek ez betetzea indarreko araudiak ezartzen dizkien betebeharrak, edo adopzio-eskatzaileekin hitzarturiko itunak.

m) Besteren adingabe baten laguntzaren ardurarorbaitek bere gain hartzea, etorkizunean adoptatzeko asmoz, hori proposatzeko eskumena duen foru administrazioko organoaren esku-hartzerik gabe, esku-hartze hori nahitaezkoa denean.

n) Adingabe atzerritar bat adoptatzen dutenek ez betetzea adingabea Espainiara iritsi izana entitate publikoari jakinarazteko betebeharra, eta adoptatuaren jatorrizko herrialdeko araudiak ezartzen dituen jarraipen-jarduketan arabera jokatzeari behin eta berriro itzurtzea, edo jarduketa haiek berariaz ezarritako moduan eta prozedurei jarraituz egiteari ezezkoa ematea.

ñ) Osasun-arloko zentroak edo langileek ez betetzea jaioberria lege honetako 14. artikulua ezarritakoaren arabera identifikatzeko betebeharra.

o) Adingabeak erabiltzea foru lege honek berabei debekaturiko jarduera edo ikuskizunetan.

p) Lege honetako 30.1 artikuluari jarraikiz adingabeek sartzeari debekatua daukaten establezimendu, lokal edo barrutietan haiei sartzeari uztea.

q) Foru lege honetako 30.2 artikulua aipatzen dituen ikuskizun edo festa publikoetan adingabeei modu aktiboan parte hartzen uztea.

r) Foru lege honetako 31. artikulua aipatzen dituen argitalpenak adingabeei saldu, alokatu, helarazi edo eskaintzea.

s) Foru lege honetako 32.1 artikulua aipatzen duen ikus-entzunezko materiala adingabeei saldu, alokatu, hedatu edo proiektatu, helarazi edo eskaintzea.

t) Irrati eta telebistako programazioari eta emankizunei buruz eta telekomunikazio nahiz telematika sistemak erabili eta eskuratzeari buruz foru lege honetan ezarritakoa ez betetzea.

u) Foru lege honetan publizitate eta kontsumoari buruz ezarritakoa ez betetzea.

142. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Honakoak dira arau-hauste oso larriak:

a) Bi urteko epean hiru arau-hauste larri edo gehiago egiteagatik zehapena jaso izana.

b) Aurreko artikuluan tipifikatutako egite edo ez-egiteak, baldin eta haien ondorioz arrisku oso larriak sortu edo kalte konponezinak edo konponetzen zailak eragin badira.

c) Adingabeak hartu edo adoptatzeko bitarteko-tza-eginkizunetan esku hartzea, prezioa edo iruzurra tarteko, alde zuzenetik horretarako gaikuntzarik edo administrazioaren agindurik lortu gabe.

d) Besteren adingabe baten laguntzaren ardurarorbaitek bere gain hartzea, prezioa edo iruzurra tarteko, etorkizunean adoptatzeko asmoz, hori proposatzeko eskumena duen foru administrazioko organoaren esku-hartzerik gabe.

143. artikulua. Zehapen nagusiak.

140. artikulutik 142.era bitartekoetan tipifikatutako arau-hausteak honela zehatuko dira:

a) Arau-hauste arinak, idatzizko kargu-hartzearekin edo 300,01 eurotik 4.000 eurora bitarteko isunarekin.

b) Arau-hauste larriak, 4.000,01 eurotik 50.000 eurora bitarteko isunarekin.

c) Arau-hauste oso larriak, 50.000,01 eurotik 500.000 eurora bitarteko isunarekin.

144. artikulua. Zehapen osagarriak.

Organo eskudunek ezarri ahalko dituzte, zehapen osagarri gisa, 145. artikuluan jasotako mailaketa-irizpideei jarraikiz, honako hauek:

1. Arau-hauste larrietarako:

a) Hitzarmenak, kontzertuak edo lege honetan jasotako jarduketan esparruan zerbitzuak edo jarduerak eman edo egiteko beste edozein lankidetz-forma juridiko sinatzeko desgaitzeta.

b) Nafarroako Foru Komunitatearen edonolako finantzaketa publiko eskuratzeko debekua, urtebetetik hiru urtera bitarteko epea iraunen duena.

c) Zentroa edo zerbitzua aldi baterako ixtea, osoki edo hein batean, gehienez ere urtebetez.

d) Arduradun den pertsona fisiko edo juridikoa desgaitzea antzeko karguetan aritzeko, edo lege honetan jasotako jarduketan esparruan gauzaturikoen antzeko eginkizun edo jarduerak betetzeko, gehienez ere urtebetez.

e) Arau-haustearen erantzukizuna komunikabideren batena baldin bada, komunikabide horrek berak zehapen-ebazpena publikoki hedatzea, ebazpena ematen duen aginteak ezartzen dituen baldintzetan.

2. Arau-hauste oso larrietarako:

a) Hitzarmenak, kontzertuak edo lege honetan jasotako jarduketan esparruan zerbitzuak edo jarduerak eman edo egiteko beste edozein lankidetz-forma juridiko sinatzeko desgaitzeta.

b) Nafarroako Foru Komunitatearen edonolako finantzaketa publiko eskuratzeko debekua, hiru urtetik bost urtera bitarteko epea iraunen duena.

c) Zentroa edo zerbitzua aldi baterako ixtea, osoki edo hein batean, urtebetetik bost urtera bitartean.

d) Zentroa edo zerbitzua behin betiko ixtea.

e) Emandako administrazio-baimena atzera botatzea.

f) Arduradun den pertsona fisiko edo juridikoa desgaitzea antzeko karguetan aritzeko, edo lege honetan jasotako jarduketan esparruan gauzaturikoen antzeko eginkizun edo jarduerak betetzeko, gehienez ere bost urtez.

g) Arau-haustearen erantzukizuna komunikabideren batena baldin bada, komunikabide horrek berak zehapen-ebazpena publikoki hedatzea, ebazpena ematen duen aginteak ezartzen dituen baldintzetan.

145. artikulua. Zehapenen mailaketa.

143 eta 144. artikuluetan ezarritako zehapenak mailakatzeko, honako irizpide hauen arabera jokatuko da:

a) Sorturiko arriskuen edo eragindako kalteen izaera, norainokoa eta larritasuna. Adingabeengan eragindako ondorioen arabera haiek zehazteko xedez, kontuan hartuko dira ukituriko adingabeen adin, garapen, heldutasun, ahultasun eta baliabideei dagozkien baldintzak.

b) Arau-hauslearen erruduntasunaren eta intentzionalitatearen norainokoa; eta bereziki, indarkeria fisiko nahiz psikikoa, derrigortzea, identitate-suplantazioa eta dokumentu-faltsifikazioa erabili izana.

c) Jokabide arau-hauslea errepikatzea eta berrerortzea.

d) Gertakariak gizartean duten munta edo eragina eta kaltetuen kopurua.

e) Arau-hausleak lortutako onura.

f) Ukituriko zentro edo zerbitzuaren mota eta interes soziala.

g) Administrazioak aurretiaz luzaturiko ohartzapen edo errekerimenduak ez betetzea.

h) Arau-hausleak, bere ekimenez, eragindako kalteak konpontzea, legeak gogo onez betetzea edo akatsak konpontzea, jokabide horiek zehapen-espeditentea ebatzi aurretik gauzatzen badira.

146. artikulua. Berrerortzea.

1. Foru lege honi dagokionez, berrerortze gisa ulertuko da aldez aurretik zehatua izatea, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, 140. artikulutik 142. artikulura bitartekoek tipifikatutakoen izaera bereko gertakari baten edo gehiagorengatik, urtebeteko epean, arau-hauste arinak badira, hiru urteko epean, arau-hauste larriak badira, eta bost urteko epean, arau-hauste oso larriak badira. Epe horiek zenbatuko dira lehenengo arau-hausteari buruzko ebazpena irmo bihurtu zenetik aurrera.

2. Berrerortzea aztertzean aintzat hartuko dira, halaber, aurreko idatz-zatian adierazitako kopuru eta denbora-baldintzekin betiere, gizarte-ekintzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan ezarritako zehapenak, bai eta harako zehapenak, zeinak ezarri baitira lege honetan adingabeei aitorturiko eskubi-deen egikaritzea edo adierazpide diren edo lege honetan ezarritako debeku, murriztapen edo baldintzak aplikatzen zaizkien jarduera-esparruak arautzen dituzten legeak aplikatuz, baldin eta eskubide horiek edo debeku, murriztapen eta baldintza horiek urratu badira eta, horrez gain, gertatutakoak adingabeei arrisku bat sortu edo kalte bat eragin badie, edo gertakari edo egintza horiek egin badira zerbitzu bat ematearen, jarduera bat egitearen edo lege honetan aipaturiko zentro edo baliabide baten funtzionamenduaren aukeraz baliatuz.

147. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-haustek preskribituko dira urtebete igarotakoan, arinak badira; hiru urte igarotakoan, larriak badira; eta bost urte igarotakoan, oso larriak badira. Epe horiek zenbatuko dira arau-haustek egin ziren egunetik aurrera. Jarduera jarraituaren edo ekintza ugariaren kasuan, arau-hauste eguntzat hartuko da jarduera amaitu zen eguna edo azken ekintza egin zen eguna.

2. Arau-hauste oso larrien zehapenak bost urteren buruan preskribituko dira; arau-hauste larrienak, hiru urteren buruan, eta arau-hauste arinenak, urtebeteren buruan.

148. artikulua. Organo eskudunak.

1. Zehapen-ahalmena egikaritzea honako organoei dagokie:

a) Adingabeen babes eta erreformarako entitate publikoari dagozkion eginkizunen gaineko arduraren Nafarroako Gobernuarengandik jaso duten organoena, 141. artikuluko k) letratik n) letrara bitartekoetan eta 142. artikuluko c) eta d) leteretan

tipifikaturiko arau-hausteei dagokienez kasu guzti-etan, eta 140. artikuluan eta 141. artikuluko a) letratik j) letrara bitartekoetan tipifikaturikoei dagokienez, gertakariak eginkizun horien esparruari eta egikaritzari lotuak direnean, eta 142. artikuluko a) eta b) letretan tipifikatuei dagokienez, lehen aipaturiko arau-hausteei lotuta.

b) Lege honetako 126. artikulua aipatzen dituen eskumenak esleituta dauzkaten toki entitateena. Betiere, beren arloan, eta 140. artikuluan eta 141. artikuluko a) letratik j) letrara bitartekoetan tipifikatutako arau-hausteei dagokienez (baldin eta gertaturikoa eskumen haien esparruaren barnekoa eta haien egikaritzari lotua badago) eta 142. artikuluko a) letratik b) letrara bitartekoetan tipifikatutakoei dagokienez (lehenago aipaturiko arau-hausteei lotuta).

c) Foru Komunitateko administrazio organoena eta, kasua bada eta, betiere, bakoitzaren arloaren mugapean, honako toki entitate hauena: 141. artikuluko ñ) letratik u) letrara bitartekoetan tipifikaturiko arau-haustea eta, aurrekoekin loturik, 142. artikuluko a) eta b) letretan tipifikaturikoak osatzen dituzten gertakariak kasu bakoitzean nolako gai eta jardura-sektorekoak izan, halakoen gainean eskumenak dauzkatenak.

2. Aipaturiko organoek zehapen-eskumena egikaritzeko dute eskumen horien banaketa ezartzeko emanen diren xedapenek adierazitako moduan.

149. artikulua. Prozedura.

Aurreko artikuluetan arauturiko arloan zehapen-ahalmena egikaritzeko da Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legeko IX. tituluaren eta lege horren babesaren Nafarroako Foru Komunitatean emandako arauetan ezarritakoaren arabera.

150. artikulua. Errekurtsoak.

Zehapen-prozeduran emandako ebazpenen aurka aurkeztu ahalko dira legearen arabera bidezkoak diren errekurtso administratibo eta juridikozionalak.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Haurren eskubideei bultzada eta hedapena ematea.

Nafarroako Gobernuak eta udalbatzek, zeinek bere esparruan, Foru Komunitatean urtero haurren eguna ospatzea sustatuko dute. Horretarako egun zehatza bat etorraraziko dute Nazio Batuen Batzar Nagusiak aukeratuarekin.

Bigarrena. Foru lege honen hedapena.

Foru Lege honetako xedapen guztiak modurik zehatzenean eta orokorrean betetzea ahalbidetzeko eta hori aplikatuz egiten diren jarduketak guztietan eraginkortasunik handiena lortze aldera, Foru Komunitateko administrazio publikoek foru legearen hedapen eta jakintza zabalena sustatuko dute, bereziki adingabeen eta beren familien artean eta foru legeak besarkatzen dituen arloetan beren jarduna gauzatzen duten profesional, entitate eta erakundeen artean.

Hirugarrena. Plangintzaren esparrua eta aldizkakotasuna.

Lege honetako 7.1 artikulua aipatzen duen plangintza Nafarroako Gobernuak urtero onetsiko du, Gizarte Ongizate Departamentuak proposatuta.

Laugarrena. Garapenerako lankidetzak.

Garapenerako lankidetzaren esparruko diru-laguntzak ematerakoan, lehentasuna emanen zaie, ondoko printzipioak aintzat hartuz, jarraian aipatuko diren herrialdeetan haurren laguntza eta babesera bideraturiko proiektuei: batetik, elkartasun-printzipioa, adingabeen bizi-baldintzak herrialde guztietan eta, bereziki, garapen-bidean dauden edo Hirugarren Mundukoak diren herrietan hobetzeko; eta bestetik, ardurakidetzak-printzipioa, zeinaren arabera jokatu beharko baita haurren eskubideei aitorpen eta berme unibertsalak ematean.

Bosgarrena. Zenbatekoak gaurkotzea eta isunen ondoriozko diru-sarrerak atxikitzea.

1. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio lege honetako 143. artikuluan isunetarako ezarritako gehieneko zenbatekoak urtero gaurkotzeko, epe horretan kontsumo-prezioen indizeak izandako gehikuntzaren arabera.

2. Isun horiek kobratzearen ondorioz lorturiko diru-sarrerak atxikiko zaizkie adingabeen laguntza eta babesaren arloko jarduketak jasotzen dituzten gastu-programei.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Prozedurei buruzko araudia.

Aurreikusitako arau-garapena egin bitartean, aurretiazko araudiak arautuko ditu adingabeen laguntza eta babesaren arloko prozedurak, erregelamendu bidez xedatu beharrekoari dagokionez, eta lege honetan ezarritakoarekin bateragarria den heinean. Aurretiazko araudi hori betiere aplikatu beharko zaie legeak indarra hartu baino lehenago hasitako prozedurei.

Bigarrena. Zerbitzuen eta zentron funtzionamendua.

Egitekoa den arau-garapena onetsi bitartean, adingabeen laguntza eta babeserako zerbitzu eta zentroek beren eginkizunak betetzen segituko dute aplikatzekoa zen aurretiazko araudiari jarraikiz, foru lege honetan ezarritakoarekin bateragarria den heinean.

Hirugarrena. Aginduen eraginkortasuna jardura-esparru batzuetan.

Sistema eta zerbitzu publikoetako berariazko jardura-esparruetan, foru lege honetako aginduak zuzenean betearaziko dira baliabide bereki edo transferituei dagokienez, eta esparru horietako gainerako baliabideen gaineko aginduak, baldin baleude, kasuan kasuko transferentziaren baitan geratuko lirateke.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Klausula indargabetzailea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehen. Egoerak eta neurriak berraztertzea.

Lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean, ordura arte erabakitako babes egoerak, neurriak eta jarduketak berraztertuko dira, baldin eta horretarako modua ematen badute, haiek legeak xedaturikora egokitzeke.

Bigarrena. Erregistroan sartzea.

1. Foru lege honek ezarritako erregistroa arautzen duten xedapenak onetsi eta hiru hilabeteko epean, erregistro horretan sartu beharko dira, behar bezala ikuskatuak eta gaurkotuak, legeak berak erregistroan inskribitzekotzat jotzen dituen datuak, egitateak eta egoerak.

2. Foru legeak indarra hartzean organo eskudunen eskueran dauden eta inskribitzekoak diren datu, egitate eta egoerak ofizioz sartuko dira erregistroan.

Hirugarrena. Erregelamendu bidezko garapena eta horretarako gaikuntza.

1. Lege honek aipatzen dituen erregelamendu-arauak legeak indarra hartu eta urtebeteko epean onetsiko ditu Nafarroako Gobernuak.

2. Esku ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta gaian eskumena daukaten departamentuei foru lege hau garatzeko eta aplikatzeko behar den beste edozein arau emateko.

Laugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeai egunera.

5. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Adingabeei arreta integrala emateko Foru Lege proiektuari aurkeztutakoa.

Zioak: Nazio Batuen Biltzar Orokorrek 1989an onetsitako Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak funtsezko ikuspegi aldaketa bat eragin zuen haurren kontzepzioan, haurrak eta nerabeak eskubide osoen subjektu aktibo bihurtu baitzituen, hain zuzen ere bakean, justizia sozialean eta elkartasunean oinarrituriko gizartea eraikitzen parte har zezaten.

Geroan, eta printzipio horien pean, Haurren Eskubideen Europako Gutuna onetsi zen, bai eta estatu mailako beste lege ekimen batzuk ere; orobat, honezkero autonomia erkidego gehienek indarrean dituzten legeak ere onetsi ziren.

Horri dagokionez, Eusko Alkartasunaren ustez garrantzitsua da Nafarroako Foru Komunitateak ere haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko bere legea onetsi ahal izatea, hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitateko haur eta nerabeei bermatzeko antolamendu juridikoak, oro har, aitortzen dizkien eskubideak erabili ahal izatea, eta haur eta nerabe horiei aukera emateko beren garapenaren protagonistak izan daitezen.

Hala eta guztiz ere, aurkeztu diguten lege proiektuak ez ditu asetzen Eusko Alkartasunaren nahiak.

Proiektu honi aurkitzen diogun oztopo nagusia da adingabea dela-eta daukan kontzepzioa.

Lege proiektuaren izenburutik beretik hasita, "Adingabeei arreta integrala emateko Foru Legea", argi dago ez zaiola erreparatzen errealitate orokorrari, ezta ikuspegi juridikotik ere, zeren eta ez baitira haurrak eta nerabeak inolaz ere bereizten. Hau da, legearen arabera haurrak ez dira garatzen ari diren pertsonak, hain zuzen ere beren bizitzan eragina duten erabakietan eragin ahal izateko gaitzen doazen pertsonak. Xehetasun hori, ordea, indarra duen antolamendu juridikoan jasota dago. Horri dagokionez, kontzeptuagatik eta antolamendu juridikoarekin koherenteak izateagatik, garrantzitsua da hori guztia argi geratzea, hala legetik beretik ateratzen den izpirituen ikuspuntutik,

nola artikuluetan ere, non eskubideak eta alderdiak agertu eta segurtatu egin beharko baitira.

Gainera, lege proiektuan halako tema bat dago adingabearen kontzeptu iraungiari eusteko, hura hartzen baitu babestu beharreko subjektu baten gisara. Horrenbestez, legeak adingabearen inguruko prebentzioa eta babesa artikulatzen ditu, baina adingabearen eskubideak bigarren maila batean utzita.

Eusko Alkartasunaren ustez, lege honen honako helburuak izan behar ditu: haurrak eta nerabeak eskubideen subjektutzat hartzea, eskubide horiek guztiak bermatzea, eskubideak egiazkoak izateko tresna zehatzak jartzea eta administrazioek ardura eta konpromiso horiek guztiak beren gain hartzea.

Haurren eta nerabeen eskubideetan sakondu ere egin nahi dugu, beharrezkoak izan arren Nafarroako Gobernuak aurkeztutako lege proiektuan jasotzen ez dituen eskubideak aitortuz.

Hartara, beste eskubide batzuk jaso ditugu; adibidez, kulturarako, aisiarako, ingurumenerako, ingurunerako eskubideak. Esate baterako, atal honetan deigarria da lege proiektuak ingurumenarekiko errespetua jasotzea adingabearen betebehargar gisa eta hura eskubide gisa ez hartzea.

Gainera, batetik haurren eta nerabeen eskubideen erabilpena eta bestetik haien defentsa bermatzeko eskubideak mehatxatuta daudenean edo urratzen direnean, Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundea sortzea proposatzen dugu.

Hori guztia dela eta, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak osoko zuzenketa bat aurkeztu du, ordezkotestu oso batekin.

ORDEZKO TESTUA

Haurrak eta nerabeak zaintzeari eta babesteari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko lege honek lehenbiziko aldiz ezartzen du gai honi buruz erreferentzia-esparru orokor bat Nafarroako Foru Komunitatean.

Lege honek hutsune juridiko hori bete nahi du, eta, horretarako, gai honetan jarduteko printzipioak eta eskumenen eta erakundeen esparrua zehaztu nahi ditu. Era berean, testu bakar batean bildu nahi ditu haur eta nerabeei ezagutzen zaizkien eskubide oinarritzko guztiak, dagoeneko autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko

beste arau batzuetan jasota daudenak; batez ere, eskubide horiek benetan eta eraginkortasunez erabili ahal izan daitezten administrazioak betetzen duen jardunaren printzipioak ezarri nahi ditu, beren beregi ezarri ere.

Azken urteotan haurren errealitate honek gizartean izan duen bilakaerak legedi berria ontzea eskatzen du, haurrek orain duten leku berri horren araberrako legedia, alegia. Haurrak, gaurgero, ez dira babestu beharreko izakiak bakarrik, eskubide-dun bihurtu dira, eta babestua izatea da, hain zuzen ere, eskubideetako bat. Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak –1989 azaroaren 20koak– eragin zuen, hein handi batean, ikuspegi-aldaketa hori. Nazioarteko komunitateak laster erantzun dio errealitate horri –giza eskubideen bilakaeraren historian ez da inoiz horrelako erantzun lasterrik izan–, eta horrek,aldi berean, bizkortu egin du ikuspegi horren onarpena, hedapena eta sendotzea. Konbentzio hartan aldarrikapen huts ziren edukiak arau bihurtu dira gure gizarte eta kultura ingurunean, eta konbentzioak aldeztu zituen printzipioak, babestekoa, baliabideez hornitzekoa eta parte hartzekoa, berriazko eskubide bilakatu; eskubide horiek bermatzen dute aldarrikapen huts baino ez ziren edukien eraginkortasuna.

Hartara, Nazio Batuen esparruan, adingabeak babestearen arloan, honako arau, deklarazio eta gomendioak azpimarratu behar dira, guztiak gazteen delinkuentziari aipamen berriazkoa egiten diotenak:

– Adingabeei justizia emateari buruzko Nazio Batuen gutxienezko arauak (Beijingo arauak, 1985eko urriaren 28koak).

– Gazteen delinkuentziari aurrea hartzeko Nazio Batuen zuzentarauak (Riadeko zuzentarauak), 1990eko abenduaren 14koak.

– Askatasuna galdu duten adingabeak babesteari buruzko Nazio Batuen arauak, 1990eko abenduaren 14koak.

Europako eta nazioarteko doktrinarik aurrerazaleen eta nazioarteko testu berriek oraintsu egindako beste ekarpen batzuei esker finkatu egin da haurrek eta nerabeek gizartean duten eginkizunari ezagutza juridikoa emateko joera hori. Horien artean, nahitaez aipatu beharrekoak dira honako hauek: Europako Erkidegoan haurrek dituzten arazoei buruzko Ebazpena, Europako Parlamentuak 1991ko abenduaren 13an onartutakoa; haurren zainketari buruz Europako Erkidegoen Kontseiluak 1992ko martxoaren 31n emandako Gomendioa; Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 1992ko uztailaren 1ean adopzioari buruz emandako Irizpena;

Haurren Eskubideen Europar Gutuna, Europako Parlamentuak 1992ko uztailaren 8ko Ebazpenaren bidez onartutakoa; eta Adingabeak Babesteari eta Nazioarteko Adopzioaren arloko Lankidetzari buruzko Ituna, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuari buruzko Hagako Konferentzian 1993ko maiatzaren 29an onartutakoa.

Gure ordenamendu juridikoa geroz eta hurbilago dago aipatutako ideia horietatik, azken urteotan egindako erreforma eta lege-garapenek hurrei eta nerabeei ematen dieten protagonismo geroz eta nabarmenagoak erakusten duen bezala.

Seme-alabatasunari, Guraso Ahalari eta Ezkontzaren Ondasun Eraentzari buruzko arloetan Kode Zibila aldatzeko maiatzaren 13ko 11/1981 Legeak berrikuntzen aroa ekarri zuen. Izan ere, legezko seme-alabatasunaren eta ez-legezkoaren arteko bereizketa ezabatu egin zuen; guraso-ahalaren erabilerari buruz berdin egin zituen aita eta ama, eta aitatasuna ikertzeko aukera sartu zuen legedian. Tutoretzari buruzko 1983ko Legeak eraman zuen aurrerago prozesu hori, harik eta 21/1987 Legeak (azaroaren 11koa, adopzioaren arloan Kode Zibileko eta Prozedura Zibilaren Legeko zenbait artikulua aldarazi zituen) aldaketa funtsezkoak eragin zituen arte haurren eta nerabeen babesaren arloan. Lege horri zor zaizkio hauek guztiak: adopzioa familia-integrazioarako bitartekotzat hartzea; familia-harrera babes-erakunde berri-tzat hartzea; haurren eta nerabeen interes gore-nari, haien eskubideen babesari eta eskubide horien garapenaren bermeari lehentasuna ematea administrazioak edo epaitegiek haiei buruz hasten dituzten jarduketa guztietan; haurren eta nerabeen babesle den aldetik fiskaltzak dituen eskumenak gehitzea; abandonuaren ordeztu geriza-gabetasunaren figura sartzeari, eta babesteko prozedurak arintzea, eskumena duen erakunde publikoak tutoretza bere gain berehalak hartzeko aukera sartuta.

Harrezkero, beste xedapen batzuk ere izan dira haurren eta nerabeen eskubideei garrantzi handiago aitortzeko: hala nola, 5/1988 Lege Organikoa, ekainaren 9koa, adingabeen kontrako erakuts zalekeria eta sexu zirikatzeari buruzkoa; 4/1992 Lege Organikoa, ekainaren 5koa, Adingabeen epaitegien eskumena eta prozedura arautzen duen Legearen erreformari buruzkoa; 25/1994 Legea, uztailaren 12koa, 89/552/EEE Zuzentaraua ordenamendu juridikoan sartzekoa (telebista bidezko irrati-hedapeneko jardueren arloan estatu kideek emandako lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak koordinatzearen inguruko zuzentaraua).

Berrikiago, beste lege hau ere izan da aurrerapen nabarmenaren eragile: 1/1996 Lege Organi-

koa, urtarrilaren 15koa, adingabearen babes juridikoari buruzkoa, eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatzekoa. Izan ere, zenbait erakunde publiko eta pribatuk araudi bat eskatzen zuten, batetik, 21/1987 Legea aplikatzerakoan hautemandako hutsune batzuk betetzearren eta, bestetik, gizartean azaltzen ari ziren beharrian eta eskakizun berriei hobeki egokitutako lege-esparru bat eratzearen. Eta eskaera horri erantzutera etorri zen 1/1996 Lege Organikoa, arlo horretan aurrerantzean emanen ziren garapen-arau berrietan eta administrazio publiko- en esku-hartzeetan kontuan hartu beharko ziren jarraibideak ezarriz. Lege horren zioen adierazpe-nean argi azaltzen da zer asmo duen: «Haurren babes sozial eta juridikoa egokien bermatzeko modua haien autonomia sustatzea da, subjektu diren aldetik»; haurren eta nerabeen beharrianak dira gaurgero haiek dituzten eskubideen eta eman behar zaien babesaren ardatz.

Autonomia hori bermatze aldera, honako esku-bide hauek jasotzen ditu lege horrek, eta berriaz garatzen: ohorerako, intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea; informazioa eskuratzeko eskubidea; ideologia-askatasunerako eskubidea; parte hartu, elkartu eta batzarrak egiteko eskubi-dea; adierazpen-askatasunerako eskubidea eta entzuna izateko eskubidea. Haurrek eta nerabeek iritzia emateko duten eskubidea eta, nahikoa eza-gumen izanez gero, iritzi hori kontuan har diezaie-ten eskubidea ere ordenamendu juridiko osora hedatu dira apurka-apurka; horrek baieztatu eta sendotu egiten du Familiaren Nazioarteko Urtean aldarrikatutako demokratizazio-printzipioa, hurre-kiko eta nerabeekiko harremanei dagokienez. Eta, orain, familiaz kanpoko beste esparru batzuetara ere hedatu da printzipio hori. Gainera, harremanen demokratizazio hori indartu egiten da, haurren eta nerabeen garapen ebolutiboari ezar dakizkiokeen mugak era murriztailean interpretatu behar direla-ko, eta leundu ere subjektuaren adinaren arabera egokienak diren prozedurak eta interpretazio bitar-tekoak erabilia.

Horrela bada, 1/1996 Legeak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, aldarrikatu egiten du ikuspegi-aldaketa hori, eta babesgabeta-sun sozialeko egoeretan jarduteko printzipioak arautzen dituenean, arau-maila ematen dio arris-ku-egoeren eta geriza-gabetasuneko egoeren arteko bereizketari, babes emateko erakunde eskudunek lehendik aplikatzen zuten bereizketa horri, alegia. Orobat, lehentasuna aitortzen die arintasun eta berehalakotasun printzipioei administrazio eta auzi prozedura guztietan; familia-harreraren hainbat mota antolatzen ditu, babesga-betasunean diren haur eta nerabeek ekarri ohi

dituzten beharrian askotarikoei erantzuna eman nahian, eta, adopzioaren arloan, haur edo nerabea seme edo alabatza hartu nahi dutenen egokitasunaren eskakizuna sartzen du.

2000. urtearen hasieran, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak osatu egin zuen lege-esparru hori, erantzun egin baitzion 4/1992 Lege Organikoak (ekainaren 5ekoa, adingabeen epaitegien eskumena eta prozedura arautzen duen legearen erreformaren gainekoa) ezarritako beharkizunari eta 10/1995 Lege Organikoak (azaroaren 23koa, egun indarrean dagoen Zigor Kodearena) 19. artikuluan ezarritakoari. Horrez gain, kontuan hartu beharrekoak dira abenduaren 22ko 7/2000 Lege Organikoak (azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodearena, eta urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena aldatzeko Legea) terrorismo-delituei buruz egin dituen aldaketak.

Beharrezkoa zen Nafarroako Foru Komunitateak gai hau arau bidez garatzea, bere eskumenen arabera garatu ere; izan ere, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak esleitzen dizkiote gai horren gaineko eskumenak. Nafarroako Foru Komunitateak garapen hori egiten badu, Haurren Eskubideen gaineko Konbentzioaren aplikazioa zaintzerakoan Nazio Batuen erakundeak emandako gomendioei erantzun ahal izanen die.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 1982ko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44. artikuluko 17., 18. eta 23. idatz-zatietan xedatuaren arabera, foru erkidegoak eskumen osoa dauka ondoko gai hauen gainean: gizarte laguntza, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika, eta adin txikikoen babes eta tutoretzarako eta gizarteratzeko erakunde eta establezimendu publikoak. Orobat, foru zuzenbide zibilararen arloko eskumen osoa ere badu Nafarroak, abuztuaren 19ko 13/1982 Lege Organikoko 48. artikuluan xedatuaren arabera.

Abuztuaren 1eko 1702/1985 eta 1775/1985 errege dekretuen, urtarrilaren 24ko 274/1986 Errege Dekretuaren eta abenduaren 28ko 1681/1990 Errege Dekretuaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion estatuak ondoko arloetan zeuzkan eskumenak: gizarte laguntza eta gizarte zerbitzuak, adingabeen babesa eta laguntza- eta ongintza-fundazioen arloa. Orobat, Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalako egingizun eta zerbitzuak eskualdatu zitzaizkion.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateak eskumenak dauzka liburutegien, kirolaren eta aisialdia-

ren, ikuskizunen, elkarteen, hezkuntzaren, osasunaren, ingurumeneko kontratuen eta ekologiarren, enpleguaren, toki administrazioaren eta Nafarroako berezko zuzenbidearen espezialitateetatik edo berezko antolaketatik datozen prozedura administratiboko arloetan, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44. artikuluko 10., 14., 15. eta 19. idatz-zatietan, 46., 47. eta 49.1.c) eta d) artikuluetan eta 53., 57. eta 58.1.b) artikuluetan ezarritakoren arabera; izan ere arlo horiek guztiak aipatzen ditu foru lege honek.

Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteko Lege honek xede hirukoitza du:

a) Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean egoitza duten haur eta nerabeei edo bertan iragaitzaz baino ez daudenei bermatzea ordenamendu juridikoan ezagutzen zaizkien eskubideak erabili ahal izanzen dituztela (Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta ordenamendu juridiko osoak ezagutzen dizkieten eskubideak, esan nahi da).

b) Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongi-zatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzeko eta babesteko esku-hartzeak zein esparrutan egin behar diren zedarritzea, haurrek eta nerabeek familian eta gizartean behar duten garapena bermatzearen.

c) Arrisku edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeak babestean eta arau-hausle adingabeen aldera egin beharreko esku-hartzeetan nola jardun behar den zehazteko printzipioak zedarritzea, eta eskumenen eta erakundeen esparrua mugatzea.

Zortzi titulutan dago egituratuta lege-testua, eta arautzen duen arlo bakoitzean jarduteko esparru erabateko bat ezarri nahi du.

Lehenbiziko tituluko erabateko xedapenek legearen joera azaltzen dute, eta atzean uzten du "adin txikikoak" terminoa, gurasokeria kutsua baitzerion, eta horren orde "adingabe pertsonak", "haur eta nerabeak", edo "haurtzaro eta nerabezaro" aukeratu ditu. Haurren eta nerabeen interes gailenaren printzipioa eta haien garapena bermatzeko haien eskubideak babestu beharra hartu dira haiekin zerikusia duten erabaki eta jardun pribatu edo publiko guztien oinarritzat, eta esku-hartzeetan nahitaez kontuan hartu beharreko printzipio erabatekoak zehaztu dira. Zehatzago esanda, legeak, haur eta nerabeen eskubideei buruz, hau aldarrikatzen du: eskubidea dute beren eskubideei buruzko argibideak jasotzeko; eskubidea dute beren norbanakoaren eskubideak eta eskubide

kolektiboak errespetatu dituzten, batez ere parte hartzeko; eskubidea dute kalte egin diezaieketen ekintza edo ez-egite guztietatik babesteko izateko, betiere, familiaren ingurunean jarraitzeari lehentasuna emanez; eskubidea dute berentzat hartzen diren neurriak batez ere gizarte eta hezkuntza laguntza emateko izan daitezten. Era berean, lehenbiziko titulu honetan, legeak gizartea sentibilizatu nahi du haurren bazterketa eta esplotazioa eta haien kontrako abusu eta tratu txarrak saihesteko.

Legeak nabarmendu egin nahi du adingabeek pertsonen eskubidea dutela, nahikoa ezagumen dutenean, beren iritzia entzun dakien; eta onartzen du adingabeek badutela gaitasuna, denborarekin haziz doana, beren eskubideak erabiltzeko. Horregatik, osasunaren babesaren arloan duten eskubideen artean, beren baimena emateko edo ukatzeko aipatzen da: 41/2002 Legeak (azaroaren 14koa, Gaixoaren Autonomia eta Osasunari buruzko Informazioaren eta Dokumentazioaren arloko Eskubideak eta Betebeharrak Arautzen dituen Oinarrizko Legea) hamasei urte bete dituztenei ezagutzen dien eskubide bera, alegia.

Era berean, betebeharrak irmoa ezartzen zaie organismo eta erakunde publiko eta pribatuei elkarlanean jardun dezaten, legearen aplikazio-esparru guzti-guztietan; hartara, haur eta nerabeak zaintzeko betebeharrak modu koherentean eta antolatuan burutu ahal izanen dute, eta horrek babesgabetasun-egoerei egokiago erreparatzea ahalbidetuko du, esku-hartzeak eraginkorragoak egiten ditu eta baliabideen erabilera arrazoizkoagoa.

Legearen II. tituluak haur eta nerabeen oinarrizko eskubideak jasotzen ditu, bai eta arlo hauetan guztietan dituztenak ere: osasunean, hezkuntzan, kulturaren, aisialdian, ingurumenean, gizartearen parte-hartzean eta gizarte-integrazioan; horrela, lege hau aplikatzeko zereginera biltzen ditugu administrazio publiko guztiak eta arlo horietan jarduten duten erakunde pribatu guztiak.

Ondoren, III. tituluak arrisku edo geriza-gabetasuneko egoeretan dauden haur eta nerabeei eman beharreko babesaren arloan esku-hartzeko esparrua zedarrizten du.

Administrazioak eman behar duen babesari buruz, jarduteko orduan aintzat hartu beharreko printzipioak azaltzen ditu legeak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen) filosofiarekin bat datozenak; era berean, prozeduran kontuan hartu behar diren jarraibideak arautzen ditu, arauaren

manuak aplikatzean nolabaiteko berdintasuna izan dadin eta berdintasun-printzipioa berma dadin. Administrazioak har ditzakeen neurriak arautzerakoan, familiarengandik bereiztea dakarten neurriak xehe-xehe arautu ditu, hala nola, familia-harrera, egoitza-harrera eta adopzioa; orobat, kalitatea bermatzeko neurriak sartu ditu, hala nola, baimen-prozedurak, erregistroak, homologazioa eta zerbitzuen eta zentroen ikuskaritza eta ebaluaketa; gainera, bitarteko material eta funtzionalen eta giza baliabideen eskakizunak arautzeko erantzukizuna administrazio autonomoaren gain utzi du; horrez gain, egoitzetan harrera egin zaien haur eta nerabeen eskubide eta betebeharrak aldarrikatu ditu.

Adopzio-kasuei dagokienez, legeak seme-alabatasun biologikoa ezagutzeko eskubidea ematen du, Haurren Eskubideen Konbentzioan ezarritakoarekin eta Haurren Babesari buruzko eta Nazioarteko Adopzioaren arloko Lankidetzari buruzko Hagako 1993ko Itunean ezarritakoarekin bat etorritik.

Arau-hausle adingabeei gizartearen eta heziketaren arloan eskaini beharrekoari dagokionez, IV. tituluak jarduteko printzipioak ezartzen ditu, bai eta adingabeen epaileak emandako neurriak beteazterazteko moduak ere, Adingabeen erantzukizun penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoari jarraituz; gainera, arreta berezia jartzen du barneratze-neurrietan, eta, kasu honetan ere, bermeak ezartzen ditu laguntzaren kalitatearen alde eta arau-hausle adingabearen eskubideen errespetuaren alde. Horretarako, autonomia erkidegoko administrazioak barnetegietako bitarteko material eta funtzionalen eta giza baliabideen eskakizunak arautu dituela aurreikusten da, eta berariaz aipatzen dira barneratutako nerabeen eskubideak eta betebeharrak.

Erakunde-antolaketa arautzen du V. tituluan, eta Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundearen figura sortzea aurreikusten: haren eginkizunen artean legoke haurren eta nerabeen eskubideak sustatzea eta gizartea eskubide horietaz ohartaraztea.

Legeak, gainera, Haurren eta Nerabeen Behatokia sortzea aurreikusten du; behatoki horrek haurren eta nerabeen bizi-baldintzak aztertzea eta haien zaintzen dituzten erakundeei aholku ematea izanen ditu eginkizunak.

Azkenik, legeak indartu egiten du Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialak Gizarte Ongizaterako Nafarroako Kontseiluaren barruan duen eginkizuna, adingabeen zainketa eta babesean dabilzan erakunde publikoek eta gizarte

te-eragileek parte hartzeko berriazko forotzat erazten baitu, bai eta lege honek ukitzen dituen gaietan Nafarroako Gobernuak eman edo proposatu beharreko lege-egitasmoei, xedapen orokorrei eta erregelamenduei buruzko kontsulta eta aholkularitza organotzat ere.

VI. tituluan haurren eta nerabeen zainketan eta babesean jarduten duten administrazio publikoen artean eskumenak nola banatuko diren zehazten da.

VII. tituluan, administrazio publikoen eta erakunde pribatuen arteko harremana arautzen du, eta gizarte-ekimena sustatzeko printzipioa jasotzen du, Gizarte Zerbitzuen Legean jasotako bera.

Amaitzeko, VIII. tituluan, zehatzeko araubidea zehazten du legeak: arau-hausteak, zehapenak eta aplikatzekoa den prozedura zehazten dira bertan. Sistema honen bitartez, hau da erdietsi beharrekoa: legearen printzipio eta manuak benetan aplikatzea, eta eskubideak ez daitezela urra, eskubide horien aldarrikapen-eduki hutsa gainditu egin behar baita.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Aplikazio-eremua eta helburua.

Lege honen helburua da haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea, bermea eskainiz beren eskubideak erabili eta erantzukizunak bete ahal dituzten. Zehazki esanda, hauek dira helburuak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean egoiliarak zein pasadizokoak diren haur eta nerabeei hau bermatzea: Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta ordenamendu juridiko osoak ezagutzen dizkieten eskubideak erabili ahal izanzen dituztela.

b) Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzeko eta babesteko esku-hartzeak zein esparrutan egin behar diren ezartzea, hurrek eta nerabeek familiaren eta gizartearen inguruneetan behar duten garapena bermatzearen.

c) Geriza-gabetasuneko egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko arloan eta arau-hausle adingabeekin egin behar diren esku-hartzeen arloan jarduteko printzipioak zehaztea, bai eta eginkizun horretan eskumenera eta erakundearen esparrua mugatzea ere.

2. artikulua.- Nori eragiten dion.

Lege honen eta bera garatzen duten xedapenen ondorioetarako:

a) Adingabeak izanzen dira Kode Zibilak ezarritako adin nagusira iritsi ez direnak, baldin eta emantzipatuta ez badaude edo aplikatzekoa zaien legean ezarritakoaren ondorioz adin nagusitasuna eskuratu ez badute. Arau-hausle adingabeei buruzko xedapenetan, Zigor Kodeak ezarritakoa hartuko da adingabetasuna.

b) Haurtzaroa izanzen da pertsona jaiotzen denetik hamabi urtera arteko aldia, eta haurrak izanzen dira bizitzaren aldi horretan dauden pertsonak.

c) Nerabezaroa izanzen da hamahiru urtetik legeak ezarritako adin nagusira edo emantzipaziora iritsi arteko aldia, eta nerabeak izanzen dira bizitzaren aldi horretan dauden pertsonak.

3. artikulua.- Zuzeneko ekintza.

Nafarroako Foru Komunitateko erakundeei dagokie haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko arloan arauak garatzea eta zuzeneko ekintza gauzatzea.

4. artikulua.- Oinarrizko printzipio gidariak.

1.- Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen lege organikoa da hori), haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bermea izanzen dira gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haiei buruz hartzen dituzten erabakien eta gauzatzen dituzten jarduketa guztien oinarrizko printzipio gidariak. Orobat, haur eta nerabeekin zerikusi zuzena duten jarduketa publiko guztietan aintzat hartuko dira printzipio horiek, eta, zehazki, epaileek, administrazio publikoetako agintariek edo haur eta nerabeak zaindu eta babesteko erantzukizuna duten erakunde publiko edo pribatuek hartzen dituzten erabaki guztietan.

Interes goren hori zer den zehazteko, adingabeko pertsonaren beharrian eta eskubideei begiratuko zaie lehenik, eta hark adierazitako iritzia eta nahiak kontuan hartuko dira, nahikoa ezagumen duenean; orobat, aintzat hartuko da hark familiarren eta gizartearen esparruan duen izaera bakana.

2.- Haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bera) mea beste edozein interes legezkoren gainetik gongo dira.

5. artikulua.- Administrazio-jardunaren printzipio gidariak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, haurrak eta nerabeak zaindu eta babes-teko eskumenak erabiliz esku-hartzeren bat egin behar dutenean, printzipio hauek izanen dituzte gidari beren jardunean:

a) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak hurrei eta nerabeei ezagutzen dizkien norbanakoaren eskubideak eta eskubide kolektiboak errespetatuko direla bermatuko dute.

b) Hurrek eta nerabeek beren eskubideei buruz informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatuko dute; informazio hori, idatziz nahiz ahoz, haiek aditzeko moduko hizkuntza batean eman behar zaie, beraien adimenaren mailari eta gaitasunari egokitutako hizkera argi eta errazez, eta, hala behar balitz, beren heziketa-beharrizan bereziei egokituta.

c) Berdintasun-printzipioa errespetatuko dela bermatuko dute, nekazaritza giroko inguruneetan edo ingurune baztertuetan nahiz andeatuetan bizi-tzeagatik egon daitekeen muga oro eragotziz eta, behar balitz, ezabatuz; orobat, bereizkeria oro eragotzi eta ezabatuko da, jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo hurren eta nerabeen edo beraien familien egoera edo ezaugarri pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik gerta daitekeen bereizkeria oro, hain zuzen ere.

d) Hurren eta nerabeen garapen integralari laguntzeko beharrezko diren bitarteko guztiak erabiliko dituzte, batez ere haien nortasunaren garapenari laguntzeko bitartekoak, eboluzio-aldi bakoitzari egokitutako arreta emanen zaiela bermatuz.

e) Hurrek eta nerabeek tolerantzia, elkartasuna, errespetua, berdintasuna, erantzukizuna, parte-hartzea eta, oro har, gizarte-elkarbizitarako printzipio demokratikoen balioak berengana ditzaten sustatu behar dute.

f) Hurren eta nerabeen beharrizanetarako baliabideen urria saihestearren, behar beste neurri hartu behar dituzte, hurren eta nerabeen eskubideen funtsezko edukiari kalterik eragin diezaioketen urritasun hori ez gertatzeko.

g) Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeak ezabatu beharrekotzat jotako hesi eta oztopoak ezabatu gabe egoteagatik, lege honetan arautzen diren eskubideak zinez erabili ahal izateko oztoporik

edo eragozpenik ez dela izanen bermatu behar dute.

h) Aurrea hartu behar diete hurrei eta nerabeei eragin diezaieketen esplotazioari, laguntzarik ezari, defentsa-gabeziari, egokitzeko ezintasunari, bazterketari, abandonuari edo babesgabetasunari, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte.

i) Haurrak eta nerabeak delituen biktima direnean, arreta berezia eskaini behar diete, eta laguntzeko eta babesteko neurri egokienak hartu behar dituzte.

j) Hartzen diren neurriak oroz gain heziketarako direla bermatu behar dute, hurren eta nerabeen erabateko gizarte-integrazioa ahalbidetzerren.

k) Hurrekin eta nerabeekin zerikusia duten gaien inguruan elkartasuna eta sentikortasuna eragin behar dute gizartean, batez ere hurren bazterketa eta esplotazioa eragozteko, bai eta haien aurkako abusu, jazarpen eta tratu txar fisiko, psikiko zein emozionalak eragozteko ere; orobat, hurren eta nerabeen eskubideak eta askatasunak defenditzeko orduan gizarte zibilak duen zeregina sustatu behar dute.

l) Hurren eta nerabeen eskubideak sustatzeko zein haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko, administrazio publikoek abiarazten dituzten plan eta programak ezartzean, gizarte-ekimeneko erakundeen parte-hartzea sustatu behar dute; orobat, adingabekoen epaitegiek Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ezarritako neurriak ingurune irekian egikaritzean.

m) Belaunaldien arteko harremanak erraztu behar dituzte, nagusiek eta gazteek hurrekiko eta nerabeekiko jardueretan lagun dezaten sustatuz, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeari jarraituz.

n) Beste herrialde batzuekiko elkartasuna sustatu behar dute, kultura-harremanei bide emanez, egoera ahulean dauden haur eta nerabeak helburu dituen lankidetzara erraztuz eta gatazkan dauden herrialdeetatik zein herrialde txiroetatik datozen haur eta nerabeentzat aldi baterako egonaldiak ahalbidetuz, aplikatu beharreko legediarekin bat etorrira.

ñ) Administrazio guztien elkarlana eta koordinazioa sustatu behar dute, hurrek eta nerabeek dituzten eskubide guztiak bermatzeko.

6. artikulua.- Informazioa isilean edukitzeko betebeharra.

Organismo, entitate eta erakunde publiko edo pribatuak isilean arituko dira haurrak eta nerabeak

zaintzeko eta babesteko eginkizunean, eta behar beste neurri hartuko dituzte, intimitaterako eskubidea aplikatuz, beren esku duten informazioa isilean edukitze aldera eta informazio hori gordeta dagoen fitxategi eta erregistroak edozeinen agerian ez erabiltze aldera, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak araututako moduan.

Beren lanbidea edo eginkizuna dela-eta arrisku edo geriza-gabetasuna dagoen edo egon daitekeen kasuren bat ezagutzen dutenek isilean eduki beharko dute informazio hori; orobat aurreko lerrokadan aipatutako informazioa helmenean dutenek.

7. artikulua.- Erakundeen arteko elkarlana.

Organismo, entitate eta erakunde publiko eta pribatuak elkarlanean jardun behar dute, eta koordinatu egin behar dituzte beren jardunak, hurrei eta nerabeei arreta koherente, antolatua eta integrala eskaintzeko; jarduteko modu horrek babesgabetasun-egoerei errazago erreparatzea du helburu, esku-hartze eraginkorrako ahalbidetzea eta baliabideen erabilera arrazoizkoagoa izatea.

8. artikulua.- Aurrekontuetako lehentasuna.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, beren aurrekontuetako lehentasunen artean edukiko dituzte haurrak eta nerabeak sustatzeko, zaintzeko, babesteko eta, prestatzeko jarduerak, bai eta haurren eta nerabeen aisialdirako eta integrazioarako jarduerak ere.

II. TITULUA

Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera

I. KAPITULUA

Oinarrizko eskubideak

9. artikulua.- Haurren eta nerabeen eskubideak.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ezagutzen dizkien eskubide guztien titular dira haurrak eta nerabeak, eta, eskubide horien artean, gainerako herritarrentzat bezala, bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea, nortasunaren garapen aske eta osorako eskubidea eta berdintasunerako eskubidea dira haientzat nabarmendu beharrekoak.

Era berean, eskubide hauek izanen dituzte: ohorerako, intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea; nortasunerako eskubidea; informazioa jasotzeko eskubidea; ideologia-askatasunerako eskubidea; parte hartu, elkartu eta batzarrak egite-

ko eskubidea; adierazpen askerako eskubidea; eragiten dieten erabakietan entzunak izateko eskubidea, eta beren eskubideak defenditzeko eskubidea.

10. artikulua.- Ohorerako, intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea.

Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen) aurreikusitakoaren arabera:

a) Hurrek eta nerabeei ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea dute, eta eskubide horretan sartzen dira familiaren egoitzaren eta gutunen bortxazintasuna, bai eta komunikazioen sekretua ere.

b) Baldin eta aurreko letran aipatzen diren eskubideak urratu egiten badira informazioa jendartean hedatuz edo haurren eta nerabeen irudiak edo izenak hedabideetan erabiliz, eta era horretan haien intimitateari, ohoreari edo ospeari kalte egiten bazaio edo haien interesen aurka egiten bada, orduan, fiskaltzak legean aurreikusitako zuhurtasunezko eta babesteko neurriak eskatuko ditu berehala eta, hala badagokio, kalte-ordainak ere bai. Eta hala jardutea egokituko da haurrak edo nerabeak edo haren legezko ordezkariak baimena eman behar badute ere.

c) Horrelako kasuetan, haurren edo nerabeen legezko ordezkariak dituzten lege-akzioak gorabehera, fiskaltzak ere jardun ahal izanen du, bai bere kabuz, bai haurrak edo nerabeak berak eskatuta nahiz interesa duen beste edozein pertsona fisiko edo juridikok zein erakunde publikok eskatuta.

d) Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek eta botere publikoek errespetatu egingen dituzte eskubide horiek, eta babestu ere bai beste batzuek egin ahal dizkieten erasoetatik.

11. artikulua.- Nortasunerako eskubidea.

1.- Haur eta nerabe bakoitzak eskubidea du bere nortasuna ezagutzeko eta izen bat eta nazionalitate bat edukitzeko, eta jaiotzen denetik egin behar da haurraren izenaren inskripzioa Erregistroan.

2.- Botere publikoek eskubide honen erabilera bermatzeko behar beste neurri hartuko dituzte eta, batez ere, betebeharrak hauek betetzen direla zainduko dute:

a) Medikuek egindako jaiotza-agirian ama nor den zehaztu beharko da.

b) Amagandiko seme-alabatasunaren inskripzioa egin behar da Erregistro Zibilean, erregistratzeari buruzko araudiak ezarritakoaren arabera.

c) Adoptatuak izan diren pertsonak edozein administrazio publikok beraien jatorrizko seme-alabatasunaz izan dezakeen informazioa eskuratu ahal izanzen dutela ziurtatzea, lege honetako 84. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

3.- Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean dauden adingabeko atzerritarrek dagozkien agiriak gordetzeko eskubidea eta betebeharra dute, bai beren nortasuna egiaztatzen duten agiriak –jatorrizko herrialdeko agintari eskudunek emandakoak–, eta bai, orobat, Nafarroako Foru Komunitatean haien egoera egiaztatzen dutenak ere; eta ezingo zaizkie agiri horiek kendu, legeak aurreikusitako kasuetan eta ezarritako eskakizunak beteta izan ezik.

Baldin eta pertsona horiek nortasun-agiririk ez badute, eskubidea izanzen dute administrazio eskudunak behar bezalako agiriak eman diezazkizuten.

12. artikulua.- Informazioa eskuratzeko eskubidea.

1.- Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen) ezarritakoaren arabera, hurrek eta nerabeek eskubidea dute, beraien adina eta heldutasun maila kontuan hartuta, beren garapenerako egokia den informazioa bilatu, jaso eta erabiltzeko, eta, aldiz, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek eta botere publikoek betebeharra dute hurrek eta nerabeek jasotzen duten informazioa benetakoa eta plurala dela eta Konstituzioaren printzipioak errespetatzen dituela zaintzeko.

2.- Nafarroako administrazio publikoek, arlo horretan eskumena dutenek, sustatu egingen dute haur eta nerabeentzako informazio-materialak ekoitz eta heda daitezen, eta lagundu egingen dute haur eta nerabeek informazio eta dokumentazio zerbitzuak eta liburutegiak zein gainerako kultura-zerbitzuak erabili ahal ditzaten. Nafarroako administrazio publikoek hau zainduko dute, zehazki: hedabideek adingabeentzat ematen dituzten mezuetan berdintasunaren, elkartasunaren eta errespetuaren balioak susta ditzatela; bortxakeria, pornografia edo giza harremanen esplotazioa erakusten duten irudiak eragotz ditzatela, orobat tratu laidogarria erakusten dutenak, delitu-jarduerak egitera zirikatzeko dutenak edo elkartasun-eza edo bereizkeria sustatzen dutenak, jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko

edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo beste edozein ezaugarri edo egoera pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik; eragotz ditzatela, baita ere, haien garapenari kalte egin diezaioketen zernahi erakusten dutenak, hori guztia 30, 31 eta 32. artikuluetan adierazitako moduan.

3.- Nafarroako administrazio publikoek hedabideetan azaltzen diren edukiei buruzko kode etikoa egin daitezen sustatuko dute.

13. artikulua.- Askatasun ideologikorako eskubidea.

1.- Hurrek eta nerabeek ideologia, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea dute, legeak eta besteen oinarritako eskubideekiko eta askatasunekiko begiruneak ezarritako mugen barruan.

2.- Gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen eskubide eta betebeharra da adingabeek askatasun hori beren garapen integralaren alde erabil dezaten laguntzea.

14. artikulua.- Parte hartzeko, elkartzeko eta batzartzeko eskubidea.

1.- Adingabeek eskubidea dute beren elkarbizitzagune hurbilenetan erabat parte hartzeko, eta, bidenabar, beren inguruneko bizitzaren arlo hauek ere: gizartearen, kulturaren, artearen eta jolasaren arloetan; eskubidea dute, orobat, apurka-apurka herritartasun aktiboan sartzeko, nor bere garapen-mailaren arabera.

2.- Hurrek eta nerabeek elkartzeko eskubidea dute; hor sartzen dira alderdi politikoetako eta sindikatu etako gazteen elkarte eta antolakundeetako kide izateko eskubidea eta haur eta gazteen elkarrekin sorrera sustatzeko eta horiek elkarrekin eroldetan inskribatzeko eskubidea, guztia ere indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

3.- Haur eta nerabeek eskubidea dute jendarrereko batzarretan eta bakezko manifestazioetan parte hartzeko, betiere, horietarako deialdia legeak ezarritako eskakizunak betez egin bada; orobat, eskubidea dute batzar eta manifestazioak sustatu eta horietara dei egiteko, betiere, haien guraso, tutore edo zaintzaileen berariazko baimena badute.

4.- Adingabeei eragin diezaiaketen egitasmo, programa edo erabakiak hartu behar direnean, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, adingabeek foroetan parte har dezaten sustatuko dute, egitasmo, programa edo erabaki horiei buruz zer iritzi duten jakiteko.

15. artikulua.- Adierazpen-askatasunerako eskubidea.

1.- Hurrek eta nerabeek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, Konstituzioak ezarritako baldintzekin; eskubide horren muga dira adingabearen beraren intimitatearen eta irudiaren babesa, lege honetako 10. artikuluan jasotakoa, eta beste en eskubideen errespetua eta segurtasunaren, osasunaren, moralaren edo ordena publikoaren babesa bermatzearen ordenamendu juridikoak ezartzen dituen murriztapenak.

2.- Adierazpen-askatasunerako eskubide honetan, zehazki, honako hauek sartzen dira: iritziak argitaratu eta hedatu ahal izatea, hedabideak editatu eta ekoitzi ahal izatea eta administrazio publikoek horretarako ematen dituzten laguntzak eskuratu ahal izatea.

16. artikulua.- Esateko dutena entzun dakien eskubidea.

1.- Hurrek eta nerabeek eskubidea dute, nahikoa ezagumen dutenean, esateko dutena entzun dakien, hala familiaren barruan nola administrazio edo epai prozedura orotan, baldin eta prozedura horiekin zerikusi zuzena badute eta prozedura horietan erabakitzen denak beren egoerari edo beren familia edo gizarte inguruneari eragin badiezaioke. Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, zaindu egingen dute, eskubide hori erabiltzerakoan, beti, diskrezioa, intimitatea, segurtasuna, presiorik ez izatea eta egoeraren araberako egokitasuna errespetatu daitezzen.

2.- Bermatu egingen da hurrek eta nerabeek, nahikoa ezagumen dutenean, iritzia beren kabuz edo berek ordezkari izendatutako bitartez adierazi ahal izatea; hala ere, ezin denean edo adingabearen intereserako komeni ez denean, haren legezko ordezkarien bitartez jakin ahal izanen da haren iritzia –baldin eta legezko ordezkari horiek ez badira alderdi interesdun, eta adingabearen interesen aurka doan interesik ez badute–, edo lanbideagatik edo adingabearekin duten konfiantza bereziarengatik haren iritzia era objektiboan eman dezaketent pertsonen bitartez. Haur eta nerabeen eskubide hau berari buruz legez ezarritako xedapen berezietan kalterik egin gabe ulertuko da, adibidez, 18.2f) artikuluan zehaztutako xedapenei, osasunagatik egin beharreko esku-hartzeetan baimena emateko edo ukatzeko eskubideari buruzkoei.

3.- Foru erkidegoko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, adingabeekin zerikusi zuzena duten prozeduretan haiek ulertzeko moduko hizkuntza eta haien adimen-gaitasunaren

arabera egokitutako hizkera erabil dadin zainduko dute.

17. artikulua.- Nork bere eskubideak defendatzeko eskubidea.

1.- Haur eta nerabe guztiek izanen dute, beti, beren eskubideak defendatzeko eskubidea, beren kabuz, legeak uzten badie, edo beren legezko ordezkariaren bitartez, non eta legezko ordezkariak ez diren alderdi interesdun edo ez duten adingabearen interesekin bat ez datorren interesik; beste pertsona batzuen bitartez ere defenda ditzakete, baldin eta pertsona horiek, lanbidea dela-eta edo konfiantzazko harreman berezia dutela-eta, iritzia objektiboki eman badezakete. Bestalde, guraso-ahala, tutoretza edo zaintza beren gain duten pertsonak babestu eta zaindu egin beharko dituzte eskubide horiek, eta eskumena duten administrazio publikoek behar bezala erabiltzen direla begiratu behar dute eta helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren mekanismoak abiarazi.

2.- Hurrek eta nerabeek, eskubide horiek benetan erabili ahal izateko, eskubidea dute administrazio publikoengandik laguntza egokia jasotzeko. Horretarako, honako hauek egin ahal izanen dituzte:

a) Eskumena duen entitate publikoari babesa eta tutoretza eskatzea.

b) Haien ustez, beraien eskubideak urratzen dituzten egoerak fiskaltzari jakinaraztea, dagozkion akzioak abiaraz ditzan.

c) Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundeari aurkeztea beren kexak (Lege honetako 96. artikulua bitartez sortzen da erakunde hori).

d) Administrazio publikoari eskura dituzten gizarte-baliabideak eskatzea.

e) Haur eta nerabeek, zigor-zuzenbidearen urraketaren bat egiteaz akusatuta prozedura judizialen batean parte hartu beharra daukatenean, legetari baten defentsa edukitzea; konfiantzazko abokaturik izendatu ez badu, ofiziozko txandaren bitartez izendatuko zaio bat. Orobat, lege honen esparruan sartzen diren borondatezko jurisdikzioaren prozeduretan doako aholkularitza juridikoa eduki ahal izatea, urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak, Doako Laguntza Juridikoarenak, eta abenduaren 22ko 707/2003 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeko den Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua (apirilaren 8ko 80/2001 Foru Dekretuaz arautua) aldatzen duenak, ezarritako moduan.

3.- Baldin eta prozedura judizialean epaiketa egiten den lekuan bertan parte hartzeagatik adin-

gabeak traumaren bat jasan badezake, edo leku-koaren froga galarazi egin badaiteke, epaiketa-aretoan egon beharrik gabe parte hartzeko moduko bitarteko teknikoez parte hartzea bermatuko da, ahal dela, eta, behar izanez gero, baimena eskatuko zaio eskumena duen fiskalari, adingabeak bere nortasuna ezkutuan gordeta prozeduran parte hartu ahal dezan.

4.- Administrazio publikoen betebeharra da adingabeei laguntza ematea eskubide hori erabili ahal izateko, aholkua emanaz eta sartuta dauden prozedura horien tramitazioari buruz orientabideak eskainiz. Horretarako, lege honetako 42. artikuluan araututako informazio-zerbitzuak, gizarte-gaietan eskumena duen sailaren pekoak, laguntza behar dutenak haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko erakunde egokienetara bideratzea izanen du eginkizun.

Adingabearen eta haren tutoretza edo zaintza daukan entitate publikoaren artean interes-gatazka dagoenean, adingabeari jakinarazi behar zaio baduela eskubidea, indarrean dagoen legediak ezarritako moduan, epaitegietan defendatzaile bat edukitzeko.

5.- Administrazio publikoen jarduera lehentasunezkoa izanen da mehatxu eta hertsapenik izanez gero; hortaz, eskumena duen administrazio publikoak bere kabuz jardungo du halako egoeraren zantzurik txikiena izan orduko.

II. KAPITULUA

Osasunerako eta osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea

18. artikulua.- Bakoitzaren osasuna sustatua eta babestua izateko eskubidea.

1.- Haur eta nerabe guztiek dute eskubidea beraien osasuna susta dadin eta babes dadin, bai eta osasun-arreta integrala eman dakien, indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera.

2.- Hurrek eta nerabeek eskubide hauek izanen dituzte:

a) Jaiotzen direnean behar bezala identifikatuak izateko eskubidea, identifikazio hori bermatuko duten bitarteko egokien bitartez.

b) Jaiotzen den unetik bertatik haurraren osasun-txartela edukitzeko eskubidea. Txartel horretan osasuna zaintzeko eta babesteko garrantzitsutzat jotako betebeharrak nagusiak azalduko dira.

c) Osasun-zerbitzuetako agintaritzak proposatutako txertoen egutegian ageri diren gaixotasun infekzioso-kutsakorren aurka immunizatuak izateko eskubidea.

d) Norberaren historia klinikoa eta, baldin badago, historia soziala ere isilpean edukia izan dadin, bai eta norberaren familia-egoerari eta egoera sozioekonomikoari buruzko beste edozein datu ere.

e) Beren osasun-egoerari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, bai eta ematen ari zaizkien tratamendu medikuari buruzkoa ere, betiere, haien adina, heldutasuna eta egoera psikologiko eta afektiboa kontuan hartuta, lege honetako 12. artikuluan ezarritako moduan; gainera, ahalegina egin behar da informazio garrantzitsu hori haurrak edo nerabeak hobekien ulertzen duen hizkuntzan emateko.

f) Nork bere baimena emateko edo ukatzeko eskubidea, Gaixoaren Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoko buruzko Eskubide eta Betebeharrak Arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Lege Oinarrikoak ezarritakoarekin bat etorriz.

g) Beraien osotasuna eta osasuna arriskuan jar ditzaketen esperimentu zientifikorik edo medikurik egin ez dezaten beraiengan.

h) Beren osasunaz, orokorrean hartuta, informazioa jasotzeko eskubidea.

i) Tratu gizalegezkoa, ulerbera eta haien intimitatearen begirunezkoa eman dakien.

j) Osasun-zerbitzuetan aplikatzekoa den araudian aurreikusitako eskubide oro izanen dute.

3.- Haurren eta nerabeen osasuna sustatu eta babesteari dagokionez, haien guraso, tutore eta legezko zaintzaileek eskubide hauek izanen dituzte:

a) Haurren eta nerabeen osasun-egoerari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, adingabeek duten intimitate-eskubideari kalterik egin gabe eta haien adin, egoera afektibo eta adimengarapenaren arabera.

b) Haurrari edo nerabeari eritasunen bat antzemateko probak egin behar zaizkionean edo tratamendu bat aplikatu behar zaionean, proba edo tratamendu horien gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, eta probak egin aurretik edo tratamendua aplikatu aurretik baimena eska dakien, aurreko idatz-zatiko f) letran aurreikusitako moduan. Baimenik eman ezean, eta, hala badagokio, epailea izanen da, medikuaren agindua jaso ondoren, baimen hori eman behar duena; dena dela, adingabearen bizitzeko eskubideari eta osasunerako eskubideari lehentasuna emanen zaie beti.

c) Osasun-zerbitzuetan aplikatzekoa den araudian ezarritako eskubide oro izanen dute.

4.- Osasunaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuak bermatu egiten ditu eskubide honen legezko arauketatik datozkeen eskubide eta betebeharrak, osagarri eta tresna gisa emandakoak, eta, bermatu ere, haur eta nerabeek osasun-zerbitzuekiko dituzten harremanetan, haien nortasunari, giza duintasunari eta intimitateari zor zaien errespeturik handienarekin. Aurreko hori betetze aldera, osasunaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentua elkarlanean arituko da hezkuntzaren arloan eskumena duen departamentuarekin, osasunaren gaineko hezkuntza-programak lantzen, osasuna sustatzen eta babesten eta, oro har, une bakoitzean lehentasunezko zatitza josten diren gaiak jorratzen.

19. artikulua.- Osasun-zerbitzuak erabili ahal izatea.

Haur eta nerabe guztiek osasun-zerbitzuen sistema publikoa erabiltzeko eskubidea dute, gaineko herritarrek erabiltzen duten baldintza berdinetan.

20. artikulua.- Administrazioak osasunaren arloan jarduteko printzipioak.

1.- Osasunaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuak beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu haur eta nerabeei erietxean sartu beharrik gabeko osasun-arreta eman dakien. Horretarako, erietxeen besteko osasun-zentroetan toki egokiak prestatuko dira haur eta nerabeei beharrezko zainketak eskaintzeko eta haien jolasteko beharri erantzuteko, zentroek dauzkaten lekuaren eta baliabideen arabera eta, betiere, segurtasun-arau ofizialak betez. Oroz gain, irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela zaindu beharko da.

2.- Haurrak edo nerabeak erietxean nahitaez egon behar badu, ahalik eta egonaldi laburren egiten du.

3.- Haurrek eta nerabeek, egon behar duten erietxea osasun-zentro publikoa nahiz pribatua izan, beste eskubide hauek ere izanen dituzte, 18. artikuluan zehaztutako eskubide orokorrez gain:

a) Ematen zaien tratamendu mediko osoari buruz eta tratamendu horrek izan ditzakeen ondorio positiboari buruz informazioa jasotzeko eskubidea; betiere, beren adina, adimen-garapena eta egoera afektibo zein psikologikoa kontuan izanda.

b) Eskubidea dute osasun-zerbitzuetan banakako arreta eskaini dakien bai eta tratamenduaren banakako jarraipena egin dakien ere, ahal dela beti profesional-talde beraren esku.

c) Erietxean egon beharra dutenean, eskubidea dute beren gurasoek edo horien ordezkoei ahalik eta denbora luzeenean lagun diezaieten, baina ez ikusle pasiboan moduan, baizik eta elementu aktiboan moduan, erietxeko egonaldiak irauten duen bitartean, salbu eta hori eragozpen edo kalte izan badaiteke ezarri beharreko tratamenduetarako.

d) Urduritasun handiko uneetan gurasoekin edo haien ordezkoei harremana eduki ahal izateko eskubidea, eta, horretarako, egokiak diren bitartekoak eskura edukiko dituzte.

e) Eskubidea dute, erietxean sartu behar dituztenean, ahal dela beste ume batzuen ondoan jarritzen, eta ez helduen ondoan.

f) Eskubidea dute zainketarako, hezkuntzarako eta jolaserako beren beharri erantzuteko leku eta gela egokiak edukitzeko, betiere segurtasun-arau ofizialak betez. Oroz gain, irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela zaindu beharko da.

g) Erietxean dauden bitartean, eskubidea dute eskolako ikasketak egiten jarraitzeko, eta hezkuntzako agintariek beren eskura jartzen dituzten irakasleez eta ikasmaterialez baliatzeko.

h) Eskubidea dute erietxeko egonaldian, beren adinari ondo datozkien jostailu, liburu eta ikus-entzunezkoak erabiltzeko.

i) Eskubidea dute jasoko dituzten zainketak doak izanen direlako segurtasuna edukitzeko, nahiz eta, horretarako, justiziak esku hartu behar izan, dela gurasoek zainketa horiek ukatu egiten dizkietelako —erlijioarengatik, kulturarengatik edo beste arrazoi batzuegatik—, dela gurasoek beharri erantzuteko aukerarik ez dutelako; betiere, adingabearen bizitzeko eskubideari eta osotasun fisikorako eskubideari emanen zaie lehentasuna.

4.- Osasun mentaleko zentroetan, haurrek eta nerabeek behar dituzten zainketa eta tratamendu egokietarako baldintzak ipiniko dira, beharrezkoak direnak; bereziki, osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeak zaintzeko langile kualifikatuz hornitutako unitate espezializatuak sortu eta ekipatzera joko da.

5.- Administrazioen artean beharrezko koordinazioa bermatuko da ahalmen-urritasuna duten haur eta nerabeei laguntza emateko zentroak eta zerbitzuak sor daitezen bultzatzeko.

6.- Eskumena duten administrazioek osasun-zerbitzuen titularrentzat eta osasun-arloko langileentzat prestakuntza-programak garatuko dituzte

hurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo arrisku-egoera antzemateko behar beste ezagutza eskura ditzaten.

21. artikulua.- Erakundeen arteko elkarlana.

Osasun-zerbitzuek eta osasun arloko langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi behar dizkiete, edo, beharrezkoa bada, fiskaltzari edo epaileari, hurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo arrisku-egoera ekar ditzaketan egitateak, eta horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrek eta kalitatezkoak izanen direla bermatzeko behar diren datu guztiak helarazi beharko dizkiete; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko.

III. KAPITULUA

Hezkuntzarako eta hezkuntza zerbitzuak jasotzeko eskubidea

22. artikulua.- Hezkuntzarako eta irakaskuntzarako eskubidea.

1.- Haur eta nerabe guztiak heziketa jasotzeko eskubidea dute, heziketa hori batez ere familiarren eta gizartearen inguruneetan eta hezkuntza-zentroetan emanen zaie, indarrean dagoen legediak ezarritako moduan.

2.- Haur eta nerabe guztiak oinarrizko irakaskuntza jasotzeko eskubidea dute, hau da, lehen hezkuntzaz eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaz osatzen dena, indarrean dagoen legediak ezarritako eran.

23. artikulua.- Hezkuntza-zerbitzuak erabili ahal izatea.

1.- Hezkuntzaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuak behar beste plaza eduki beharko ditu hezkuntza-zentroetan, haurrei eta nerabeei irakaskuntzaren ziklo guztietan behar dituzten hezkuntza-zerbitzuak eskaini ahal izateko.

2.- Hezkuntza-zentroen diseinuak eta ekipamenduak beharrezko baldintzak izanen dituzte, haurren eta nerabeen ahalmenak, gorputzaren eta adimenarenak, modu egokian gara daitezten. Oroz gain, segurtasunari eta irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela zaindu beharko da.

3.- Botere publikoek, Nafarroako Foru Komunitateko eskola publikoa eratzen duten zentroen bitartez, hiru urtetik gorako eskolatzeko doakoak bermatuko dute.

4.- Hezkuntza administrazioak, gainerako administrazioekin eta gizarte-eragileekin batera

lan eginez, zero urtetik aurrerako eskolatzeko-zerbitzuak bultzatuko ditu; lehentasuna emanen zaie maila sozioekonomiko apalena duten eskualdeei eta, oro har, hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleei edo hizkuntza-beharrizanak dituztenei.

24. artikulua.- Administrazioak hezkuntzaren arloan jarduteko printzipioak.

Hezkuntzaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuak beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu honako hauek bermatzeko aldera:

1.- Haur eta nerabeen hezkuntza-prozesua beraien eboluzio-egoerari egokitzea.

2.- Irakaskuntza-zentroen hezkuntza eta curriculum proiektuetan honako gai hauek sartzea:

a) Balioen arabeko hezkuntza, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan jasotako printzipio, eskubide eta askatasun funtsezkoekin bat etorriz, bereziki hauekin: aniztasunaren errespetuarekin eta inoren aurka bereizkeriarik ez eragiteko printzipioarekin (dela jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo beste edozein egoera edo ezaugarri pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik eragindako bereizkeria).

b) Hezkuntza ez-sexista, bakearen kultura, gizalegea eta tolerantzia sustatzen dituzten balioetan oinarritua.

c) Foru Komunitateko gizarte eta kultura errealitatearen errespetua, bere aniztasun osoan, eta Nafarroako hizkuntza ofizial bien ikaskuntza.

d) Gertuko kultura-ingurunea ezagutzea, eta beste kultura-eremu batzuen aurrean jarrera irekia edukitzea.

e) Ingurumen natural eta orekatuaren errespetua, garapen iraunkorraren oinarrien gainean.

3.- Aukera-berdintasuna errespetatzea eta sustatzea eskolatzeko eta eskolan egin beharreko ibilbidean. Ildo horretatik, haur eta nerabe guztiei heziketa-aukera berdinak eskaini behar dizkiete, eta, helburu horrekin, bereizketa positiboko ekinbideak xedatuko dituzte, haur eta nerabe guztiak barne hartuta, eta, batez ere, ekonomia, gizarte eta kultura maila apalagoa dutenentzat eta zailtasun pertsonalak dituztenentzat, hezkuntza-prozesuan laguntzeko eta eskola-porrota gertatzeko arriskuari aurrea hartzeko.

4.- Haurrek eta nerabeek beren hezkuntza-prozesuan eta ikasle-elkarteetan parte har dezaten laguntzea.

5.- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haurren eta nerabeen eskola-hezkuntzan parte hartzeko eta hezkuntza horren jarraipena egiteko duten eskubidea errespetatu eta sustatzea.

6.- Derrigorrezko irakaskuntzan absentismoa eragozteko beharrezkoak diren ekintzei heltzea, toki administrazioekin, irakaskuntzako langileekin eta familiekin elkarlanean arituz.

7.- Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleek lehentasuna izan dezaten, pertsona gisa behar duten heziketa eta eskolan eta lanbide baterako behar duten prestakuntza ahalik eta onena izan delako bermatzeko; eskolan hasteko unetik bertatik eginen da ahalegina bakoitzari behar duen bezalako zerbitzua eskaintzeko, eta laguntzeko eginkizuna berariaz prestatuta dauden profesional kualifikatuen esku utziko da.

8.- Hezkuntza-zentroetan arrisku-egoerak prebenitzeko programak garatzea, bereziki hauek:

a) Osasunari buruzko prebentzio eta hezkuntza programak, batez ere menpekotasuna eragin dezaketen gaiei buruz, haurdun geratzea eragozteko metodoei buruz, sexu-harremanen bidez kutsatzen diren eritasunei buruz eta elikadurari buruz; hori guztia haurrek eta nerabeek beren osasunerako edo beste batzuenarako jokabide eta ohitura kaltegarriak har ez dezaten.

b) Sexualitatearen eta afektibitatearen heziketarako programak.

c) Bide-segurtasunari buruzko prebentzio eta hezkuntza programak.

d) Haurren eta nerabeen nortasunaren garapen askeari kalte eragin diezaieketen sekten eta bestelako erakunde batzuen eragin kaltegarriez ohartarazteko prebentzio eta informazio programak.

e) Tratu txarrei eta sexu-abusuei buruzko sentsibilizazio eta prebentzio programak, haurren eta nerabeen eskubideez informazioa emanen dutenak. Informazio horretan eskubide horiek urratzea edo arrisku-egoera bat sortzea eragin dezaketen jokamoldeak azalduko dira, bai haurren eta nerabeenak, bai beste pertsona batzuenak; orobat, laguntza eman diezaieketen pertsonak edo erakundeak zeintzuk diren azalduko da. Hori guztia ikasleen ahalmenari eta eboluzio-garapenari egokitutako hizkera erraza eta argia erabiliz eginen da.

f) Ingurumenaren eta erantzukizunezko kontsumoaren gaineko informazio eta prestakuntza programak.

9.- Haur eta nerabeen artean gerta litekeen edozein jazarpen eta indarkeria egoera antzemateari eta zuzentzeari lehentasuna ematea.

10.- Eskumena duten administrazioek hezkuntza-zentroetako titularrentzat eta langileentzat prestakuntza-programak garatzea, haurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo arrisku-egoera antzemateko behar beste ezagutza eskura ditzaten.

25. artikulua.- Erakundeen arteko lankidetzaren eta norbanakoen lankidetzaren.

1.- Baldin eta agintariek edo herritarrek jakiten badute derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dagoen haur edo neraberaren bat eskolatu gabe dagoela edo, arrazoibiderik eman gabe ez dela eskolara joaten, eskumena duten agintari publikoek jakinarazi beharko diete, batez ere hezkuntza administrazioetako agintariei, toki entitateei eta fiskaltzari, haurra edo nerabea eskolatzeko, edo eskolara joanarazteko, beharrezkoak diren neurriak hartzen dituzten.

2.- Halaber, hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten administrazio publikoek edo, beharrezkoa bada, fiskaltzari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izan direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan.

IV. KAPITULUA

Kulturarako eskubidea, eta gizartearen eta kulturaren arloan babestuta egoteko eskubidea

26. artikulua.- Kulturarako eskubidea.

1.- Haurrek eta nerabeek eskubidea dute, eskolan ematen zaien irakaskuntzaren osagarri gisa, kultura-prestakuntza integrala jasotzeko, beren gaitasun intelektual eta artistikoa garatzeko nahiz trebetasun fisikoak eta eskulanetarakoak areagotzeko.

2.- Haur eta nerabe guztiak dute eskubidea beraien kultura-aukera errespetatzen dakien, zein ere den haien familiaren kultura.

3.- Halaber, haur eta nerabe guztiak dute eskubidea beren jatorrizko kultura ezagutu eta garatzeko.

27. artikulua.- Administrazioak gizartearen eta kulturaren arloan jarduteko printzipioak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak betebeharrak hauek izanen ditu:

a) Haur eta nerabeentzako kultura eta arte agerkariak prestatzea eta ekimen pribatuen bidez horrelako jarduerak antola daitezkeen sustatzea.

b) Haurrek eta nerabeei Nafarroako Foru Komunitateko kulturaren arloko ondasunak eta baliabideak berdintasunean erabili ahal izanen dituztela eta horietan parte hartu ahal izanen dutela bermatzea.

c) Haurrek eta nerabeei beren gaitasun zein trebetasun intelektual eta artistikoak nahiz kirolerakoak edo eskulanetarakoak garatu ahal izateko, kulturaren arloko bitarteko eta baliabideak sor daitezkeen sustatzea eta xedatzea.

d) Haur eta nerabe guztiei kultura-aukera berdina eskaintzea, eta horretarako bereizketa positiboko ekinbideak xedatzea, haur eta nerabe guztiak barne hartuta, batez ere ekonomia, gizarte edo kultura maila apalagoa dutenentzat eta zailtasun pertsonalak dituztenentzat.

e) Haur eta nerabeei informazio askotarikoa eta egiazkoa eskuratzeko aukera bermatzea.

f) Hedabideek haur eta nerabeentzat interesgarria den informazioa eman dezaten sustatzea; orobat, haur eta nerabeentzat argitalpenak argitara ditzaten eta haur eta nerabeei parte hartzeko moduko telebista-saioak presta ditzaten sustatzea, betiere oinarritzko eskubide eta askatasunen errespetuaren balioak aintzat hartuta.

28. artikulua.- Gizartearen eta kulturaren arloan babesteko betebeharrak.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, zaindu egingen dute haur eta nerabeak hazten diren ingurunean kultura eta gizarte baldintzak egokiak izan daitezkeen, era horretan, haien nortasuna osoki gara dadin eta haien integrazioa erabatekoa izan dadin hezkuntzaren, kulturaren eta gizartearen arloetan; egokitasun hori bermatzeko, gainbegiratu, kontrolatu eta ikuskatzeko neurriak hartuko dituzte, kasuan-kasuan beharrezkoak direnak.

29. artikulua.- Joko-establezimenduak, ikuskin publikoak eta jolas-jarduerak.

Haur eta nerabeak joko-establezimendu eta lokaletara sartuko badira, Jokoa arautzeko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legeak aurreikusitakoa bete beharko da.

Haurrak eta nerabeak babestu egin beharko dira Nafarroako Foru Komunitatean jendearentzako antolatzen eta egiten diren ikuskizun publiko eta jolas-jardueretatik, eta babes hori Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/198 Foru Legean (abenduarien 10eko 26/2001 Foru Legeak aldatu zuen) eta hura garatzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera emanen da.

30. artikulua.- Argitalpenak.

1.- Galarazita dago haur eta nerabeei beraien nortasunaren garapenerako kaltegarri izan daitezkeen edukiak dituzten argitalpenak saltzea; betiere, galarazita egongo da haiei bortizkeria, pornografia edo giza harremanetan esplotazioa erakusten duten edukiak dituzten argitalpenak saltzea, edo tratu laidogarria erakusten dutenak, delitu-jarduerak egitera zirikatzeko dutenak edo elkartasun-eza edo inoren aurkako bereizkeria sustatzen dutenak honako arrazoi hauetakoren batengatik: jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo beste edozein ezaugarri edo egoera pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik.

2.- Galarazita dago haur eta nerabeei, zuzenean nahiz zeharka, goiko idatz-zatian aipatutakoak bezalako argitalpenak eskaintzea, edo horiek erakusgai jartzea haur eta nerabeei libreaki hartu ahal izateko moduan.

3.- Galarazita dago argitalpenetan haurren eta nerabeen izenak, irudiak edo haiei buruzko beste-lako datu batzuk hedatzea, Adingabearen gaineko babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Kode Zibilararen eta Prozedura Zibilararen Legearen zati batzuk ere aldatu zituen) eta 1/1982 Legeak (maiatzaren 5ekoa, Ohorearen, Norberaren eta Familiaren Intimitatearen eta Bakoitzaren Irudiaren Babes Zibilar buruzkoa) eta lege honetako 10. artikulua ezarritako moduan.

4.- Galarazita daude, orobat, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan argitalpenei buruz berriaz galarazita dauden gainerako jarduerak.

31. artikulua.- Ikus-entzunezko baliabideak.

1.- Ikus-entzunezko materialari dagokionez, jarduerak hauek galarazita egongo dira:

a) Haur eta nerabeei, haien garapenerako kaltegarri izan daitezkeen bideoak, bideo-jokoak edo beste edozein ikus-entzunezko material saldu edo alokatzea; batez ere ikus-entzunezkoen edukia lege honetako 30.1 artikuluan aipatutakoa bada.

b) Aurreko letran aipatutako ikus-entzunezko materiala proiektatzea haurrak eta nerabeak sartzera haizu diren lokaletan eta ikuskizunetan, eta, oro har, material hori haur eta nerabeen artean hedatzea, edozein bitartekoren bidez.

c) Galarazita daude, orobat, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan argitalpenei buruz berariaz galarazita dauden gainerako jarduerak.

2.- Telebistako eta irratiko programazioaz den bezainbatean:

a) Uztailaren 12ko 25/1994 Legearekin bat etorritik (Europar Batasuneko estatu kideek telebista bidezko irratihedapenaren jarduerari buruz emandako lege, erregelamendu eta administrazio xedapenen koordinazioari buruzko 89/552/CEE Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikoan sartu zen lege horren bitartez), Nafarroako Foru Komunitatearenak diren telebista-kanalen emanaldiek, bai eta beste telebista-zerbitzu batzuen emanaldiek ere (zerbitzu horiei baimena ematea Nafarroako Foru Komunitateari dagokionean), honako betekizun hauek bete behar dituzte:

– Haurrentzako eta nerabeentzako programak emateko orduan, haien ohituren araberrako ordutegia errespetatzea.

– Egunean ordu-tarte bat gordetzea, eta tarte horretan haur eta nerabeen garapenerari kalte egin diezaioketen programarik, irudirik edo mezurik ez ematea eta, bereziki, lege honetako 30.1 artikuluan aipatutakoen erakorrik.

b) Telebista-emanaldietan bete beharreko betekizun horiek, aurreko letran aipatutakoak, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak diren irratiko kanalen eta zerbitzuen bidezko emanaldietan ere bete beharko dira.

3.- Telekomunikazio eta telematika bidezko beste bitarteko batzuei dagokionez, administrazio publikoek zaindu egin beharko dute haurrak eta nerabeak, sistema horien bidez, ez direla beraien garapenerako kaltegarri izan daitezkeen zerbitzuetara sartu ahal, eta, bereziki, lege honetako 30.1 artikuluan azaldutako edukien antzekoak dituztenara.

4.- Galarazita dago argitalpenetan haurren eta nerabeen izenak, irudiak edo haien buruzko beste-lako datu batzuk hedatzea, Adingabearren gaineko babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen) eta 1/1982 Legeak (maiatzaren 5koa, ohorearen, norberaren eta familiaren intimitatearen eta bakoitzaren irudiaren babes zibilari buruzkoa)

eta lege honetako 10. artikulua ezarritako moduan.

32. artikulua.- Publizitate babestea.

1.- Haurrentzat eta nerabeentzat egiten den publizitateari dagokionez:

a) Haur eta nerabeentzat egindako publizitateak, Nafarroako Foru Komunitatean hedatzen denak, honako betekizun hauek bete beharko ditu, haien eskubideak behar bezala babestearren:

– Iragarkiek ezingo dute bortxakeriarik, pornografiarik edo giza harremanen esplotaziorik erakutsi, ez eta tratu laidogarririk ere; orobat, ezingo dute delitu-jarduerak egitera zirikatu, edo elkartasunik eza edo inoren aurkako bereizkeriarik eragin honako arrazoi hauetako batengatik: jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo beste edozein ezaugarri edo egoera pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik.

– Iragarkiek ezingo dute zirikatu osasunerako kaltegarriak diren jokabideetara edo jardueretara.

– Haur eta nerabeentzako produktuen irudiak, prestazioak eta erabilera zuzena era ulergarrian eta egiazkoan erakutsiko dira, eta, horretarako, haur eta nerabeen garapen-mailari egokitutako hizkera erraza erabiliko da.

– Iragarkiek ezin dute bereizketarik ez bereizkeriarik egin iragarritako objektuaren kontsumoaren arabera.

– Iragarkietan ezingo da ondasunak edo zerbitzuak emanen direla agindu, baldin eta horiek eskuratzeko argi azaldu ez diren baldintzak bete behar badira.

– Iragarkiek ezingo dituzte haurrak eta nerabeak produktu bat edo zerbitzu bat erostera zirikatu haien esperientziarik ezaz edo sinesberatasunaz baliatuta; orobat, ezingo dituzte haurrak edo nerabeak zirikatu, beren gurasoak, tutoreak, zaintzaileak edo beste edonor limurtzera, dena delako produktua edo zerbitzua eros diezaieten.

– Iragarkiek ezingo dute esplotatu haurrek eta nerabeek beren gurasoengan, tutoreengan edo zaintzaileengan, edo irakasleengan edo beste pertsona batzuegan duten konfiantza, inoiz ere ez.

– Iragarkiek ez dituzte agertu behar egoera arriskutsuetan dauden edo sexu jarduera edo jokabideetan ari diren haur edo nerabeak.

– Iragarkiek ez dituzte sortu behar haur eta nerabeengan helduei dagozkien igurikpenak, adibidez, ekonomia-arrakastarekin zerikusia dutenak.

b) Galarazita daude haur eta nerabeen nortasunaren garapenerako kaltegarriak izan daitezkeen edukiak dituzten publizitate-mota guztiak, leku hauetan guztietan: 29. artikuluan aipatzen diren jokoetarako lokaletan nahiz ikuskizun publikoetan zein jolas-jardueretan; Nafarroako Foru Komunitatean zabaltzen diren argitalpenetan, batez ere haurrentzat eta nerabeentzat direnetan; telebistan edo irratian haurrentzako eta nerabeentzako babes bereziko ordu-tarteetan ematen den publizitatean, eta beste edozein telekomunikazio edo telematika bitartekoren bidez, haurrak eta nerabeak sartzera haizu diren zerbitzuetan.

c) Haur eta nerabeak babestuta egongo dira edari alkoholduen eta tabakoz egindako produktuen publizitateak, indarrean dagoen legediak ezarritako eran.

2.- Haurrak eta nerabeak protagonista dituen publizitateari dagokionez (Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean zabaltzen den publizitatea, esan nahi da):

a) Haurrak eta nerabeak ageri diren publizitate-irudiek ez dute kontsumo itsua egitera bultzatu behar.

b) Galarazita dago haurrak eta nerabeak erabiltzea honelakoak iragartzeko: edari alkoholduenak, tabakoa, edo haur eta nerabeentzat debekatuta dauden jarduerak; pornografia-edukia duten jarduerak; giza harremanen esplotazioa eragiten dutenak; tratu laidogarria erakusten dutenak; delitu jarduerak egitera zirikatzeko dutenak, edo elkartasunik eza edo inoren aurkako bereizkeria eragiten dutenak arrazoi hauetako batengatik: jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo beste edozein ezaugarri edo egoera pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik; edo haien garapenerako kaltegarria izan daitezkeen beste edozein eduki agertzen dutenak.

3.- Ministerio fiskalari eta haurrak eta nerabeak babesteko arloan eskumena duten administrazio publikoei dagokie legez kontrako publizitatea eteteko eta zuzentzeko akzioak erabiltzea –legezkotasuna duten beste subjektu batzuei ere badagokio ere–, Adingabearen gaineko babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 5.5. artikuluan ezarritakoaren arabera (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen lege horrek).

33. artikulua.- Kontsumoaren aurrean babesa ematea.

1.- Produktuen kontsumoari dagokionez:

a) Kontsumoaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuak zaindu egin behar du haurren eta nerabeen eskubideek eta interesek defentsa eta babes bereziak izan ditzaten, beharrian eta ezaugarri bereziak dituzten kontsumitzaileak direnez geroztik.

b) Haurrek eta nerabeek kontsumitu edo erabili ahal ditzaten, produktuak honako betekizun hauek bete behar dituzte:

– Ezin dute gai kaltegarriak eduki –indarrean dagoen legediak ezartzen duen bezala–, eta agerian izan behar dute beren osaera, ezaugarriak, erabiltzeko modua eta zein adinetako haur eta nerabeentzat diren jakiteko behar beste informazio.

– Egokiak direla bermatzeko behar diren neurri guztiak bete behar dituzte, egokiak hala beren erabilera izan den horretarako nola gaizki erabiltzeagatik sor daitezkeen ondorio txarrak saihesteko.

c) Indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera, galarazita egongo da edari alkoholduenak eta tabakoa zein tabakoz egindako produktuak hamazortzi urtetik beherakoei saltzea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, bere eskumenen esparruan, zaindu egin behar du farmazia-produktuen araudia bete dadin; batez ere, sendagaiak egin eta aurkezteko eran istripuak prebenitu behar dira, zentzuzko era batean, haurren eta ahalmen-urritasunen bat duten pertsonen istripuak oroz gain.

e) Kontsumoaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuak zaindu egiten du detergenteak eta, oro har, garbiketarako produktuak istripuak prebenitzeko moduan aurkeztuko direla (zentzuzko era batean prebenituko direla), eta, batez ere, irekitzea eragozteko segurtasun-sistemak edukiko dituztela; orobat, ez dela kolore eta zapora deigarriak erabiliko.

2.- Zerbitzuei dagokionez:

a) Haurrentzako eta nerabeentzako jolas-gune publikoek leku egokietan egon behar dute kokatuta, eta elementu arriskutsuetatik urruti edo babestuta, beti. Segurtasun-neurri egokiak bermatzeko moduan egongo dira prestatuta, eta, ahal dela, haurrak eta nerabeak jagoteko eta, aldi berean, adinaren arabera taldeetan banatzeko aukera eman behar dute, eta lau urtetik beherako haurrentzat bakarrik izan diren lekuak ere eduki behar dituzte.

b) Ahalmen-urritasunen bat duten haurrek eta nerabeek aurreko letran aipatutako jolas-gunetara sartzeko eta horietaz gozatzeko duten eskubidea

bermatu behar da, indarrean dagoen legediaren arabera.

c) Ikuskizun publikoek eta gainerako jolas-jarduerak istripuak eragozteko eta erabiltzaileentzako arriskuak saihesteko behar bezala prestatutako langileak eduki behar dituzte, eta kasuan-kasuan auto-babeserako nahitaezkoak diren neurriak eduki behar dituzte ezarrita, Nafarroako Babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

d) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak arautu egin behar ditu haurrak eta nerabeak sar daitezkeen jolas-gune publikoetan egiten diren jardueren ezaugarriak, bai eta jolas-gune horiek zaintzeko neurriak ere.

e) Hamasei urtetik beherako haur eta nerabeek, gurasoen, tutoreen edo legezko zaintzaileen berriazko baimenik gabe, hoteletan edo antzeko lekuetan ostatu eskatzen dutenean, hoteleko edo antzeko leku horretako arduradunak jakinarazi egin behar die guraso, tutore edo legezko zaintzaileei, eta, ezin bada, poliziarri, guraso, tutore edo legezko zaintzaile horiek aurki ditzan.

3.- Haur eta nerabeentzat galarazita egongo da dirua edo balio ekonomikoa duten gauzak jokatzeko diren zorte eta dema jokoetan parte hartzea, orobat diru-saria ematen duten jolas-makinak erabiltzea edo apustuetan parte hartzea, Jokoa arautzen duen ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legeak ezarritakoaren arabera. Galarazita izanen dute, orobat, jolas-makinak erabiltzea, baldin eta horien edukia lege honetako 30.1 artikuluan azaldutakoa bada.

V. KAPITULUA

Aisialdi aktiborako eskubidea

34. artikulua.- Jolaserako eta kirolerako eskubidea.

1.- Haur eta nerabe guztiek dute eskubidea atsedean hartzeko, jolasteko eta beren adineko jolas-jardueretan parte hartzeko, beraien garapenerako funtsezkoa baita hori. Eskubide hori erabiltzen dela bermatzeko, administrazio publikoek beharrezkoak diren instalazioak eta jolas-eremuak sortzea sustatuko dute.

2.- Jolasak eta jostailuak haur eta nerabeen beharrezkoak diren egokitu beharko zaizkie eta, adinaren arabera, haien psikomotrizitatearen garapenerako lagungarri izan behar dute, indarrean dagoen araudian eskatzen diren segurtasun-betekizunak aintzat hartuta.

3.- Haurrek eta nerabeek eskubidea dute kirolak eta jarduera fisikoak egiteko, eta saihestu egin behar da jarduera horietan lehiakortasuna lehenbiziko baliozkat sustatzea. Lehiaketa-kiroletan parte hartzea borondatezkoa izan beharko da, beti, eta entrenamendu plan eta metodoek errespetatu egin beharko dituzte haien egoera fisikoa eta hezkuntza-beharrizanak.

Arloan eskumena duten administrazioek eta federazioek idatz-zati honetan ezarritakoa betezen dela zainduko dute.

35. artikulua.- Administrazioak aisialdi aktiboaren arloan jarduteko printzipioak.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, betebeharrak izanen dituzte:

a) Haur eta nerabe guztiei aisialdi-aukera berdina eskaintzea, eta, horretarako, bereizketa positiboko ekinbideak xedatzea, haur eta nerabe guztiak barne hartuta, batez ere ekonomia, gizarte edo kultura maila apalagoa dutenentzat eta zailtasun pertsonalak dituztenentzat.

b) Aisialdiko jardueren antolaketa sustatzea auzoetan eta udalerrietan, hala erakunde publikoetatik arituz nola auzokideen eta elkarten ekimenekin lagunduz.

c) Kirol eta aisialdi jardueretan parte hartzea sustatzea, hala eskolan nola komunitatean.

d) Haurren eta nerabeen elkarteak eratzeko ohitura sustatzea aisialdiaren eta kirol eta jolas jardueren arloan.

e) Kirol eta aisialdi jardueren heziketa-alderdia indartzea.

VI. KAPITULUA

Ingurumenerako eskubidea

36. artikulua.- Ingurumenerako eskubidea.

Haur eta nerabe guztiek dute eskubidea ingurumen osasungarrian bizitzeko eta ingurumen horretan garapena iraunkorra izan dadin; eskubidea dute, orobat, Nafarroako Foru Komunitateko ingurumena ezagutzeko eta hartaz gozatzeko.

37. artikulua.- Administrazioak ingurumenaren arloan jarduteko printzipioak.

Administrazio publikoek, ingurumenari dagokionez:

a) Haur eta nerabe guztiei ingurumenaz eta naturaz gozatzeko aukera berdina eskaintzea behar dizkiete, eta, horretarako, bereizketa positiboko ekinbideak xedatuko dituzte, haur eta nerabe guztiak barne hartuko dituztenak, batez ere ekonomia,

gizarte edo kultura maila apalagoa dutenentzat eta zailtasun pertsonalak dituztenentzat.

b) Haurren eta nerabeen artean naturaren ezagutza eta errespetua indartu behar dute, ingurumen osasungarri batek zer-nolako garrantzia duen informatuz.

c) Bisita eta ibilbide programatuen antolakuntza sustatu behar dute.

d) Prestakuntzarako, hedapenerako eta kontzientzia sorrarazteko programen antolakuntza sustatu behar dute, honako gai hauen gainean: hondakinen minimizazioa, birziklapena eta tratamendua, baliabide naturalen erabilera arduratsua eta ingurumena zaintzeko ohitura positiboak hartzea.

VII. KAPITULUA

Ingurunerako eskubidea

38. artikulua.- Ingurunea ezagutzeko eta ingurune horretan parte hartzeko eskubidea.

Haurrek eta nerabeek eskubidea dute beren herria edo hiria ezagutzeko eta oro har beren inguruaz eta bereziki haur eta nerabeentzako ekipamenduetarako lekuez gozatzeko.

39. artikulua.- Administrazioak ingurunearen arloan jarduteko printzipioak.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, betebeharrak izanen dituzte:

a) Haurren eta nerabeen berezko beharrezko kontuan hartzea hirietako guneak planifikatzerakoan; beraz, hirigintza-planetan edo arau subsidiarioetan haurrentzako eta nerabeentzako erabilera eta ekipamenduetarako lurzorua gorde beharko dute.

b) Gune publikoetan haur eta nerabeentzat bereizitako lekuak izanen direla ziurtatzea, haien beharrezko eta indarrean dagoen araudiak eskatutako segurtasun-betekizunei egokitutako hiri-altzariz hornituak, eta, beti, ahalmen-urritasunen bat duten haur eta nerabeak ibiltzeko oztoporik gabekoak. Bide batez, leku irekietan edo aire zabalean egon ezean, kerik gabeko guneak direla bermatuko da.

c) Hezkuntza-zentroen inguruko lekuetan edo haur edo gazteentzako beste zentro edo guneen ingurukoetan sarbideen segurtasuna bermatzea, eta, ahal dela, sarbide horiek oinezkoentzako esparru bihurtzea.

d) Hurrei eta nerabeei bide-segurtasunaren gaineko heziketa emanen zaiela bermatzea.

e) Mugitzeko zailtasuna duten haur eta nerabeen parte-hartzea eragotz edo muga dezaketan

oztopoak, arkitekturaren edo hirigintzaren aldetik izan daitezkeenak, ezabatu egingen direla bermatzea, martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeak (Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea aldatzekoa) ezarritako eran.

VIII. KAPITULUA

Gizarteratzeko eskubidea

40. artikulua.- Gizarte integratzearako eta babeserako eskubidea.

Haur eta nerabe guztiek dute eskubidea erabat gizarteratzeko eta gizarte-zerbitzuen sare publikoak horretarako eskaintzen dituen bitarteko guztiak erabili ahal izateko.

41. artikulua.- Administrazioak gizarteratzearen arloan jarduteko printzipioak.

1.- Administrazio publikoen gizarte-zerbitzuak arautzen dituen martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legeak ezarritakoari jarraituz, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, betebeharrak izanen dituzte:

a) Haur eta nerabe guztiei bermatzea banaka eta familian dituzten beharrezko ondoren egokitzen zaizkien gizarte-zerbitzuez baliatu ahal izan direla, hala oinarrizko gizarte-zerbitzuez nola espezializatuez.

b) Beren jarduketak koordinatzea eta gizarte-zerbitzuen sare publikoekin, osasun-zerbitzuen sareekin eta hezkuntza-sareekin elkarlanean aritzea, beharrezko errazago ezagutzeko eta esku-hartze laster eta eraginkorak bideratu ahal izateko.

c) Gizarte-zerbitzuak badirela jakinaraztea eta haien funtzionamenduaz informazioa ematea, hizkera erraz eta argiaz idatzitako informazio-orriak –haur eta nerabeentzat nahiz haien familientzat ulerterrazak– zabalduz.

d) Gizarte-zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendua zerbitzuak jasotzen dituzten haur eta nerabeen nahiz haien familien beharrezko egokitzea.

2.- Gizarteratzeari begira gizarte-zerbitzuek haur eta nerabeentzat sustatzen dituzten zentro eta zerbitzuak Gizarte zerbitzuen martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legean eta hura garatzeko xedapenetan aurreikusitako baimen, erregistro, homologazio eta ikuskaritza erregimenaren pean egongo dira.

42. artikulua.- Haurrei eta nerabeei informazioa emateko zerbitzuak.

1.- Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, gizarteari informazioa emateko zerbitzuak sortuko dituzte, haur eta nerabeei laguntza eskaintzeko. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, gizarte-gaietan eskumena duen departamentuaren bitartez, informazio eta orientazio zerbitzu bat eskainiko du, eta harekin telefono bidez edo posta elektronikoaren bidez harremanetan jartzeko doako sistema batez hornituko du; adingabe guztiek jo ahal izanen dute zerbitzu horretara, edozein arrazoi pertsonal edo sozial dela-eta aholkularitza eta laguntza behar dutenean.

2.- Zerbitzu hau izanen da 17.4 artikuluan ezarritako moduan orientabideak emateko ardura izanen duena.

3.- Zerbitzu hau kudeatzeaz arduratzen den Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak beharrezko neurriak hartuko ditu pertsona guztiek zerbitzu horren berri izan dezaten eta horretara jotzeko modua ezagut dezaten.

43. artikulua.- Haurrentzako zerbitzu eta programak familiaren aldeko jardunean.

1.- Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, haurrentzako zerbitzu eta programak sortuko dituzte, familiaren alde, bai eta horien sorrera sustatuko ere.

2.- Lege honen ondorioetarako, hauek dira familiaren alde haurrentzat prestatzen diren zerbitzu eta programak: haur eta nerabeek eta haien senitartekoei dituzten beharizan pertsonal, sozial edo hezkuntzakoei erantzuteko eskaintzen zaizkienak, hala haurtzaindegi-zerbitzua eskaintzen duten eguneko zentroen bidez nola familian eta gizartean erabat integratzeko egoki irizitako beste modu batzuen bidez.

44. artikulua.- Helduarora igarotzeko programak.

1.- Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, helduarora igarotzeko programak sortuko dituzte, bai eta horien sorrera sustatuko ere.

2.- Lege honen ondorioetarako, hauek dira helduarora igarotzeko programak: nerabeei bizimodu heldu eta beregainari dagozkion jardura eta erantzukizunetarako prestakuntza eskaintzen zaizkienak.

IX. KAPITULUA

Haurren eta nerabeen betebeharrak

45. artikulua.- Haurren eta nerabeen betebeharrak.

1.- Haurrek eta nerabeek beren gain hartu behar dituzte, eta bete, ezagutzen zaizkien eskubideen erabilerari eta titularitateari berez dagozkien edo horietatik sortzen diren betebeharrak, obligazio eta erantzukizunak, gainerako pertsonak ere eskubide horiek bete-betean erabili ahal izanen dituztela eta haietaz gozatu ahal izanen direla bermatzen.

2.- Gizartearen bizikidetasun eskaerarekin bat datorren gizalegezko jokabidea izatea, tolerantzia eta gainerako pertsonen eskubideen errespetua oinarri.

III. TITULUA

Haurren eta nerabeen babesa

I. KAPITULUA

Familia babesteko ekintza

46. artikulua.- Haurrak eta nerabeak hazteko eta hezteko erantzukizuna.

1.- Haurrak eta nerabeak hazi eta hezteko erantzukizun oinarrizkoa aitari eta amari, tutoreari edo haien zaintza esleitu zaien pertsonari dagokie, indarrean dagoen legediak ezarritako eran. Erantzukizun hori gauzatzeko orduan, bermatu egin behar dituzte, ahal duten neurrian, haurren eta nerabeen garapen integrala lortzeko beharrezko bizi-baldintzak.

2.- Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, zaindu egin behar dute gurasoek, edo guraso izanen direnek, tutoreek eta zaintzaileek beren erantzukizunak era egokian bete ditzaten, eta, horretarako, haur eta nerabeei eragiten dieten arlo guztietan diren zerbitzu guztiak jarriko dituzte haien eskura, baita diru-prestazioak ere, baldin eta horietarako eskubidea badute, bereziki oinarrizko errenta edo kasu bakoitzean aplikatzeko den bizi-raupen-prestazioa.

3.- Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, ordezkotza izanen dira haur eta nerabeak hazi eta hezteko eginkizunean.

47. artikulua.- Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetarako eskubidea eta elkarbizitza.

1.- Haurrek eta nerabeek eskubidea dute beren gurasoekin bizitzeko, indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera bereiztea beharrezkoa denean izan ezik Era berean, eskubidea dute beste senitarteko eta hurbileko batzuekin bizi eta

harremanak izateko, Kode Zibilaren 160. artikuluan ezarritako moduan, batez ere aitona-amonekin.

2.- Aitarekin edo amarekin edo bietako batekin ere ez badira bizi, haur eta nerabeek eskubidea dute haiekin harremanak izateko, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ezarritako eran eta hark jarritako mugen barruan.

3.- Aurrekoarekin lotuta, eta familia barruko gatazkak konpontzeko ordezkoko bide bat eskura jartzeagatik, Nafarroako Gobernuak familia-bitartekaritzara arautu eta sustatuko du. Era berean, guraso eta seme-alaben arteko harremana bermatzeko modua emanen duten elkarguneak sortzea sustatuko du, egoera dela-eta bisita jagotea komeni denean edo elkargunea neutroa izateak harremanari on egin liezaiokeela uste denean.

II. KAPITULUA

Administrazioaren babesaren arrisku eta geriza-gabetasuneko egoeretan

1. ATALA

Xedapen orokorrak

48. artikulua.- Administrazio-jardunaren printzipio eta irizpide gidariak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren organo eskudunak, beren eskumenen esparruan, haur eta nerabeei babes soziala eta juridikoa eskainiko diete, honako printzipio hauei jarraituz:

a) Jarduketa guztietan, haur eta nerabeen interes gorenak eta haien eskubideen babesak eta eskubide horien garapenaren bermeak beste edozein interes bidezkoen gainetik duten lehentasuna errespetatuko da.

b) Prebentzio-ekintzei emanen zaie lehentasuna, eta, horren haritik, familia-integrazioari laguntzeko ekintza publiko eta pribatuak sustatuko dira, eta, batez ere, arrisku-egoeran dauden familietan egingen da esku-hartzea.

c) Ahal bada, beren familian bertan emanen zaie arreta haur eta nerabeei. Ikusten bada guraso, tutore edo zaintzaileek akatsak eta jokabide okerrak dituztela laguntzeko eta zaintzeko betebeharreran, familiaren barruan esku hartzeko programak eskainiko zaizkie, orientagarri.

d) Beharrezkoa bada, haur eta nerabeei beren familiez besteko baliabideak eskainiko zaizkie, beren garapen integrala lortzeko behar duten inguru egokia eta beren nortasunaren bilakaera taxuzkoa bermatuko dutenak, betiere anai-arreben arteko elkarbizitzari eutsiz; azken hori ezinezkoa

balitz, anai-arreben artean dauden harremanek iraun dezatela erraztuko da. Hala jokatuko da baldin eta harreman horiek adingabearentzat kaltegarriak ez badira.

e) Haurraren edo nerabearen interes gorenak, haren eskubideen babesak eta eskubide horien garapena bermatzeko egokia denean, ahal bada, beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira elkarbizitza berreskuratzeko, dela jatorrizko familiaren barruko elkarbizitza, dela familiako beste kide batzuekikoa.

f) Ordezko baliabideen artean, lehentasuna izanen du beste familia batean sartzeak, ahal bada, eta haur eta nerabe bakoitzaren beharrezkoekin bat badator.

g) Entitate publiko batek haur edo nerabe baten zaintza edo tutoretza bere esku duenean, haren guraso, tutore edo zaintzaileei jakinarazi behar die haren egoera, baldin eta epaile baten ebazpenak ez badu eragozten.

h) Administrazioaren esku-hartzeak ahalik eta txikiak izanen dira, babesteko eginkizuna eraginkortasunez betetzeko behar-beharrezkoak direnak baizik ez; bestalde, prozedurek utzi bezain laster jardungo da.

i) Babes-eginkizunean, objektibotasuna, alderdikeriarik eza eta segurtasun juridikoa bermatuko dira, eta ahalegina egingen da neurriak kide anitzeko organoen bitartez eta hainbat diziplinatarako kideen bitartez har daitezten.

j) Eskumena duten administrazio publikoek zaindu egingen dute arrisku edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeei gizarte-erreta ematen lan egiten duten langileak egokiak izan daitezten bete behar dituzten eginkizunak betetzeko. Horretarako, esku-hartze horien hartzailen izanen diren adingabeen beharrezkoen berri eta askotarikoei erantzuteko balioko duten prestakuntza-programak taxutuko dira.

Era berean, funtzio publikoa arautzen duen araudiaren barruan, langile profesionalen egokitasuna bermatzeko moduko hautaketa-prozedurak ezarriko dira adingabeen interes gorenak, haien eskubideen babesak eta eskubide horien garapenaren bermea zaintze aldera. Babes-jarduketan esparruaren barruan ere horrelakoxe neurriak hartuko dira adingabeei laguntzen parte hartzen duten boluntarioak hautatzeko.

k) Esku-hartze orotan, haurraren edo nerabearen eta haren familiaren lankidetzara lortzeko ahalegina egingen da; orobat, haurraren edo nerabearen eskola, gizarte edo lan bizitzari kalterik ez eragiteko ahalegina egingen da.

l) Ahalegina eginen da gizartea ohar dadin defentsa-gabezia dauden haurrez eta nerabeez.

m) Eskumena duten administrazio publikoek familia-harrera eta adopzioa sustatu eta erraztu eginen dituzte. Era berean, gizartearen parte-hartzea eta elkartasuna ere sustatuko dituzte.

n) Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legean aurreikusitako printzipio orokorrak aplikatuko dira.

2. ATALA

Arrisku eta geriza-gabetasuneko egoeretan jardutea

49. artikulua.- Babesteko jarduketak.

1.- Lege honen ondorioetarako, haurrak eta nerabeak babesteko honako neurri eta jarduketa hauek burutuko dira: batetik, haurrek eta nerabeek jasan litzaketan arrisku eta geriza-gabetasuneko egoerak prebenitzea eta egoera horietan esku hartzea eta, bestetik, haur eta nerabe horien garapen integrala bermatzea eta familia-bizitza arrunta sustatzea, betiere adingabearen interesari lehen-tasuna emanaz.

2.- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren organo eskudunak talde espezializatuak izanen ditu; horien osaera, eginkizunak eta nori dauden atxikiak erregelamenduz ezarriko da.

Talde espezializatuetak langileak beren eginkizunetan ari diren agintaritzat hartuko dira. Langile horiek edozein administrazio-organoren laguntza eta lankidetzat eskatu ahalko dute, eta hark foru lege honetan araututako jarduketak betetzeko beharrezkoak diren informazioa eta laguntza aktiboa eman beharko ditu.

3.- Oinarrizko gizarte-zerbitzuek eta talde espezializatuak, arrisku eta geriza-gabetasuneko egoerak zehazte aldera, horretarakoxe ontzat emandako tresna teknikoak aplikatuko dituzte, azken xedapenetako lehenbizikoan ezarritako eran.

4.- Babesgabetasun-egoera bat edo gizartegatazkako egoera bat deklaratu beharri buruz eta hartu beharreko babes-neurriei buruz informatzeko, balorazio batzorde bat sortuko da, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren talde espezializatuetak kideez osatua. Balorazio batzordearen eraketa, eginkizunak, ezaugarriak eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

50. artikulua.- Agintarien eta herritarren betebeharrak.

1.- Bai agintariak eta zerbitzu publikoak bai herritarrek, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko haur edo nerabe bat arrisku edo geriza-gabetasuneko egoera batean egon daitekeela ikusten dutenek, haur edo nerabeari laguntza berehala eskaintzeko betebeharra dute, eta, beren eskumenean badago, jarduteko, edo bestela, eskumena duten agintariei edo haien agente gertukoenei jakinarazteko; orobat, adingabearen legezko ordezkariak jakinarazi behar dizkiete egitateak, edo, beharrezkoa bada, fiskaltzari ere bai.

2.- Eskumena duten administrazioek agintari- en, zerbitzu publikoen eta pertsona fisikoen segurtasuna zainduko dute, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko adingabearekin harremanetan direnena, bereziki gatazkatsuak diren prozedura administratiboetan.

Era berean, eskumena duen fiskalari baimena eska dakioke prozeduretan norberaren nortasuna ezkutuan edukitzeko eta prozeduraren aplikazioak legezko interesari kalterik ez eragiteko moduan parte hartzeko.

3. ATALA

Arrisku-egoeretan jarduteko jarraibideak

51. artikulua.- Arrisku-egoeraren kontzeptua.

Arrisku-egoerak dira haurren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egin diezaioketen egoerak, geriza-gabetasuneko egoeratzat jo ezin daitezkeenak eta, hortaz, legeak agindutako tutoretza ezartzea eskatzen ez dutenak.

Arrisku-egoera agertuko da, gizartearen, familiaren edo adingabearen beraren gorabeheren ondorioz, adingabearen garapena eta ongizatea mugatuta edo kaltetuta gertatzen badira eta gurasoek, tutoreek edo zainzaileek ez badituzte beren gain hartzen haurren edo nerabearen garapen egokia bermatu ahal izateko erantzukizunak, edo erantzukizun horiek osorik beren gain ez hartzea gerta badaiteke. Betiere egoera hori babesgabetasun-egoera bilakatzeko bezain larria ez bada edo haurra edo nerabea familia-gunetik bereizteko adinakoa.

52. artikulua.- Arrisku-egoeretak jarduketak.

1.- Arrisku-egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko arloan eskumena duten administrazio publikoek haien eskubideak bermatu egin behar dituzte, bai eta haien beharrezanetan laguntza emanen dela ziurtatu ere. Arlo honetan egiten diren jarduketa publikoak haurren, nerabeen eta

horien familien moldatze pertsonala eta sozialean eragin negatiboa duten arrisku-faktoreak desageraraztea izanen dute helburu. Horretarako, honako hauek sustatuko dira: gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen laguntza, adingabeei eta haien familiari laguntzeko bitartekoen erabilera, komunitatearen esparruko esku-hartzea, bai eta orientabidea emateko eta jarraipena egiteko zerbitzuak ere.

2.- Eskumena duten administrazio publikoek jakiten badute nasciturusaren garapen egokia arriskuan dagoela, fiskaltzari jakinaraziko diote, jaio arte behar duen ongizatea bermatzearren bidezko deritzen neurriak har ditzan. Hala ere, horrek ez die ezertan eraginen Haurduntzaren borondatezko etendurari buruzko uztailaren 5eko 9/1985 Lege Organikoan aurreikusitako kasuei.

3.- Adingabeak babesteko arloan eskumena duten Nafarroako administrazio publikoek, betiere, aurkitutako edo salatutako egoera egiaztatzeko betebeharra izanen dute; orobat, kasuak agertzen dituen ezaugarriak eta beharrianak ebaluatzeko betebeharra izanen dute, eta kasua ebaluazio horren emaitzaren arabera ebatzearren beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra ere bai.

53. artikulua.- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea.

1.- Arrisku-egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek kasua hartu eta ikertu egin beharko dute, baloratu eta bideratu, eta, beharrezkoa baderitzote, komunitatearen esparrutik esku hartu beharko dute.

Haurraren babesgabetasun-egoera oso larria dela iruditzen bazaie, esku-hartze espezializatuen beharra dagoelako edo, are gehiago, adingabea bere familia-ingurunetik bereizi behar delako, kasua haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzu espezializaturara igorri beharko dute.

2.- Baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek uste badute komunitatearen esparrutik esku hartu behar dutela, kasu bakoitzerako arreta-plan bat egin beharko dute, eta, bertan, aurkitutako beharrianei erantzuteko taxutu dituzten esku-hartzeak zehaztuko dituzte.

3.- Oinarrizko gizarte-zerbitzuek behar diren langileak izanen dituzte ezarritako helburuak betetzeko.

54. artikulua.- Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuen esku-hartzea.

1.- Babesgabetasun larriaren zantzuak ageri diren egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuek hartu egin behar-

ko dute kasua, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuak edo beste edozein erakundek edo pertsonak jakinarazi diena, eta ikertu egin beharko dute eta balorazio osagarri bat egin, egoeraren larria zehazteko eta kasua nola bideratu erabakitzeko. Eta egoera larria dela baieztatzen bada, zerbitzu espezializatuak berak esku hartu beharko du, oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin elkarlanean; egoeraren arriskua txikia edo ertaina denean, aldiz, eta zerbitzu espezializatuen esku-hartzea beharrezkoa ez denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuari igorri beharko dio.

2.- Baldin eta kasua ez bazaio igortzen oinarrizko gizarte-zerbitzuari, zerbitzu espezializatuak, aldiro-aldiro, adingabearen egoeraren berri eman beharko dio oinarrizko gizarte-zerbitzuari, eta ahallegina egin beharko du haurraren edo nerabearen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen arteko harremanek jarrai dezaten, haurra edo nerabea familia-egoitzara itzultzen bada ere, harremanak eta jarraipena erraztearren. Oinarrizko gizarte-zerbitzuari berri emateko betebehari hori salbuetsi egin daiteke familiaren egoitzara itzultzeko aukerarik aurreikusten ez denean. Oinarrizko gizarte-zerbitzuek, bestalde, egoki iruditzen zaien guztietan, informazioa eskatu ahal izanen dute zerbitzu espezializatuera igorri dituzten kasuen bilakaerari buruz.

3.- Haurrak eta nerabeak babesteko arloan eskumena duten administrazio publikoek presazko prozedura bat eduki beharko dute araututa, profesionalen iritziz berehala konpondu beharrezkoak diruditen egoerei ahalik eta lasterren erantzuteko.

55. artikulua.- Familietan esku hartzeko zerbitzu eta programak.

1.- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren organo eskudunak, beren eskumenen esparruan, arrisku-egoerei erantzute aldera, familietan esku hartzeko programak sortu eta sustatu egingen dituzte.

2.- Lege honen ondorioetarako, familietan esku hartzeko programak dira familiei gizarte eta hezkuntza lagunza eskaintzen dietenak, familia horiek arlo pertsonalean zein gizartearen eta hezkuntzaren arloetan trebetasun-gabeziak badituzte eta gabezia horiek haur eta nerabeentzako arrisku-egoera sor badezakete, familiaren baitan irautea ere zailteraino, alegia.

3.- Familietan esku hartzeko programak era hauetakoak izan daitezke:

a) Oinarrizkoak: familia-egoitza aplikatzekoak, etxe barruko hezkuntza-programak esate batera-

ko; edo komunitate-ingurunean aplikatzekoak, kale-hezkuntzako programak hain zuzen.

b) Espezializatuak, hala nola, arazoak dituzten familietan esku-hartze terapeutikoak egiteko zerbitzuak; tratu txarrak, abandonua edo esplotazioa dauden egoeretan –lan-esplotazioa barnean izanik– esku hartzeko zerbitzuak, bai eta sexu-abusuak daudenean ere esku hartzeko zerbitzuak.

4.- Familietan esku hartzeko programen xedea, arrisku-egoeretan, haur eta nerabeek familiaren gunean jarraitzea izanen da. Horrez gain, gerizagabetasuneko egoeretan, programa horiek eta familia-harrerako neurriak edo erakunde-harrerako neurriak aldi berean aplikatu ahal izanen dira, etxe barruko elkarbizitza hobetzearen eta ondoren adingabea bere jatorrizko familia-gunera biltzearen, 61.3 artikuluan aurreikusitako moduan.

4. ATALA

Geriza-gabetasuneko egoeretan jarduteko jarraibideak

56. artikulua.- Geriza-gabetasuneko egoeraren kontzeptua.

Kode Zibilaren 172.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, geriza-gabetasuneko egoera dagoela joko da egitez hala gertatzen denean arrazoi hauetako bat tarteko: adingabeen zaintzari buruz legeak ezartzen dituzten babes-betebeharrak ez bete-tzeagatik edo betebeharrak horien egikaritzea ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala.

57. artikulua.- Geriza-gabetasuneko egoeretak jarduketak.

Haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen administrazio publikoak uste baldin badu haurra edo nerabea geriza-gabetasuneko egoeran dagoela, Kode Zibilaren 172. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jardungo du. Horretarako, bere gain hartuko du delako haur eta nerabearen tutoretza, eta babes-neurri egokiak erabakiko ditu. Hori guztia fiskaltzari jakinaraziko dio.

58. artikulua.- Prozedura arrunta.

1.- Adingabeak babesteko eskumena duen administrazio publikoak jakiten duenean haur edo nerabe bat geriza-gabetasuneko egoeran egon daitekeela, espediente bat hasi beharko du, eta espediente hori honako jarraibideen arabera tramitatuko da:

a) Adingabearen familia-egoera zein egoera soziala ezagutzeko eta baloratzeko garrantzizko

datuak eman ditzaketen pertsona nahiz erakunde guztiei informazioa eskatuko diete, batez ere oinarrizko gizarte-zerbitzuei.

Beharrezkoa iritiz gero, eskolako tutoreari eta familiako medikuari edota pediatrari eskatuko zaio informazioa, edo osasunaren zein gizartearen nahiz hezkuntzaren arloetako beste zerbitzuetako profesionalen bati; profesional horiek idatziz igorri beharko dituzte eskura dituzten informazioak eta datuak, esku-hartzearen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko behar direnak, eta behar adina igorri ere.

b) Arrisku-egoera bat edo babesgabetasun-egoera bat antzemateko eta baloratzeko eginkizunean laguntzen duten erakunde eta profesionali egoera horren bilakaeraren berri ematea, isilpeko-tasun-betebeharrak eskatutako muga barruan, eta, betiere, berri ematea bidegabea ez bada.

c) Haurrari edo nerabeari, nahikoa ezagumen duenean, esateko duena entzutea, berari zuzenez edo bera ordezkatzeko izendatzen duen pertsonari. Ezinezkoa bada, edo adingabearen interesa dela-eta komeni ez bada, adingabearen iritzia jakiteko, lanbideagatik edo adingabearekin aparteko konfiantza izateagatik iritzi hori objektibotasunez eman dezaketen pertsonengana jo ahal izanen da.

d) Haurraren edo nerabearen gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei entzutea, ahal bada.

e) Haurraren edo nerabearen egoeraz eta haren familiaz edo hura zaintzen dutenez informazioa eman dezaketenei entzutea.

f) Adingabeak behar duen arreta berehala eskaintzea, horretarako, hala badagokio, beharrezkoak diren zuzentasun-neurriak edo behin-behineko neurriak hartuta.

g) Haurrari edo nerabeari, bere adimen mailaren eta gaitasunaren arabera, berari dagokion prozedura zein egoeratan dagoen azaltzea, eta halaber gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei ere.

h) Arreta-plan bat egitea bakoitzarentzat, antzemandako beharrezkoen egokituta.

i) Haurraren edo nerabearen gaineko informazio guztia espediente bereizi batean biltzea.

2.- Tramite horiek amaitu ondoren, eskumena duen organoak erabaki egiten du, eta, hala bada, gogokio, administrazio-ebazpen bat emanen du, eta hartan, geriza-gabetasuneko egoera badagoela adierazi, legeak aginduta tutoretza ezarri eta dagozkion babes-neurriak hartuko ditu. Ebazpen hori fiskaltzari jakinaraziko zaio, eta haurraren edo nerabearen guraso, tutore eta zaintzaileei ere bai,

bi egun naturaleko epearen barruan. Ahal den guztietan, jakinarazpen hori, idatziz ez ezik, aurrez aurre ere jakinarazi beharko da.

Ebazteko epea hiru hilabetekoa izanen da, haurrari eta nerabeari babes emateko zerbitzu espezializatuak kasua jasotzen duenetik kontaktzen hasita; epe hori beste hiru hilabetez luzatzeko aukera ere izanen da, ezaugarri bereziak izateagatik legez ezarritako epearen barruan ebaztea ezinezkoa den kasuetan, betiere, arrazoitu egiten bada. Epe hori igarotakoan, iraungipena gertatuko da, salbu eta prozedura interesdunari egotz ezin dakioken kausaren batengatik gerarazten denean; orduan, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa eten egiten baita.

Geriza-gabetasuna badagoela iritzi eta legeak aginduta tutoretza ezarri beharra dagoela ezartzen duten ebazpenetan, esku-hartze horren arrazoiak adierazi behar dira, bai eta hartutako erabaki eta neurrien balizko ondorioak ere. Era berean, hau ere adierazi behar da: badagoela jurisdikzio zibilean ebazpenen aurkako errekurtsioak aurkeztea, administrazioari alde zurretik erreklamaziorik aurkeztu beharrik gabe.

Baldin eta geriza-gabetasunik ez dagoela jotzen bada, eta arrisku arin bat badagoela ikusten bada, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuari igorriko zaio kasua, egokien deritzen neurriak har ditzan.

59. artikulua.- Presazko prozedura.

1.- Haurraren edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikoa babesgabetasun larrian dagoenean eta berehala esku hartzea beharrezkoa denean, presazko egoera batean gaudela joko da.

2.- Eskumena duen organoak, aurreko artikuluko c) letran ezarritako tramitea bete eta berehala, administrazio-ebazpena emanen du, eta hartan, geriza-gabetasuneko egoera deklaratu du –betiere, egoera hori behar bezala egiaztatu bada–, geriza-gabetasunean dagoen haurraren edo nerabearen tutoretza hartuko du bere gain, eta hari laguntzeko behar adina neurri ezarriko ditu. Ebazpen hori fiskaltzari eta haurraren edo nerabearen gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei jakinaraziko zaie. Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera jarraituko da, gero, espediente arruntaren tramitazioa.

Tramite guztiak bete ondoren, eskumena duen organoak administrazio-ebazpena emanen du, dela geriza-gabetasuneko egoera baieztatzeko eta egindako balorazioaren arabera egokienak diren neurriak hartzeko, dela hasieran ezarritako tutoretzaren amaiera adierazteko, hartu diren behin-

behineko neurriak bertan behera uzteko eta espediente artxiboratzeko. Tutoretzaren amaiera adierazten denean arrisku txikia edo ertaina badagoela ikusten bada, kasua dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuari igorriko zaio, egokien deritzen neurriak har ditzan.

60. artikulua.- Erakunde publikoak tutoretza bere gain hartzeak izanen dituen ondorioak.

Adingabeak babesteko eskumena duten administrazio publikoek tutoretza beren gain hartzen dutenean iraungi egiten da horrenbestez gurasoahala edo tutoretza arrunta. Hala ere, ondareari eragiten dioten egintzak, gurasoek edo tutoreek haurra edo nerabea ordezkatzuz egindakoak, baliokoak izanen dira, baldin eta adingabearentzat onuragarri badira.

61. artikulua.- Tutoretza egikaritzea

1.- Eskumena duen administrazio publikoak haurraren edo nerabearen gainean duen tutoretzak indarrean jarraitzen duen artean, era hauetako zaintzaren bat emanen zaie haur edo nerabe horiei, beren beharrezko erantzute aldera:

- a) Famili harrera.
- b) Egoitza-harrera.

Salbuespen gisa, kasuaren ezaugarriak direla eta hala komeni bada, bestelako laguntza-mota batzuk aukeratu ahal izanen dira, adingabearen beharrezko erantzuteko egokiagoak direla jotzen bada, betiere, laguntza-mota horrek ez baldin badakar egoitza-harrerak –78. artikuluan aipagai diren arauak jarraituz– eragiten duen eskubidemurrizketa baino murrizketa handiagoa. Laguntza-mota horiek lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako zerbitzu esperimentalen barruan kokatzen dira.

2.- Tutoretza egikaritzekoan, eskumena duen administrazio publikoak honako neurri hauek susta ditzake:

- a) Familiaren egoitzara itzularaztea.
- b) Tutoretza arrunta ezartzea.
- c) Adopzioa.

3.- Harrera-neurriarekin batera, jatorrizko familiar esku hartzeko programa bat ezarri ahal izanen da, haurra edo nerabe familiararen egoitzara itzultzen denerako etxeko elkarbizitzaren baldintzak hobeak izan daitezen; 55. artikuluan ezarritako eran ezarriko da esku hartzeko programa hori.

62. artikulua.- Tutoretza amaitzeko arrazoiak.

Tutoretza honako arrazoi hauengatik amaituko da:

a) Adin-nagusitasunera iristea edo emantzipazioa eskuratzea, salbu eta aldez aurretik ez bada ezgaitua izan epei bidez.

b) Adingabeari adin-nagusitasunaren onura esleitzea.

c) Tutoretza ezartzea eragin zuten arrazoiek indarra galdu dutela eta, administrazio-ebazpena ematea tutoretza bertan behera uzteko.

d) Administrazio-ebazpena tarteko, adingabea beste babes-erakunde baten esku uztea. Horrelakoetan, entzun egin behar zaio aldez aurretik adingabeari eta, ahal dela, joanen den leku horretan arreta eta babes neurriak egokiak direla egiaztatuko da.

e) Epailearen ebazpen irmoaren bidez, adopzioa edo tutoretza arrunta ezartzea, edo gerizagabetasuneko egoera amaitu dela adieraztea.

f) Tutoretzapean dagoen pertsona hiltzea.

63. artikulua.- Geriza-gabetasuneko egoeraren aurrean hartutako neurriak gauzatzeko oztopoak.

Behin geriza-gabetasuneko egoera dagoela adierazi denean, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek edo senitartekoek oztopatu egiten badute erabakitako neurriak gauzatzeko, edo egoeraren batek eragotzi egiten badu larriki neurri horiek gauzatzeko, fiskaltzari eskatuko zaio har ditzala ahalik eta lasterren neurri horiek gauzatzeko neurriak. Gainera, adingabearen bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan badago edo haren eskubideak urratzen ari badira, berehala esku hartu beharko da. Era berean, polizia-agenteen lankidetzeta eta laguntza eskatu ahal izanen da erabakitako neurriak gauzatzeko, indarrean dagoen legediak aurreikusitako eran eta hedadurarekin.

5. ATALA

Entitate publikoek zaintza beren gain hartzeko eta gauzatzeko prozedura

64. artikulua.- Zaintza.

1.- Haur edo nerabe baten zaintza duenak haren ardura hartu behar du, berekin eduki, elikatu, hezi eta arreta eta eta heziketa integrala eskaini.

2.- Geriza-gabetasuneko egoeran egoteagatik tutoretzapean dauden haur eta nerabeen zaintza beren gain edukitzeaz gain, adingabeei babesa emateko eskumena duten administrazio publikoek, beste kasu batzuetan ere, beren gain har dezakete haurren eta nerabeen zaintza, aldi batez, baldin eta haien gurasoek edo tutoreek, egoera larrian egoteagatik, zaindu ezin baditzakete. Bestalde,

legez bidezkoa den kasuetan epaileak hala erabakita ere hartuko du bere gain zaintza hori.

3.- Halaber, zaintza-mota erabakitzen duen administrazio-ebazpenean, haurrari edo nerabeari arreta eskaintzeko modu horrek zer baldintza funtsezko bete behar dituen ezarri beharko da.

4.- Lurralde historikoetako foru-organismoek fitxategi bat eginen dute eta eguneratuta edukiko, bertan tutoretza edo zaintza neurrien pean dauden haur eta nerabe guztien nortasuna jasota. Fitxategi hori isilean eduki beharko da, eta sarbidea mugatua izanen du.

65. artikulua.- Prozedura arrunta.

1.- Baldin eta haur edo nerabe baten gainean guraso-ahala edo tutoretza dutenek egiaztatzen badute gaixotasunagatik edo beste arrazoi larri batzuegatik ezin dutela haur edo nerabe hori zaindu, eta Kode Zibilaren 172.2 artikuluan ezarritakoaren arabera haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen administrazio publikoari eskatzen badiote har dezala aldi baterako bere gain adingabearen zaintza, orduan, entitate publikoak espediente bat hasi beharko du, urrats hauek eginez:

a) Gurasoei, tutoreei edo legezko zaintzaileei eskatu behar die egiazta ditzatela haurra edo nerabea zaintzea eragozten dieten arrazoi larri eta aldi baterakoak.

b) Informazio eskatu behar die adingabearen gizarte eta familia egoera ezagutzeko eta baloratzeko datu baliagarriak eman ditzaketzen pertsona eta erakunde guztiei; batez ere, udaleko gizarte-zerbitzuei, eta, beharrezkoa bada, baita eskolako tutoreari, familia-medikuari edo pediatriari, edo osasun arloko zein gizarte edo hezkuntza arretako beste arlo batzuetako profesionali.

c) Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak ohartarazi behar ditu haurrari edo nerabeari buruz dituzten eta eteten ez diren erantzukizunez, bai eta zaintza hori ezarri beharra eragin duten arrazoiak gainditzeko beharrezkotzat jotako programetan parte hartzeko duten betebeharrak.

d) Zaintza hori idatziz formalizatu behar du, eta idatzkian adieraziko dute jakinarazi zaizkiela gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei c) letran adierazitako oharrak, bai eta administrazioak zaintza nola eginen duen ere.

e) Haurrari edo nerabeari, nahikoa ezagumen duenean, esateko duena entzun behar zaio, berari zuzen-zuzenean edo bera ordezkatzeko izendatzen duen pertsonari. Ezinezkoa bada edo adingabearen interesa dela-eta komeni ez bada, haren legeko ordezkarien bitartez jakin ahal izanen da

zer iritzi duen, betiere legezko ordezkari horiek alderdi interesdun ez badira eta adingabearen interesen aurkako interesik ez badute; edo, bestela, lanbideagatik edo adingabearekin aparteko konfiantza bereziarengatik haren iritzia era objektiboan eman dezaketen pertsonen bitartez.

2.- Eskumena duen erakunde publikoak ebazpen arrazoitu baten bitartez formalizatu beharko du babes-neurri hau. Ebazpen horretan, baietsi edo ezetsi eginen du eskaera, eta ezetsi egiten badu, geriza-gabetasuneko legezko egoera deklaratu ahal izanen du, horretarako arrazoirik izanez gero. Delako ebazpena fiskaltzari eta gurasoei edo tutoreei jakinaraziko zaie.

66. artikulua.- Presazko prozedura.

Baldin eta haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen administrazio publikoak uste badu presakoa dela zaintza bere gain hartzea haurraren edo nerabearen guraso-ahala edo tutoretza dutenek eskaera aurkeztu ondoren, orduan, familia-harrera ezartzea bidezkoa izanen da. Horretarako, alde aurretik, aurreko artikuluko e) letran adierazitako tramitea bete beharko da, eta ondoren artikuluko horretan bertan ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio.

67. artikulua.- Zaintza gauzatzea.

1.- Haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen administrazio publikoak adingabearen aldi baterako zaintza bere gain hartzen duenean, Kode Zibilaren 172.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, neurri hauetako batzuk hartuko ditu, haurraren edo nerabearen beharrezko erantzute aldera:

a) Egoitza-harrera.

b) Familia-harrera.

2.- Zaintza gauzatzeko eran aldaketaren bat egiteko, administrazio-ebazpen arrazoitua beharko da, eta ebazpen hori jakinarazi egin beharko zaie gurasoei edo tutoreei eta fiskaltzari.

68. artikulua.- Zaintza amaitzea.

Zaintza amaitu ahal izateko arrazoiak hauek izanen dira:

a) Gurasoek edo tutoreek hala eskatzea, idatziz.

b) Zaintza gauzatzeko ardura esleitu zaien pertsonen hala eskatzea.

c) Eskumena duen entitate publikoak adingabearen interesaren alde hala erabakitzea, administrazio-ebazpen baten bitartez.

d) Epaileak epai irmoaren bidez hala erabakitzea.

e) Adingabeko pertsonak adin-nagusitasuna edo emantzipazioa eskuratzea.

f) Adingabearen heriotza.

6. ATALA

69. artikulua.- Familia-harreraren definizioa.

Familia-harrera da haurrak eta nerabeak babesteko neurri bat, administrazioak edo epaileak hartutakoa, haurraren edo nerabearen zaintza pertsona edo familia bati ematen diona, hura jagon, berekin eduki, zaindu, elikatu, haren arreta hartu eta heziketa integrala emateko betebeharrarekin, ordezkari familia-bizitza bat edo jatorrizkoaren familia osagarri bat ematearren.

Familia-harreraren esparru horren barruan, familia hartzaileak administrazioarekin elkarlanean jardun behar du babes-eginkizun horretan.

70. artikulua.- Familia-harrera formalizatzeko prozedura.

1. Kode Zibilaren 173.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, familia-harrera idatziz formalizatuko da, entitate publikoaren baimenarekin –tutoretza edo zaintza bere gain izan edo ez izan–, adingabea hartuko duten pertsonen baimenarekin eta, hama-bi urte beteta baditu, adingabearen beraren baimenarekin. Baldin eta adingabearen gurasoak zeintzuk diren ezaguna bada eta guraso-ahalaz gabetuta ez badaude –edo, hala dagokionean, berdin tutorea–, beharrezkoa izanen da haiek ere beren baimena ematea, familia-harrera aldi baterako denean izan ezik.

2. Familia-harrera formalizatzeko agiri horretan, honako alderdi hauek egongo dira zehaztuta:

– Beharrezkoak diren baimenak.

– Familia-harreraren mota eta aurreikusitako iraupena.

– Alderdi bakoitzak izanen dituen eskubideak eta betebeharrak, eta, batez ere, harrera egin zaion haurraren edo nerabearen familiak zenbatez behin egin ahal izanen dion ikustaldia; haurrak edo nerabeak jasaten dituen edo beste batzuei eragiten dizkien kalteei dagokienez, entitate publikoak edo beste arduradun batzuek kalte horiek estaltzeko sistema; adingabearen elikagaien, hezkuntzaren eta osasun-arretaren gastuak familia hartzaileak bere gain hartzea.

– Entitate publikoak egin beharreko jarraipenaren edukia, eta familia hartzaileak jarraipen horretan laguntzeko konpromisoa.

– Familia hartzaileak hartuko duen diru-ordaina, hala badagokio; haurra edo nerabea hartzeak

eragindako gastu arruntei, eta hala badagokio bereziei, aurre egiteko adinakoa izan beharko da diru-ordain hori.

– Harreraren nondik norakoak, hartzaileek profesional gisa diharduten edo harrera bizileku funtzional batean egiten den adieraziz.

– Entitate publiko babeslearen txostena.

Agiri hori fiskaltzari igorriko zaio.

3. Baldin eta gurasoek, tutoreak edo hamabi urtekoa baino nagusiagoa den adingabeak ez badute baimenik ematen, edo familia-harreraren kontra agertzen badira, epaileak bakarrik erabaki ahal izanen du familia-harrera ezartzea, betiere adingabearen intereserako. Entitate publikoaren proposamenak aurreko idatz-zatian aipatutako alderdi horiek berak zehaztu beharko ditu.

Nolanahi ere, entitate publikoak badauka, adingabearen intereserako, behin-behineko familia-harrera bat erabakitzea, epaileak ebazpena eman arte iraungo duena.

Entitate publikoak, behin dagozkion eginbideak egindakoan eta espedientea amaitutakoan, epaileari aurkeztu beharko dio proposamena berehala, gehienez ere hamabost eguneko epearen barruan.

71. artikulua.- Familia-harreraren motak.

Familia-harrera, hain zuzen, soila, iraunkorra edo adopzioaren aurrekoa izan daiteke, Kode Zibilaren 173 bis artikulua xedatutakoaren arabera. Era berean, familia-harrera behin-behineko izan daiteke, 173.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

72. artikulua.- Familia-harrera amaitzea.

Haurren edo nerabearen familia-harrera amaitu ahal izateko arrazoiak hauek izanen dira:

a) Epaileak epai irmoa ematea.

b) Hartzaileek hala erabakitzea, alde zuzenetik eskumena duen administrazio publikoari jakinarazita.

c) Tutoreak edo guraso-ahala duten gurasoek eskatzea, haurra edo nerabea beren ondoan nahi dutela adierazita.

d) Entitate publikoak, tutoretza bere gain izan edo ez, administrazio-ebazpenaren bidez hala erabakitzea, haurren edo nerabearen interesa babesteko beharrezko deritzolako, alde zuzenetik hartzaileei entzunda.

e) Adingabeak berak eskatzea, betiere hamabi urte beteta baditu.

f) Adingabearen edo hartzailearen heriotza.

Harreraren amaierari buruzko ebazpen judiziala nahitaezkoa da, epaileak berak erabaki duenean harrera hori.

73. artikulua.- Familia hartzaileak.

1. Eskumena duen administrazio publikoak, familia-harreraren proposamena onartzeko, hartzaile izanen diren pertsonen azterketa psikosoziala aintzat hartuko du alde zuzenetik, eta, azterketa horren arabera, haurren edo nerabearen beharrezko erantzuteko eta harenganako legezko betebeharrak betetzeko egokitasuna egiaztatzen duten pertsonen proposamena bakarrik onartuko du.

2.- Haur bat edo nerabe bat hartzea eskatzen duten pertsonen edo familien ezaugarriak balortzeko orduan, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

a) Bizitzeko behar beste baliabide edukitzea eta baliabide horiek egonkorra izatea.

b) Haurren edo nerabearen arreta bermatzeko moduko osasun-egoera fisiko eta psikikoa izatea.

c) Hartzaile izatea eskatzen dutenek ezkontzako edo egitezko elkarrekin bat osatzen dutela egiaztatzen baldin badute, eskaera egin aurretik gutxienez urtebete inguruan elkarrekin jarraitasunez bizi izana.

d) Familia-bizimodu egonkorra egitea.

e) Familia eta gizarte ingurua haurren edo nerabearen integrazioarako egokia izatea.

f) Adopzioa eskatzen duten pertsonen historian ez izatea haurarentzat edo nerabearentzat arriskutsu izan daitekeen gorabeherarik.

g) Jarreretan malgutasuna erakustea, eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna ere bai.

h) Haurren edo nerabearen egoeraren zaila ulertzeko gauza izatea.

i) Haurren edo nerabearen historiari begirunea gordetzea, hala berarenari nola familiarenari.

j) Haurren edo nerabearen eta beraren jatorrizko familiaren arteko harremanak onartzea, eta, hala badagokio, baita entitate publiko eskudunak ezarritako ikustaldi-araubidea ere.

k) Prestakuntzan eta jarraipen teknikoan elkarlanean aritzeko eta konpromisoa hartzeko jarrera baikorra erakustea.

l) Familiako kideek familia-harreraren aldeko jarrera edukitzea.

m) Familia-harrerarako gogoia erakustea, eta, gogo horretan, haurren edo nerabearen interes gorenari, haren eskubideen babesari eta eskubide horien garapenaren bermeari lehentasuna ematea.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-oko organo eskudunak familia hartzaileen zerrenda bat eginen dute, eta eguneratuta eduki beharko dute. Zerrenda horretan adierazita egon beharko da familia horiek harrerarik egin duten inoiz edo harrera egiteko proposamenik egin zaien; eta, harrerarik egin badute, haren emaitza.

4. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-oko organo eskudunak informazio-kanpainak eta familia hartzaileak aurkitzeko kanpainak antolatuko dituzte.

74. artikulua.- Familia-harrerari laguntzea eta familia-harrera ikuskatzea.

1. Haurrak eta nerabeak babesteko lurraldeko zerbitzu espezializatuek laguntza eman behar diete familia hartzaileei, familiaren esparruan hartu dituzten eginkizunetan aholku emanaz eta, harrera-aldia amaitu edo adin-nagusitasunera heldu ondoren ere elkarbizitzak jarraitu egiten duenean, orientazioa eta, hala badagokio, laguntza eskainiz.

2. Haurrak eta nerabeak babesteko lurraldeko zerbitzu espezializatuek ikuskatu egin beharko dituzte, aldika-aldika, eraturako familia-harrerak, haurren edo nerabeen beharrezkoen eta interes gorenaren arabera egiten ari diren zehazte aldera.

3.- Familia batean hartutako adingabeari buruz erabakiak hartzeko talde espezializatuek ezartzen dituzten prozeduretan, entzun egin beharko zaie interesdun guztiei, batez ere familia biologikoari, familia hartzaileari eta, nahikoa ezagumen badu, haurrari edo nerabeari berari.

7. ATALA Egoitza-harrera

75. artikulua.- Egoitza-harreraren definizioa.

Egoitza-harrera ordezkotako zaintza-neurri bat da, administrazioak edo epaileak erabakitakoa, eta helburua du beharrezko material eta afektiboak nahiz hezkuntza arlokoak familiaren baitan –aldi baterako behintzat– bete ezin dituzten haur eta nerabeei arreta integrala ematea egoitza batean.

76. artikulua.- Administrazioak egoitza-harreraren arloan jarduteko printzipioak.

1. Eskumena duen Nafarroako administrazio publikoak haur edo nerabe batentzat egoitza-harrera erabakitzen duenean, barneratze-aldia ahalik eta laburrena izan dadin saiaturiko da –salbu

eta haurren edo nerabearen intereserako besterik komeni bada–; hala saiaturiko da batez ere lehenengo haurtzaroan, hala haurra edo nerabea familia biologikora itzul dadin laguntzearen, nola hari familia-harrera, tutoretza arrunta, adopzioa edo emantzipazioa ahalbidetzearen. Egoitza-harrerak irauten duen artean, zaintzaren ardura haurra edo nerabea hartu duen egoitzaren zuzendariari dago-kio, edo halakorik ezean, egoitza horren arduradunari.

2. Haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, egoitza-harreraren neurriak gauzatzeko aldera, lankidetzak hitzarmen edo itunak egin ahal izan dituzte familia-integrazioarako erakunde laguntzaileekin, baldin eta hitzarmen edo itun horiek adingabeei parte hartzeko sistemak kontuan hartzen badituzte, betiere, administrazio publikoen ikuskaritzapean. Neurri horiek horrela gauzatzeko ez du esan nahi titularitatea eta erantzukina erakunde laguntzailearen esku lagatzen direnik.

77. artikulua.- Harrera-egoitzei baimena ematea eta haiek erregistratzea, ikuskatzea eta homologatzea.

Nafarroako Foru Komunitatean haurrentzako eta nerabeentzako dauden harrera-egoitzak, betiere, Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legean eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako baimen, erregistro, homologazio eta ikuskaritza erregimenen pean egongo dira.

Zehatz esanda, aplikatzekoak zaizkien legeen eredura eratuko dira egoitza horiek. Haien estatu-tuetan edo arauetan adingabeei babes ematea agertuko da xedetzat, eta esleitzen zaizkien eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren bitarteko materialak eta ekipo multidiziplinarrak eduki beharko dituzte beti.

Entitate publikoak egoitza horiek beren eginkizunetan zer muga izanen dituzten adierazi behar dute, eta egoitza horiek beti egongo dira entitate publikoen jarraibideen, ikuskaritzaren eta kontrolaren pean.

78. artikulua.- Harrera-egoitzei dagozkien arauak.

1. Nafarroako Gobernuak, gizarte-gaietan eskumena duen departamentuaren bitartez, erregelamendu bidez zehaztuko du, azken xedapenetako bigarrenean ezarritakoari jarraituz, era bateko eta besteko egoitzei eskatu ahal izanen zaizkien bete-kizunak, direla bitarteko materialei dagozkienak, eginkizunei dagozkienak edo langileei dagozkienak. Gainera, berariaz zehaztu beharko ditu egoitza horietako erabiltzaileen eta profesionalen

eskubide eta betebeharrak, eta egoitza bakoitzean barne-araudi bat edukitzeko betebeharra ere bai, egoitzaren ezaugarrietara eta egoitzaren hezkuntza-egitaspora ongi egokitua.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen duen erregelamendu horrek egoitza-harrera egiteko egongo diren egoitza-motak zehaztuko ditu, irizpide batzuei jarraituta; hala nola, hartuko diren haurren eta nerabeen beharrezkoak, eskainiko zaizkien arreta-ereduak, edo egoitzen egituren neurriak. Horrez gain, zaindu behar dituzten adingabeek jokabide bereziki nahasgarriak dituztenean –eta, ondorioz, beren buruari edo besteei kalte edo galera larriak eragiteko arriskua dagoenean– egoitzek eduki behar dituzten hezkuntza, terapia eta segurtasun baliabideen ezaugarriak arautuko ditu. Dirlako egoitzen gainean eskumena duten foru-administratioek zorrozki kontrolatuko dituzte kasu horiek, bai eta adingabeen fiskaltzek ere.

3.- Aurreko idatz-zatietan aipatutako arau horiek Nafarroako Foru Komunitatean dauden haur eta nerabeentzako harrera-egoitza guztietan aplikatuko dira, diren publikoak edo pribatuak.

79. artikulua.- Harrera-egoitzak ikuskatzea.

1. Adingabeak babesteko eskumena duten administrazio publikoek gutxienez sei hilabetean behin ikuskatu beharko dituzte harrera-egoitzak, bai eta egoerak eskatzen duen guztietan ere.

2. Era berean, fiskaltzak, Kode Zibilaren 174. artikulua ezarritakoaren arabera, haurrak eta nerabeak hartzeko egoitza guzti-guztiak jagon beharko ditu.

80. artikulua.- Haur eta nerabeek harrera-egoitzetan edukiko dituzten eskubideak eta betebeharrak.

1.- Goragoko 78. artikuluan aipatutako erregelamenduan, harrera-egoitzetan harrera egiten zaien haurren eta nerabeen eskubideak eta betebeharrak arautuko dira.

2.- Harrera-egoitza batean harrera eman zaien haurrek eta nerabeek eskubide hauek edukiko dituzte, beti:

a) Beren eskubideei eta betebeharrei buruz informazioa jasotzea.

b) Bereizkeriarik gabe zainduak izatea (dela jaiotza, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologia-gatik edo beste edozein egoera edo ezaugarri pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik bereizkeriarik eragin gabe, alegia), eta, orobat, beren jatorria errespetatuz eta berek dakarten kultura edo erlijio

ondarea gordetzeko laguntasuna emanez zainduak izatea.

c) Eguneroko bizitzako beharrezko oinarrikoak beteta izatea, adingabearen garapen pertsonal integrala bideratu ahal izateko.

d) Nortasuna egokiro garatzeko behar dituzten zerbitzu guztiak erabili ahal izatea, lehentasuna emanez beti zerbitzua komunitatean bertan jasotzeko, zerbitzu arruntaren sarearen bitartez.

e) Eguneroko bizitzan jarduerarako, aisialdirako eta lo egiteko tarte orekatuak edukitzea.

f) Harrera-egoitzako langileen aldetik eta gainerako egoiliarren aldetik tratua egokia jasotzea.

g) Bakoitzaren espedientearen ageri diren datuak isilpean edukitzea eta datu horiek edonori ez jakinaraztea.

h) Senitartekoekin eta berentzat garrantzitsuak diren pertsonekin harremanak edukitzea, betiere hori haurren edo nerabearen interesaren aurka ez bada, bai eta ikustaldiak egoitzan bertan edo kasuan-kasuan zehaztutako lekuan jasotzea.

i) Egoitzan beren intimitatea eta gauzak errespetatuak izatea; orobat beren gutunak bortxatuak ez izatea, eta telefono-deiak pribatuan jaso eta egin ahal izatea, baldin eta horrek haien babesa arriskuan jartzen ez badu.

j) Barne-araudian idatzitako elkarbizitza-arauak egin eta aldatzeko eginkizunean parte hartzea, bai eta egoitzako jarduera programatzeko eta garatzeko eginkizunean ere parte hartzea.

k) Informazioa jasotzea, beren adimen mailari eta gaitasunari egokitutako hizkeran, egoitzan erreklamazioak aurkezteko dauden prozedurez. Orobat honako hauei kezak aurkezteko duten aukeraz: fiskaltzari, haurren edo nerabeen defendatzaileari, ikuskapen-zerbitzuei edo haurrak eta nerabeak babesteko eskumena duten administratioei.

l) Une oro jakitea zer lege-egoeratan dauden.

m) Bakoitzarentzat egindako esku-hartze plan bat edukitzea, eta aldika-aldika plan hori lantzen eta ebaluatzen parte hartu ahal izatea.

n) Berei eragiten dizkieten erabaki garrantzitsuetan esateko dutena entzun dakiela; hamabi urte baino gehiago dituztenean, beti, eta bete gabe dituztenean, nahikoa ezagumen badute.

ñ) Egoitza ebaluatzeko eta ikuskatzeko prozeduretan parte hartzea.

o) Prestakuntzaz eta esperientziaz kualifikatuta dauden langileek zainduak izatea.

p) Haien zainketan eta haien dagozkien erabakietan gurasoek ere parte hartzea, betiere haien interesen kontrakoa ez bada.

q) Haien anaia, neba, arreba edo ahizpengan-dik ez bereiztea, eta egoitza batean elkarrekin egotea, betiere hori haien interesen kontrakoa ez bada.

3. Harrera-egoitza batean harrera eman zaien haurrek eta nerabeek, egoiliarrak diren aldetik, betebeharrak hauek edukiko dituzte:

a) Egoitzako funtzionamendu eta elkarbizitza arauak errespetatu eta betetzea.

b) Egoitzan lan egiten duten edo bizi diren pertsona guztien duintasuna eta eginkizuna errespetatzea.

c) Beren prestakuntzarako jarduerak, eskolako jarduerak, lanekoak edo zeinahi eratakoak egitea.

d) Haien eskura jartzen diren instalazio eta baliabide materialak era egokian erabiltzea.

e) Ezartzen zaizkien heziketa-neurri zuzengarriak betetzea, hurrengo artikuluan xedatutakoaren eredura.

f) Gaixoaren Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren arloko Eskubide eta Betebeharrak Arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Lege Oinarrizkoak ezarritakoari jarraituz, beharrezkoak diren osasun azterketa eta proba guztiak egitea, bai adingabeak berak bai egoitzan bizi diren edo lan egiten duten gainerako pertsonen duten osasun-eskubidea bermatzeko.

81. artikulua.- Heziketa-neurri zuzengarriak

1.- Aurreko artikuluan ezarritako betebeharrak bete ezean, heziketa-neurri zuzengarriak ezarriko dira. Neurri horien edukia eta eginkizuna heztean izanen da, eta ezingo dute ezarri, ez zuzenean ez zeharka, ez gorputz-zigorrik, ez elikagaiak ukatzerik, ez senitartekoen ikustaldia jasotzeko eskubidea kentzerik, ez ahozko nahiz idatzizko komunikazioetan esku-hartzerik, ez nahitaezko hezkuntzarako, ez eta osasun-arretarako eskubidea kentzerik ere; ezta adingabeen duintasunaren aurkako erasorik ere. Kode Zibilak 154 eta 268. artikuluetan gurasoei edo tutoreei ezartzen dien zuzentzeko eginkizunean oinarritzen dira neurri hauek.

2. Heziketa-neurri zuzengarriak ezartzea eragin dezaketen jokabideak, neurri horien edukia eta neurriok ezartzeko jarraibideak, horiek guztiak, zentroen erregelamendu-garapenaren esparruan arautu beharko dira -78. artikuluan aipatzen da garapen hori. Arau horietan adingabeen eskubide

hauek aurreikusitako beharko dira: entzunak izateko eskubidea, frogak aurkezteko eskubidea, eta berek izendatutako pertsonen aholkua jasotzeko eskubidea. Ezarritako neurriak, bestalde, erregistro batean idatzizko dira, bai neurria ezartzea eragin zuen jokaera edo gertaera bai neurriak aplikatzeko orduan izandako inguruabarrak zehaztuta.

3. Heziketa-neurri zuzengarrien artean, garrantzi berezikotzat joko dira hauek: iraindutako pertsonari barkamena eskatzea, ondasunak itzultzea, eta eragindako kalteak konpontzea.

4.- Neurriok, nolakoak diren, heziketa-taldea osatzen duten profesioetako edozeinek ezarri ahal izanen ditu, edo, jokabide eta gertakari larriak izan badira, egoitzaren zuzendariak edo egoitzaren arduradun-eginkizunak betetzen dituenak ezarri beharko ditu. Xedapen hau gorabehera, betiere neurriak hartu ahal izanen dira berehala, pertsonen edo gauzei kalterik ez eragiteko.

8. ATALA

Adopzioa

82. artikulua.- Adopzioaren eraketa.

1.- Adopzioa epailearen ebazpenaren bidez eratuko da, eta ebazpen horretan, beti, adoptatutako haurren edo nerabearen interesa eta adoptatzaileak edo adoptatzaileek guraso-ahala erabiltzeko duten egokitasuna hartuko dira kontuan.

2.- Adopzio-espeditente bat aurrera eramateko behar diren administrazio-jarduketak, edo, hala badagokio, nazioarteko adopzioarako behar direnak, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusitako araudiari jarraituz eginen dira beti.

83. artikulua.- Familia adoptatzaileak.

1.- Haurrak eta nerabeak seme-alabatzat hartzeko egokitasuna behar da, eta egokitasun horrek betekizun hauek eskatzen ditu:

a) Bizitzeko behar beste baliabide edukitzea, eta baliabide horiek egonkorra izatea.

b) Haurren edo nerabearen arreta bermatzeko moduko osasun-egoera fisiko eta psikikoa izatea.

c) Adopzioa eskatzen dutenek ezkontzako edo egitezko elkarte bat osatzen dutela egiazta-tzen baldin badute, eskaera egin aurretik gutxienez bi urtetan elkarrekin jarraitasunez bizi izana.

d) Familia-bizimodu egonkorra egitea.

e) Familia eta gizarte ingurua haurren edo nerabearen integrazioarako egokia izatea.

f) Adopzioa eskatzen duten pertsonen historian ez izatea haurrarentzat edo nerabearentzat arriskutsu izan daitekeen gorabeherarik.

g) Jarreretan malgutasuna erakustea, eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna ere bai.

h) Haurraren eta nerabearen historia pertsonala eta familiarra errespetatzea eta onartzea.

i) Lankidetzarako eta konpromisorako jarrera baikorra agertzea.

j) Familia-unitateko kide guztiek adopzioaren aldeko jarrera edukitzea.

k) Adopziogaiaren garapen egokirako mugapena izan daitekeen adinik ez edukitzea adoptatzaileak edo adoptatzaileak.

l) Adopzioa egiteko gogoia erakustea, eta, gogo horretan, haurraren edo nerabearen interes gorenari, haren eskubideen babesari eta eskubide horien garapenaren bermeari lehentasuna ematea.

Egokitasun-ziurtagiriak hiru urterako balioa izanen du, baina edozein unetan berrikusi ahal izanen da adopzioa egiteko gogoia agertzen dutenen egoera pertsonala edo familiarra aldatu egiten bada.

2. Erregelamendu bidez arautuko da foru-diputazioek adopzioaren arloan jarraitu behar duten prozedura.

84. artikulua.- Informazioa eskuratu ahal izatea.

1. Entitate publikoetan edo erakunde laguntzaileetan zerbitzu ematen duten pertsonak isilpean gorde beharko dituzte adoptatuengandik eskuratutako informazioa eta adoptatuen seme-alabatasunari buruzko datuak.

2. Aurreko hori gorabehera, eta haurrek eta nerabeek beren guraso biologikoak nor diren eza-gutzeko duten eskubidea bermatze aldera, lege honetako 11. artikuluan, Haurren Eskubideen Kontentzioaren 7.1 artikuluan eta Haurraren Babesari buruzko eta Nazioarteko Adopzioaren arloko Lankidetzari buruzko Hagako 1993ko 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, administrazio publikoek adoptatuen seme-alabatasun biologikoari buruz dauzkaten datuak adoptatutako pertsonen eskura jarriko dituzte, baldin eta haiek hala eskatzen badute. Horretarako, neurri egokiak hartu beharko dira batez ere; isilpeko bitartekaritza-prozedura bat eskaini beharko zaie datuak jakinarazi aurretik, eta, prozedura horretan, alde bakoitzaren familia-eta gizarte-egoeraren berri emanen zaie hala adoptatuari nola haren guraso biologikoei, bai

eta aldeetako bakoitzak beren arteko topaketari buruz agertu duen jarreraren berri ere.

Informazio hau egiaz eskuratzeko, adingabeek une egokian egon behar dute beren garapenaren bilakaeran, hori da baldintza, eta nahikoa ezagumen izan behar dute, bai eta aditzeko nahikoa gaitasun ere.

Pertsona bati adingabe bat ematen zaionean adopzioan, pertsona horrek badu erakundeari eskatzea haurraren edo nerabearen gainean dituen datuak eskura diezazkiola, den haren osasunaren gainekoak, hezkuntzaren gainekoak, edo hari dagozkion beste batzuk ere, hauek izan ezik: haren seme-alabatasunaren inguruko datuekin zerkusua duten informazioak.

3. Bigarren idatz-zatian aipatzen den bitartekaritza-prozedura 47.3 artikuluan zehaztuko da, artikulua horretan egiten den bitartekaritzaren arauketaren barruan.

85. artikulua.- Nazioarteko adopzioa

1. Nazioarteko adopzioaren arloan arau hauei jarraituko zaie: Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilarren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen) 25. artikuluan xedatutakoari eta Haurraren Babesari buruzko eta Nazioarteko Adopzioaren arloko Lankidetzari buruzko Hitzarmenak (Hagan 1993ko maiatzaren 29an egin zen eta Espainiak 1995eko ekainaren 30ean sinatutako agiriaren bidez berretsi zuen) ezarritakoari.

2. Nafarroako Gobernuak nazioarteko adopzioaren batzorde tekniko bat edukiko du, gizarte-gaitan eskumena duen departamentuaren kontsulta-organotzat, eta eremu horretako jardunak koordinatzeko eginkizuna izanen du; horrez gain, beste eginkizun hau ere izanen du: nazioarteko adopzioarako erakunde laguntzaileak izendatzeko proposamenak aztertzea (108. artikuluan aipatzen dira erakunde horiek) eta proposamen horiek dagokionari aurkeztea onar ditzan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak nazioarteko adopzioa sustatu eta erraztuko du, eta, horretarako, egoki deritzen hedapen, informazio, eta laguntza bitartekoak erabiliko ditu.

4. Erregelamendu bidez arautuko da Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak nazioarteko adopzioaren arloan jarraitu behar duten prozedura.

IV. TITULUA**Arau-hausle adingabeei eman beharreko gizarte eta hezkuntza arreta****86. artikulua.-** Arau-hausle adingabeak.

Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Legeak ezarritakoari jarraituz, arau-hausle adingabeak dira Zigor Kodean edo zigor-lege berezietan lege zehaztutako delitu edo faltak egiteagatik adingabeen epailearen neurri bat ezarri zaienak.

87. artikulua.- Administrazio-jardunaren printzipio gidariak.

Arau-hausle adingabeei printzipio hauen arabera eskainiko zaie gizarte eta hezkuntza arreta:

a) Adingabeek, atxilotuta dauden artean, leku egokian egon beharko dute, adin nagusikoentzat erabiltzen diren lekuetatik berezita, eta behar dituzten laguntza eta babes sozial eta psikologikoa, mediku-arreta eta laguntza eta babes fisikoa eskainiko zaizkie, bakoitzaren adina eta sexua eta bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta; hala egin beharko da, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 17.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b) Kontuan eduki behar da arau-hausle adingabeei ezartzen zaizkien neurriak, formaren aldetik penalak badira ere, heziketa-neurri zehatzaileak direla edukiaren aldetik, eta neurri horien beteazpenean malgutasuna bermatu behar dela, kasu bakoitzaren ezaugarri berezien arabera zer kome-ni den begiraturaz.

c) Neurriak ezartzerakoan, adin penalik ez duten arau-hausleak eskubide guztiez baliatu ahal izanen direla bermatu behar da, Konstituzioak eta ordenamendu juridikoak ezagutzen dizkieten eskubide guztiez; ordenamendu juridikoari dagokionez, batez ere honako hauek ezagutzen dizkieten eskubideez: Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa eta Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Haurren Eskubideen gaineko 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioa, eta, orobat, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan haurrak eta nerabeak zaintzeari buruz ezarritako arau guztiak.

d) Legezketasun-printzipioak agintzen duenez, ezin izanen da inolako neurririk betearazi ez baldin bada epai irmo baten bidez eta indarrean dagoen araudiak aurreikusitako prozeduraren arabera ezarri. Neurri horiek indarrean den araudi horretan ezarritako eran baino ezingo dira ezarri, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren

12ko 5/2000 Lege Organikoaren 43. artikuluan agindutakoaren arabera.

e) Epaia eman zuen adingabeen epailearen kontrolpean betearaziko dira neurriak, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 44. artikuluan aurreikusitako eran.

f) Justiziaren beharrezko esku-hartze gutxienekoaren printzipioari jarraituz egingen da epailearen neurrien betearazpena. Horrek esan nahi du behar-beharrezkoa dela beste sistema sozial batzuekiko koordinazioa, batez ere hezkuntza-sistemarekikoa eta babes-sistemarekikoa; gainera, kasua sistema horien esku utzi beharra ere gerta daiteke, baldin eta sistema horien esku-hartzea beharrezkoa bada.

g) Epailearen neurriak berehalakotasun-printzipioari jarraituz ezarri behar dira, neurri horiek hezigarri izanen badira.

h) Epaileak arau-hausle adingabeei ezarritako neurriak eraginkorrak izanen badira –batez ere ingurune irekian bete beharrekoak eta bitartekari-tza-prozesuetan ezarritakoak–, komunitateak parte hartu behar du, eta bere gain hartu behar du hez-teko eginkizuna.

88. artikulua.- Bitartekoak.

1. Nafarroako Gobernuak, epaileak arau-hausle adingabeei ezarritako neurriak betearazteko eskumena duen administrazio publikoa den aldetik, eskura edukiko ditu eginkizun horiek betetzeko beharrezkoak diren bitarteko materialak eta giza baliabideak. Batez ere, bitarteko hauek edukiko ditu eskura:

a) Fiskalei eta adingabeen epaileei laguntza teknikoa eta aholkua emateko talde psikosozialak edukiko ditu.

b) Egoki eta beharrezko deritzon, justiziaren arloan eskumena duen departamentuaren bitartez, lankidetzaz hitzarmen edo akordioak egin ahal izanen ditu irabaziak egiteko asmorik ez duten beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin, epaileak ezarritako neurriak nerabe arau-hauslearen beraren ingurunean betearazi ahal izateko; betiere, Nafarroako Gobernuak berak ikuskatuko du zuzenean betearazpena, eta hitzarmen edo akordio horiek egiteak ez dakar eskumenaren titularitatea eta erantzukizuna inoren esku lagatzea.

2.- Arau-hausle adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta eskaintzen ariko diren langile profesionalak egokiak izan daitezzen zaindu beharko du Nafarroako administrazio publiko eskudunak, bete

behar dituzten eginkizun horietarako egokiak izan daitezen, alegia. Horretarako, prestakuntza-programa egokiak ezarriko dira, esku-hartze honen hartzaile diren herritarren beharizan berri eta askotarikoei erantzuteko prestakuntza emate aldera, eta lanpostuetara sartuko diren langileak egokiak direla bermatzeko prozedurak taxutuko dira, arreta jasoko duten pertsonen interes gorenari begira. Epailearen neurriak aurreko idatz-zatian aipatutako lankidetzeta-hitzarmenen esparruan aplikatzekoak direnean ere antzeko neurriak hartuko dira.

3. Nafarroako Gobernuak, barne arloan eskumena duen departamentuaren bitartez, adingabeek parte hartzen duten kasuetan polizia-zerbitzu egokiak izanen direla bermatuko du.

Horrekin batera, honako hauek guztiak bermatu behar dira: polizia-agenteen prestakuntza egokia izan dadila; adingabeei buruz egin beharreko esku-hartzeetan polizia adituak egon daitezela, eta adingabeen partehartzea hautematen denean aditu horien esku-hartzea eraginkorra izanen dela ziurtatuko duten antolaketa eta funtzionamendu sistemak ezar daitezela.

89. artikulua.- Neurriak nerabe arau-hauslearen ingurunean bertan betearaztea.

1. Arau-hausle adingabearen gizarte-ingurunean aplikatu beharreko neurriak betearazteko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio orokorrak, justiziaren arloan eskumena duen departamentuaren bitartez, gizarteratze-programak garatu eta sustatu beharko ditu. Programa horietan, hainbat berariazko jarduketara sartuko dira: aisialdikoak, gizarte eta hezkuntza laguntzakoak, laneratu aurreko eginkizunetakoak, gizarte-trebetasunak eta familiako elkarbizitzarako trebetasunak lantzekoak eta hezteko helburuak erdiesten lagundu dezakeen oro.

2.- Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publiko guztiek, beren eskumenen esparruan, batez ere osasunaren, hezkuntzaren eta gizarteratze-zerbitzuen arloan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio orokorrarekin elkarlanean jardun beharko dute adingabearen gizarte-ingurunean aplikatu beharreko neurriak betearazteko eginkizunetan, eta adingabearen esku jarri beharko dituzte gizarte eta hezkuntza baliabide arruntak. Era berean, irabaziak egiteko asmorik gabeko erakunde pribatuekiko elkarlana sustatu beharko da aurreko artikuluan aipatutako eran.

90. artikulua.- Barneratze-neurriak.

1.- Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 54. artikuluan ezarritakoari jarraituz, barneratze-

neurriak arau-hausle adingabeentzat berariaz prestatutako barnetegietan betearaziko dira; barnetegi horiek adin-nagusitasun penala dutenentzat aurreikusitakoak ez bezalakoak izanen dira, askatasunez gabetzeko zigor-kondena eta zuhurtziazko neurriak betearazteko adin nagusikoentzat espetxe-leggedian aurreikusitakoak ez bezalakoak, alegia. Era berean, gizarte eta osasun zentroetan ere betearazi ahal izanen dira neurri horiek, baldin eta alde zuzenetik adingabeen epaileak horretarako baimena ematen badu.

2.- Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa zuhurtziazko barneratze-neurrietan ere aplikatuko da.

91. artikulua.- Barnetegi dagozkien arauak.

1. Barnetegiak modulutan egongo dira banatuta, bertan dauden adingabeen adin, heldutasun, beharizan eta gizarte-trebetasunen arabera.

Barnetegiak egoera onean mantenduko dira eta erabilera-baldintzak egokiak izanen dira; gainera, adingabeen beharizanei erantzuteko instalazio eta gune aproposak izanen dituzte.

2.- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, justiziaren arloan eskumena duen departamentuaren bitartez, erregelamendu bidez zehaztuko du askatasunez gabetzeko era bateko eta besteko neurriak betearazteko zentroek zer eskakizun bete behar dituzten baliabide material eta funtzionalei eta giza baliabideei dagokienez Erregelamendu horretan, berariaz aipatu beharko dira adingabeen eta haiei zerbitzu ematen dieten langile profesionalen eskubideak eta betebeharrak; halaber, berariaz aipatu behar da barne-araudi bat edukitzeko beharra, edukiaren aldetik barnetegiaren berezitasunei eta hezkuntza-egitasmoari begira egina.

3. Aurreko idatz-zatian aipatutako araudia Nafarroako Foru Komunitatean arau-hausle adingabeentzat diren barnetegi guztietan aplikatu beharko da.

92. artikulua.- Barnetegiak ikuskatzea.

1.- Justiziaren arloan eskumena duen departamentuak gutxienez sei hilabetean behin ikuskatu beharko ditu barnetegiak, bai eta egoerak eskatzen duen guztietan ere. Ikuskatzeko prozedurak barnetegiaren araudian arautuko dira, aurreko artikuluan aipatutako araudi horretan, hain zuzen ere.

2. Ministerio fiskalak barnetegi guztiak jagon beharko ditu.

93. artikulua.- Nerabeek barnetegietan izanen dituzten eskubideak eta betebeharrak.

1. Barnetegien antolamenduaren, funtzionamenduaren eta jardueraren oinarria hau izanen da: barneratze-neurrien pean dauden pertsona adingabeak gizarteko kide eskubidedun direlako printzipioa. Printzipio hori aplikatzerakoan, adingabeen eguneroko bizimodua –edozein adingabere-na– izanen da barnetegietako bizimoduaren eredu, betiere barneratua izateak adingabearentzat eta haren familiarentzat izan ditzakeen ondorio txarrak murriztuz, gizarte-harremanen loturen alde eginez eta gizarteratze-prozesuan erakunde publiko eta pribatuen elkarlan eta parte-hartzearen alde eginez. Xede horri begira, erregelamendu bidez ezarriko dira adingabeek hartu ahal izanen dituzten baimenaldi arruntak eta bereziak.

2. Barneratze-neurrien baten pean diren arauhausle adingabeek eskubidea dute beren nortasuna eta ideologia-askatasun zein erlijio-askatasuna errespetatzea dakizkien; orobat, neurriak eragiten ez dien gainerako eskubide eta interes legezkoak ere edukiko dituzte, batez ere adingabetasun zibilari dagozkionak eta Adingabeen erantzukizun penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Legearen 56. artikulua aitpatzen dituen eskubide guztiak; eta, horien artean, honako hauek bereziki:

a) Beren eskubideei eta betebeharrei buruz informazioa jasotzea.

b) Bereizkeriarik gabe zainduak izatea (jaiotza, adin, arraza, egoera zibil, sexu, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo beste edozein ezaugarri edo egoera pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik bereizkeriarik gabe), eta beren jatorriak errespetatuz eta berek dakarten kultur edo erlijio-ondarea gordetzeko laguntasuna emanez zainduak izatea.

c) Barnetegiko langileen aldetik eta gainerako egoiliarren aldetik tratatu egokia jasotzea.

d) Haien espedientean dauden datuen isilpeko-tasuna errespetatua izatea, eta datu horiek isilean erabiltzea; gainera, edonori ez zaio jakinaraziko barneratuta daudela, inola ere ez.

e) Gurasoekin, legezko ordezkariekin, familia-rekin edo beste pertsona batzuekin harremanetan egon ahal izatea, askatasunez, baldin eta ez bada beraien interesen aurkakoa, eta, betiere, babes-prozedura baten barruan; halaber, barnetegian bertan ikustaldiak eduki ahal izatea eta ateratzeko baimenaldiez gozatu ahal izatea, erregelamenduetan ezarritako eran.

f) Beren abokatuekin harremanak eduki ahal izatea isilean, orobat eskumena duen adingabeen epailearekin, fiskaltzarekin eta barnetegiak ikuskatzeko eskumena duen zerbitzuarekin.

g) Haien intimitatea errespetatua izatea.

h) Eguneroko bizitzako beharrian oinarritzeko, pertsona gisa erabat garatzeko bete behar direnak, beteta izatea.

i) Prestakuntzarako jarduerak egitea, eskolakoak, lanekoak edo zeinahi eratakoak izan.

j) Uneoro beren lege-egoera zein den jakitea.

k) Barnetegian erreklamazioak aurkezteko dauden prozedurei buruzko informazioa jasotzea, beraien aditzeko maila eta gaitasunari egokitutako hizkeran; halaber, barnetegiaren zuzendaritzari, autonomia erkidegoko administrazioari, epaileei, fiskaltzari edo Haurren eta Nerabeen defendatzaileari eskaerak eta kexak agertzeko aukeraz ere informazioa jasotzea; orobat, beren eskubide eta interesak defendatzearen legedian aurreikusitako legezko errekurtso guztiak aurkeztu ahal izatea.

l) Dagozkien eskubide zibil, politiko, sozial, erlijiozko, ekonomiko eta kulturalak erabiltzea, neurriaren betearazpenarekin bateraezinak direnak izan ezik.

m) Barneratze-neurria bizilekutik ahalik eta gertuen dagoen barnetegian bete ahal izatea, betiere beraiei dagokien barneratze-araubidearekin bat etorritik.

n) Bakoitzarentzat egindako esku-hartze plan bat edukitzea, eta plan hori lantzen eta aldika-aldika ebaluatzen parte hartzea.

ñ) Gai hauei guztiei buruz informazio eguneratua jasotzea, bakoitzaren heinekoa: beraien eskubide eta betebeharrei buruz, beraien egoera pertsonal eta judizialari buruz, barnetegiaren funtzionamendu-arauei buruz, eta, orobat, eskubide horiek benetan erabiltzeko prozedura zehatzei buruz, batez ere eskabideak, kexak eta errekurtsoak aurkezteko prozedurei buruz. Barnetegian sartzen dituzten unean jaso behar dute adingabeek informazio hau guztia, eta berek ulertzeko moduko hizkuntzan eman beharko zaie, aditzeko duten gaitasunari eta beraien beharrian bereziei egokitutako formatu, hitz eta idazkerarekin.

o) Haien legezko ordezkariak beraien egoera eta bilakaerari buruzko informazioa eta dagozkien eskubideei buruzkoa badutela jakitea, indarrean dagoen legedian ezarritako mugen barruan.

p) Barneratuta daudenean, hiru urtetik beherako semeak edo alabak beren ondoan izatea, erre-

gelamenduetan ezarritako baldintzak eta eskakizunak betez.

3. Barneratze-neurri baten pean dauden arau-hausle adingabeek Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Legearen 57. artikuluan ezarritako betebeharrak izanen dituzte. Zehatz esanda, hauek dira haien betebeharrak:

a) Neurria erabat bete arte egon beharko dute barnetegian, ateratzeko eta kanpoan jarduerak egiteko baimenak gorabehera.

b) Barnetegiko funtzionamendu-arauak errespetatu eta betetzea, bai eta barnetegiko langileen gidalerro edo jarraibideak ere, haiek beren eginkizunak legezkotasunez betetzen ari direla ematen dizkietenak.

c) Barnetegian lan egiten duten edo bizi diren pertsona guztien duintasuna eta eginkizuna errespetatzea.

d) Barnetegiko instalazioak eta eskura jartzen zaizkien baliabide materialak behar bezala erabiltzea.

e) Eskolako edo laneko jarduerak egitea, eta beraien prestakuntzarakoak ere bai, direnak direla.

f) Lege honetako 95. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarritako diziplina-neurriak betetzea.

g) Gaixoaren autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legeak ezarritakoari jarraituz, adingabearen osasunerako eskubidea eta barnetegian bizi diren edo lan egiten duten gainerakoen bermatzearen, beharrezkoak diren osasun azterketa eta proba guztiak egitea.

94. artikulua.- Jagoletza eta segurtasuna.

1.- Barnetegietako jagoletzan eta segurtasun-jarduketetan lokalak eta bulegoak ikuskatu behar izatea gerta liteke, bai eta pertsonak, arropak eta bakoitzaren gauzak arakatu behar izatea ere, erregelamenduz ezarritako eran eta maiztasunez. Jagoletza eta segurtasun neurriak gauzatzean, adingabeko pertsonen intimitatea eta gauza pertsonalak errespetatzeko ahalegina egingen da, moduari, iraupenari, orduari eta maiztasunari erreparatuta; irizpide murriztailea gailenduko da neurri horiek erabiltzean, eta gaueko miaketak ekidingo dira, beti.

2. Adingabeen bortxakeriazko egintzak edo min egiteko edo beldurtzeko egintzak eragotzi eta zapaltzeko, eta ihesaldiak eta instalazioei egin dakizkiekeen kalteak eragozteko, erregelamendu

bidez ezarritako beharrezko euste-neurriak baino ezingo dira erabili. Euste-neurriek beharrezko den denbora baizik ez dute iraungo.

95. artikulua.- Diziplina-araubidea.

1. Barneratze-neurrien pean diren adingabeei diziplina-neurriak ezarri ahal izanen zaizkie ondorengo idatz-zatietan aipatzen diren arau-hausteen kasuetan, betiere erregelamendu bidez ezarritako prozedurari jarraituz eta haien duintasuna uneoro errespetatuz. Inoiz ere ezingo zaizkie ukatu eskubide hauek: elikatzekoa, osasun-laguntza jasotzekoa, derrigorrezko hezkuntza jasotzekoa eta komunikazio eta ikustaldiak jasotzekoa.

Diziplina-prozedura 91. artikuluan aipatzen den barnetegi buruzko erregelamendu-garapenaren barruan arautuko da. Diziplina-prozedura horretan, nahitaez aurreikusi beharko da ezarritako zehapen-neurriak erregistro batean idazteko betebeharrak, eta erregistroan, berriz, zehapena eragin duen arau-haustea eta zehapenaren aplikazioaren ingurumariak adierazi beharko dira.

2.- Honako egitate hauek arau-hauste oso larri-tzat joko dira:

a) Barnetegian nornahiri eraso egitea eta mehatxu egitea, edo nornahi hertsatzea.

b) Matxinada, borroka, eraso edo talde-iskanbiletan parte hartzea edo horiek egitera zirikatzea, baldin eta gero gertatu egiten badira.

c) Barnetegitik ihes egiten saiatzea, edo horretarako laguntzea edo ihes egin egitea; edo baimealdi bat edo jarduera bat amaituta bertara ez itzultzea.

d) Barnetegiko langileek beren eginkizunak betetzen ari direla ematen dizkieten aginduak betetzeari uko egitea era aktibo eta larrian.

e) Barnetegiak adingabeen eskura jartzen dituen leku, material eta gauzei edo beste batzuen ondasunei nahita kalte egitea, hirurehun eurotik gorako galerak eraginez.

f) Barnetegiko gauzak, materialak edo ondasunak nahiz beste batzuen ondasunak ostea.

g) Barnetegian alkohol-dun edariak, droga toxikoak edo gai psikotropikoak edo sorgogarrak eduki edo kontsumitzea, edo barnetegira horrelakoak sartzea, non eta medikuaren aginduz ez den.

h) Diziplinaren aurkako egintza larri batengatik ezarritako zigorra betetzeari uko egitea.

i) Egun batean hiru hutsegite larri egitea, edo astebetean bost.

3.- Honako egitate hauek arau-hauste larritzat joko dira:

a) Norberaren nahiz taldearen higienerako, edo janzteko zein elikatzeko beharrezkoak diren ohitura eta ordutegiak ez betetzea, edo barnetegia funtzionamendu-arauetan ezarritako beste ohitura batzuk ez betetzea, betiere, barnetegiko bizitzari eta elkarbizitza ordenatuari nahasteak eragiten bazaizkio.

b) Barnetegian nornahi kalumniatu edo irainitzea, eta nornahiri zor zaion errespetu eta begiramenaren aurka larri huts egitea.

c) Barneratutako beste pertsona batzuk matxizatzen edo talde-iskanbilak egitera zirikatzea, pertsona horiek jarraitzea lortu gabe.

d) Barnetegira bertako funtzionamendu-arauek debekatutako gaiak edo gauzak sartzea edo gai horiek bertan eduki, erabili edo kontsumitzea, edo barnetegitik atera edo ateraraztea.

e) Barnetegiak adingabeen eskura jartzen dituen leku, material eta gauzei edo beste batzuen ondasunei nahita kalte egitea, hirurehun eurotik beherako galerak eraginez.

f) Barnetegian lan egiten duten langileek beren eginkizunak betetzen ari direla emandako aginduek ez betetzea, barnetegiko bizimoduari eta elkarbizitza ordenatuari nahasteak eragiten zaizkionean.

g) Zorte edo dema jokoak antolatu edo horietan parte hartzea, baldin eta barnetegiko araudian debekatuta badaude.

h) Berri edo datu faltsuak zabaltzea, barnetegiaren funtzionamendu onari kalte egin nahirik.

i) Barnetegian debekatuta dauden lekuetara edo sarbidea mugatua duten lekuetara sartzea beharrezko baimena gabe.

j) Arau-hausle adingabe barneratuentzat barnetegian antolatzen diren jardueretara ez azaltzea, arrazoirik gabe, edo jardueretatik egotzia izatea edo beharrezko baimenik gabe haietatik alde egitea.

k) Barnetegitik beharrezko baimenik gabe ateratzea, edo barnetegiko funtzionamendu-arauek uzten duten baino beranduago itzultzea bertara.

l) Diziplinaren aurkako egintza arin batengatik ezarritako zigorra betetzeari uko egitea.

m) Egun berean hiru hutsegite arin egitea.

4. Honako egitate hauek arau-hauste arintzat joko dira:

a) Norberaren nahiz taldearen higienerako, edo janzteko zein elikatzeko beharrezkoak diren ohitura eta ordutegiak ez betetzea, edo barnetegiko funtzionamendu-arauetan ezarritako beste ohitura batzuk ez betetzea, betiere barnetegiko bizitzari eta elkarbizitza ordenatuari nahasterik eragiten ez bazaio.

b) Barnetegian lan egiten duten langileek beren eginkizunak betetzen ari direla emandako aginduek ez betetzea, barnetegiko bizimoduari eta elkarbizitza ordenatuari nahasterik eragiten gabe.

c) Barnetegiko edozein pertsonari zor zaion errespetu eta begiramenaren aurka arinki huts egitea.

d) Barnetegiko funtzionamendu-arauek debekatzen ez dituzten gauzak edo gaiak gehiegikeriaz edo era kaltegarrian erabiltzea.

e) Barnetegiak arau-hausle adingabeen eskura jartzen dituen leku, material eta gauzei edo beste pertsona batzuen ondasunei kalte eragitea ardurarik edo arretarik ezaz.

f) Barneratutako arau-hausle adingabearen betebeharrak eta eginbideak ez betetzea dakarren beste edozein egite edo ez-egite, barnetegiko bizitzari edo elkarbizitza ordenatuari nahastea eragiten badio eta larritzat edo oso larritzat jotzen ez bada.

5. Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 60. artikuluan aurreikusitako zehapenak baino ezingo dira ezarri.

6. Proporzionaltasuna eta malgutasuna kontuan hartu beharreko irizpide orokor izanen dira zehapenak ezartzerakoan.

Bestalde, ezar daitekeen zehapena mailakatzeko irizpideak hauek izanen dira:

a) Nerabearen adina, ezaugarriak eta huts egiteko orduan zer egoeratan dagoen.

b) Bakoitzari dagokion hezkuntza-egitasmoa.

c) Egintzaren larritasun objektiboa.

d) Berrerortzea; berrerortzea dagoela joko da arau-haustearen erantzukizuna duen pertsonak urte baten barruan izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egiten dituenean.

7.- Baldin eta, bitartekaritza-prozedura baten barruan, iraindutako pertsonari barkamena eskatzen bazaio, ondasunak itzultzen badira edo kalteak konpontzen badira, zehapenaren aplikazioa bertan behera utzi ahal izanen da, betiere zeha-

tzekoa den jokabide horretan berrerortzea gertatzen ez bada.

8.- Diziplina-prozedurak, betiere, bermatu eginen ditu adingabearen eskubide hauek:

- a) Entzuna izateko eskubidea.
- b) Frogak aurkezteko eskubidea.
- c) Berak izendatutako pertsona baten aholkua hartzeko eskubidea.

d) Barneratze-neurria ezarri zuen adingabeen epaileari, errekurtsioa aurkezteko eskubidea, Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarriaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 60.7 artikulua aurreikusitakoaren arabera.

9. Diziplina anitzetako heziketa-taldea osatzen duten profesionalek edozeinen esku egongo da hutsegite arinei dagozkien zigorrak ezartzea, eta hutsegite larriei eta oso larriei dagozkien zehapenen aplikazioa barnetegiaren zuzendariaren edo arduradunaren esku egongo da. Xedapen hau gorabehera, badira zuhurtziazko neurri batzuk berehala hartu beharrekoak, pertsonen edo gauzen kalterik ez eragitearren.

10. Justiziaren arloan eskumena duen departamentuak adingabeen epaileari eta fiskaltzari jakinarazi beharko die ezarritako edozein zehapen, hutsegite larri bati edo oso larri bati dagokionean.

11. Erregelamendu bidez pizgarri-sistema egoki bat ezarri ahal izanen da arau-hausleen jokabide ona eta arduratsua sustatzeko.

V. TITULUA Erakunde antolamendua

I. KAPITULUA

Haurren eta nerabeen defentsarako erakundea

96. artikulua.- Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundearen izaera juridikoa.

1. Artikulu honen bidez, Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundea sortzen da, haurren eta nerabeen eskubideak mehatxatzen edo urratzen diren egoeren aurkako defentsa-organo gisa, eta Nafarroako Foru Komunitateko esparruan gizartea defentsa horretaz ohartarazteko eta gizartean haren aldeko jarrera sustatzeko.

2. Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundea, bere eginkizunak betetzeko orduan, erabat beregaina izanen da administratiboki. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari egongo da atxikita, baina departamentu horretako zati izan gabe.

97. artikulua.- Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundearen eginkizunak.

1.- Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundeak objektibotasunez eta alderdikieririk gabe beteko ditu bere eginkizunak, eta berehala esku hartuko du haurren eta nerabeen eskubideak mehatxatuta dauden edo urratu diren egoeretan.

2.- Eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Haurren eta nerabeen eskubideak mehatxatuta daudenean edo urratu direnean egiten zaizkion kexak jasotzea, eta kexa horien lehenbiziko ebaluazio bat egitea. Horretarako, defentsarako erakundeak epe bat hartuko du, alde aurreko informazio edo egiaztapenerako, kasuaren ezagutza eta ingurumariak ezagutzeko eta kexa tramitatzea komeni den edo ez erabakitzeke.

b) Haurren eta nerabeen eskubideak mehatxatuta daudenean edo urratu direnean egiten diren kexak eskumena duten erakundeei eta organoei igortzea, hala badagokio.

c) Erakundearen arteko negoziatzeak eta elkarlanerako bideak irekitzea, eta gomendioak egitea, haurren eta nerabeen eskubideak mehatxatu edo urratzen direneko egoerak edo ohiturak zuzentzeko. Gomendio horien betetze-mailaren jarraipena egiten da.

d) Haurren eta nerabeen eskubideez ohartzatzea eta gizartean eskubide horiek sustatzea.

e) Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko zabalkundea sustatzea eta eskubide horien erabileraren bultzatzea.

f) Haurrei eta nerabeei aholku eta laguntza ematea eskubideak mehatxatzen edo urratzen direneko egoera eta ohituren aurrean.

g) Elkartegintza indartzea eta haurren eta nerabeen eskubideen alde lan egiten duten elkar-teak eta erakundeak zuzenean sustatzea.

h) Arartekoarekiko koordinatzeak tresnak proposatzea, eta haurren eta nerabeen arloan eskumena duten beste erakunde eta organo batzuekiko koordinatzeak tresnak ere bai.

i) Haurren eta nerabeen babesari buruzko araudia erakundearen artean eta gizartean zein neurritan betetzen den eta araudi hori zenbateraino den egokia aztertu eta ebaluatzea. Horretarako, urtero txosten bat egiten du, egindako lanak azaltzeko, eta txosten hori Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko dio.

j) Haurren eta nerabeen eskubideen defentsa bizkortzeko eta haiei ematen zaien zerbitzua

hobetzeko behar diren berrikuntzak proposatzea legeetan, administrazioan eta prozeduretan.

k) Lege honetan jasotako beste edozein eginkizun edo bere helburuak betetzeko izendatzen zaion oro.

3. Kexaren baten gainean epai irmoa eman bada edo kexa horri buruz epaileak ebazpena eman behar badu, defentsarako erakundeak ez du kexa hori aztertuko. Era berean, bertan behera utziko du ekindako lana, baldin eta, ekin ondoren, interesa duen pertsonaren batek auzi-eskea edo errekurtsioa aurkeztu badie epaitegiei edo auzitegiei.

98. artikulua.- Antolaketa.

1.- Haurren edo Nerabeen defendatzailea da defentsarako erakundearen titularra.

2. Haurren edo Nerabeen defendatzailea Nafarroako Parlamentuak proposatuta izendatuko da, foru legez; lau urterako izanen da izendapena, eta badago pertsona bera izendatzea iraupen bereko aldi baterako. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak berretsi beharko du, gehiengo osoz.

Haurren eta Nerabeen defendatzailearekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei, eta arreta ere berek aukeratutako hizkuntza ofizialean jasotzekoa. Hori dela eta, behar diren neurriak jarriko dira eskubide horren erabilera bermatzeko.

3.- Haurren eta Nerabeen defendatzailearen kargua bateraezina da beste hauekin:

- a) Hautetsi-kargu ororekin.
- b) Izendapen askeko kargu politiko ororekin.
- c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresaburu-erakunde bateko kide izatearekin.
- d) Elkarte edo fundazio batean zuzendaritza-eginkizunak betetzearekin.
- e) Epaille edo fiskal lanbideetan aritzearekin.
- f) Lan, merkataritza edo lanbide jarduera ororekin.

4. Haurren edo Nerabeen defendatzaileak kargua utzi behar izateko arrazoiak dira:

- a) Uko egitea.
- b) Izendapenari dagokion aldia amaitzea.
- c) Heriotza edo gerora gertatutako ezgaitasuna.
- d) Karguko betebeharren ez-betetze larria.

e) Doloz egindako delituagatik epai irmoaren bidez kondenatua izatea.

f) Gerora gertatutako bateraezintasuna.

5. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada eta gaia aztertu ondoren ikusten bada kargua uzteko arrazoiak badaudela, foru legez gauzatuko da kargu-uztea.

6. Kargu-uztea 4b) idatz-zatian ezarritako arrazoiengatik gertatzen denean, Haurren eta Nerabeen defendatzaileak bere eginkizunak betetzen jarraituko du defendatzaile berriaren izendapena ondorioak eragiten hasi arte.

7. Haurren eta Nerabeen defendatzaileak konfiantzazko aholkulariak izendatu ahal izanen ditu bere eginkizunak betetzeko, betiere erakunde horren erregelamenduarekin bat etorriz eta aurrekontuan ezarritako muga barruan. Aholkulari horiek Nafarroako Gobernuaren behin-behineko langileen araubide bera izanen dute.

8. Gainerako langileei, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen araubide juridikoa aplikatuko zaie.

9. Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epearen barruan Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundearen antolaketa eta funtzionamendurako erregelamendua egin eta onartuko da.

99. artikulua.- Aurrekontua.

Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontu Orokorretan zehaztu beharko dira urtero-urtero Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundearen baliabide ekonomikoak.

II. KAPITULUA

Haurren eta nerabeen behatokia

100. artikulua.- Haurren eta Nerabeen Behatokia sortzea.

1. Nafarroako Gobernuak Haurren eta Nerabeen Behatokia sortuko du, gizarte-gaietan eskumena duen departamentuari atxikita, eta haren eginkizuna izanen da Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren haur eta nerabeen errealitatea eta lege hau aplikatzeko garatzen diren politiken eragina aztertzea etengabe.

2. Behatokiaren egitura erregelamendu bidez zehaztuko da.

101. artikulua.- Eginkizunak.

Haurren eta Nerabeen Behatokiak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Haurren eta nerabeen bizi-baldintzak eta beharrianak aztertzea eta eskumena duten admi-

nistrazioei bizi-baldintza horiek hobetzeko jarduketa eta programak proposatzea.

b) Haurrak eta nerabeak zaintzeari dagokionez administrazioak egindako jarduketak ebaluatzea.

c) Eskatzen duten administrazio publikoei aholku ematea arriskuan edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden adingabeak babesteko eta adin penalik ez duten arau-hausleei zerbitzu emateko jarduketaren inguruan.

d) Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluaren batzorde iraunkor sektoriala aldiro-aldiro informatzea, kontseiluaren barruan egindako txostenak eta azterlanak igorri, eta batzorde horrek eskatzen duenean aholku ematea.

e) Ordenamendu juridikoa haur eta nerabeen beharrezanetara egokituta dagoen edo ez informatzea eskumena duten administrazioei, eta araudi berriak egitea edo lehendik daudenak aldatzeko proposamenak egitea.

f) Behatokia atxikita dagoen departamentuak agintzen dizkion gainerako eginkizun guztiak.

III. KAPITULUA

Haurrak eta nerabeak zaintzeko batzorde iraunkor sektoriala

102. artikulua.- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala sortzea.

1. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluaren barruan Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala sortuko da, haurrak eta nerabeak zaintzeko zeregina beren gain hartuta duten entitate publiko eta gizarte-eragileek parte hartzeko foro berezi gisa, batez ere babesgabetasunean dauden haur eta nerabeen arreta hartzeko eta arau-hausle adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta eskaintzeko arloan diharduten entitate publiko eta gizarte-eragileentzat. Batzorde hau kontsulta eta aholkularitza organoa izanen da Nafarroako Gobernuak lege honek aipatzen dituen alderdien inguruan proposatu edo eman behar dituen lege-egitasmo, xedapen orokor eta erregelamenduetarako.

2. Batzorde honen osaera eta eginkizunak erregelamendu bidez ezarriko dira.

VI. TITULUA

Eskumenak

103. artikulua.- Eskumen orokorrak.

Lege hau aplikatzeko egin beharreko jarduketa publikoak eta arau-garapenak Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek eginen dituzte, bakoitzak

bere eskumenen arabera, osasunean, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, kulturaren, hirigintzan, herritarren segurtasunean, barne-merkataritzan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsan, publizitatean edo beste arlo batzuetan.

104. artikulua.- Arriskuan edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko eskumenak.

1. Nafarroako Gobernuak, gizarte-gaietan eskumena duen departamentuaren bitartez, arriskuan edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeak babesteari dagokionez lege hau garatu eta aplikatzeko, eskumen hauek izanen dituzte, lege-ekimenaz eta erregelamenduak egiteko ahalaz gain:

a) Haurrentzako eta nerabeentzako jarduketaren eta gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra.

b) Adingabeak babesteko eginkizuna duten administrazio publikoen organoen eta arlo horretan itunpean aritzen diren ekimen pribatuko sektoreen jarduketak koordinatzea, arlo horretan politika homoginoa izan dadila bermatzearen.

c) Nazioarteko adopzioa sustatzea, nazioarteko adopzioaren arloan aritzen diren erakunde laguntzaileen egiaztapena egitea eta espedienteak tramitatzea eta arlo horretako jarduketak koordinatzea. Horretarako, 85. artikuluan aipatzen den Nazioarteko Adopziorako Batzorde Teknikoaren aholkua izanen du.

d) Arriskuan edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko zereginean aritzen diren zerbitzuek eta zentroek bitarteko material eta funtzionalen nahiz giza baliabideen aldetik bete behar dituzten eskakizunak arautzea.

e) Arriskuan eta geriza-gabetasuneko egoeran dauden haurrak eta nerabeak babesteko arloko jarduketak ebaluatzea, Haurren eta Nerabeen Behatokiaren bitartez.

f) Iritzi publikoa sentsibilizatzea zabalkunde-kanpainak antolatuz eta komunitatean haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko neurri positiboak sustatuz.

2. Toki entitateek, eskumena duten lurraldean, honako eginkizun hauek izanen dituzte lege hau aplikatzeko:

a) Babesgabetasun larrian edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko eginkizunean III. tituluaren aurreikusita dauden jarduketak gauzatzea.

b) Babesgabetasun larrian edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeak zain-

tzeko beharrezko irizten zaien zerbitzu eta zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzea.

c) Aurreko letran aipatutako zentro eta zerbitzu horiek irekitzeko baimena ematea, horiek erregistratzea, homologatzea, ikuskatzea eta ebaluatzea.

d) Harrera eta adopzio eskaerak egiten dituzten pertsoneri eta, hala badagokio, haien familiei prestakuntza ematea eta beraien jarraipena egitea.

e) Iritzi publikoa sentsibilizatzea zabalkunde-kanpainak antolatuz eta haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko neurri positiboak sustatuz.

105. artikulua.- Arau-hausle adingabeei arreta eskaintzeko eginkizunaren arloko eskumenak.

1. Nafarroako Gobernuak, justizia-gaietan eskumena duen departamentuaren bitartez, arau-hausle adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta eskaintzeari dagokionez lege hau garatu eta aplikatzeko, eskumen hauek izanen ditu, lege-ekimenaz eta erregelamenduak egiteko ahalaz gain:

a) Adingabeen epaileek arau-hausle adingabeei buruz hartutako neurriak betearaztea.

b) Epaileak arau-hausle adingabeei ezarritako neurriak betearazteko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak jartzea.

c) Adin penalik ez duten arau-hausleei gizarte eta hezkuntza arreta ematen aritzen diren zerbitzu eta zentroek baliabide materialen, baliabide funtzionalen eta giza baliabideen aldetik bete behar dituzten eskakizunak arautzea.

d) Epaileak arau-hausle adingabeei ezarritako neurriak betearazteko zerbitzu eta zentroak sortu, zaindu eta kudeatzea, eta, orobat, ikuskatzea.

e) Epaileak ezarritako neurriak aplikatzeko 88. artikuluan aipatzen direnak bezalako hitzarmen edo akordioak dituzten zerbitzu eta zentroak irekitzeko baimena ematea, horiek erregistratzea eta homologatzea, ikuskatzea eta ebaluatzea.

f) Epaileak arau-hausle adingabeei ezarritako neurrien betearazpenaren eta jarraipenaren berri ematea fiskaltzari eta adingabeen epaileari; orobat epaitegiz kanpoko neurriei dagokienez.

g) Arlo honetan jarduteko programak planifikatu, landu eta ebaluatzea.

h) Arau-hausle adingabeekin lan egiten duten polizia-agintariei prestakuntza emateko aholkularitza teknikoak ematea.

i) Adingabeen epaitegiekin eta fiskalekin eta arau-hausle adingabeei arreta eskaintzen esku

hartzen duten gainerako erakundeekin egin beharreko koordinazioa.

j) Talde psikosozial espezializatuen jarduketa koordinatzea adingabeen epaileei eta fiskalei laguntza ematen betetzen duten eginkizunetan, 5/2000 Legeak ezarritako eran.

k) Aurreko letretan aipatutako talde psikosozialen osaera eta jardunbidea arautzea.

l) Adin penalik ez duten arau-hausleei arreta eskaintzeko esparruan esku hartzeko programak ebaluatzea.

m) Iritzi publikoa zabalkunde-kanpainak antolatuz sentsibilizatzea.

2.- Toki entitateek, eskumena duten lurraldean, adin penalik ez duten arau-hausleei gizarte eta hezkuntza arreta emateari dagokionez lege hau aplikatze aldera, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean aritu beharra daukate epaileek ezarritako neurriak aplikatzeko, baldin eta neurri horiek toki entitateen komunitate-esparruan garatu behar badira.

VII. TITULUA

Gizarte-ekimena sustatzea

106. artikulua.- Gizarte-ekimena sustatzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, gizarte-ekimena sustatuko dute haurrei eta nerabeei arreta eskaintzeko jardueretan, eta eginkizun hauek bete ahal izanen dituzte, besteak beste:

a) Haurren eta nerabeen eskubideen erabilera ezagutuak eta bermatuak izan daitezen laguntzen duten jardueretarako ekimenak sustatzea.

b) Haurrei eta nerabeei arreta emateko arloan aholku ematen aritzen diren organoetan parte hartzeko bideak jartzea gizarte-ekimenari.

c) Haurrei eta nerabeei arreta emateko arloan jarduten diren erakunde pribatuei aholku ematea.

d) Haurren eta nerabeen elkarrekin eraketa sustatzea, haien parte-hartzea eta gizarteratzea eragitearren.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, gizarte-ekimena sustatzearen, diru-laguntzak eman ahal izanen dituzte, edo lankidetzaz hitzarmenak egin haurren eta nerabeen eskubideak babesten eta sustatzen dituzten erakundeekin, arriskuan edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haurrak eta nerabeak babesten dituztenekin edo arau-hausle adingabeei arreta ematen aritzen direnekin.

3. Administrazio publikoek, erakunde pribatuekin lankidetzarako egin dituzten akordioen esparruan, zaindu eginen dute –beren eskumenen esparruan eta baimena emateko, ikuskatzeko eta homologatzeko eginkizunetan dihardutela– erakunde laguntzaileek egiten dituzten esku-hartzeak egokiak izan daitezen, eta haurrei eta nerabeei arreta ematen aritzen diren langileak, profesionalak zein boluntarioak, egokiak izan daitezen betetzen dituzten eginkizun horietarako. Era berean, zaindu eginen dute erakunde laguntzaileek aplikatzen dituzten hautaketa eta prestakuntza prozeduratan egokitasun hori berma dadin eta profesional horien lan-baldintzak egokiak izan daitezen.

107. artikulua.- Familia-integraziorako erakunde laguntzaileak.

1.- Familia integraziorako erakunde laguntzaile dira arriskuan edo geriza-gabetasuneko egoeran dauden haurrak eta nerabeak babesteko esparruan aritzen direnak.

2.- Familia-integraziorako erakunde laguntzaileak administrazio publikoen erakunde laguntzaile izateko gaituak izan daitezke, baldin eta baimen, erregistro, ikuskaritza eta homologazioari buruz erregelamenduak ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.

3.- Familia-integrazioko erakunde laguntzaileak honako eginkizun hauetarako gaitu ahal izanen dira:

a) Haurren eta nerabeen zaintza beren gain hartzeko.

b) Haurrak eta nerabeak familietan hartzeko edo adoptatzeko prozesuetan bitartekari aritzeko.

c) Haurrak eta nerabeak babesteko prozeduratan eskumena duten administrazio publikoei aholkularitza teknikoa eskaintzeko.

d) Guraso-eginkizunetarako gaitasunak balortzeko eta guraso-eginkizunetarako gaitasunetan hezteko.

108. artikulua.- Nazioarteko adopziorako erakunde laguntzaileak.

1. Nazioarteko adopziorako erakunde laguntzaileak Nafarroako Gobernuak gaitzen ditu, haurrak eta nerabeak nazioarteko adopzioaren bitartez familia batean sartzearren bitartekaritza-zerbitzuak egiteko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak gaitu egin ditzake aurreko idatz-zatian aipatutako erakundeak bitartekaritza-eginkizunak betetzeko. Eginkizun horien artean sartuko dira nazioarteko adopzioan interesa dutenei informa-

zioa eta aholkua ematea; eskumena duten agintarien aurrean, hala Espainiako Estatuko enola atzerrikoen aurrean, adopzio-espeditenteak tramitatzen esku hartzea, eta adopzio-eskaera egiten dutenei Espainiako Estatuan eta atzerrian egin behar dituzten tramiteetan eta kudeaketetan aholku eman eta laguntzea, erregelamenduz ezarritakoaren arabera.

3.- Dagokion erregistroan izena emanda duten eta irabaziak egiteko asmorik ez duten erakundeak gaitu ahal izanen dira, betiere erregelamenduz ezarritakoari jarraituz. Horretarako betekizun hauek bete beharko dituzte: haien xedea, estatutuetan idatzia, adingabeak babestea izatea; beren gain utzitako eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta diziplina anitzetako taldeak edukitzea, eta zuzendaritza-eta administrazio-karguetan beren zintotasunagatik eta nazioarteko adopzioaren arloan duten prestakuntzarengatik kualifikatuak diren pertsonak edukitzea.

4.- Nafarroako Gobernuak, gizarte-gaietan eskumena duen departamentuaren bitartez, nazioarteko adopzioaren arloko erakunde laguntzaileetara jotzen duten pertsonen aurkeztutako erreklamazioen erregistro bat sortuko du, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 25.4 artikuluan ezarritakoaren arabera (Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Legea da hori, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen).

109. artikulua.- Arau-hausle adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak honako eginkizun hauetarako gaitzen ditu arau-hausle adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak: adingabeen epaileak ezarritako neurriak aplikatzeko eginkizunean elkarlanean aritzeko, 88. artikuluan ezarritako eran, eta kalteak konpontzeko eta biktimarekin adiskidetzeko alde aurreko neurriak aplikatzeko eginkizunean elkarlanean aritzeko, non eta eginkizun horiek, legeak ezarritakoari jarraituz, ez dituzten nahitaez administrazio publikoetako langileek bete behar.

2. Lehen idatz-zatian aipatzen diren erakunde laguntzaileek, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eginkizun horietarako gaitu ahal dituzten, erregelamenduak baimenari, erregistroari, ikuskaritzari eta homologazioari buruz ezarritako eskakizunak bete behar dituzte.

3. Justizia arloan eskumena duen departamentuak erregistro bat sortu eta arautuko du arau-

hausle adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta ematen aritzen diren erakunde laguntzaileentzat, eta erregistro horretan egon beharko dira inskribatuta administrazio horrek gaitu dituen era horretako erakunde guztiak.

VIII. TITULUA

Arau hauste eta zehapen administratiboak

I. KAPITULUA

Arau-hausteak

110. artikulua.- Arau-hauste administratiboak.

1.- Lege honen aurkako arau-hauste administratibotzat joko dira kapitulu honetan tipifikatzen eta zehatzen diren egite eta ez-egiteak.

2.- Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, babestutako ondasun juridikoen garrantziaren arabera eta zehaztutako jokabideek eragiten duten kaltearen edo kalte-arriskuaren arabera.

111. artikulua.- Arau-hauste arinak.

Jokabide hauek arau-hauste arinak izanen dira:

a) Haurren eta nerabeen eskubideen esparruan aplikatzekoa den araudia ez betetzea, betiere haiei kalte larrikerik eragiten ez bazaie.

b) Nahitaez eskolatu beharrekoa den haur edo nerabearentzat eskola-plazarik ez kudeatzea edo hura eskolara joan dadin eragozte, edo joan dadin ez ahalegintzea, horretarako arrazoirik ez dagoenean; betiere, haurrei edo nerabeei aintzat hartzeko moduko kalterik eragiten ez bazaie.

c) Haurrei eta nerabeei arreta emateko zentro edo zerbitzuak sortzeko arauak edo horien funtzionamendu-arauak ez betetzea, betiere han zaintzen dituzten haurrei edo nerabeei kalte larrikerik eragiten ez bazaie.

d) Haurren eta nerabeen beharrezkoen dagozkien tratamendua eta arreta ez eskaintzea, betiere haiei aintzat hartzeko moduko kalterik eragiten ez bazaie.

112. artikulua.- Arau-hauste larriak.

Arau-hauste larriak izanen dira jokabide hauek:

a) Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.

b) Haurren eta nerabeen eskubideen esparruan aplikatzekoa den araudia ez betetzea, baldin eta horrela haiei kalte larrikerik eragiten bazaizkie.

c) Haurrei eta nerabeei arreta emateko zentro edo zerbitzuak sortzeko arauak edo horien funtzio-

onamendu-arauak ez betetzea, baldin eta han zaintzen diren haurrei edo nerabeei kalte larrikerik eragiten bazaizkie.

d) Zentroetan edo zerbitzuetan haurren eta nerabeen beharrezkoen dagozkien tratamendua eta arreta ez eskaintzea, betiere haiei aintzat hartzeko moduko kalteak eragiten bazaizkie.

e) Eskumena duen administrazio publikoari edo beste agintaritzak publikoaren bati ez jakinaraztea haur edo nerabe bat arriskuan edo gerizagabetasuneko egoeran egon daitekeela, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz (Adingabearen gaineko babes juridikoari buruzko Legea da hori, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatu zituen).

f) Bertan behera utzita, galduta edo etxetik ihes eginda dagoen haurra edo nerabea ez uztea eskumena duen administrazio publikoaren edo beste agintari publiko baten esku, edo, hala badagokio, haren familiaren esku, hogeita lau orduko epearen barruan.

g) Babesa emateko eskumena duen administrazio publikoak hartutako erabakiak ez betetzea.

h) Osasun-zentroak edo osasun arloko langileak jaio berriaren nortasuna zehazteko daukaten obligazioa ez betetzea, indarrean dagoen araudia- ren arabera.

i) Haurrei edo nerabeei arreta emateko zentroak edo zerbitzuak irekitzea horien titular diren erakundeek, lege honetan ezarritako administrazio-baimenak eskuratu gabe, edo zentro edo zerbitzu horiek ixtea, alde aurretik jakinarazi gabe.

j) Zentro edo zerbitzu mota bakoitzerako ezarritako dagoen edo ezar daitezkeen berariazko araudia ez betetzea zentro edo zerbitzu horien titular diren erakundeek.

k) Haur eta nerabeak babesten aritzen diren profesionalak ez betetzea haurren eta nerabeen datu pertsonalak isilpean eta zabaldu gabe edukitzeko betebeharra.

l) Zentroen edo zerbitzuen xedearekin bat datozen eta haurren eta nerabeen beharrezkoen dagozkien tratamendua eta arreta ez ematea, horrela aski kalte handiak eragiten bazaizkie pertsona horiei.

m) Harrera-egoitzetan eta barnetegietan, horien titularrek, bertako langileek edo laguntzaileek diziplina-neurriak eta haur eta nerabeen eskubideak murrizten dituzten neurriak egoitza eta barnetegietan horien araudian ezarritakoa gaindituz ezartzea.

n) Irabaziak egiteko asmorik gabekotzat jotako zentro edo zerbitzuetan irabaziak egiteko jokabideak gauzatzea edo babestea.

ñ) Zerbitzuak edo zentroak ikuskatu eta ebaluatu behar direnean edo horien jarraipena egin behar denean, zentro eta zerbitzu horietako titularrak eta langileek eginkizun horiek eragozte, oztopatzea edo zailtzea, zeinahi modutan.

o) Zentro eta zerbitzuetarako laguntza eta diru-laguntza publikoak esleitu ziren helburuez bestetarako erabiltzea.

p) Zentroen titularrek edo zentro horietako langileek diru-kopuruak eskatzea emandako zerbitzuen prezio edo ordain gisa, administrazioak horretarako baimenik eman ez duenean.

q) Haur edo nerabe bat familian hartzea ondoren adoptatzeko asmoz, babesteko eginkizunaren arloan eskumena duen erakundeak esku hartu gabe.

113. artikulua.- Arau-hauste oso larriak.

Arau-hauste oso larriak izanen dira jokabide hauek:

a) Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.

b) Aurreko artikuluan zehaztutakoak, baldin eta jokabide horiekin kalte konponezina edo konponitzeko zaila eragiten bazaie haurren eta nerabeen eskubideei.

114. artikulua.- Berrerortzea.

Zehatzeko araubide honen ondorioetarako, berrerortzea izanen da arau-hausteen erantzule diren pertsonen urte baten barruan izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea eta ebazpen irmo batek hala gertatu dela adieraztea.

115. artikulua.- Erantzukizuna.

1. Arau-hausteen administrazio-erantzukizuna arau-haustea egiten duen pertsona fisiko edo juridikoari egotziko zaio, eta, solidarioki, jagoteko betebeharra hautsi duelako erantzule den erakunde, zentro edo zerbitzuaren titularrari halako hausterik izan bada.

2. Administrazio-erantzukizuna dakarten egintzak Zigor Kodearen arabera delitu eta faltatzat tipifikatu ahal badira, administrazio-zehapenaren espedientearen tramitazioa bertan behera utzi beharko da harik eta epaileak dagokion ebazpena eman arte.

3.- Baldin eta administrazio-zehapenaren prozeduratik ateratzen bada gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ere badutela administrazio-erantzukizuna, agintaritza zehatzaileak fiskaltzari jakinarazi

beharko dio, haiei erantzukizun zibilak balegozkie ere.

II. KAPITULUA **Zehapenak**

116. artikulua.- Zehapen motak.

Aurreko artikuluetako arau-hauste horiengatik honako zehapen hauetako bat edo batzuk ezarriko dira:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna.

c) Diru-laguntzak kentzea edo lankidetzahitzarmena deuseztatzea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoetako zeinahi motatako laguntza jasotzeko debekua urtebete eta bost urte arteko epearen barruan.

e) Zentro edo zerbitzu osoa edo haren zati bat aldi baterako ixtea (bi urterako gehienez).

f) Zentro edo zerbitzu osoa edo haren zati bat behin betiko ixtea.

g) Arau-haustea egin duen pertsona fisikoa edo zentro edo zerbitzuaren titular den pertsona fisikoa edo juridikoa aldi baterako ezgaitzea (gehienez ere bost urterako); haurrei eta nerabeei arreta ematen aritzen diren zentro edo zerbitzuen titular izateko eta/edo haurrei eta nerabeei arreta eskaintzeko lanbideetan aritzeko ezgaitzea, hain zuzen.

h) Arau-haustea egin duen pertsona fisikoa edo zentro edo zerbitzuaren titular den pertsona fisikoa edo juridikoa aldi baterako ezgaitzea (sei eta hogeitun urte arteko eperako); haurrei eta nerabeei arreta ematen aritzen diren zentro edo zerbitzuen titular izateko eta/edo haurrei eta nerabeei arreta eskaintzeko lanbideetan aritzeko ezgaitzea, hain zuzen.

117. artikulua.- Zehapenen mailaketa.

Isunen zenbatekoa eta gainerako zehapenen aplikazioa nolakoa izanen den zehazteko, eskumena duen erakundeak honako mailakatze-irizpide hauei jarraituko die:

a) Eragindako kalte fisikoak, moralak eta materialak.

b) Eragindako arriskua.

c) Erruduntasun-maila eta asmoaren zenbaterainokoa.

d) Arau-hauslea berrerori izana.

e) Zerbitzu-mota.

118. artikulua.- Zehapenak aplikatzea.

1.- Zehapenak honela aplikatuko dira:

a) Arau-hauste arinak ohartarazpenarekin eta/edo 3.000 eurorainoko isunarekin zehatuko dira.

b) Arau-hauste larriak 3.001 eta 30.000 euro bitarteko isunekin zehatuko dira.

c) Arau-hauste oso larriak 30.001 eta 600.000 euro bitarteko isunekin zehatuko dira.

2.- Aurreko idatz-zatiaren arabera ezar daitezkeen isunak gorabehera, hutsegite larriak edo oso larriak egiten direnean, arau-haustearen ingurumariak zeintzuk diren kontuan hartuta, eskumena duen agintaritzak zehatzaileak honako erabaki hauek hartu ahal izanen ditu, isun horiek ezartzeko gain:

a) Diru-laguntzak kentzea edo lankidetzahitzarmena deuseztatzea.

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen zeinahi eratako diru-laguntza publikoak eskuratzeko debekua; arau-haustea larria bada, gehienez bi urteko eperako, eta oso larria bada, bi eta bost urte arteko eperako.

c) Zentro edo zerbitzu osoa edo haren zati bat gehienez urtebeterako ixtea, arau-haustea larria bada, eta bi urterainoko eperako ixtea edo behin betiko ixtea –zentro edo zerbitzu osoa edo haren zati bat– arau-haustea oso larria bada.

d) Arau-haustea larria bada, arau-haustea egin duen pertsona fisikoa eta/edo zentro edo zerbitzuaren titular den pertsona fisikoa edo juridikoa aldi baterako ezgaitzea (gehienez ere bost urterako); haurrei eta nerabeei arreta ematen aritzen diren zentro edo zerbitzuen titular izateko eta/edo haurrei eta nerabeei arreta eskaintzeko lanbideetan aritzeko ezgaitzea, hain zuzen.

e) Arau-haustea oso larria bada, arau-haustea egin duen pertsona fisikoa eta/edo zentro edo zerbitzuaren titular den pertsona fisikoa edo juridikoa aldi baterako ezgaitzea (sei eta hogeitun urte arteko eperako); haurrei eta nerabeei arreta ematen aritzen diren zentro edo zerbitzuen titular izateko eta/edo haurrei eta nerabeei arreta eskaintzeko lanbideetan aritzeko ezgaitzea, hain zuzen.

119. artikulua.- Organo zehatzaileak.

1.- Toki entitateek zehapenak ezartzeko ahala izanen dute haien eskumenak direnetan, hain zuzen lege honek esleitutako gaitan. Zehapena

zein organok ezarri behar duen erakunde horien berorien araudiaren arabera zehaztuko da.

2. Nafarroako Gobernuak zehapenak ezartzeko ahala izanen du lege honek esleitutako eskumenen gaitan; osasunean, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, kulturalan, hirigintzan, herritarren segurtasunean, barne-merkataritzan, kontsumitzaileen defentsan eta beste arlo batzuetan eskumena duten departamentuek horretarako izendatzen dituzten organoei egokituko zaie ahal hori erabiltzea, arau-haustea haien eskumenaren jardute-eremuan gertatzen denean, betiere eskumena duten departamentu horien egitura organikoaren dekretuetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa.- Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epearen barruan, Haurren eta Nerabeen Defentsarako Erakundearen antolaketa eta funtzionamendurako erregelamendua landu eta onartuko da.

Bigarrena.- Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epearen barruan, Haurren eta Nerabeen Behatokiaren antolaketa eta funtzionamendurako erregelamendua landu eta onartuko da.

Hirugarrena.- Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epearen barruan, arau-haustea adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileen erregistroaren antolaketa eta funtzionamendurako erregelamendua egin eta onartuko da.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa.- Proba gisako zerbitzuak

Haurren eta nerabeen interesaren alde, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek konponbide berritzaileak ekar ditzaketen proba gisako ekimenetarako laguntza eman ahal izanen dute diru eta teknika baliabideen bitartez, betiere konponbide horiek lege honetan ezarritako helburuekin bat badatoz eta lege honetan aurreikusitako kasu bakoitzerako ezarritako eskubide-murrizketak gainditzen ez badituzte.

Proba gisako zerbitzu horientzat baimenak eman ahal izanen ditu eskumena duen administrazioak, betiere salbuespen gisa, eta gehienez ere bi urterako. Epe horren buruan, ebaluazio kualitatibo bat egin ondoren uste bada horrela garatutako laguntza-mota aukera egokia eta bideragarria dela, laguntza-mota horri dagozkion eskakizun materialak eta funtzionalak arautu beharko dira. Ez bada hori uste, zerbitzu horrek galdu egingen du baimena.

Bigarrena.- Isunen zenbatekoak eguneratzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio lege honetako 117. artikuluan ezarritako isun-zenbatekoak egunera ditzan.

Hirugarrena.- Baliabideak.

Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 780. artikuluan ezarritakoaren arabera, adingabeak babesteko arloan emandako administrazio-ebazpenen aurka auzibide zibilean jotzeko ez da beharrezkoa izanen administrazio-bidean alde zuzeneko erreklamaziorik aurkeztea.

Laugarrena.- Haurren eta Nerabeen defendatzailea izendatzea

Lege hau indarrean sartu eta ondorengo hamabi hilabeteetan, Legebiltzarraren Osoko Bilkurak Haurren eta Nerabeen defendatzailearen izendapena berretsiko du. Izendapena foru legez eginen da.

Bosgarrena.- Haurren eta nerabeen defentsarako figuren arteko kolisioa

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko Foru Legea eraberritzearen ondorioz Haurren eta Nerabeen defendatzailearen eginkizun eta eskumenen antzekoak dituen ondoko kargu bat sortzen bada erakunde horretan, dagozkion aldaketak egin beharko dira lege honen V. tituluko I. kapituluan.

Seigarrena.- Zuzeneko ekintza zehaztea.

Zuzeneko ekintzat joko dira honako hauek guztiak: lege honetako 42. artikuluan aurreikusitako informazio eta orientazio zerbitzuari buruzko betearazpen-eskumenak; azken xedapenetako lehenbizikoan (49. artikulurekin lotuta) aurreikusten diren balorazio-tresnak eta aplikazio-protokoloak egitea eta onartzea, arriskua eta geriza-gabetasuneko egoera egon daitezkeen egoerentzako tresna eta protokoloak alegia, eta nazioarteko adopzioa sustatzeko ekintzak (nazioarteko adopzioan eta espedienteak tramitatzen aritzen diren erakunde laguntzaileen egiaztapena eta arlo horretako jarduketaren koordinazioa, lege honetako 104.c) artikuluan aurreikusitako jarduketena, hain zuzen).

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen da lege honetan xedatutakoaren aurka doan maila bereko edo apalagoako xedapen oro.

Azken xedapenak

Lehenengoa.- Arriskua edo geriza-gabetasuneko egoerentzako balorazio-tresnak eta aplikazio-protokoloak egin eta onartzea.

Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epearen barruan, oinarritzko tresna bat egin eta onartuko dute, babesgabetasun-egoeren larritasuna zehazteko eta egoera horiek arrisku arin, ertain edo larriko egoera diren edo geriza-gabetasuneko egoera diren zehazteko. Hori ez da eragozpen izanen foru-diputazio bakoitzak, haurrak eta nerabeak babesteko arloan eskumena duten erakundeak diren aldetik, tresna hori bere lurraldearen egoerari ondoen egokitzen zaion eran landu dezan. Era berean, administrazio-jarduketaren koordinazioa arintzeko balorazio eta komunikazio protokolo egoiak taxutuko dira.

Horren osagarri, eskumena duten administrazioek ebazpen-tresna egokiak landuko dituzte esparru horretan, babesgabetasun-egoera jakin batzuen larritasun-maila zehaztearen, baldin eta larritasun hori ezin izan bada zehaztu aurreko lerrokadan aipatzen diren tresna teknikoak erabili-ta.

Bigarrena.- Harrera-egoitzen eta barnetegien arauketa.

Nafarroako Gobernuak, lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epearen barruan, lege honetako 78 eta 91. artikuluetan hurrenez hurren aipatzen diren harrera-egoitzen eta barnetegien arauak egin eta onartuko ditu.

Harik eta haur eta nerabeei gizarte-laguntza ematen aritzen diren zerbitzu eta zentroak –lege honetan aurreikusitakoei– baimentzeko eta homologatzeko eskakizunak arautzen diren bitartean, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, hau erabaki dezakete: erakunde publikoekin edo pribatuekin sinatuta dauzkaten lankidetzahitzarmenek edo itunek indarra izaten jarrai dezatela.

Hirugarrena.- Arau-hausle adingabeei gizarte eta hezkuntza arreta emateko erakunde laguntzaileek bete beharreko eskakizunen arauketa.

Nafarroako Gobernuak, lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epearen barruan, adin penalik ez duten arau-hausleei gizarte eta hezkuntza arreta ematen aritzen diren erakunde laguntzaileak –lege honetako 109. artikuluen 2. idatz-zatian aipatzen direnak– baimendu, erregistratu, ikuskatu eta homologatzeko araudia eginen du.

Laugarrena.- Ordezko araubidea

Lege honetan aurreikusten ez diren egoeretan arau hauek aplikatuko dira:

a) Administrazio-prozedurari dagokionez, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridikoarena eta administrazio prozedura erkidearena.

b) Zehatzeko araubidearen arloan, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako arau substantibo eta proze-

durazkoak, foru erkidegoko legedian aurreikusita ez daudenetarako.

Bosgarrena.- Garapen-araua.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatzeko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko.

Seigarrena.- Indarra hartzea.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	